



Iturria: *Euskaldunak*, Nikolas Ormaetxea Orixe (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/O/OrixeEuskaldunak.htm>

EUSKALDUNAK

Nikolas Ormaetxea «Orixe»

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ZATOKIDA, GOI-ARNAS.
EIZU NEREKIN LAN,
ERRI BATEN ARNASA.
MAMITU DEZADAN.
GEROAK ESAN BEZA:
ERRI BAT IZAN ZAN;
EDO-TA ATS EMAIOGUN.
ONTAN IRAUN DEZAN.



I. PESTABURU

PRESTAMENAK

Naparroa zaarrean Larraunen Uitz,
belar goxo tartean eper-kabi iduri.
Belardien inguruz kabi orren esi
baso maitea dago, ikazkin-lantegi.

Lapurtarrek erakuts belar-sega-laneen;
Bizkaitik etor ziran txondarrak egosten;
giputz yaoak ere ba ziran zur-lantzen.
Bost ipui eder orok emen erain zuten!

Ain zuzen pestaburu dute Samigelez;
Garazi ta Mikel an elkar ziran maitez,
—dantza-lagun ziraden autu zorionez—,
an elkarrri zorroztu begiak aurrenez.

Pesta-aurren-egunetik maldar oro beera
ardi bana dakarte artzaiek etxera.
Artalde ez dunak ere egin du aukera
diruz, gauza-truke, edo lan-egin-aldera.

Etxe bana arategi bi bider urtean:
txerri-iltzekoan eta pesta-aurregunean.
Oro-begi, mutilla; katua, ataizean;
barea aitonak dizu erre burtziñean.

Ardi-loreak jaki dagoz atsaldeko;
esteki-zopak eta odola apaltzeko;
Peralta-ardo bizia barna birbizteko
ta arrautz-andoil xuriaz gogoz uztartzeko.

Zilintza ardi-larrua, artzaien estalki,
naiz edeak euritik legor-gordegarri,
naiz ta biribiltzeko ardo-olio-zagi,
eta naiz babesteko aurraren ipurdi.

Danbolin-soiñua da Amazkarren beera,
—Zubietako Pontxo urteroz errira—;
kabia aizatzen diton txorien antzera
etxe-barna garbituz aurrak atarira.

Mortxil-dindil gorriak arratz-apaingarri;
ume-sailla ala atzetik aren alaigarri;
otaamena artzekoan begiak nabari,
—gazta arroak ez ainbat zulorik ageri—.

Eskaleak ba datoz pestan usaiera
beleak sarraskira doazen antzera.
Erri artara dute bereizki joera,
an aurkitzen baitute iñon ainbat txera.

Etxe igesi dabilzan esku-kakoeri
ukatzen ditiete zintzur eta biri:
atean ez daroite esan «Agur Mari»;
garorik, sutilorik ez dute merezi.

Mutillek egur, esi, bizkarketak egin;
auzo-etxera doaz —zai dute danbolin—;
maai-gaiñean nor-geigo apaltzera arte ekin,
lana lanak, nekea dantzak dezan arin.

Artzaiak, malda-beera soiñua aditzean
poz-ikara goxo du suma biotzean.
Bildots eta ardi zaarrak an dakartza aurrean,
artantxu ta beorrak utzirik larrean.



«Apaltzera danbolin zeinetan ote da?»—
neskatxa, zaar ta gazte galdezka dabilta;
gizon umo ta andreak ba doaz ogera,
gatz-emaille gaisoa sutean utzita.

Odol-usaia artuta beiak dagi marru;
gau luzea labur da, argia zabaldu;
begi-itxi-edekian pesteguna degu...
oillaritea adituz nagiak uxatu.

*«Jondoni Mikel,
aizxa ezazu illuna,
Jainko-begiak
ekar zaigun eguna;
arekin aituna,
arekin amuna,
pozzez jausji bitez
diteño osasuna.*

*Neska, mutil, ume,
senar emazte,
alor, mendi, zelai,
beor, arkaazte,
pozaren zirrara
barnean bezate;
naigabe, nekeak,
zokora zaitezte».*

Basa-gizon, ikazkin, egurgille ta arotz,
zortzian bein Mezara kristau-egitekoz,
ta atsaldez erriari eragiteko poz;
gaur pestaan usaiera Martsan-beera datoz.

«Iturriaundi»-askan aurpegiak garbi,
—astean ezpaitute azalik ikuzi—;
ortzak era sakela bakar-bakar zuri;
gaiñerakoa ikatz, eskuak illinti.

Beien edatekoa lezateke loitu
ur-joanak zikiña bosatzen ezpalu.
Zapikoz aurpegia dutelaik txukatu,
errian sartzen dira irrintzi ta oi.

An dute bertsolari Salditseko Beltxa,
ziri-bertsuak sartzen ez guziz aketsa.
Artan ari izan balitz, ua bai Apeza!
makurrik sor baledi, usu zuzen leza.

Beñola gazteño bi bata besterena;
mutillak bidegabez eman etsipena;
Beltzak zorroztu zuen bere mii-eztena:
mutilla aizatu zizun Irati'n barrena.

An Zaldibiko Okerra —agoten belarri,
dindil aundiak, eta sudurra ere larri—:
apustu guzietan au dute epailari;
auziak onek ditu ebakitzen garbi.

Ezin-egonez an da Ezkurrako Makil,
—eskuetan beti du balanka biribil—;
biamon-atsaldean ba du norekin bil:
Antsorengan ba duke arerio bipil.

An da talogillea, Eratsungo Koxko,
kana t'erdi luze eskas, goiez-beiaz sendo,
—arbi-eraitekoan nonbait aziak jo...—,
talogiteko beintzat ba duke balio.

Mezara deika ari da leenengo dandara;
bideak bete dator arrotzez pestara;
ekuskarririk balitz agertzen plazara,
neskak ezin dukete utsegin dantzara.



Iparraldetik dator leitzar arranditsu;
 Arritetik Areso —betiko setatsu—;
 Betelutik Tartiko —pilotari maisu—;
 Arabaldetik, berriz, Azpiroz ta Albisu.

Lekunberri, Mugiro, Aldatz, egoatik,
 Etxarri ta Baraibar oiekin naasirik;
 Errazkingo Zamargin ez daukat aazturik,
 naiz esku-uska, naiz larruz ez baitu kiderik.

Beruetetik dugu Urtxupe aizkolari,
 —enborraren gainean txori bat txantxari—;
 Gorritiko Gastesi or du begirari,
 egurgiten astean, au duzu nabari.

MEZA

Jainko-Bildots garbi Mezan dute eskaiñi
 gizadi guziaren gaitzen ordaingarri.
 Eman dite bakea biotz-sendagarri;
 luzaro dezagula errian iduki.

DANTZA

Mezondoan mutillak, dantzarako gertu,
 Auzetxetik atera sokan eskuz-esku.
 Apaiza ta Alkatea jar dira maaiburu.
 Neskak urrun ez daude mutillen aiduru.

«Bereterretxez» dantza danboliñak asi;
 emen ipiñiko dut nai dunak ikasi.
 Erri-bertso goxoak sarri ditut naasi;
 ez baita gure erria uste bezin sasi.

*«Haltzak ezti bibotzik,
 ez gaztanberak ezjirrik.
 Enian uste erraiten ziela
 aitunen semeke gezjirrik.*

*Andozeko ibarra,
 ala ibar liñja!
 Hiruretan ebaki zaitan
 armarik gabe bibotza.*

*Bereterretxeke obeti
 neskatuari ezteki;
 —Abil eta soegin ezan
 gizonik denez ageri.*

*Neskatuak berhala,
 ikbusi zian bezala:
 hirur dozena ba zabiltzala
 bortha bateti bestera.*

*Bereterretxeke leiboti
 Jaun Kuntari goraintzi:
 eñin behi ba zereitzola
 beren zezena ondoti.*

*Jaun Kuntiak berhala
 traidore batek bezala:
 —Bereterretx, aigi borthala;
 ütziñliren biz berhala.*

*—Ama, indazüt atborra,
 mentiñraz sekiñlakoa;
 biz denak orbit iñkbenen dii
 Bazko gaiherdi-ondua.*



*Mari-Santzen lasterra
Bostmendietan bebera!
Bi belhaiñez herresta sarthü
Lakbarri-Büztanobira.*

*Büztanobi gaztia,
ene anaie maitia:
bitzaz hunik ezpalinbada,
ene semia juan da.*

*—Arreba, ago ixilik;
ez, othoi, egin nigarrrik;
hire semia —bizji bada—,
Mauliala diin juanik.*

*Mari-Santzen lasterra
Jaun Kuntziaren borthala!
—Ai! ei! eta, Jauna, nun düzje
ene seme galanta?*

*—Hik babiena semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoi-altian diin bilik;
abül, eraikan bizirik!*

*Ezpeldoiko jentiak,
ala sendimentü gabiak!
Hila hañ hüllan üken eta
deüsere etzakienak!*

*Ezpeldoiko albaba,
Margarita deützen dena,
Bereterretxen odoletik
abürkaz biltzen ari da.*

*Ezpeldoiko bukhata,
ala bukhata ederra!
Bereterretxen athorretarik
birur dozena ümen-da».*

Zelaiari ingurua geldiro emanik,
saillak tink egin dizu maaiburu-aurkezik.
Aurre ta atzelaria —burua gurturik—
zortzikoka asten dira Nagusiei leenik:

«Men ona zor bazaio munduan inñori,
Jainkoaren ordeko Agintariari.
Denon izenez gatoz aurre ta atzelari
dantzaren eskeintzera Maai-burukoari».

Egiten dute zubi gizasemeendako,
lotsagaldurik balitz andik aizatzeke.
Aurre bien eskuen azpitik joateko
eragozpenik ez da, badira gisako.

Gaiñekoak diote: «Ark ba dik itzala;
andik bigarrenkoak ba dik ere ezpala.
Sokaburu dagona bai mutil martzala!
Jaunak guziak onik atera ditzala!».

Bi mutil neska-billa —aurreak agindu—;
bakoitzak autu duna laister izanen du.
Bat banaka dakartze.
Auresku ta atzesku,
bata besteen ondotik, zortzikoz agurtu.

Neskaz ornitu-aala, dei ez ditutenak
zorrozten ari dira ortzak eta müiak...
«Goldemutur» deritzon Urlirenekoak
erretulika asten du neskazaar gaisoak:

«An zian Magal-arro soin berriarekin,
—asto bat senartako dezala berekin—;
ara Txetareneko andere pinpirin,
—ark ere mandazai bat zoraraziko aal-din!—;



»Or, berriz, Iztar-nagi, beso asto-kako,
—ikazkin baldarren bat sortuko orrendako—;
or beste Epur-talata —nork aukeratuko?
Ona dun, ezagutzen ez dunarentzako—».

Ontan eten dituzu itzak eta parrak:
mutil bat, buruz dar-dar, ozkatuz ezpainañak,
—mandeulia astintzean, alaxe zezenak—
sokarako neskatxen eske dabillenenak,

belarri eman dio Mikel Ele-ederr'i;
ta ark erantzun gogorra: «Ekarrak Garazi».
Baiña —legea lege— berak dun maitatxi,
barren-ostots ixillaz, ekarri besteri.

Itsus litzakela-ta, gorrotoa gorde.
—Mikel ikusi leza illuntzera bage—...
oraiño neskatxari dio begi eme;
biak dantzatzzen ziren orain-orain arte.

Garazi Gerri-eder eske doazela,
ttunttunak jotzen zuan ain zuzen onela:

*«Oihan zugatzik ederreña da
haritza edo pagoa.
Nik maiten bat bakar izan-ta
harek bestetan gogoa
Zeruko Jaunak eman dezola
eneganako asmoa.*

*Maitetasuna xoroa dela
nornabik ontsa ba daki...
Nik maite dutan maiten bura
bertze batek eremaki.
Asarrerikan ez nuke, balitz
enekin baino hobeki».*

Mikel Igarategi, Muno'ko maiztarra,
—ezpalez gotorra ta bizarrez gorrixka—
zortzikoa ateratzen asi par murrizka,
langille egoki bezain dantzari baldaxka.

Garazi zuri-gorri —ille beltza dirdai—
bi mutil orietan nor digu maita-nai?
Gaiñeko neska denak —Golde-mutur ee bai—
ixil daude begira, ez neskaeren etsai...

Azkenik, ekarleek autu dute bana;
Gorritxo'k aukera du zoriak emana.
Egin liru neskari zortzikotan lana:
oiñak zumezko ditu, larru beltzarana.

Bitartean ari da jo ta jo danbolin
irrizko ta benazko eresi onekin:

*«Aitak eman daut dotea
neurea, neurea,
urdeño bat bere umeekin,
oila-koroka bere txitoekin,
tipula-korda heiekin. (biz)*

*Otsoak jan daut dotea
neurea, neurea;
axariak oila-koroka,
arratoinak tipula-korda.
Joan da neure dotea». (biz)*

Guzien zortzikoa: nork bere neskari
aurkez dantzatzzen dio aal bezain egoki.
Gorritxo suz ari da gurpil eta artazi,
begira bailedukan alboko Garazi.

Bi lerrotan gazteak leenen-ingurua,
zapikoaren bidez emanik eskua,
—zapiko seda gorri, gainkiro landua,
urte guziz kutxean kontuz azpildua—.



«Peru ttuntun, Mari ttuntun;
 Pelipe ttuntun, Mikela ttuntun.
 Ba dira zuurrak ere. (biz)
 ba dira zuurrak ere benetan
 arrano poletan!...
 Olako dantzaririk
 ote-da bestetan?
 Bai erdietan,
 baita baztarretan;
 bai erdietan
 baita baztarretan.
 Zubia zabal bedi
 aizatu bearrik ote-dan».

Aurre ta atzelarien Zortziko txikia
 Dantza geldi dalarik oraintxe da asia.
 Mutillek dantzatzeko ba dute tirria;
 atsegiñez begira dadukate erria.

«Biotz bat onen orde z milla banituzke,
 denak, maite, zuretzat izango lirake.
 Baiña millaren orde z bat bakarra baitet,
 arren, artu ezazu bat an milla bider».

Berriro Zortziko ta berriro Inguru,
 aurre-atzelariak alda dute leku.
 Erdilariak ere, nai balute eskatu,
 danboliñak gogara joko dite soiñu.

Bigarren Inguru atera dijoa.
 Zapikoaz mutillak biltzen du lepoa,
 beso biak eraikiz, arinduz zangoa,
 —ttunttunak ala baitu musikaren joa—:

Aixta txikurrun-txakun,
 enaiz zoroa;
 xardin-buru baina
 obe da oilloa. (biz)

Aixta txipiritona
 mendian elurra;
 Marixeparen aurra
 bizkar-makurra. (biz)

Erdi-erdi orretan
 bi baztarretan,
 neskatx ederrak dira
 erri onetan.

Nik ba ditut anaiak
 mutil galaiak:
 bi ezkonduak eta
 bi ezkongaiak.

Aitaren kutxaren giltza
 gerekim dugu;
 atzera itzul gaitan,
 ar zagan diru».

Leloa: lara, lara-lai, lara-rai.

«Azpiroz'ko aldapatik
 Albisu'rakoan
 triste neukan biotza
 angoxe basoan.
 Zerk eman ote-zidan
 Albisu gogoan?
 Inola ere burutik
 ezin kendu nuan».

Leloa: lara, lara-lai, lara-rai.

«Arruitz-aldean izandu dela;
 amar ezkutu galdu tuela...
 Galdua galdu, galduen pena,
 inork jakite nai etzuen».

Leloa: lara, lara-lai, lara-rai.



Zubi-ordez eskuak emanez elkarri
mutillen besapetik neskatxak irauli;
bigarren Zortzikoan aurre ta atzelari
nor-geigoka ari dira lagunen pozkarri.

Erdilaririk bada Zortziko-naiean
baten urrena beste dituzu lanean.
Dantza bukatzen da aiek buka dutenean;
baiña... mutil bi keiñuz non asten direan.

Bata —jakiña dugu— Gorritxo Larre'ko;
ezpaiñez ezin eta zangoz nai du moko.
Mikel'ekin ezin da mintza, nai orduko.
Soiñuak jotzen dio onako zortziko:

*«Alli'tik ekarri da Arruitz'a zakurra,
—ez digute paratu lanbide makurra—:
Bost aldiz eman dio eskutik apurra...
Ori dabillen artzai kapelu-makurra!».*

Urrena dantzatzen da Ezkerra Leitza'ko...
neskarik oraingoan ote-du goituko?
pestaz eta Letariz ibilli da naiko.
Soiñuak jotzen dio onako zortziko:

*«Nik aditzea dudanez
Leitza'n mutil piñik ez;
sartuko dizute ziri
solas ederrez;
Balirade biotzez
omen-diranak itzez;
etzaitue erreko
beela ur otzez.».*

Azken-pirulirua jo du danboliñak.
Dantza-aurreko lekura beaute neskatxak.
Eskutik deramazte bakoitzak berenak.
Bitartean mintto au jotzen du txirulak:

*«Txori banintz, bele banintz,
joan nindaite airean,
usoño hura nik
arrapa niro
aizzean edo lurrean;
nabiz bestela
sar nindaite
baren usotegian». (biz)*

Mutillak Auzetxera berriz esku-sokan
etorri-legez doaz soiñu jakin ontan:

*«Atea dizut kurrinkari
eta zakurra zaurkari.
—Atea ezkoz urindu eta
eman zakurrari ogi. (biz)*

*—Gure zakurrak ez dizu nahi
bestek emanez ogirik.
—Uso ta eper emain diogu
ez balin bada besterik.*

*—Atea ere kurrinkari dut;
barek salatuko gaitu.
—Olio sakelan dut eta
hartarik emain diogu.».*

ARI-TALKA

Leen-egunean ez da beste ekuskarririk:
gazteak, goiz ta atsalde, dantza atertu barik.
Biar atso ta agure dantzara zailurik,
gazte-egunak pozkiro oroi tutelarik.



Biamona da. Apustu egiñak beinik-bein
zintzo joka daitez ta besteen bat aiekin:
Ari-talka ta zanka nola dan itzegin
Salditse'kin Ezkurra'k, Uitz'i'k Leitza'kin.

Zelaia betez dator Leitzar arranditsu:
aari ille-motza dakar, beltz-nabarra musu;
Leitza-larre'ren berri aspaldian ez du;
mii ikara ager-gorde ta bi begiak su.

Uda-leenez iru urte; eman-eza ardiri;
ezurrez, luze-zabal; ta bizkarrez, guri.
Oraindi iñork ez dizu apustuun ikusi,
baiña ondoko kozkorak leenen-talkan autsi.

Urbil-ordua dala, sar dute plazara.
Jendea asi da, bar-bar, izketan gogara:
«Bikaiña aaria». «Ba dik bikaiñen bearra».
«Lepoa lodia ta egokia adarra!».

Zer-atera dabilta bata besteengandik,
belarriz erne, baiña mihiz ez loturik;
erri ta atzerritar bi itz gaizta bagetik
gogortsu izkatu dira bereenak esanik:

—Aza-salda naikoa izan aal duzue!
—Etxean ez-ta zuek etorri aal zerate?
ortatik nai duzuten guzia ar zazutea,
ta gaiñerako pesta utzi gure mende.

—Aria bildur aal da onera azaltzeko?
—Emengo larre piñez aal uan aseko?
gureek alea gaiñez, ardan-tzopa naiko...
—Denak bearko ditik gaur irabazteko.

—Uitz'i'n ere ba duk artoa ta gatza...
Zeiñek jango ote dik garu lotsaren larratza?
—Kristauek jate ezue artatxarra ta aza...
aariek, zuen gisa, illea aski latza.

—Akalde-zabal zuek! —Zuek kemen gutxi...
Beltzenak asi dira esaten elkarri;
batek «keigorritu» ta besteak «arrandi»...
Artean aruntzago ba dira beste bi.

—Uztar-beirik onena leitzarraren alde!
—Isillik ago, mutil, itxi zak aakalde;
iri joka nezaiekek baiña... ba duk andre;
ez diat nai gaisoa negarrez ikuste.

Beste zokoan dira Peru ta Ankamakur...
Elkarrekin ba dute zenbait mintzo zuur;
bata azeria bada, bestea da zakur;
bata ankaz luze baiña beste ez buruz labur.

—Leen-talka jo-artean itxaro dezagun;
leendik elkar jotzea gertatu duk iñun...
Bein alkar jotakoan alkar dite ezagun,
ta aulena igesi ziaik bere diru ta jaun.

—Gerta duk iñoiz ere aulena moskortu,
ta, igesi-gauz ez dala, etzanda an gelditu...
Ortiz bear giñiekek baldiña mugatu:
amar talka ezkeru ezetz ark garaitu.—

Ontan agertu duzu aari mutur-beltza,
ille-luze ta legun, muturra zorrotza;
begi gaztaiñak, eta lepondoa motza...
onek ere udakoan ez dik jan agotza.



Zazpi jokatu eta zazpiak irabaz...
 —leitzarrak bildur dira aari mardul ontaz—.
 Lau urribelar ditu ikus aurtengoaz;
 ondotik utziko du azia iñolaz.

Ardi-dunba bat zillar da jasotzekoa;
 —tartekoak darakus egiñaz orroa—;
 Ituren'en eindako dunba tupizkoa,
 laister jakingo dugu zeñek artzekoa.

Orma-zuloan kuku ekuki-dirua,
 leen baiño leen daiteke eskuz aldatua.
 Gaiñekoek bitara egiten oiua;
 baiñan errikoa da bietan autua.

Artzai bik, ankartean batak artzen dula,
 bestek adarretatik eusten diola,
 igurtzika ari zaizko berotuz odola...
 leitzarrarenak ere ba dakite nola.

Emendik jolale-ots, andik be-ka ta ala,
 bie berotu die buruan azala;
 iges, alkarren billa doaz utzi-aala,
 ardi-arkera alboan baleuke bezala.

Leenen-talka motxa da —illago du soiñu—
 ez baitira aurrenetik jauzi buruz-buru.
 Bigarrenez, lerroa beaute zuzendu;
 ta astiro zuzenduaz, dira atzerakatu.

Iru, lau, boskarrenez, zelai osoa artzen;
 jende txeiari talkaz muiñak ikarutzen;
 apustutarra, aldiz, odola berotzen...
 andre-bildur ez dira sakelak astintzen.

Ango oiua! Berrogei, berrogeitamar... eun...
 talka aren bukatzerik ez agertzen iñun;
 biek, lerroa zuzen, erdizterdian, pun!...
 —zurgiñak ez neurririk ipintzen ain zurrun—.

Ara! saieskaratxo talkatu dutela...
 —aize-burrundak baitu aizatzen orbela;
 ala Beltz'ek Nabarko—. Batzuk, «joan dela»;
 baiña bizkor egon-ta, zuti da bereela.

Arien kopetan ez, sakelan bai zulo...
 Norenean? Ez daite ez-bairik luzaro;
 baldaxkatzen asi da Leitza'ko Nabarko;
 baiña diru-piriri nortara jausiko?

Eun ta berrogeitamar emanak ditute;
 adarretik mintzera odola darite;
 «Ken! ken! —andre-jendeak dio batez ere—
 olako sarraskirik nork ikus bein ere?».

Epurgainka Nabarko —bi besoak butik—
 zuin-barrenean datza il-adiña-bizi.
 Besteak ez badeza andik alderazi,
 damurik, ba daiteke galduuk irabazi.

Mutur-beltz argitu da; asi da berriro
 etzanari burrundak ekin bizigo.
 Ille-motza, arkaitz-eran, beira dagokio;
 aren kalparra apartuz jotzen dun aldiro.

Ogei talka, ein ortan, erauntsiak ditu;
 asperturik bera are alboan gelditu;
 gizon diru-zaleak ez, ordea, aspertu;
 diru gogorak aiei erraiak legortu.



Berriz begira dio Beltzak nabarrari;
beste bost tunpa dizka eman; biek geldi.
Beltza'k Nabar utzita zuinetik igesi...
ez gauza irrikatzeko ez larratz ez ardi.

Leitzarrek ere ez dute aizekeri asko;
irabazi bai, orde, moskor arek antzo...
Dirua jaso dute; izenik ez naiko.
—Au ikusi zuenik bizi da oraino—.

Andik luzaro bage ba dute takela:
irabaz-lege ori txar jarria dela...
gurpil-antzera lurra irauli duela,
ta, lurrean etzanik, arentzat sakela.

«Tximisten Bartangorri», ala duk oitura;
legea nola daiten ez orain ardura.
Leengoak balio dik gaur giñun jokura.
Urrengoan, or ikus; eizute zer-gura.—

Isildu dira. Pesta zertako samindu?
Galdunak berak ere ba du zertaz poztu.
Irabaztunak, orde, ez zertaz oillartu.
Bazkarik gorrotoa emaraziko du.

Errazkin eta Areso ardaillan dabilta:
pilotan jarduteko aukera nai itza:
Samigel'ek zerutik elkarraraz betza!...
Apustu bage dira berera bakoitza.

SATAIA EDO BALANKA

Atsaldeko lauetan ageri plazara
«Makil» Ezkurra'ko ta Antxo Labain'darra.
Aldamenka dituzte Zaldibi'ko Okerra,
Eratsun'go Koxko ta Salditxe'ko Beltxa.

Oiuka asiak dira onen ta aren alde;
lotsa-antzean datorgu leen-apustu-zale.
Baso-lagunek nekez berorazi dute;
kopetan eskas duna biotzean gorde.

Isilka saia dute mendi-zelaietan
«Makil» aize-putz ori goitu bearrean.
—Aspaldian ari zan oiu gogorrean;
iñor urratu zunik ez baitzan artean—.

Mendia aiñako gizon, lepondoa guri,
besoa kozkortsu ta gerruntzea lodi;
lanean geiago da mando baiñon idi;
mingain zabala aoan ezin du iduki.

«Makil»'ek eskatzen du bere burni-makil,
inguru begira ta arontz-onontz ibil;
zuin-olaren ondoan zangoak ditu bil;
olaan barrena zuzen egiten du pirril.

Gezur-jaurti eginda ezpaiñak aizatu,
erronka koplatzera zuin-ondora dugu.
Jendea isil eta belarriz ernatu:
Makil Ezkurra'k ola aldarri egin du.

«Oiu au egiten dut betiko legera:
Eguzkipean bada, betorkit onera;
belarraren gaiñera iñor agertzera,
elkar neurtuko dugu; betor larratzera.

Ez dut pisuz pisurik gaur nik aipatuko,
ez txapela dun ez dun nik baiño gorago.
Galtzadunik balitza, naiz aundi naiz kozko,
betor; naiz ta dedilla Labaien'dar Antxo!».



Mingain-zabal'en ordezt Beltxa'k erantzuten:
«Noraiño mugatu duk, beso pipa-kirten?
Dantzarako ohea aiz i; ikusko leenbaileen
mingaiñez aiña besoz luze nor ote-den».

Gaiñeko batek zipoz erantzuna azpiti:
«Mingaiñez bezain besoz motx geldi baledi,
ba ziakek basora Antxo motel ori».
Besteek: «Mingaiña bete kentzea dik aski».

Antxo'k sataia arturik —eskuan orde estu—
ezpain-tartetik miia ager eta listu.
Jende etsaiak arentzat irri ta parra du...
leen-saioan balanka ez du urrutiratu.

Asi dira benetan, besagainka aurrena;
seina tiraldi dute; bota dute bana.
Makil'ena arago da zuzenik joana;
ondo-ondoan bestea... ba da naiko lana.

Lautatik iruretan Makil da nagusi;
baiñan laugarrenean burrukan dira asi.
Koxko'k, gutxi makurka, sartzen ditu ziri:
andik begira, leen, au; emendik, baiño, ori.

Boskarrenak auzia ebakiko du ustez,
Antxo'k tarte luzean egin baitu gaiñez.
Eskuan lasai zanka, ez-arian legez,
zuzen ta gora zaio urrutira berez.

Itsas-ertz-ondarreko uin batez besteti
geienez ez da argiro gora-beera ageri.
Ondar-pillak egiñez josta den aurrari
alako batek dio iges-bidea itxi.

Antxo'ren sataia, ala, palasta aundia antzo;
arenek sortu dute istillu ta txalo.
Besteak —ortan baitzun itxaropen oso—
iztarpe ta pirrikan asteke egin du uko.

Eguerdi bikaiñean eguzkiri illargi
tartetik sar zaiola illun lurra geldi;
oilloak etxerantza; marruz dabil ergi...
«Makil» alaxe dago zurbil ta lotsati.

Begi ta belarriak etxera zaizkio
barreneko lotsaren marrua aditzeko.
Antxo Labain'goari —oituraz ario—
goratzarre au Beltxa'k bitartean dio.

«Labain'go seme bizkor
Gurutz Ansorena:
ire goraiatzeko
aski duk izena.
Aiten aiten aritik
zuzen atorrena,
ez duk ik lotsatuko
balankari zena.

Bizkaia'n Urdulitz'a
berrak aldatu,
ta azi orrek an ere
eman zikan zitu.
Osaba Ansorena'ren
berririk nork ez du?
dana dan bezelaxe
nai nitek aipatu.

Euskalerra guzian
balankan nagusi,
Napar bat joan zaio
bear dula ikusi.
Gosaltzen alorrean
gizon bat eserki,
idiak askaturik
golde-andaitzeti.



—Non bizi da Ansorena?—
 Jeiki da gizona;
 goldea kidarretik,
 —akullu antzera—
 zuzen artuta dio:
 —Ara an baserria...—
 Aren arikoa da
 gaur irabazia».

Batak urde ernari, besteak artantxu,
 aal dunak aal duana bero du jokatu.
 Beruete'ko Txortxi'k marka dizu urratu:
 artalde ta aaria gal —laroegi bat buru—.

Zenbait, buruz apal, ta zenbait buru-zuti,
 onen galduz gutxi du arek irabazi.
 Laister etor dirua bereela joaki...
 beste dema sortzeko ez dabiltz urruti.

Pestak azkena du ta ari da danbolin
 txistu eta arratzari eragin t'eragin.
 Agerian isil da; gaur Angelus'ekin
 pestaren joaiteaz ba du norbaitek min.

Ttunttuna aparitara etxez-etxe doa;
 mutil-sailla dantza-zun atzetik daroa.
 Ez daiteke luzea apari-ondoa;
 arek ausporik badu, an ba da zangoa.

Gorritxo'k ez du Mikel ikusi bi gautan;
 neskarenean dala sar zaio gogotan.
 Bizkai-dantza an ba dute urtean askotan,
 ikazkin, basa-gizon, zaldabai-joketan.

Aurten etzaie egoki apaldar ttunttuna;
 baiña sukalde artan ez da gau illuna;
 an aurkitzen da noski Gorri'ren laguna,
 mutil bizkorra, baiña aula ere ez iztuna.

Ele-eder deritzat —ain da bertsolari—;
 Saldis'ko Beltxa'rekin bekoz-beko da ari;
 gaztetxoa dalarik, ez da ain zirtolari;
 baiña ba du zer-esan etxeko neskari.

Ontan mutil etsaia sukaldera da: «Agur».
 Gure gazte martzala ez da geldi labur.
 Leengoaz gain zer-gerta, ba du neskak bildur.
 Mikel'ek ola dio, bero bezain zuur.

«Apariak on dagizutela
 il baduzute jangale.
 Esker bage ezin utzi daiteke
 sukaldean gatz-emaille;
 baiñan nik itz bi esan nai tizut,
 maaiaren erasotzaille,
 zure eskuentzat goratzapenik
 iñon asma aal banezake.

Begiak bezain eskuak legun
 maai-gaiñean tuzu koka;
 —eguzkietan dabilenaren
 itzal ain biguñik ez da—;
 nor zeren bear, eska baiño leen,
 begi ta besoak ara;
 mingaiñik duzun aaztu dakigun
 oro beso biur zera.

Oial-joketan diarduzula
 iturri-lats gardenean,
 zure besoen erraiñua are
 ez aen isil urpean.
 Bear bezala zu gora-naiez
 buka zadan itz batean:
 eskuen legun au sumatzeko
 nor zauritu litekean!».



Beltxa'k txaloka dio: «Ori, mutil, ori!
Ik daukaken aroa joan zaiguk guri.
Itz ederren jabe aiz; biotza duk gori;
ba duk iretzat nunbait neska zuri-gorri».

Ezpañak dar-dar eta barrunbea asarre,
Gorritxo oiñen gainean gel ezin dagoke.
Mikel oartu zaio; ta, luzaro bage,
«Dantza gaitezen —dio—; ekarri zaldabe».

Leenengo dantzaldira duteneko deitu,
Gorritxo'k Garazi'ri egin dio keiñu.
Eguzkia agertzean, zugaitzak itzal du:
ala Gorri neskaren itzal da biurtu.

Esku-atsegiña da ta atera da neska;
begiak apal ditu Gorri'ren oiñera.
Mikel'ek, bitartean, berari aurpegira...
urrengo dantzaldian dantzatuko dira.

Zaldabeen ari da Goldaraz'ko Otxana,
Uharte'koan noizpait ikazkin izana;
bertsotarako ez du txarra gogoana;
bizkai-dantzaz ba daki jakiteko dana.

Sugin otxandiarrari zitien ikasi;
berak egiñak ere or zitun, nahasi;
etzan beela atertuko asten bazan asi...
beso-miiak baiño leen oiñak nekarazi.

*«Kantari nago, baiña
biotzetik trixte;
nik miñik daukadanik
ez du iñork uste.*

*Pikuaren ostoa
itzal egiteko...
ederregia zera
nekararitzako.*

*Ederra zeran bezain
baziñe sekreta,
pozik joko nizuke
leioke kisketa.*

*Gora begiratuta
laiñoa ageri...
orrako mutil orrek
zoroa dirudi.*

*Gorriti'ra bidean
otea latz dago...
oiñak galdu ezker
gizonik ez dago.*

*Mutil bi larri dira
neska batengatik;
bat arke jakin nai luke
ua norengatik».*

Itz goxoz leguntzen du Gorritxo'k Garazi;
onek, esker onean, ez ukatzen irri.

Noizpait dantza-azkena da —pestaren ondarra—;
ikazkiñek min dute alde-egin bearra.
Gorritxo'k atarian Mikel du bakarra;
ez dio, nai-orduko, egiten akarra:

«Zer duk ik neskarekin, aker-buru-jale?
maiztar alderdi-gutxi, etxean eltze-mee,
sorgin ukullutarra, ate-aize-jabe,
pinpirin ori iretzat dagola aal duk uste?»

«Etxalde-seme badik; ua aal dik aukera,
ez aizen bezalako dukatik bagea.
Ezkon-sari ba dukek zorri larru-urdiña,
kukuso begi-bakar, txerri buztan-motxa».



—«Itz-ernarika asi aiz, nagusi Gorritxo?
Iru egun ernari... egin duk aurgaizto.
Ire burruka-nai au bearko nik jaso
itzez aurrenik, eta ukabilka hurrengo.

»Etxaldeko naiz maiztar, i ainbat ba gaituk;
etxaldean aukeraz sor aizela uste duk?
Maitasuna erosten dutenak diru-truk,
biziren bizirako pakez-antzu dituk.

»Bi gazte ezkon aurrean, au duk zurru-murru:
"Zer ote dakar urlik? Neskak zer ote du?".
Leen ere Euskal-errian, naiz odol naiz diru,
ez aal duk ezkontzarik egin buruz-buru?

»Mei eguna diagu etxean maizegi;
gure salda-gaiñak ez dik ainbeste begi;
esneak, ura naiko; ardoak, ur geiegi...
baiñan emen ba zegok kozkor eta aragi.

»Aitonak bere zian etxea Betelu'n:
ba genian jauregi sorgiñen ukullun;
baiñan ogei sementzat nor ogei-etxedun?
Ez aal gaituk odolez i bezain euskaldun?».

Gorrik erantzun dio: «Mikel, isil aite.
Ez odol, ez ondasun, neskak ni neuk maite.
Etzaik zillegi ari maite-lege egite...
Erriko zoko denek ori ba zekite...».

Mikel'ek: «Lauoz abil; laister ikusiko
Rekalde'ko Garazi bitan zeinendako.
Egiok nai dukana; gure ez duk oraño;
bera mintzatu bedi nor dun biotzeko».

Gorri'k: «Antzea, ba duk izketa leguntzen;
baita nere kaltetan gezurrak apaintzen».
Mikel'ek: «Isil adi, ni sutu ez naiten;
bestela atzaparretan aut purrakaturen».

Gorritxo'k: «Alkar-joka nai uke auzi au
—aariek artaldean bezala— garbitu?
Ez duk gizontasuna». Mikel'ek: «Non dugu
aiztintzeko mii-zakar? Zeiñek ola aldatu?»

«Gosea ta beldurra buruen zuurgarri;
beste iturrira jo zak bai-ago egarri:
errian neskazaarrrik ba zegok ugari...;
migura paparrean dunarengana adil».

Agopetik mar-marra dariola doa
Gorri, Mikel'en bildur, mindurik gogoa;
ez du astunegia gau artako loa;
ezta are noizbaiteko neska-amets gozoa.



II. ARTAZURIKETA

Agiz Samigeletako artoak ebaki;
 alorrean an-emenka txoxetan eraiki...
 tokika nekazariak zer egin ba daki;
 ta ala beranduko orde zereiten goiz asi.

Janaririk bearrena —naiz lurmen, naiz elur—
 artoa da; artatik beintzat ez luke bear xur.
 Orduan, bai, *«elur melur, ez nauk ire bildur;
 etxean ba ditiat arto eta egur»*.

Urte artan, izotzaren ikiturik ozta,
 ale gorri-gorri du eguzkiak jota;
 lastoa zuritu bage itaiak du bota...
 Beiek afal ondoan ba dute zer-ozka.

Ego-aize atsegiña mandioan, pil-pil,
 an diranak legortzeko sar-atera dabil;
 arta-korda, lizar-osto, belar eta agotz-pil,
 kalerik gordeena bein berriz derabil.

Eiotaldi bat gaitu nai igartuz labean;
 eguzki ona dalarik, baita larrainean,
 batez ere ezin-biziko maiztarrik danean
 urte-zorra ateratzen beela asi daitean.

Arta-zuriketa zuten gauez Errekalde'n...
 neska-mutillek bikoka asiak ziraden.
 Urtean zer zurru-murru jaso onen ta aren,
 arta-zuritzekoan zituten iraultzen.

Gerogo ta beroago bikoan asmaki;
 nor norengana dagoan bat batek ba daki.
 Biko-gaiak oro dira begi ta belarri.
 bakoitzen griña asmatzen; ez aal da arrigarri.

Mikel'en etsai Gorri'ri goizean abarka
 ongi lotua dun arren, ibillian, aska.
 Ipui ergel batek biotz emanik, ez kezka,
 berea dula, dantzaren ken zioten neska.

Gauean ara bilduta jarduna ba dute:
 eguraldi-asmakari, ipui ta bikote.
 Irri-karkara ta kantu, loa aiza dezate;
 gaueko lo-bildua biamonez ase.

Oi bezala, aurten ez dute jardunik asiko,
 izotzak uki-artorik ez baita arkituko.
 Urte banaka. Ta alare, zenbait ba dira artxo.
 Noiz-bein ez da arrigarri mutur-uts eta aiño.

Oilloek ere, goiz-goizik, amonaren iges,
 baratzean ari izanak moko lotsagabez.
 Urruti dagon alorra iskisuz ta belez;
 oian-baztarrekoa joa da basurdez.

Zimurrio bat ba ginun goizero landetan
 artaburuak urratuz oraindik esnetan;
 —lasarik uzten zituen beti beazketan;
 agerian beste inoiz txorien pozetan—.

Jo-ta-ke ari ziraden: Joanes eiztari
 erdi-bearrean dago egin zun einkari:
 «Onako buru au —dio— basurde-ortzari
 nik kendua diteke... aurten il nunari».

Adierazten du luze nondik dan ibilli;
 goizean goiz jeki, eta mendiak irauli...
 balin-bada, alper gaiztoan ditu erabilli:
 azkenik, basurde-zai, artotan estali.



Egun eta biaramon ara dala sartzen
artzai adiskide batek dio erakusten...
esian, urratutako zuloa ageri zen;
zantzu berririk, orde, lurreean ez azaltzen.

«Etorriko dala noizpait ezkurdi artara,
barnean izkutaturik nago nere erara;
—lizar-abar eta lasto egoak dardara,
eiztaririk an danik asmatzen lana da—.

»Orduan uzkur nengoen zulora begira.
Alakoan basurdea zuzenik esira;
ataka-aurrean, aieruz, lipar bat geldi da...
iñor sumatzen ez-ta sar-nai artadira.

»Argigunetik barnera ager du muturra,
—leenagokoan ain errez esirik ez urra—;
gorputza sartu baiño leen, arbi-azi xurra
tiroa jalki eta jaurti diot purra.

»Begiak itsutu zaizko; egin du atzera;
zororik alditxo batez geldi tinkatu da.
Berriro —ez nai-orduko— ernaldu dut arma,
balaz bota naiean amar umen ama:

»—Beruete'ko mendian ikusia bainun
gure mugatik bereela, zirala bost egun—;
artzulora sartua zan —an kabia baitzun—;
ez nik orduan gizonik ez zakurrik lagun!

»Aren atzetik nik ere larratzera salto;
an-emengo lizarretan itsu ark oztopo;
bat buruz indarka jota gelditzen da zoro,
—tiroz menderatzeko ezin eskurago—.

»Berun-ezkurra sar diot bi biriketarik,
—denaren jabe nerau naiz; ez dut ein zantzurik—.
Odol-usten ari zaigu arnasa galdurik...
urte erdirako ba dut naiko giarrerik.

»Umeak oraino ogean; nork arki letzake?
Asiak dira kozkortzen janez esne ta ale.
Kabi atsegiña non-nai orbelean dute;
gizon-otsa aditzeko belarriak erne.

»Urren-urterako ere eizea bear dik,
azia gelditua duk balitz eiztaririk...».
Itz arro oiek entzutean, «Bekain» zokondotik
erasoka asten zaio: «Potea ba duk ik»;

«Uste-ez-usteko eizea: besterik zer esan?
Erbi anka-mei bat ez duk il eure denboran;
untxi gorri bat mendira zorroan eraman...
erbi biurtu bear andik onakoan».

Ba du «Bekain»ek, ark ez dun eiztari-adoia,
begiak nora ditun, an du zizta doi-doia;
—eper, oillagor, naiz erbi— danean aldia,
etxean ba du sarri mokadu guria.

Itza bestera da... Aurtengo mandio betea.
Berriro olakorik biltzen bai gauza nekea!
Banabarrez bildur bage bete daite eltzea:
ez baitzan leengo jorran nabarmen barea.

Gogoan da an, ongi, igazko gauaren illuna,
bare gorrik eltzaria dena galdu zuna,
—egunez aurretik zeukan ostoa leguna;
biamonean... zoztor: zer kontakizuna!—.



Onelako jardunetan aldi bat egiñik
 asmakari bitxitara jo zuten urrenik.
 Baba beltzarena soillik esanen dizut nik,
 —taiu berau baitute bestelako guzik—:

Alakok, erregu batño erein zuen babaz.
 Aleak ondo bat eman; ondoak, leka bat;
 lekak, aleño bat; ortaz zer eman zun Uztak?
 —Erein aiñaxe naski. —Ta galdu ziranak?

Bakarra zan atxomotxa kontu-eder-kontari.
 Gazteek aixuka dute bat dezan ekarri.
 Uka-muka aundirik bage lotu da lanari,
 zerbait asma baleza gazteen pozkarri.

Jakiña, gazte-jendeak bi amets ook ditu:
 andre eder aundiki ta kutxa bete diru;
 ba daki nondik asi ta non bear bukatu.
 Begi-belarri ditula, beragana lotu.

* * *

«Errege baten alaba bein batez eri zen;
 —meriku, sorgin— iñortxok senda etzezaken.
 Aren inguru, zoratuz, alperrik zebiltzen:
 neska gaixoarentzat sendagairik etzen.

Gerogo begi-illunago, ez irri sekulan:
 zer egin etzekitela akituaz zoan.
 Senda nai dunari, oi Erregeak ontan,
 pozik lezaioke emaztetzat eman.

Txabol aul batean, iru anai ziran bizi
 Erregearen agintza zutenak ikasi.
 Ba-ez-bada, asmatu dute beñik bein ikusi
 alaba ari nolatan par egiñarazi.

Zaarrena ba doa bidez —besoan saskia,
 ondolik ezpaiñeraño sagarrez gorria—;
 sorgin-zuloan atso bat dakus eroria...
 andik ateratzeko ezin zan balia.

Oiuka asi mutillari, arren laguntzeko;
 —betarik etzedukala saietseratzeko...
 Aurrera doa zuzenik garaiez eltzeko,
 Andre Erregin alaba, aalbait, ez galtzeko—.

Jauregian sartu dute eriaren aurrera;
 sagareri begira ta begiak atzera...
 bi eskuz —atsegin ez ta— ditu baztarrera:
 leen baiñon illunago gelditu da bera.

Bigarren anaia, lore politekin doa...
 sorgin-zulo ber-berean ikusten atsoa...
 Oiuari kasurik ez, zuzen-zuzen doa
 irriz zabaldu-asmoz nextaren gogoa.

Jauregiko alaba arek, leenari bezala,
 bi eskuz keiñatzen dio xorta ken dezala.
 —Ezkoa bezain ori zun aurpegi-azala.
 Sartua zirudion betikoz itzala—.

Irugarrena ba doa —eskuan ezer ez—...
 sorgiña zuloan zegon laguntzaren galdez.
 Eskua luzatu dio, ta, alako mesedez,
 pozik galdetzen dio zer nai dun ordaiñez.

—Nik emanen dizut, seme, nai duzun zoria.
 —Ain zuzen, aren billa naiz etxetik jauzia...
 Erregearen alaba ain omen-eria,
 betiko gal omen-du ortzetan irria.



—Tori, bada, bildotx beltz au; ar zazu zurekin;
etzazula deusik ere trukatu onekin;
ez utzi besotik ere... Au eitearekin
ezkonduko zara zu Erregiñarekin.

Besoetan bildotxa, ta ba doa mutilla,
atxoaren agindua egiñez ixilla...
Erregearen erria ikusten du urbilla...
Ua an, eta bereala aingeru-ekzkill.

Ostatu batean sartu; gau-lekua galde:
bientzat an etzauntzarik ez dala diote:
—Apez-etxera zoaz, ta naikoa ba dute...
Mutillak ara jo du beta galdu bage.

Neskamea atera zaio —aurpegian irri—:
ba dula bildotxa goxo-goxo non iñaurri:
oge biguin bat emanen diola berari...
—Ez dezaket —diotsa— eskutik igorri.

Arritzen dira Apeza ta neskame Mikela;
mutilla temaz ari da utz ez dezakela...
Egoki ez baita arekin etzateko gela,
artegian, dio, lo egiñen dutela.

—Utikan! Egizute lo gaur oge goxoan—
esaten diote, zoro dagoelakoan;
afal ere egin dezala bildotxa-besoan...
Eseriak dituzu biak sutilloan.

Mutillak, etxean baiño afari obea
—«txikia baiña goxoa Apezaan eltzea»—;
bildotxak ere bein ez du ala bete estea:
aurrenik esku bat gatz, urrenik, alea.

Lotara doazi denak nor bere xokora.
Biamonez aurrena aiek bildotxa gogora...
Apezak begia zorrotz giltzaren zulora.
Susmorik ez, ta nai du sartu een ondora.

Poliki sartzen da gelan... bi arrotz aiek lo.
Esnaraziko ote-ditun alditxo bat dago.
Isil-isilla joan da oge-ondorago:
esnarazi bage ezin egon luzeago.

Belarri batetik eltzen dio bildotxari;
ikaraturik gaixoa asten marrakari.
Besoan daukala, artzaia artan iratzarri...
komeria an asten da guziz urragarri.

Ba duk oberik! Apeza itsatsi gelditzen;
eskua bereizi nai ta alperrik nekatzen;
oiu du neskameari, datorren leenbaileen...
Orduan da lotatik doi-doirik esnatzen.

Erdi-jantziz, ille-arro, atera gelatik;
soiñekoa, sartzekoan, urra du atzetik.
Nagusari laguntzen an da, arnas-esturik;
eldu dio beltzari beste belarritik.

Loturik gelditua da Apeza bezala;
bat eta besteek tiraka ustu dute gela;
irurak tarrapataka ba doaz kalera...
atzeko zuloa-arren lotsa da Mikela.

Baratzan igarotzean, azaren ostoa
beste eskuz erauzi, ta itxi du zuloa.
Komerilarien sailla Jauregirantz doa,
—oraindik au, dantzaren leenen-Zortzikoa—.



Bide-ertzetik iru auntz osto aren gura...
ezpainiez uki-orduko ba dute lokura.
Mutiko, bildotx, Apez ta neskaren bilkura,
zilipurdika an doa eriazen kura.

Oraindik arago, okiña, —jeki-berri baitzen—
leiotik so dagola lagun dute eskatzen.
Okiña atzetik asten da katea bereizten...
besteak bezala antxe lotu-bearra zen.

Araxeago, sutegian arotza dakuste:
karraxiz, lagun diela eskatzen diote.
Badoa gizon bizkorra uste bezain uste...
loturik gelditzen da denen isats-orde.

Arago, bi emazteki —erratzak eskuan—
atal-aurrea garbitzen elkar-apustuan...
ikusiz, irri dagite leertzeko moduan;
asarre, neskamea mintzatzen orduan:

—Irri baiño obe zinate guri lagun-egin...
—Or bada— aiengana dira beren erratzekin.
Joka asita, leen-kolpean lotu ziran berdin,
—erratzen kirtenetik eskurik alde ezin.

Bide-ukondo batean txakurrari lotua,
belauna geitxo jasoaz zetorren itxua.
Zakurra, aiek pasatzean zaunka amorratua,
gona bati elduta an lotu da gaixoa.

Zilipurdiz urbildurik Errege-jauregira,
alabaren gelaraiño noizbait sartzen dira.
—Lorik etzitzaion eldu aspaldi begira,
ez jangalerik, ez ta parrik aurpegira—.

Leio eder bateen, bekoz an zegon jekia,
—beso-alki biguñean lepo-eroria—.
Zalaparta sumatzean, jaso du begia:
leenik mutil bat dakus aurrekularia...

...Axuri, Apez, neskame, azosto eta auntzak,
okin, arotz, emazte bi erratzei josiak:
soka-dantzaren azkena txakur-itsu biak...
alabak ager ditu ortz era begiak.

Errege Jauna ba dator saillaren karraxiz...
aspaldiko orde alaba ikusi zun irriz.
Orain ere lanak ziran leengo alderantziz:
alaba, txoro-txoro, parra ezin geldiz.

Ikaratu da aita, artantxe geldituko ote-dan;
—Jauregi-ate-aurrean sailla an ari baitzan—,
zimizta baiño leen an da asarre beroan:
denak illarazteko oiuegin zuan.

Soldaduak ba zoazin eek iltzeko asmoz;
bereela mutil gaztea gelditu da mokoz.
Aren atzetik laisterka guziak oztopoz;
artan bereizi ziran andik aurrerakoz.

Mutillak oiue aundi bat Errege-alabari:
—«Aski ola!; bildotx beltza, berriz, marrakari.
Irria atertu zitzaion gaitzen sendagarri...
Neskarentzat mutilla maite maitagarri.

»Illabete bage, biak ezkondu ziraden...
dantza-soka ateratzeko aiña aur izan zuten.
Axuri beltz artaz ere aaztu ez gaitezen:
Erregiñak eskutik azi zuen gizen».

* * *



Olako lau ipui arin jalki dituneko,
 etorri zaio noribait Mari Bekaineko...
 Kantuak balio dizu loak uxatzeko;
 gazteek jakin nai ere nor dun uztartzeko.

Zintzurra leundu artean leenik zenbait kantu.
 Pitiri Trakets'ek ez du goxooa aukeratu:
 neska zaar baten antza bertsuz emaiten du;
 alakorik, ala are, ondoan ez baitu.

*«Ikusi nuanean
 zure ille latza,
 iruditu zitzaidan
 sorginien erratza.*

*Ikusi nuanean
 zure bekokia,
 iruditu zitzaidan
 zartagi-ipurdia.*

*Ikusi nuanean
 nik zure bekainia,
 iruditu zitzaidan
 gauaren kamainia.*

*Ikusi nuanean
 nik zure begia,
 iruditu zitzaidan
 anpolai gorria.*

*Ikusi nuanean
 zure belarria
 iruditu zitzaidan
 azaren orria.*

*Ikusi nuanean
 nik zure sudurra,
 iruditu zitzaidan
 lukainka-muturra.*

*Ikusi nuanean
 nik zure agoa,
 iruditu zitzaidan
 karobi-zuloa.*

*Ikusi nuanean
 nik zure okotza,
 iruditu zitzaidan
 gaztaina-morkotsa.*

*Ikusi nuanean
 nik zure bularra,
 iruditu zitzaidan
 basoan txondarra.*

*Ikusi nuanean
 nik zure mokorra,
 iruditu zitzaidan
 Azpiroz-malkorra.*

*Ikusi nuanean
 nik zure zangoa,
 iruditu zitzaidan
 auntzadar-makoa».*

Ba ditute kantatuak zenbait maite-eresi...
 neketan gazte zoroak bestez dezake etsi;
 maiteentzat eziñik ez dala adierazi...
 ama-alaben lelo au dute gogorazi:

—«Ama, ezkondu! ama, ezkondu
 gazte geraden artean.
 Ene alaba, etzeukanagu
 ogi ta ardorik etxean.
 Galburutxo bat bereizi nizun
 garia ondu zanean;
 eun erreku kendu nition
 igurtzi-aldi batean.



—Ama, ezkondu! ama, ezkondu
gazte geraden artean.
—Ene alaba, etzeukanagu
ardo-xortarik etxean...
—Maats-mordotxo bat bereizi nizun
maastia ondu zanean;
eun kantaro kendu nition
igurtzi-aldi batean.

—Ama, ezkondu! ama, ezkondu
gazte geraden artean.
Ene alaba, etzeukanagu
aragirikan etxean.
—Txantxangorri bat etor zitzaidan
josten ari nintzanean;
eun arroba kendu nition
igurtzi-aldi batean.

—Ama, ezkondu! ama, ezkondu
gazte geraden artean.
Ene alaba, etzeukanagu
zuritasunik etxean.
—Lio-izpi bat bereizi nizun
lioia ondu zanean;
eun larri ta azal kendu nition
igurtzi-aldi batean».

Bikoak egin-garai da... biotzen bat dar-dar,
berak nai luken maitez ote-duten uztar.
Gorritxo kezkatu dago —begi biak baztar—,
batera jakin nai, ta bestera luza adar.

Laisterra asteko otsaren zai zuiñean bi mutil...
Uste-erdi bakar duena buru-loka dabil,
betilleak dar-dar eta bulartea pil-pil...
Era artantxe Gorritxo'k gogoa du zintzil.

Neskatxa tontor-garai bat dutela sail-buru,
bi aldeetatik kuxmuxe belarrira ba du.
Beren eskuinetik ara egiñez inguru,
Mikel Eleder'gana dira noizbait eldu.

«Gerrieder» sukaldean —ernerik belarri—;
amonarekin batean aski lanik ari.
Egun artan ardi zaarra dute egin aragi;
artaz egin diteke, bai, sorgin-afari.

Irri-karkara ba zuten emanik leloa,
aukeratuz bakoitzari bere kidekoa.
Ixillaldi osoa da andik urrengoa...
Ez dago lasa-lasa Gorri'ren kolkoka.

Ekaitza datorrelarik —eguerdia geldi—
belarri-ertzean dabil furrundakan euli...
Gorri'k inguruan suma zain gaiztoko berri;
leloa asi orduko, aize, ostots, arri.

«*Larre berrian eperrak dira, pagadietan usoak...*».
Neskatxa gazte pinpiriña da Garazi Errekaldekoa.
Orrek maite bat bear omen-du bera dan bezalako;
bera ona da ta ohea luke Mikel Muno-Txikikoa.

Artzaia arnaska ardi-billa mendi-garaiean
noizean bein gelditzen da txintzarri-zurrean.
Biotzean pilpira ta ziztu belarrian
besterik ez entzuten ingurumarian.

Alako zirrara Gorri'k artu du bi bider.
Buru-begiak lurrera; zulorik ez da ager.
Goizeko abarkarena siñeskeri alper...
besteri diote eman aren Gerrieder.



Ezin asmatu du lotsa ankapean sartzen;
bi lagunek aiña lan du bakarririk egiten.
Leenengo siñiskeria ustel irten arren,
ba du beste bat ere auziaren azken.

Biko-egiten, aurrera bero diardute;
neskazar uste-galduak orain billa dute.
An danik iñor ez bedi uztarkide-gabe.
An asmatu guziak egi balirade!...

Artapillaren gaiñean dagoen saskira
usoak bezala artoak egan ari dira,
—sapaïetik ain usu, ez dira atarira
alea sumaturik eskutikan irra—.

Saski-aldaketa ari dan mutil gizaixoa,
uso oriek orai-gero diote mokoia.
Saski beteaz pillu du bestea aiñakoa.
Au gelditzen da azkenik aiituz leenengoa.

Baztarrean ari dira iruzpalau andre,
arta-kordaketan ba da nai ainbat naigabe.
Artoak ega-lodisko lardaska ditute;
irugarren eskutzat ortza bear luke.

Orpo-gaiñean jarririk ipurdi-mazala,
—bat edo besterenean ezpalitz azala—
gerri-mako, lepa-kupi, minbera azkazala;
gero zutik jartzean txingurrika aztala.

Aien artean, Danbolin zaarraren emazte;
mihiz arrotuko ditu ango zaar ta gazte,
komeri zaar baten bidez emanik ikaste,
naiz beste bat asmatzen, zaar ta berri, naaste.

Ezker-eskua arek ere lotua luzeko,
irubiur egitean noizbein askatzeko;
aren sabeleko miña ez baitu aazteko;
amandreak ematen noizbait gonapeko.

Orduan korda lotzen du lastoz eta lezkaz
bekoki-erditik begi biak izartuaz.
Eztarria berotzen du ukondoa goraz:
irrintzi ta kantari asiko denboraz.

Amona, lastairendako orri bereiztera;
Garazi sutean utziz aldi bat atera.
Eskute bat arta-bizar du leenik aukera
gernua garbitzeko sendagai bedera.

Bazterrera lekutzen du gain-zurikin latza,
an ustez gordetzen baita lizunaren atsa:
«Alde —dio— lizunkeri, debruen kiratsa!
Emen etziten denak beza loa lasa».

Txurtenak orobat sartu dioke bildurra,
«izugarriak» an gorde oi, bait da susmurra.
Sarritan esan dun arren dirala gezurra,
aiza beintzat, mindu ez dezaten ezurra.

Bildur-ametsentzat ba du arao jakiña,
siñisten ez ba du ere aren indar ziña.
Siñiskerien gaiñetik kristauen dotriña.
Otoitz au da gauero isildu-eziña:

«Ene Ama Santa Ines, bart egin dut amets.
Bart egin badut gaiztoz, gaur egin zadan onez».
Larrañean eguzkia balu biaramonez,
egurastu lezake txurikiña sardez.



Sukaldean da Garazi, ixildurik ago.
Sorgin-afaria dator geroz urbillago.
Biko-laguna nor dizun entzun du ta, an dago
Baztan-pertz ua baiño pozez gaiñezago.

Odolkia aaztu zulatzen, leertu zaio galtza;
osorik zegoan beintzat erdian buzkantza.
Bildur gorritz billatzean paparreko orratza,
beatza zizatuta xurgatu beatza.

Orduan bai eder zala Mikel'en Garazi!
Txurikiña bereiztetik etorri da Amatxi,
ardiaren Baztan-pertza ote-dan egosi...
leertu zaien estea ez dezake josi.

Zubipeko sorgin-batzar-garai zan orduko;
iraulixe gau-erdia lana bukatzeko;
—izena «sorgin-afari» orregatik edo...—
Jan zuten, edan zuten; zenbat, nola, bego.

Afal-artean jo zuten kantatik ugari.
Dakiguna bakarrrik, zan biotzetik larri.
Uitzi'ko ta Larraun'go gaitzizenen berri
etxez-etxe eman zuten, eman erriz-erri.

LECTIO EPISTOLAE LARRAUN'GO:

Aldatz,
ipurdi-latz,
Etxarri,
lepoa bete zintzarri.
Lekunberri,
zakur-erri.
Uitzi,
ez arto ta ez zitzzi.

Gorriti,
ardoa darik begiti,
ardan-zopa sudurreti,
biba Gorriti!
Azpirotz,
elurra danean, aize otz;
eguzkia danean bero,
azpiroztarra beti ero.
Lezeta,
sardin-zarra erreta.
Albisu,
sasi-ardi betiztu.
Errazkin,
deabru kazkin.
Baraibar,
lainoa bar-bar.
Iribes,
geos eta bees.
Alli,
erre ta kiskailli.
Mugiro,
ez da an beti giro.
Arruitz,
gezur-itz,
Astiz,
ogi gutxi ta aur agitz,
Odorritz,
ez esne ta ez oritz,
Madotz,
ez saski ta ez agotz.

LECTIO EPISTOLAE UITZI'KO:

Zelatari, Txonkoeneko.
Pitxera Maxkolo, Joanteneko.
Mokordo polit, Buztineko.
Alkia bai ta ipurdirik ez, Joandineko.



Serbilleta zikin, Aizarreneko.
Mauka txar, Garatxoneko.
Krisaillu-mutur-zikin, Etxeberriko.
Ankamei lokaio, purrustari soraio, Loiteteko.
Dragon aundia, Txurdaneko.
Oskilla tente, Baztarrikako.
Artopil zabal, Errekaldeko.
Izbeste, loiez gaztanbera, Apezzeneko.
Atorra lepo-zikin, Munoko.
Gazura berde, Perutxeneko.
Eztela-badela, Garazineko.
Illargi-zabal, Marieneko.
Tirrit, Etxetxikiko.
Tarrat, Etxeaundiko.
Zakurra bai ta ardirik ez, Legarreko.
Zatazar, Mikeleneko.
Asi ta pirris-purrust, Ubillosko.
Ezkillilla jotzaille burutxuri, Joaneteko.
Labea bai ta ogirik ez, Goikoetxeke.
Andre gona-gorri, Martipereneko.
Andre gerri-eder, Otsanbelako.

Bi azken oriek dute «ederrez» izena
 —Larraun-errian bakantxo arkituko dena—.
 Bear bada aldatu zuten leenengo gaitzizena;
 ederki dagokie orain deriztena.

Mikela Otsanbelako bai Andre zabala!
 —bete dezakenik ez da ark utzi zun itzala—.
 Maisuari agin zion erakus nindezala...
 Jaunak oinbestegatik zeruan dezala.

Beste Epistola ba dute —onekin azkenak—
 gizonen gaitzizenik ez; bai, orde, neskenak.
 Arta-zuriketakoan asma ziran denak.
 Gezur diran eztakit; or bakoitzarenak:

«Mami-jaleak dira Errazkingoak.
Zapata orpo-makurrak, Albisukoak.
Gazurontzi zikiñak, Baraibarkoak.
Sardiña-jantzaleak, Iribaskoak.
Saskigille-kumeak dira Allikoak.
Baba-txior-jaleak dira Aztizkoak.
Beti enbotto dira Oderizkoak.
Gona nabartxoakin or Madozkoak.
Neskatxa beltseranak or Mugirokoak.
Oei dagozkieanak or Arruitzkoak.
Galtza-gorriak dira Aldazkoak.
Gona petral-luzak, Etxarrikoak.
Neskatxa luzituak, Lekunberrikoak.
Titi-aundiak dira Uitzikoak.
Beti amorez daude Gorritikoak.
Beti-alargun dira Azpirozkoak.
Lezaetan dago kaxkail-erria.
Antxen akabatzen da kanta guzía».

Errando egitekoan langilleai laister
 danbolin-atxoak die erainen par eder.
 Alabarekin komeri bitxi au dula ager,
 batzuek bildur dira egin dezaten leer.

Andre urragarria mozorroz bete-ta,
 alaba saski gaiñean eseri iraul-eta,
 batzuen irri-karkara, besteen kux-muxketa,
 onelatsu jalki zan bien berriketa:

—Aurten ba diñagu arto,
 alaba Katalin;
 ekarko jaki goxo ta
 ttantta bizia arekin.

—Ama, nere soiñekoa
 aipatzea aaztu zaiizu;
 ainbat aldiz agindu ta
 zarpil bearko nauzu.



—Denetarako ta gainez
Jainkoak eman zigun;
pinpirin jantziko aunat
oialik balitz inun.

—Nere kideko guziek
arki dute senargai;
lagunen artean lotsaz
ez dut nik agertu nai.

—Oraingoan, alabatxo,
zalduna agertuko zain,
leen eta gurasoak ere
ongi bizitzeko lain.

—Igaz orixe zenion;
alperrik itxaron dut;
leengo lepotik burua
datorren urtean zuk.

—Naiko txurikiña ba dun
lastairak betetzeko;
lioia ere ugari
zuritasun-eiteko.

—Zer alderdi dago oiekin?
etorri ta ala joan.
Bildur naiz, laister diraden
ardandegi-zokoan.

—Katalin, noiz ikusi naun
ardandegi-bidean?
Ama, leengoan azkena
leen-artoa igartzean.

Amar artaburu aiek
eldu baiño leenago
ekar ziñuzen etxera,
nik ba dakit zertako.

Aien muturra urratzean,
leertu zitzaizun irri.
Alabaren aurpegia
ez baita ain alaigarri.

Orritxoak eraztean,
egin zenien maite;
neskaren tontorarentzat
alakorik ez daite.

Elkarrekin kordatuta
ertokian zintzilik;
ekeak beztu baiño leen
alde egin zuten andik.

Jalkitzen ari ziñala
oartu nintzaizun ni,
gordeka begira zinun
goragoko leiotei.

Ankak arin joan ziñan
Txonko'ren tabernara,
ekaitzean oillorik ez
aen arin kotara.

Arakoan ipur-lodi,
onakoan sabela;
norbaitek esan zezaken
amon au aurdun zela.

Gelan sartu ziñan gero
berotuaz zintzurra;
oia bertan zegoen ta an
egos zinun moskorra.

—Ixil ago, lotsagabe;
ez esan olakorik.
Oinbesteneko moskorra
noiz atxitu diñat nik?



Iñoiz bai lagun-artean
bertsotako birbiztu;
tartean oi u ta irrintzi
egin, ez den pekatu.

Umore onak ez aal din
arto ta urre balio?
Dagon artean edagun
maats onaren jario.

—Ori duzu buruzpide:
*«Dagon artean bon-bon,
esaera dan bezala;
ez dagonean egon».*

Orrela beti daiteke
arrote gure etxea,
zikiña, atza, zolda, partza,
ta beste jendaki txeca.

Oraino okerrago dana,
bazter guzitan zorra;
tabernan ere baituran
senarraren atorra.

—Noiz ikusi dun etxean
zorririk eta partzik?
—Aldegiñak oek ere
edari-kiratsetik.

—Ixil adi, mutur-gaizto;
non entzun den izketa au?
—Asarre zeratenean,
aitak esaten dizu.

Erratza artuta asten zaio il bear dula bertan,
albotik eltzen diote tanta bat artu dezan.
Beraalaxe sortu zaio tantaren eztula;
beste bat edan eta aldegiñen dula.

Irrara-deia. Danbolin-andere ta senarra,
bata soiñu-jotzera, bestea dantzara.
Arta-pil txuri inguruan alkiak illara,
bata besteaangandik aski tarte dala.

Esia gainbiurrituz utsartez-utsarte,
sugea belar-tartean bezala ari dire.
Ez da ala, baiñan, oi danez soiñu-dantza naaste
iru puntuko dantza tajuz daramate.

*«Neure senar tontozko
arto-jale aundizko;
zazpi talo bear ditu
otorduan jateko.*

—Neure emazte belendin,
*kata-usaia deragin,
ortzak galdu ditun eta
ire pertzak egin din.*

—Neure senar baldarko
*laister ez da deustako;
alorrean landa zagan
txoriaak aizatzeko.*

*Neure emazte ankarin,
totta non dan ba dakin.
Bi begi gorri oiekin
deabrua dirudin.*

—Zu senar, ni emazte;
*elkarrekin il arte;
dantzan autsak arrotzako
oraindi naiko gazte.*

*Txingo, txango, rai ta ran,
umore ona duk au!
iraun beza gaur ta biar,
iraun egun eta gau».*



Bikotan aukeratuak dantzan elkarrekin;
 batean baiño geiagotan kantak ez du utsegin.
 Ez badute lotu norbait nai lukenarekin,
 urren-artazuritzetan kenduko bere min.

III. GAZTAINĀRO

Biamonago Mikel dei dute
 neskaren gaztainadira.
 Onen anaia lege gogorak
 eramana da atzerrira.
 Etxean indar urri dutela,
 norbaiten bear maiz dira:
 gazteai beren maitea azteko
 etorri zaie egokira.

Mutil maizterra etxe-lan urriz,
 irabazirako dago.
 Zenbait egunez (asko ba lira!)
 etxe artan du lan naiko.
 Lansari ona, otordu guri,
 ta sarien saritako,
 Gerriederren biotza arentzat,
 ua Garazirendako.

Urtaro artan artantzu, bildots,
 eiten dute zilipurdi,
 gaztain ezkurren indar berriaz
 inarrausirik zintzarri.
 Zozo-bikote datorrenean
 ez dira negu-bildurti;
 udaleenean ernal ba dira,
 azi dezate axuri.

Esnetan urtu ziraden amak
 ordura artean begi-illun;
 burua zuti, jasez dabilta,
 laister daitezke zintzardun.
 Gaztaina janez muturra lastu
 ta bizkarrezurra legun;
 antzu naiz ernal ote zitezken
 artzaiak ezin ezagun.



Larre-zerriek, ezkur ta gaztain,
artzen dute ere aragi;
zerramak esne-irai usuaz
saldo guri guria azi.
Basurde, muxar, satagin, sagu,
lur ta lurpe diran pizti,
otordu onik aurten ba dute:
asarre ez dago eiztari.

Garazi, Mikeli, arloro doaz
argizirrintaz apustu.
Loa aiza dute (—ez baita ain astun
elkarnaia zanez sortu—).
Mutillak aga bi sorburuan,
neskatxak saski ta zaku;
lakatz-biltzeko matxarda dizu
Garazik etxean aaztu.

Zangoa baiño miia ariñago,
garai-zantzua gal dute:
Bide-erdi bage, biligarroek
xinta ñabarra jo dite.
Ark zirika ta, leiatzen dira,
ez andik luzaro arte.
Aiek baiño leen gaztaiñadian
langilleren bat ba daite.

Aurre-egunetik gaztaiña-pilla
aitak orbelez estali,
zarbaz ta sasiz, abar lodiaz,
ausar ez daiten ortzuri.
Gure gazte ook eldu orduko,
ari zan jalki ta jalki.
Zumez bizkarra berotu arte
ez du nai andik igesi.

Basurde izua jeki-berri da,
bero dago oraiño ogea;
orbel dario, ez da iñarrausi,
ez da joan urrutira.
Txoriak, aldiz, nabari dira,
zabaliz dioa argia.
Egoaizeak ez du lo egin:
alper bakar eguzkia.

Gure Elederrek eseri eta
oiñetakoak askatu;
basakaturik ain arin ez da
abarrez abar goratu.
Garazik beetik: —«Matxarda aaztu zait,
bat egin bear didazu»—.
—«Leenik lurreko ale jalkiak
magalean bil etzatzu.

»Agoxabalik orrako or dagon
mitxirrika goiztarrari
iñarrausi bat emanen diot,
bertan baititake jalki.
Magal-magalka bete zazuke
dakartzun zakuto xuri,
afaltzen gogoz nik jan detzadan
datozela zure eskuti»—.

Abarrez abar, suge bailitzan,
jetsi da zugatz-gerrira:
ala maiteren burutik dator
biotzeraiño zirrara.
—«Begira jausi!»—. «Ez bildur, maite».
Itz oriek esan-aala,
eskuei listu, oin biak berdin,
egin du jauzi lurrera.



Gaztain-urtume urtxilarekin
egiten dio matxarda;
neskatxa maitez minduarentzat
alako zurgiñik aal da?
Zugaz-gaiñera igo baiño leen
bekie zillegi itz alda,
batak «begira» besteak «erne»,
aizatuz maitasun-galda.

Mutillak: «Etzait oraindik aazten
Begibakar'en patua,
gaztaiñapean ari zalarik
baitzuen begi galdua.
Gora begira, morkotsa jausi,
zori txarreko ukitual!
negar ta negar, oiñaze ta min,
geldi zitzaion urtua».

Neskak: «Nik ere berritzen dizut
Galartza'ren eroria:
adarra zarrat, buruz erori,
beean arki du arria.
Bi eskuz aga tinkatu eta
egin du oldar aundia:
beste adarrrik ora aal baiño leen
aizean barrena dia».

Mutillak: «Eder, ibilli zaitte
gaztain batez urrenean,
oarkabe ere sar etzaitela
ari naizanaren pean.
Lanera noa, guk nai baiño leen
aita eldu ez daitean.
Gurdia bete genukenetik
ba gaudeke itxedonean».

Berriz igo da Mikel Eleder
leengo ondoaren gaiñera;
Gerriederrek ezin etsi du
argandik begi-kentzera.
Esku bakarrez adarretikan
dilindan atzera aurrera,
naiz buruz beera zintzilikatzen
zango biak gurutzera.

Artan, Garazik burua itzuli
barne-zirrara aundirekin;
mutil bizkorak sar nai lioke
maitea bildurrarekin.
Noizik bein zear-begiratu bat
alare neskak duke egin.
Alako batez bien begiak
billatzen dire elkarrekin.

Aize naasiak andik emendik
gogor dardaratzen bailu,
amar erroko gaztain mardula
mutillak gutxiz muskildu.
Biek, isillik, aldi luze bat:
egin bailute apustu.
Ale jalkiak bildu ta bildu,
nexasak zakua bete du.

Lau gaztain moztu ditu mutillak,
neskak iru biltzerako.
Gurdi-otsa da. Ba datorkie
aita eguzki orduko.
Txondar-zulora pillatu dute
morkotsa bizar zutiko,
saskia bete, saskia irauli,
gurdia mukurutzeko.



Saskia bete eskuarez neskak,
mutillak gurdian ustuz;
gurdira igota oin bien bidez
berdinkaratuz zalkatu.
Neskak lasago dauka biotza,
—ez goien ikusten balu—;
urruenerako deus esan baiño
isillik utzi naigo du.

Aitak, etxera gurdi-gaztaiña,
gazte ook, ekin lanari.
An ari dira, lanez elkarren
ederra nola irabazi.
Mikelek aita jaunaren naia
nai luke limurrarazi.
Alabarena egintxea du:
besteren ez da Garazi.

Gaztaiñondoa muskildu-aala
jeisten da neskarengana.
Itz laburño bat esanarekin
borobiltzen dio lana.
Urrena aita jaun etortzerako
egiñen lana bikaiña:
aren agotik entzun nai lute
langille on aipu bana.

Gosal-ondoan gogoak dio
muxarrak arrapatzea:
esku-ekusi bereizi batez
sarithu nai du maitea.
Afaritako, leenez gain dute
giar goxo ta koipea.
Etxean dagon amona ez da
nonaiko jan-ontzallea.

Etorri da aita. Beste gurdia
ezpaiñeraiño beterik,
abarrez, ostoz, estaltzen dute
goroitez ongi loturik.
Gazteak, gosál-legea egin,
ta aita etxera dalarik,
lanak aurrera ditutela ta,
bai ote dagon muxarrak.

Ezkur-urte da, baita arto-urte,
ardientzat belaxaka:
muxarrak uzta joria dute,
eiztaria ba da sailka.
Pago, zaar, gaztain, zulo dutenak
daitezke pozik araka;
kabi oietan eskua sartuz
aterako da atzaparka.

Gaztain arteko pagoa duzu
aberatsa muxarretan;
egurretako, gerri gaiñetik
moztua baitzan gaztetan.
Aizkoraz ongi berdindu bagez
ura sar zaio euritan:
andik asten da galtzen, zulatzen,
muxarzaleen pozetan.

Gaztain goiaren adar goietan
eizean zuen ikasi,
baiña lurretik maiteri lio
nola dan nai erakutsi.
Poz ar-emanak ezin lezake
maitetasuna galetsi:
tantak adarra baiño barnago
biotza deza soatsi.



Pago legun bat gazte zaartua
aizkora ankerraren bidez
arakatzen du eskua sartuz,
—maitea ikaraz ta parrez—.
Leenik muxar bat gizen gizena,
beste bat, giarra koipez,
iru ba ditu. Ziri ta ziri,
laugarrenik ageri ez.

Etsitzen ez ta, kakoa sartuz
orbela du ateratzen:
«Ogerik bage —maiteri dio—
iñor etzaigu etzaten.
Muxarrak ere biguiña nai du,
iñor ain bage ez gelditzen,
—eskaleren bat, gau epelean;
neguz, barnera aalegiten—».

Beatzez autsi lepezurra ta
gordetzen ditu zapelan.
Aurrera doaz eskua sartuz
or, an, zulo jakiñetan.
Neskak zugatz bat begiz jo dizu,
an muxarrik ote litzan;
Mikel maiteri galdegin dio
zergatik billatzen ez an.

Mutillak irriz: «Ba dakit, maite,
or ez dagola bizirik;
etxe orretan ez da gaur sartu
jan ta lotara muxarrik.
Ez dakusagu amaun sarea
dagola urratu bagerik?
Orrek atzitu zaitun bezala
atzitu nai zinduket nik».

Zulo au, ori, ezagun ditu
etxeke leioen gisan:
aen yaiorik etxe-billatzen
ez dabil uri aundian.
Sal-erosleak agurtzen baitu
jende ezaguna perian?
ala Mikelek pago bakoitza
derabil bere begian.

Andi igaz zenbat muxar atzeman,
igaz-leen zenbat besteti...
pago guzien, gaztain guzien
istorioa ba daki.
Bakoitza zeatz jalkitzen dio
Gerrieder maiteari;
baiña ondo batek besteen aldean
ba du zerbait jakingarri.

Bost ume ta ama zituen igaz
zulo artatik atera;
eskuz ez kakoz iristen ez da
zuloaren ondarrera.
Goizago norbait ibilli ote,
usu doa jakitera:
zakurrari ots, ark igarriko,
galdu ez badu usaikera.

Intzirinetik ezagutu du
zuloan zerbait ba dela:
isats lepoak geldi daduzka,
an da du nonbait okela.
Nagusiari milika dio
aretan saia daitela;
lardai piztua eskuan du, ta
lanean asi da beela.



Beko zuloak goikoarekin
 ba du inolaz ar-emanan;
 baiña kakoek elkar ez jotzen,
 erabat ez baita jana.
 Goitik okillak zula-adarra da,
 beetik aizkoraren lana:
 tarte, zirriku, bide, bidexka
 keak billa deza dana.

Goiko zuloa arkoskoz ertsi,
 beekotik eman dio su;
 barnean diran loti biziak
 kezaz esna ta zoratu.
 Ataka-billa, gora ta beera,
 beekoan daite zirriku:
 Mikel Eleder ez dabil nagi,
 ernerik begi ta esku.

Atzeman ditu bi muxar eder,
 bat arra ta bat emea;
 itxedoten du bi «Kredo» tarte:
 jende txerrik ote dea?
 Sua itzali du, ta alarik ere
 ez da beela atertu kea;
 berriz muxarrak sartu ditezen,
 zabali du goi-atea.

Zortzi muxar, ta naiko gizenak,
 beteko dute zartari;
 aiekin gaztain errez esnea,
 ba dute naiko afari.
 Mutillak, ortaz, ekarri dio
 mokadu eder neskari
 berak ere bai, itxaro duke
 bein ez bezalako sari.

Berriz arlorantz dirala, neskak
 esker on dio Mikeli:
 aren antzea gora nai luke
 ta iztxurikatzen ez daki.
 Izketan ere eiztari den ark
 itz erdiño bat du aski;
 gainera Gerriederrek
 uste ezik dezake jalki.

Mutillak, aldiz, oroitzen dio
 Anbulute'ko zokoa,
 Urli igandetean baxaran-biltzen
 neska ari izan zanezkoa.
 Magala zabal, eskaini zion
 bere lanaren ondoan;
 esker egiñez artu baitzion
 beterik eskuzuloa.

Artean, Maitek etzitun uki,
 soillik zuten gazte-lege.
 Emai arek au berdin dezanik
 Garazik, bidez, ez du uste.
 Emaiarekin gogoan barnen
 argi nabari daiteke.
 «Au besterik da» bildurti dio;
 mintzoak sala dezake.

Ardi sarkoia esi-inguruka
 dabilla argigune billa;
 ibilli, itzuli, begira, geldi,
 ez daki nondikan zila.
 Alako batez erabaki du,
 —ala da gure mutilla—
 itzez neskaren barnera bide
 oraintxe du uste dakila.



«Zer dirudizu artazuritzez
egin zuten bikotea?»
Par murrizta du erantzun-orde.
—«Al ba zinduket nereal»—
Ezpaiñik ez du neskak zabaltzen,
aski du begitartea.
—«Baiña maizter naiz».— «Zer dio? baita
beso langillen jabea».

Itz onek dardar eragin dio:
entzun du gogo zuena.
Ataka zabal sartu daiteke
aren biotza barrena.
Isilgune bat egin ondoren
berritu dute lan leena.
Maiteak berak ematen die
bear duten iraupena.

Bizkor-belarra jan dute, nonbait:
sartu zaie lan azkura.
Batak lurrera besoak luza,
besteak jaso zerura.
Eskuak bezain biotzak bizkor
ari diraden itxura.
Gaztaiñak moztu, morkotsak bildu,
bazkal-garaia da ingura.

Neskaren aitak bazkaria du
itzai dalarik eraman.
Neskak bereela saskia jaso,
zabaldu maaia lurrean.
Bazkaritara otsegin dio
leen bai leen jetsi daitean.
Belarriz erne, zangoz ez nagi,
ez du dei bigarreanean.

Lanaldi gaitza egin dutela
ta aitak ditu goraipatu.
Neskak, tarteko muxar-eizea;
barnean ezin gorde du.
Mutillak, eskuz beiar legun,
esertokia autatu du.
Bazkal-artean maitea nai lu
legunago begiztatu.

Gurasoen itzalak, orde,
aldez dezake eragotzi;
baiña noizik bein begirune bat
lapurtze ez aal da zillegi?
Ain zuzen ere, basora doa
ikazkin Erramun Mari:
nagusi jaunak eserazten du,
bai baitu gainez eltzari.

—«Onenbesterik artua nauzu,
—dio— ni zure basoan.
Artzai nintzala, ikazkin-baba
biok jana dut gogoan».
Kutxarez, orde, bat gutxiago.
Estubiderik etzuan:
lantegin bertan ikasi baitzun
ogiz ta artoz zurgingoan.

Ogi-ertzari mamia kenduz
egin dio zorrotena;
jan-aala bustiz beratzen da ta
beura jaten dizu urrena.
Berriz ta berriz xalinko berri
eiteko ba du aalmena.
Eltzeko ondarrak bukatu arte
axalak ba du iraupena.



Oi danez, jana on aipatu du
 ikazkin Erramun Marik:
 babak ederrak, gazta garaia,
 Larraunen ez da alakorik.
 —«Bordako belar, Lizardiko ote,
 jan zuten etxeke ardik.
 Negu-buruan, bildur giñan ta
 eman genien aletik».

Gaztaiñaroa, ikazkintzara,
 irauli dute jarduna.
 Naiz baterako, naiz besterako
 ez dago aro lizuna.
 Oinbeste gaztain, bestenbat egur,
 bakoitzak gogara duna:
 solas aretan oarkaberik
 gautuko litzaie eguna.

Neska mutillak ez dira asarre,
 ez ere keiñu-debeku.
 Bata besteren leiaka dira
 nork leunago begiratu.
 Itzik ez dute zillegi, baiña
 biotzez dira mintzatu.
 Aien barnean Maitasun, zenbat
 ari dan, zeïnek asmatu?

Bart arratsean larratz garbia,
 gaur goizean ziza zuri;
 artzaik, eiztarik, asmatzen ez du
 zer indarrez diran azi.
 Negu-gau batez, lurmen dagola,
 jekitzean elur lodi:
 Maiteak ere istillu bage
 lanak egiten ba daki.

Gurdia betez aita bidali,
 iardausi ta alea bildu;
 langille izena ez galtzearren
 ez dira lanean auldu.
 Baiña mutillak neskari esan
 ele bi ondora nai du:
 abagunea billa ta billa,
 iñondik ezin arkitu.

Etixerakoan, elkarrekilan
 etor bezala jun ezin;
 etxera aurretik neska bear du
 ta amonari lagun egin.
 Bazkal-saskia buruan artu,
 —an barnean muxarraakin—,
 ondarrak biltzen gelditzen dala
 Mikel-bakarrek luke min.

Lana atertu ta bi itz esatea
 zerbait iduritzen zaio.
 Atsalde-erdiko puska jatean
 labur itzegin lezaio;
 baiña oraïndik ez itza nabarmen,
 naiz ez dan mutil soraio;
 kantak itzalpe geigo dula ta
 gaztain-gaiñetik au dio:

«Itz gutxiz ezin esan nolako
 dan ene maite Garazi.
 Itz askoz ere nork adirazo
 nolako ditun bi begi?
 Beso ta zango, gerri ta galtzar
 txetxea bada zillegi,
 mingain motel au mintzatu-aala
 biotza mintzatu bedi.



»Mendi gaiñetik ikusi ditut
elkarren albo larrain bi:
baba beltzaren eultzia dute,
garbitu baitzuten gari.
Larrain-erdian losa garbia,
buelbaka an beor-gidari:
eraztun beltxantz orren barnean
dirudila begi-nini.

»Orren begien larrain bietan
nindeke beor-gidari:
begizulo oien erdi erdian
nindeke betiko nini!
Eguzki beroz eultzitu niro
maitetasunaren gari;
orren biotzak irindu leza
biurturik eiarra-arri.

»Itza zillegi bedi; galtzarrez
neska au ez da Uitziko:
ez ditu serail, ez ditu tontor,
gorderik dauzka lotsaro.
Iduri dute gazur-pertzean
leer-berri diran maskulo;
euri-ondoko eguzki-zizak
eguna bete ez duteño.

»Labainak ditu meakak, baiña
saskittoa tinkatzeko
naiko nabari.
Nekez ikusi
ditiot beso ta zango.
Uretan iñoiz luze, biribil,
oiala baiño zurigo;
zenbaitez ere belarrekoan
larrak odolduta gero.

»Gerria berriz... artatik ditu
Gerrieder izenondo.
Aren mintzoa zein biguin ote?
Oso bakan zaigu mintzo.
Oilloai deika goizean goizik
noiz baiño noiz nik entzungo;
ta nere saiets igarotzean
agur doi doi bat esango.

»Begiak beti bereganantza
goizean Jauna artu bailu,
ta Aren oroitzak biotz-erdian
aunzar egiñez balirau.
Itzalkera bat —ez dakit zer dan—
munduan iñoiz agertu bada,
Garazi bai dala aingeru!».

Au entzun eta, gaztain-bilketan
gordetzenago du buru.
Bazkal-ondotik kanta-aurreraiño
morkots-aldiri jaso du.
Orain ordea, lana bukatuz,
okotzez jo belaunburu:
oillo egarri bazan leenago,
orain izai gose dugu.

Mutillak, itzez ezin esana
leertu du kantaren bidez:
mingain-motelak alaxe dira,
itzez naasi ta kantuz ez.
Maitetasunak bizkortuko du
aurrera ausardi emanaz;
moteltzen bada, mintxotuko da
leengoa berriz esanez.



Atsaldekora deitzen du neskak
lanaldi egin ondoren;
zer esan ezin asma dutela
diote elkarri beiratzan.
Gerriederrek muxar-eizea
atsegiñez dio oroitzen;
aiek saskian, etxera doa
afari-gaia antolatzen.

«Gaztain zaar ori muskildu, bildu,
zaborrez estal ezazu,
larre-zerri naiz ezkur-basurdek
ez dezaten muturkatu.
Amonak bai poz, muxar oetxek
ikus detzan bezain usu!
Zu an orduko, afari goxo
etxean antola dugu».

Mutillak begiz jarraitzen dio,
basoan izkuta deño;
andik irtenik, aize biguiñak
loetan jo du maiteño.
Artzai goiztarra, errian zuri
ikus dezanean laño,
ez da pozago, listua kurkaz,
gure Garazi dan baiño.

Oraindik an du belarrietan
maite-kantaren zantzua:
«Munduan iñoiz agertu bada,
bera omen aingerua».
Orduko lotsa poz biur zaio,
orain zuti du burua;
ekaitz-ondoko eguzkipetik
ala lore zutitua.

Etxera sar ta poza gaintzen da
neska-amonen biotzetan,
neskak zearo jalkitzen dio
ziradela muxarretan.
«Ez uste, naski, —aurreratzen du—
egun-lanaren kaltetan:
Mikelek biren kemena ba du
bakarrik gaztain-mozketan».

«Gizenak zeudin —dio amonak—
ezkurak il din gosea;
nere ezur oek igurtzitzeko
bildu duzute koipea».
Ezueria zuen amonak,
tinkin zebillan bernea,
gerria mako, saiets bat labor,
sudurra soillik luzea.

Sendabide au ikasia zun
aitaren aitonengandik;
saiets osoan barreiatzen zun
beatz-txikarra bustirik.
Ezur guziak aska lezazke
igurtziz lodiagorik;
tanta bat utsez zula dezake
solairua alden aldenik.

Muxar-gurin au urre-ordaiñez
saldu oi da Naparroan;
aiton amonak gantzugailutzat
darabilte zaartzaroan.
Aralarren zan apaiz nagusi
Larraun guziren gogoan:
bere gaitzaren sendagarria
billatzen zuen pagoan.



Amandreari burura zaio,
damurik burura ere,
koipe orretan mutillak bestek
ez dizula eskubide.
Garazik kezka uxatzen dio,
—egin baitu denen jabe—:
«Ortik urtzen dan muxar-guriña
amandrearentzat gorde».

Zerri basurdeen zati berberak
ditu muxarrak barnean:
eizeko oriek zerri-antz dute
gantzean ta gizenean.
Eiztari-poza zein aundia dan
sumatu dute goizean.
Zer eztaï-aurre duten bereela
bi gazte ook afaltzean!

Illunabarrez, Migel ageri
Anbulute'ko egira;
leenik begia zuzen zizta du
Gerriederren kabira.
Goizgorri baiño maitego du
arrasgorriren diztira:
onek, arean, baitakarkio
biamon on idurira.

Mendizaleak, errira agertuz,
kantarako du gogaldi.
Gure Elelderrek gogoan duna
kantetan azaldu legi.
Miiian oztopo bat jarri zaio,
—ez nai oraiño nabari—
gaztain-gaiñeko goizeko kanta
biur du kanta-marmari.

Josemendi'tik beera ardiekin
Gorritxo dator oiuka;
oraindik ere buruan dizu
egin Garaziri kuka.
Siñeskeri bat ustel irtenik,
beste bat dabil asmuka.
Au ere oker irten baledi,
onekin dezake buka.

Mikelek kanta au gogora dizu
artako doi doi jarria,
ikazkin Daldai Xuberokori
txikidanik ikasia.
An eman zizun marmari bage
dardatuz eztarri, miia,
oi dan bezala, bere asmura
erriko izkuntzaz naasia:

*«Ba nabilazu karriketan
ene paseiu onetan.
Etsai bekaitza begira dankat
non sarturen ote nizan:
eupa bizkor bat eginen diot
maite, zu zauden lekuan».*

Atean sartuz, muxar-usaia
zartarian du sumatu;
amona illobak —ama illa baitzun—
aroan atzeman ditu.
Oles jakiña, aurpegi ona,
afaria laister gertu:
muxarrak eta gaztain erreak,
esnea dutela atzesku.



Lizar-arbaren galda zuria
danboliñak du eskatzen;
besoaldi bat sutara dute,
baiña ke gorri emaiten.
Itotepean egonak ziran
ango euri maizak artzen.
Bustigunea listuka aizatuz
isillik dira gelditzen.

Danboliñari itzul-iraulka
bakan asten dira aurrenik;
gordin-soiñua moteldu-aala
eragiñez usugorik.
Arbaztak bildu, arbaztak eman,
ez utzi galda atertzerik;
txigor-soiñua entzun danetik
eskuak ez du pakerik.

Tiroek ere bana banaka
ematen dute gaztigu,
aurrena bakan eizeko gisan,
gero, gerra-antzera, usu.
Oriek oso isil dirala
gaztaiñak dira xigortu.
Ataka zabal, erreka diran
noiz nai ditezke aztertu.

Zenbaitek, azal gorriantzatxo
oraindik ageri dute;
txanpon-giteko mailluz jotzean
agian, itsas litezke.
Azal-xigorrak eskuan geldi
nai lukete lanik bage;
beste galdaldi labur batekin
aski beztuko dirade.

Gaztain-azala ikazten zaigu;
mamia, aldiz, gogortzen ez:
euzkiak ala loia gogortzen,
urtzen, orde, ezkoa berez.
berdin-galdaren ondorea du
lagundurik esku-lanez.
Danboliñeko gaztaiñik ez ba-
duzu jan, isil gaztaiñez.

Saskira atera ditu Garazik
eta oiaiez estali;
an aogoxo artuko dute
jan arte zuku ta jaki.
Lanak egiñik, gauzak gaiturik,
astera doaz afari.
Eguerdiz ainbat begira ai lio
maite bata besteari!

Ortzak zorrotzik, su-atzean da
Mikela-Borda baldana.
Amaika baba ta artopil bero
ango sukaldean jana.
Etxeko andre zabalak ba du
zabala bear-izana:
otordu batez errez jan leza
lau egunetako lana.

Arta-jalkitzen aria duzu
bazkaltzetik afaltzera;
arek jalkia zamari batek
ba deramake eiotzera.
Etxe-orde dun baztar artara
laister datorke atzera,
egun ta iguzki egin ez dizun
artzekoa lakatzera.



Okotzaundia, begi-ekzela,
galbaia aiñeko ezpaiña;
ortzez ederra, agoz betea,
gaiñez dario mingaiña.
Oñak igesi, besoak zintzil,
koloka du buzkar-gaiña;
ipurdia, aldiz, galdu-einean:
orra neskazar liraiña.

Gazte-jendeak ba du parraldi,
esanaraziz ipui bi.
Azpikoaz gain esan oi ditu,
bat bera zuzen ez daki.
Kantetan ere saiatur da,
naiz leena kantatu beti.
Aretxengandik ikasi nizun
leen eta azken-ahapaldi:

*«Nik zartaria,
zuk burrunzalia:
sutegiko lana
bi ook erdi bana.
Besteek eman jana
ta poltsan bear dana,
aisa bizj diteke
bera nor dana».*

Gure Elelderrek zirikatzen du,
besteren bat kanta dezan.
Begiak itxi, burua argi nai,
zimurra ateraz kopetan,
eskuz okotza estu dularik
gogora du bat batetan:
«ara beste bat oso polita,
ez dakit asma dezadan»:

*«Arrosa eder baratzean
loratzen da maiatzean:
amodiurik ez duenak
ez du minik biotzean».*

Lelo orrek maiteen biotzari
egin dio ozki samurra,
—basurde-eiztarik atsegin baitu
aipa dezaten elurra—;
min, orde, biek kanta polit au
izan dedin ain laburra.
Mikelak, aldiz, afari-min du,
ez dauka pake sudurra.

Afalondoa konta dezake,
—ori du kontu betiko—
zer ta nola ta nondikan nora
bizi zan Mari Muiroko.
Jan deza, artean, gazte ook ainbat
soillik zartari-ondoko;
igurtzi igurtziz lanik ez galtzen
gurin-kutsua kentzeko.

Afalondoa luzatzen dute
oi dan baiño berantago;
gure gazte ook kux-mux ditugu
irauliz zerbait gogoko.
Pizgarrigorik ba dute naski
neska aren ipuia baiño.
Artaz aazturik, zail ez da asmatzen
zertaz ote diran mintzo.

Gazteari aitak atzeman die
zenbait aieruzko keñu,
orotaz gaindi luze ta samur
isilkako begiratu.
—Ala sugeak aize-cgaztia
lurretik du lilluratu—.
Bien erdian beurea artetuz
maite ook ditu banatu.



IV. IRULEAK

Garoak bil zituten, egurrak metatu,
kristau ta abereen janak goi-gelan atetu.
Betorke nai duncan gure zaar Negu:
izotz, elur, bisutsak ezagutzen tugu.

Norbaitentzat, alare, zein urrun dago uda!
Leenbiziko otzikara San Simon ta Juda.
Esaerak dionez negua eldu da:
sutondora da atsoa, artzaia galdu da.

Zortzi illabete negu ba da naiko luze;
lio-lanak guzia eralgiko dute.
Betiko negu ori bikaturik ere,
atso-kontuak errez igaro dezake.

Goizetik gauerdira eguna luzatuz,
lo-naia, aizatzen dute ipuiez ta kantuz.
Euskaldun ele-ederrak urtero berrituz,
agoz-ago «omen»ka gerora bialduz.

Argia urratu bage jeki da garbari:
oillarrak esnatu du erne zan belarri.
Azken-soiñekoz garba bizkarrean jarri,
ta auzora lagunekin dioa kantari.

*«Lo nago ta logure, argi-oillarrak jo dute,
argi-oillarrak jo dute eta eguna sumatu dute.
Mari-begibakarra, ken zan besteko makarra;
ur beroz ezin garbitu badun, begira zagon paitarra.*

*Jeki adi, Katalin, uztan oia, Mari Martin;
lagun guzi ook goazen lanera bizkarrean garbararekin.
Errekaldera bide bat, Mumo Txikira beste bat:
orien bien bitartean sortu da sortzekoren bat».*

An zuten egun artan Mikel lio-jotzen;
deitzen duten egunik ez dizu utsegiten.
Neska asi da labetik sortak ateratzen;
mintzatzeko biderik ozta dute galtzen.

Erdi-irrintzika asten da Mañazi gaillena,
ukondoa jasorik, berotuz barrena.
Milla aldiz jasoko du jotzean armena.
Lio-xorta bukatzen ez dabil azkena.

Ondotikan lagunak ark aiña kalaka;
lotsaz ez du geldi nai iñork atzeraka.
Autsaldi bat emantez, egin dute taka,
eskuz igurtzitzeko darion mullaka.

Isilgunea dute batean egiten,
auzo guziko berri irauli dezaten.
Iturri naiz sukalde naiz ukullu daiten,
lan bera dute beti: besterik jorratzen.

Armenaren puztan bat garbatu bezala,
bestea jotzen dute iduriz oiala.
Iztargaiña arri dute, ta an igurtzi-aala,
arriak jalkitzen du gauz ez dan azala.

Bakoitzak bere xorta bukatzen dulariki,
lio!, otsegiten dio neskari Mañazik.
Ez dadukaten arren mingaiña geldirik,
areago ditute besoak zailurik.

Amonari diote eman suats-lana;
sukaldean ari da onduz aien jana.
Ornitu nai lituke aurten berreun kana:
orobat ezkon-sari zun, amak emana.

Neskak beretzat digu landu lierria,
amaika urtetatik an aitak berezia.
Lio-lanetan baita ain ongi ikasia,
bilduxea bide du ezkontzeko ornia.



Aurtengo sortak dauka mandioan bereiz;
ez bear bezain igar, aurten jotzeko ustez.
Baiña Mikel an baitu, an azken-egunez,
joaziko ditio, ez bien asarrez.

Ondarrak xeatzeko ba dizu jotzaille;
Azpirozko Marttolo, maiz an dan eskale.
Mikela Bordaren bat sortuko da ardazle.
Neska bera da, bere lana egingale.

Etorri da mutilla, lanari dakio;
neskak, xeatu-gaia ondoratzen dio.
Zerbait isil-gordeka adiraz nai lio:
ain mugonik edonoiz etor ez lekio.

—«Goien dauzkat nereak aski ezo oraindik;
zuk jotzea nai nuke ez balitz okerrik»—.
—«Ekatzizu bereela, labean sar leenik;
artean ariko naiz igarren ootatik»—.

Arlo aundia nai du orietan egin,
besteak xea-naiez atzera ez dedin.
Besorik balin badu, egiñen aalegin;
azalduko du lana beste edozeiñen din.

Eztenik ez pattarrik ain zirikagarri;
geitxo edan bailuan, bero bero da ari.
Neska etortzerako irabaz du sari.
Tartea arkituko du elduz arenari.

Burua are ez du alper ari zer esanen;
berak jo, neskak irun, bien lana elkartzen.
Euna bezala ari da maitasuna azitzen:
geurtz an bien izena bai aal du bordatzen.

Lioak, bero-arin, sorgiña iduri du:
kolpe batez biguindu, besteaz gogortu.
—Maitetasunak zenbait erabe eskatzen du—
indarrez neke dana kantaz samurtzen du:

«Sabela betetzeak duela izardi?
larrua estaltzeak zer duen nork daki?
Leen-gurasoei Jaunak ez gogora, naski:
esatera noazu labur bezain garbi.

»Lurra antola, berdindu, erein eta atera;
zerbait era bear ta, gaiñezko du jorra.
Azkortu ta garbitu, sartu erre kara,
aldi bateko dago samurtzen azala.

»Zenbait aldiz, ujola bulartzen danean,
gain-arriak iraul ta derama lorrean!
Andik atera eta bibelar gaiñean
meeki zabaltzen dute, zoztortu daitean.

»Zer zoritxar gerta da? Ikara da auzoa:
eriosuar duzu atso-sail osoa.
Aize-zurrunbilloak naasi du lioa:
mugaz berdindua da guzien arloa.

»Santurik balin bada zeru-baztarrean,
dei egiten diote erdi-negarrean.
Alperrik daitela ta, besterik ezean,
arri ta zur, begira daude zelaiean.

»Apezik non ote-da? Non lege-gizonik
zurea ta *nerea* bereiz dezakenik?
Ainbanatzeko ere ba du eragaitzik,
aizeak egaletan eraman dularik.

»Lioaren nekeak urte dantsu dirau:
udaleen, azken, negu, aste, egun eta gau.
Irun, austu ta eio, berriz austu ta xau:
bost kolperen lana da nire soiñeko aul

»Ez du guzia neke, bai ere atsegin:
onek elkartzen gaitu aiten aitonekin.
Irugarren amonak irun zunarekin
egindako jantzia deramat nerekin.



»Gure amak, kutxean noizko oialak ditu?
Amonen amonekin nik galdu dut kontu.
Bere eskuz, ezkontzeko zitunak eundu,
besteenbat eta geigo ondarez zun artu.

»Sare-xulo bakoitza lau ari-gurutzez:
aiñezkak zenbat zizta, neurtzen asi zaitez;
baiña ardatzaren birak guzi oien gaiñez:
zenbat gau eman zuten ipuiak esanez!

»Nere amaren ama dizut nik amona,
okotzez ta sudurrez berbera dagona.
Aitaren aita, berriz, dizut nik aitona,
bere aitaren taiu bereko gizona.

»Aitonon maillua ta amonen ardatza,
sukaldea leengoa, leen-legeko pertza.
Leengo burtzin, burtzingo, leengoa laratza,
berbera amonengandik datorren ugatza.

»Itza biurtuko dut maiteñoarengana:
begi-aurrean daukat aren esku-lana.
Arlo bat landu zizun aitamek emana;
gaurgero ornitu dizu ezkontzeko on dana.

»Aitzurrez lurra landu, eskuarez irin,
zelaitzen du, leenbaileen azia sor dedin.
Euriaren laguntza ostaratearekin;
berrogei eguneko, lorea dizu urdin.

»Besteek lagundu dio gaiñeko lanetan;
baiñan ardatzerako bakar da gauetan.
Kiloa dezanean altxa gerrietan,
izpi guzi ook detza pasa beatzetan.

»Ezpain eta mingaiñak berebat lan dute,
aria berdintzeko txori-lepo bage.
Zein ezur-mamirentzat opa ez diteke
olako musu goxoz egin dan maindire?»

Ondora zaio neska, zertan dun arloa:
ark ekarri guzia bukatuz daroa.
—Goxo dira gaurgero ogi, gazta, ardoa.
—Goxoagoz beterik daukat nik gogoa.

«Lan ontatiko oialak bereizi arretaz,
balia bagindezke gu bi ook aietaz.
Zure naia ala balitz, ari pin gorriaz
batera zazu zeure izena nereaz».

Neskak etzun besterik buruan iraultzen;
baiñan izkutu ori nola ager zezaken?
Itzik ere etzun jalki ark asmatu arren:
begiz ta parrez, naiko garbi itzegin zuen.

Isil itzuliz, neskak itz aundirik ez du;
baiñan iduripena ez darabil antzu.
Mutillak oraindio egin dio deiñu,
esan nai ditiola azken-itz bizpairu:

«Erenegun aitari mintzatu nintzaion,
zureari gai ontaz agertu zekion.
Usu jakiñen dugu gogoko natzaion:
ala izanik liteke bi oontzat zori on».

Itzala sumatu du neskak inguruan,
burua makur eta eskuak agoan.
Bere lanera itzul da, dantza bat buruan:
ardatzak baiño bira geigo du gogoan.

Artean, garbariek lanen aringarri,
irauli dute lurra mokoz oni ta ari.
Baiñan alki dirala oitura zarrari,
txintxurra bustiz, ekin diote kantari:



OI BART

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
usapal bi ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
lau oillo, iru uso, usapal bi ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bat.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
bost antzar, lau oillo, iru uso, usapal bi ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
zarpi bei, sei aari, bost antzar,
lau oillo, iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
zortzi idi, zarpi bei, sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
beratzí zezen adar aundi, zortzi idi, zarpi bei,
sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
amar labealdi ogi, beratzí zezen adarraundi,
zortzi idi, zarpi bei, sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, eta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
amaika zagi andangorri, amar labealdi ogi,
beratzí zezen adarraundi, zortzi idi, zarpi bei,
sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*

*Oi bart, oi bart, z'er aparta genuen bart!
amabi zagi ardanzuri, amaika zagi andangorri,
amar labealdi ogi,
beratzí zezen adarraundi,
zortzi idi, zarpi bei, sei aari, bost antzar, lau oillo,
iru uso, usapal bi, ta eper bat:
iru atsorekin amabost agure,
ez giñan goseak etzin bart.*



EMEZORTZI SERORE

*Emezortzi serore eta bortz emagin,
buruz arindu eta sartu dire sorgin.
Uxta egiten dute larunbat gauerdin,
erratz-girten gainean zaldiz doazanin.*

*«Uju jupa labirulena, jupa jupa beti,
odei guzien azpiti, sasi guzien gaineti.
Sorgin oroin Errege da Akelarren jarri.
Jupa erran dezagun, beti bizi bedi.*

*»Oillo beltz eder orrek daukan egitea!
Emakume zaarrenak sorgin biurtzea.
Karakak egin eta, aren arroltzea
bero bero da, baiñan laister du oztea.*

*»Jakizu Zantantzarrek duela kargua,
gaiso idukitzeko erri-ingurua.
Lumazko bururkoan dauka deabrua,
penaz akabatuzeko gure medikua».*

ARDO GORRI NAPARRA

*«A, a, a, ardo gorri naparra
alimentu ona da,
edan aal balin bada;
a, a, a, ardo gorri naparra.
E, e, e, ni ardoaren alde.
Edan ardura bage,
balin bada debalde:
e, e, e, ni ardoaren alde.
I, i, i, ardoak gaitu bizzi.
Noiztik bein ongi busti
edan bage ez utzi:
i, i, i, ardoak gaitu bizzi.*

*O, o, o, au bi oontzako dago.
Edan dezagun oro
nik orain ta zuk gero:
o, o, o, au bi oontzako dago.
U, u, u, ardoak galdu gaitu.
Geiegi edan dugu,
hurra igaro dugu:
u, u, u, ardoak galdu gaitu».*

NI ILTZEN NAIZEN EGUNEAN

*«Ni iltzen naizen egunean,
ez egin nigarririk aurrean.
Ezker eskuinetati
zagi zatoak jarri,
ardo ori itxi-idikian
edan dezadan zeruian.*

*"Libera me Domine" kantatzean
ez busti isipurik urean;
ardotan busti zazu,
an ongi sartu zazu;
ori naiko dut orduan,
bizian bezala hilean.*

*"Pater noster" apezak esatean,
ez ni ehortzi Elizan;
ehortzi nazazute,
murgildu nazazute
ardangelaren barnean,
buruz kupela batean».*

TXANTON PIPERRI

*«Txanton Pipirri emen dago,
limosna on bat balego.*



*Kanta bear dot, baldin aal badot,
neure sabelen gosea,
erruki dedin jentea.*

*Iru lagunek Ispasterren
apostua egin eben,
jango ebela goizik gauera
amar erraldeko txala,
nerau langarren nintzala.*

*Pozez nengoan zoraturik
jateko lauren bat osorik.
Nere kontuak beti alanguak;
joan da poza potzura,
amesak diran modura.*

*Lekeitio'ko kalean
bisigu denpora danean,
ogei txitxarro eta geiago,
eta guztiak gauean,
sartu dodaz sabelean.*

*Orduan kontentu nago
ganerdi osteradaino.
Andik goizera neure sabela
beti dago gur gur gur:
bartko aparria agur!*

*Guztiz zabala dot sabela,
bardin-bardin dot gibela;
este bakotxak kabiuko lenke
gambela bete okela;
baino noz izango ote-da?*

*Ez da errota arririk
neure agiña langorik.
Neure agiñak zatiuko leuke
ogi andi bat osorik,
balego biguin-biguiñik».*

BESTA BIHARAMUNA

*«Iragan besta biharamunean,
berek dakiten xoko batean,
lau andre: hirur mutxurdin, bat alarguna
jarririk itzalean,
barri xabal bat belhauen gainean,
hari ziren, hari ziran trukean.*

*Zer othe duten nik jakin nabi
pitxarrarekin bertze jaun hori;
zorroa du biribila moko beba,
tente xutik egoiki:
xabako bat othe-den nego ni,
hanpatua, hanpatua ederki.*

*Jes! Nik oraino zer dut ikbusten?
Zer begalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, burua tente,
xabakoa z trufatzen,
—bihotzez azkarrago zeren den—,
kuiattoa, kuiattoa hari zen.*

*Handik ximiko, hemendik irri,
haurrak bezala jostetan hari;
gogotik emanen dute begi-kolpe bat
begalpean denari;
bitz bat erran gogo diote sarri
beharrirat, beharrirat kuiari.*

*Seina truk dirade zazpietarik,
tantoz orobat bi aldetarik;
xabakoak eroria mokhoz ipurdi,
naski odol husturik;
kuiattoa han dago etzanik,
azken-batsa, azken-batsa emanik.*



—Gezurrik gabe goazen, Maria,
eman jokoan ezti-eztia;
burbil zan untzi beltz hori, dezagun edan
trago bat edo bia;
bibotza dinat epheltzen hasia;
barek zuen, barek zuen grazia!

Zabagiaren seme joria,
nun duk aixtiko zorro lodia?
Gaizoa! lehen-birundan xurgatu dautek
odolaren erdia.
Orai hor ago, zimurrik aurpegia,
kokoriko, kokoriko jarria.

Nabiz zeraukan azken-eskua,
Mariak zuen hasi gudua.
—Truk—. Jo zan. Maria'k xango, Katixa'k xaldun,
Marixumek hirua.
—Mari Martin, xoratu zain burua:
lauarekin biruaren keinnua—.

—Ago, Maria, othoi, ixilik,
ez dun ikhushi nere keinnurik.
Xorta bat edanez geroz, begiak ñir ñir;
Zer, ez dun abalgerik?
Edan bezake azkarren bortarik
gatilua, gatilua betherik—.

—Ba zakinagu, tresna makhurra,
ez dunala bik hatsa laburra.
Ez dun, ez, dionan bezala, borma xurgatu
biribildu muthurra,
ez eta ere gorritu sudurra,
milikatuz, milikatuz elburra—.

—Apho mutxurdin moko-biphila,
zeren ondoan othe-habila?

Hatz badun gibelaldean,
ikhusiko dun zenbat naizen habila;
xuhur balin badun, neska xirtxila,
ago ixil, ago ixil ixila—.

Kartak utzirrik eta tantoak,
han zituzten han gero saltoak.
Bakharrik hiruren kontra, zer eginen du
gure Martin gaizoak?
Nabiz izan azkar zango-besoak,
bartu ditu, hartu ditu paloak.

Herriko besta arrats-aphalean,
lan gatu zabar Angelus'ean:
bat maingu, hirur saltoka, sorginak puies
zobatzilla bidean,
nik ikhushi ditut amets batean
Akbelarre, Akbelarre gainean».

Bukatu dute lana atsalde-erdikoaz;
ontan birbiztu dira edari beroaz.
Ez da aspertzen mingaiña letani bat joaz;
gu baiña, aiek utzirrik, bestetara goaz.

Neskak eioak ditu eun sare buruan;
Mikelengana doa lan berri besoan.
Ark ere erabili du zertxobait gogoan.
Iñolaz ere, ez dio gordeko kolkoan.

—«Ez duzu lio-ondarrrik utziko jo bage».
—«Zuregatik, Garazi, eguna dut bete.
Labean ez baduzu ondar aiek beste,
oraindi itz bi iraultzeko astia ba nuke».

Mikelek erazten du burutik zapela,
andik isilgorde bat artzeko bezela.
Ille bat errotikan erauzten duela,
ezpaiñez aizatu du, esanez onela:



«Leen arkitu dezake onek bere erroa,
alda dezadan baiño dakizun asmoa».
—«Esker onez artzen dut zure ele beroa,
ainbestez alki balitz nire gurasoa».

Artean, izkutuka ari da Gorritxo,
iztupa ta suaren aztarrena artzeko.
Gerriederrek Mikel ote-dun, maiteko,
luza arren, nai baiño leen zaigu jabetuko.

Sorgin-agin-zuloan koka-aala mullaztar
lurrean ipintzen du ikara ta dardar.
Eskutan atzera artu, artu-utz milla bidar,
bere burua atzitzen naiko lana dakar.

Igartxo dalakoan, agoz du lurrintzen;
erabiliz, ordea, geiago sorgintzen.
Zer gogora, zer asma, ez deusik asmatzen;
noizbait utzi bear ta, erabat dio uzten.

Zarpatik atera du sua piztekoa,
—errezalea da ta berekin daroa—,
Mustulur'en an dago zuti pagondoa:
aren katxak luzaro sua gorde doa.

Oilloa batabila suge erdi-illarekin,
lepo-illea laztu, el nai ta ausar ezin,
mokozko bat eman ta izuz iges-egin,
mizto ager-gordeak eman bailezo min?

Ala ari da Gorritxo su eman, ez eman;
irazeki baiño leen bai baitakus egan.
Urrats alperrik aski egiñik birundan,
kokoriko jartzen da belauak ikaran.

Ustekabe luza du suaren eskua,
onela laburtuko du arnas-estua.
Garra arturik, bereela billa nai zerua,
ezin zuzenagorik jun da aingeru-sua.

Itzali zaio oraintxe leengo itxaropena:
neskaren orde, gauzek diote etsipena.
Ark ere emain lioke, dudarik ez dena:
Mikeli jarkitzeko non, orde, kementa?

Garazi'ren etxera jun dira ardazleak
illun-ezkilerako, orraztuz illeak.
Oraiño ba ditute ele ta meleak:
kanta argien urrena, naigabez beteak.

Itsasgizon ikazkin, negu-gau luzetan,
gordin jarduki bitez ontzi txaboletan.
Atsegiña dezagun guk billa bestetan:
atso arrai orien ipui ta kantetan.

Nor bere alkietan saiets-antza jarri,
luzatzeko tokia besoari utzi,
gorputz erdika dute dantza jatorra ari:
ez daude lanik bage lepo eta gerri.

Zenbait istori alai eman ta geroxe,
eriozkoetara egin dute bide.
Nondik asiko eta aipa da Alos-torre:
zarauztar zerrariei ikasia dute:

ALOS TORREA

*«Alostorrea bai, Alostorrea,
Alostorreko zurubi luzea,
Alostorreetan nengoanean
goruetan, bela beltzak
Kua! kua, kua, kua leiuetan.*



»Etxe eder leio bage onetan
 enaiñ sartu zuzpi urte auetan;
 eta zortzigarrenean,
 neretzat zorigaitzean,
 Aita Beltran'en iltzean.
 Amandrea nerea nizeaz
 bi erdi egin zanean,
 milla oillo il ziran
 ezkaratzean,
 zuzpi zezzen korritu ere
 enparantzean.
 Ni ere ba nengoan
 lumatxo artean,
 eta nere ama andrea
 urre-gortuñ artean.
 Gero Bidania guzian
 bat zan erorik eta zororik,
 Aita Jauna nereak aura
 senartzat eman dit;
 baiña ez nuke trukatu
 obeagoagatik.
 Aita jauna nereak
 niri eman zidan
 iminian dotea;
 amandreak ere isillik
 bere partea.
 Leenen gauean
 begiak, biotzak, loen mendean,
 baita berriz ere bigarrenean;
 irugarrena igaro baiño leen
 ondo poztu zinan, Alostorrea,
 eldu zalako neregana semea.
 Alostorrea, bai Alostorrea,
 Alostorreko zurubi luzea!
 Alostorreen nengoanean
 goruetan,
 bela beltza kua kua
 leioetan.

Andik jaiki eta
 urre-gorua jo nuan;
 baiñan andik laister
 berri gaiztoak jo ninduan.
 —Zaldunak esan zion: "ixi, xixi,
 ama-doillorkumea,
 ez da bada ori zure esaterea".

—Ixi, xixi, zaldun
 odol txarreko gaztea!
 Ala ere gutxiago zan
 zure eginpidea.

Aizpa ederrak or daude
 ederrik eta galantik,
 atz ederrak eraztuz betarik,
 ez dankatela mantuetan zulorik;
 ala ere gutxiago begian negarrik.
 Amandreari ere bai,
 poza dario.
 Nere biotzari bakarrik
 mindura jario!
 Aita jauna nerea
 Gaztelan zanean,
 ixil askorik jaio zan
 Alostorreen semea,
 eta alare ixillagorik dago bakean,
 azitzen Zarautz-aldean,
 gure jatorriaren loitukerian.

Ai au mindura beltza!
 Au nere lotsa!
 Alabak negarra ta
 Aitak lur otza!



*Zeiñek loitu zaitu,
Alostorrea!
Ai, nere aita maite,
aita maitea!
Iltzea ondo egin dezun,
aita jaun maitea».*

Beatzetan irra ta agoan listu-min,
bi kanturen tartean ba dute ere iruzkin.
Urren arloa dute Lohitegi'rekin,
ezkon-egun bereko alargunarekin:

*«Goizean goizik jeiki ninduzun
ezkondu nintzan goizean,
baieta ere sedaz apaindu
eguzkia ateratzean.
Etxeko-andere zabal ninduzun
hameka orenak jotzean,
bai eta ere alargun gazte
eguzkiaren sartzean.*

—Murde Irigarai, ene jaona,
altxa izadazu burua:
ala damutu ote zaitzu
enekin esposatzea?
—Ez, etzitatadazu damutu
zurekin esposatzea,
ez eta ere damutuko
bizi naizano lurrean.

*Nik ba nizun maitetxo bat
mundu ororen ixilik,
mundu ororen ixilik eta
Jinko Jaunari ageririk.
Buket bat igorri ditadazut
lili arraroz eginik,
lili arraroz eginik eta
erdia pozoturik.*

*Senar illa eduki dizut
nik zazpi urtez etxean,
egunaz lasto piska batean,
ganaz bi beso artean.
Zitroe urez ukuzten nizun
asteen egun batean,
asten egun batean eta
ostirale goizean».*

Ez dute aaztu ere jauregi-alaba,
Erregeaz ez jun nai emazte Hungarira.
«Or da Euskalerrian Atharratzen Sala:
ez naute ni salduko idia bezala».

*«Atharratze jauregian bi zitron doratu,
Hungriako Erregek batño du eskatu:
erantzuna ukhan du ez direla huntu;
huntu diradenean batño ukhanen du.*

Atharratzeko hiria ordoki:
hur handi bat dizu alde bateti,
errege-bidea erdi erditi
Maria Maidalena beste aldeti.

—"Aita, saldu naizu idi bat bezala;
ama bizi ukhan banu, aita, zu bezala,
ez ninduzun ez jualan Hungria'n behera;
baina bai ezkonduen Atharratze Sala'la".

—"Ahizpa, jua zaite portialia,
engoiti horra duzun Hungria'ko erregea.
Hari erran iozu ni eri naizala,
zazpi urthe huntan ohean natzala".

—"Ahizpa, ez nukazu ez sinhetsia
zazpi urthe huntan ohean zirala;
zazpi urthe huntan ohean zirala:
bera jun nai dukezu zu ziran lekhila".



—"Ahizpa, jauntz ezazu arropa berdea,
nik ere jauntziren dut ene txuria.
Engoiti horra duzu Hungria'ko erregea;
pozik utzi ezazu zure sortetxea".

—"Aita, zu izan zira ene saltzale,
anaia gehiena diruen harzale,
anaia gehiena diruen harzale,
anaia ttipiena ene laguntzaile".

—"Aita, juanen gira oro alkarreki:
etxera jinen zira pena handireki,
bihotza kargaturik, begiak bustirik,
eta zure alaba thunban hortzirik".

—"Ahizpa, zuaz orai Sala'ko leihora,
ipharra ala hegoa denez jakitera.
Ipharra balin bada, goraintzi Sala'ri.
Ene khorputzaren bila jin dadila sarri".

Atharratzeko ezkilak, berak errepikatzen;
hango jente gazteriak beltzez bezitzen.
Andere Santa Klara hantik phartitzen.
Haren peko zaldia urhez da zelatzen».

Zenbait urkabe-bertsu, Lanz'ko lapurrena,
ta amairu eriotza ein zitunarena,
ta abar, kantatu ziran orien urrena.
Ikus emen Imozko apezgaiarena.

Urka-bear bakoitzak bere egin-okerra
berez naiz bestez, ba zun koplatzeko oitura.
Gure gaiztagin onek ba zizun eskola,
ta Jainkoak lagunduz mintzatu zan ola:

IMOZ'KO APEZGAIA

*«Egirik bada, egi da naski,
urka-bearraren itza:
aundiena da Jainkoarena,
arren urrena apez-itza.
Bi oon tardean, ez da gezurti
ni lakoan eriotza.
Entzu itzazute zengait egi-itza
adieraz aal banetza.*

*Jainkoak deitu nindun bidetik
aldegin nuen, damurik.
Aren legea erakasteko
ez nuen izan gogorik.
Orain, ordea, emen nagozu
jendei aurpegi emanik,
urkamendiko eser-lekua
sermoi-alki biurturik.*

*Senar-emazte bi semerekin
il nituen gau batean;
iñork ikusi ez nindula-ta
geldi naiz erdi-pakean.
Barneko oiua ezin isilduz
nenbillen urtebetean,
guezko loa egiten nula
pekatu aren gainean.*

*Eliż batean sartu naiz eta
aditu dut bear ainbat;
oiu sarkorrak entzunik ere
biotza zekena daukat.
Apaiza ari zan, pekatu egin
ta gorde oi dunarentzat:
neretzat jator itzegin arren,
nik ez itz aiek neretzat.*



*Jainkoa (apeza) «Kain» oiuka
ta Dabid'i igarle Natan;
barnean piztu nai zuen arra
neronek itotzen nuan.
Aiek gogor, ni ez biguñago,
aldegin nizan andikan,
piztu nai zuen ar arengandik
iges egin ote-nezan.*

*Alako batez, geroenean,
atzitu nan justiziak;
ezin biguindu zuten biotz au
presondegiko kateak.
Eriotzera galdu ninduten;
orduaz ziran nekeak!
il-bildur onek mendera ditu
ni lako ezigabeak.*

*Nere buruaz, noizbait bear ta,
lotsatzen nintzan asia;
eriotzaren mugatik ara
ba da leize izugarria.
An erortzea jakiña neukan
ez banun damu bizia;
apeza laister eskatu nizan
ta, argaz zeruko grazia.*

*Gizon santu ark astindu nindun
burutikan beatzera;
barren au lasa-naiez, aipatu
zidan Jaun errukibera.
Bildur-lotsatiki eraiki nindun
Jaungoikoa maitatzera,
Jaunak bakarrik eskuan daukan
maite-damuan urtzera.*

*Pekatu ordeaz eskaintzen diot
eskatu ere eriotza;
urkabez baino damuz iltzeko
berri zadala biotza.
Ez dut ez etsai nik, urkabea
altxako didan arotza;
ez, estutuko naun sokaduna;
ez dut ikara lur otza.*

*Lepa-sokaz bat egiten dula
bioz-damua leer bedi;
gaiztakeri ook an urtu bitez,
zerura zuzen jun nadi.
Baino ordurako, zentzua galduz,
ontan iraun ez banegi,
orduko orain damu dut, Jauna,
damu biotz-biotzeti.*

*Zuk, nere eskuaz ildako oriek,
barka idazute zerutik:
Jaunaren altzo maitagarrian
ez daiteke gorrotorik.
Barka idazute, nere etxekoak,
utzij zaitutet bezturik;
damuaz, orde, nola barkatzen
ikasi Jainkoagandik.*

*Neri begira zauten guzji ook,
ikasi zer dan gaizttoa:
emen nauzute nere egiteaz
urkabe ontan igoa.
Luzaro bage, birrez estu
didatenean lepoa,
buka zuzute, neronek ezin
bukatu dutan Kredoa.*



*Berriz ta berriz azkeneraino
barkatu, Jesus aundia!
Idazu gaur gaur paradisu
lapur onaren zorria.
Zure laguntza-bidez idazu
damu erdiragarria:
ikusiko dut Jainkoren Jainko
itzaltzen ez dan argia».*

Arloa bukatuxe gauerdialdera,
ezin utziko dute linaien ondarra.
Nai ta nai ez erre edo irun ein bear da:
ostera, billa dator gauerdiz sorgiña.

Danbolin'en andreak komeri egiten
atxo guziak ditu parrez urrazten.
Amonak sukaldia txukun du ekortzen,
aingeruk, ez sorgiñak, dantzatu ditezen.

Beteluko sorgiñak orduko bil ziran
Lekunberri-ondoko bideburu artan.
An egin zuten dantza uju tarrapatan;
aurrek loa gozoa etxe-oialetan.

V. OLENTZARO

Txilborretik oztu da agure zaar negu;
izozteak elurra debekatua du.
Eguraldi gogorra beraixtuko balu,
laister liteke elurra, aurraren jostaillu.

Aitona sutondoan, anka-zaiñean min;
elurra aztiatzen du «ai ene» batekin.
Tximinitik kedarra jalkitzearekin
ago batez diote: «Elurra da atarin».

Nagusia leiora, goiak zer aurpegi;
goibel dagola, baiña oraindik ateri.
Edozerk ez dezake loa galarazi:
ez da, arean, elurra zalapartaz jetsi.

Leiora da berriro goiean nagusi;
arritu bage dakus ataria zuri.
Isil ibilli zaigu gure bidelari;
ez da ain ixil ibiltzen airean egazti.

Jendeak esaten du: «Zai-bageko iriña
balitz, pasa geneza neguaren miña.
Etxean ba daukagu este-bete-diña,
sugaia naikoa ta beien inaurkiña.

»Mandioa betea ostoz ta belarrez,
agotzez eta lastoz ta baba-malkarrez;
abere ta kristauak gaude osasunez;
ez gara noski bizi inoren bekaitzez».

Etxe-jauna larri da larre-beor billa;
Astakor'ko otadian mordo bat dabilla
belarriak uzkur ta begiratu umilla...
ez dute gaur egiten zilipurdi milla.



Igarritzen diote eultzirik ez dala;
orduun ale baiño orain naiago malkarra.
Aientzat ori dute janari bakarra
baldin ez balitza aski beientzat belarra.

Etxean bildu dira bei, ardi ta beor,
oillo ta zerriekin adiskide jator.
Zintzarri, marru, beka ta karaka legor;
iñongo musikari onek ez dio zor.

Gizona kantuz lizar-ostoa kimatzen,
saski naiz alkiari ipurdi-berritzen.
Emaztekoa, berriz, iruten ta josten.
Aitona, igararako artoa jalkitzen.

Belauna-gora asi da igotzen elurra;
bigar bearko dira karrika bi urra...
Endai eta peaki, pertxuna ta aitzurra,
errez dute ebakiko arro dagon lurra.

Elizarako bide ta iturrirakoa
beste kalerik bage ba dira naikoa.
Aitaren bizkarrean lasai mutikoa
oztu ta busti gabe eskolara doa.

Erria il-antzo dago, izkuta da Bizi;
atari-inguruetan iñor ez da ageri.
Etxeek il-oge ta erria il-erri,
ke-arnasa goietan ez balitz nabari.

Elurra bezain isil ba dator illuna;
jun da argitu orduko gabon-il-eguna.
Berriro leiora da gure Etxeko-jauna
elurrak ein ote dun koska ezaguna.

Zeru-mugan birundan dabil, arranoa;
ardi zaar naiz beor zaar erdi-il-billa doa.
Eiztariak basurde-zantzua du joa,
erritik etor daiten laguntza aundigoa.

Zintzo jarrai diote zauri-odoletik;
ez dute onezkero galduko susmorik.
Eiza dezatenean, zatiak egiñik,
zenbait egunez ba du bakoitzak okelik.

Pakean afaldu ta egin dute erregu,
andreek beren lanik ez dutela galdu.
Amonak oraiño, otoitz-ondarrak ba ditu;
illobak nai orduko ipuia asten ez du.

Ipuiez asper-bage illoba aspertua
loak menderatzen du agurka burua.
Jende larriak ez du oraindik ordua;
ark ere noizbait, orde, itzaltzen du sua.

Anka sartu orduko loak ditu artu.
Ez die elur-malutak loa debekatu.
Ardiak joalea auznarka asi baitu,
arek tantaka loa gorputzean sartu.

Olentzaro ba dator, il naiez gosea.
Aste aundia, nonbait, —txerri-ilketa astea—;
giroz bete dezake atsoak estea;
garaiez ere dator mutillen eskea.

Urrena Eguberri, urtaro alaia,
senideak etxera biltzeko garaia.
Elizkizun geiago, zabalago maaia,
Jainkoak artu baitzun gizonaren gaia.



Mikel lotsaz ta maitez aitari mintza nai;
bi etsai orietan nork dezake garai?
Neurria gaindu dizu egonik luze zai...
nongo ormak geldi leza leertzer dagon ibai?

—Aita, aspaldi dut gogoz Garazi Iriarte;
etxaldeko da baiña baitaratu zaite;
garbi itzegiñik gaude, elkar dugu maite;
bai-eske natorkizu iñola aal baleite.

—«Urde goseek, ezkurra amets», duk esana.
I aizen bezalako maizter ez izana...
nola niakerek aren gurasoengana?
Joan gaituk; ni ere leen zerbait izana.

—Joan gu? gure izena aen aal-da koskor?
Igarabide'k zer du Iriarte'ri zor?
An dago gure etxea Betelu'n ausarkor.
Bere bururen karga besterik ez du lor.

Bestetik etorria emen Iriarte;
izen orren etxerik denentz asi zaite.
Etxearen izena «Errekalde» dute;
bi izen ook elkar ezin eraio dezate.

Gure etxea balitza zorrak eramana,
eskuz alda bear ta ezkillak entzuna...
Zu baiño semeago aal zan an zaarrena?
Etxaldera dezake ark ere gazteena.

—Indarrak ongi neurtu; nai aal nezakek nik
Igarabide'ri iñork muzin egiterik,
aundiki, ala, nahiz, erregin izanik?...
Indarrak ongi neurtu; ez utzi ni motzik.

—Zer ari naizen dakit; jakiñik da neska
Gorritxo'rekin pestan izan nun burruka,
arta-zuritzen egin ziguten bikoa,
guregatik errian dabillen mintzoa.

Ba daki gaztaiñeko nere maite-kanta,
baita lio-jotzean izan genun itza...
Aitak bein atzi nindun lilluraz begira;
ta, alare, maiz deitzen nau etxeko lanera.

Egon lasai; ez dizu egiñen muzinik;
ez du maisiatuko gure bir-izenik.
Zer lotsa bear dugu, beartar izanik,
gizartean agertzen bagara garbirik?

Ukulluan daukazu ergi bat ernari;
larrean ere ba da beor eultzilari.
Oiek, oitura danez, ekatzitzu neri;
diruz gaiñerakoa nik dezaket orni.

Gazterik asia naiz basoko lanean;
an irabazi-aala gorde dut kutxean;
tarteko lanak ere ein ditut etxean...
ez naiz oetan lotsa iñoren aurrean»...

Isillik geldi dira. Asko luza bage,
aita au aita arengana aginduz doake.
Etsiko dun ustea ba du berak ere;
baiña bildurra guziz ezin oil dezake.

Norbaitek sar nai balu neguko oi otzera,
naiz, erantzita, aitzetik itsasoko urera,
ain laister ez deza aiza otzaren ikara,
ark aiza digun baiño barnetik bildurra.



Neskaren aita urrena ikusi duneko,
isil-gordeka deituz ola mintzo zaio:
—Agindu bat dakartzut... labur esateko,
semeak Garazi nai luke beretzako—.

Igarri zion Petri'k —ala zun izena—
asi orduko Manu'k —au bestearena—
seme Mikel'engandik itzez zekarrena.
Begi-zear egin du; zur, orde, entzumena.

Belar-izpia alaxe aize biguñera
makur da; aizea geldiz zuzentzen da bera.
Isilgune-ostean zuzen du bekera,
ta «Neskari esanen» soil erantzuer.

Beren bidetik doaz ze-esan oni ta ari;
Mikel'entzat du Manu'k sari denen sari.
Petri'k emanen dio berri on neskari:
bi gurasoak dira pozetan igari.

Aitak neskari dio: —«Ola t'ola Manu
emen etorri zaidan —Mikel'ek bialdu—
mutillak biotzean i aula aukeratu...
Ze erantzun bear dunan geldirik ausnartu»—.

Elur aundi goiz batez, zeru-gaiña garbi,
leiotik ikusten dut nik Aralar-mendi;
eguzkiak elurra jo du nabar-gorri;
ala dir-dir jartzen da neskaren aurpegi.

Mintza bearrrik ez du; bera da salatu;
berriz galde egiterik aitak zertako du?
Baiñan galde-egin dio —zintzo nai jokatu—:
«Nai dun, ortaz?» Irritik baimena du bildu.

Ain zuzen aste artan txerri-iltzea zuten;
ez zan neke aundirik bazkaria gaitzen.
Ortakoz autu dute Euberri-bigarren...
Petri'k Manu'ri dio bertan gaztigatzen.

Andik egun bitara Olentzaro mozkor;
jendeak barau du, ta arrek bete zilbor.
Baiñan gauerdiz gero goseak ez inor;
gorgin-apariz leenen tripaldia betor.

TXERRI-ILT'ZEA

Biamonez dei dute arakin Potxolo;
beste arakiñik ez da auzo guzirako;
urtaroaz jan oi du amaika aamen goxo!
galtzen ertzetik sabel-zorroa dario.

Lepoa motza du, ta bizkarra betea,
sudurra piper gorri, ezpaina aterea;
aizto zorrozten ba du begiko nekea
noiz-bein zimirka lastuz bekañeko illea.

Tupiki ta pertz ori or ditu amonak,
urtean agoz beera gorde egon diranak;
alare sartu zaizte barnera auts-ondarrak;
aiek astintzekoan ara min illobak.

Mari ta Matxin, amar ta amabi urteko,
—besteak illak ziran anai Txortxi'z gero—;
biamonez, ez daude lotan egoteko,
txerriaren kurruxka entzun duteneko.

Amona sukaldera orduko, mix beltza
isatsa zuti dula goizean antxe da.
Bart su-ondoan egin digu naiko loa;
ark ere ba du laister pesta-usai gozoa.



Sei gizon eira dira: —kurruxka jakiña
bezperako barauaz barnak eragiña—.
Urratzean, jario bai laite zikiña,
esterik leer ez daiten, erne da arakiña.

Txonko zaar, muturrekoz gizon bat il baitzun,
aurrera da urdeari atzemanetz legun.
Belarritatik eldu, naiz dedin muturdun...
Itzala bezain laister an ditu lau lagun.

Bota dute erroz gora; Potxolo-k iztupe
suur-mizpil mugikorra lotzen dio nekez;
Txonko zaarraren galtza zikintzen da aparrez.
Urdeak lepondoa puztu leer-bearrez.

Altxa du karraisia, maaiera jasorik;
amona pertzez dator Potxolo'n ondolik;
pertza tinko jartzen du txerri-okozpetik...
Aiztoa sartzen dio arek, ziñaturik.

Iturri gorri bero sortzen da bereela;
aurretik sartzen dio bildurrez bezela;
ez uki nai biotza leenetik; bestela,
odolak ustu bage geldi litekela.

Amona asi da besoz odolak iraultzen,
ez ditezen mamitu odolki baiño leen;
noizik mordoka batzuk ditu ateratzen,
—mullaztarra garbariik ala du bereizten—.

Txerriaren kurruxkak goiena jo dute;
gure bi xenideak laister dirade erne;
ezin-jekia botaz ta arekin maĩndire,
jantzi-arin dioaz otzak bildurtzeke.

Aiek beera baiño leen isillik asia
odolez ba du zerki orduko ixuria.
Biotza billa bio ta arekin bizia;
bizkortxegoa jo du azken-intziria.

Oraĩño odola ba du; laister agortuko.
«Ez dik ortzik —diote— geigo zorrozuko».
Asmo dute gaurgero urratzen asteko;
amona gora doa este-betetzeko.

Txerri-tximeltzea da urren zeregiña;
gari-lastoz ba dute su eiteko diña.
Ille gogorrik bada, arentzat eziña,
atzetik gori-gori dakarte burtziña.

Doniane-suetan dabilten zagia
baiño oraindi beltzago jartzen da txerria;
anketan luzarogo eukiz lastargia,
erantzi-ta azkazala, ager oin zuria.

«Ortzuri» deritzon au, onezkero «oin-zuri»,
burutik beatzera dena duzu guri.
Aiztoz marruska dute geldi dedin garbi;
orbel gaiñean, lotan dagola dirudi.

Urra bear diote barrena. Potxolo,
aiztoa beetik gora dula ari da goxo.
Dabiltenak alaxe oiñez urratuko
elur jausi-berria, oraiño mei deño.

Sabel-gaiñaz kontu du esterik leer gabe;
esteak saskira, ta billa dio bare.
Laiñoa dariola ein dio Gurutze;
«gatzetz —esaten die— burtziñean erre».



Ahamen goxo au du aurrenik beretzat,
gibela atera gero denen gosaritzat;
beazuna kendu-ta jaurti tellaturat,
oilloren batek jan ta ez dagian zapart.

Ijitoa agertu da katua ainbat usu:
«Egun onik! Txerriaan txintxurra ba duzu?»;
arekin inguruko puska-muskak nai-tu...
katuak ere bai, ta gaur ezin ukatu.

Peru, arakiñaren oinpera sartzen da;
—«Barnean sartuko aub»— entzun, eta atzera.
Garbituxe dularik, dei da gosaltzera...
Orduko pir-pir dago zartagin gibela.

Burruntzaliz, barrengo odolak bildurik,
zizkuetako tantak zapiz txukaturik,
bera beteko aga sartuz okozpetik,
seien artean arin jarri dute zutik.

Ba dirudi zerriak artza dantzaria;
baiñan —bakarrik ezin dagoke geldia—
dantzari-laguna du oin-abe zutia,
gaurko zeinbait dantzaren iduri egokia.

Garazi'k eta amonak eskuak bete lan
puxkarik goxoenak aitzoz txikiketan.
Onkaillu usai-ondunak odolaz batean;
alako odolkirik ez egiten bestetan.

Pertzean sar, irakin, orratzaz ziztatu,
—aien kezka guzia, ez ditezen leertu—;
igaz —gogoan dute— legortxo gertatu,
ta aурten eze-gurian sasoiā nai artu.

Atsaldean, Garazi baratzerā dia,
jateko billa, aal balu, aza bat zuria.
Besterik ezik, ba du osto ugaria,
bare-sare-gaiñetik biltzeko odolkia.

Orririk urdiñena goxatzeko ba da,
—praillentzat utzirik belarri eta anka—.
Odolki, txongo, mami exurra ta axala,
zerriak diraeño ondua du jana.

Odolki-banatzeko pozez bi xenide,
amonak esanera doaz etxez-etxe.
Gogoan eukitzeko beintzat «Zimelene»;
—andik besterenera ez baiteramate—.

«Odolkia ordaiñez» Euskalerrietan;
«To, gero ekartzeko» diote bestetan.
Mutikoak Urliren etxera nai joan;
nexuskak ere, beste etxe bat nai du aukeran.

Batean ur-intxaurrek ematen tutela;
bestean piku ondu ta saagar ximela...
Amonak: etxeetan mintza ditezala
«Egun on» ta «bai, Andre», «gutxia ar zatela».

Aste artako pesta, bai pesta biribil!
Kristau ta katuentzat ba da zerbait zarpil.
Biar labean erre balezate opil,
mutil gau-eskaleak an ba dute zer-bil.

OLENTZARO

Begi-gorri ba dator Aiton Olentzaro;
urteak egun ainbat begi ta bat geigo;
gurdia aiñeko sabel, aurpegi dana ago...
Nondik nora sortu zan jakin bage nago.



Onengandik egunak artua du izena
leengoek «Subilaro» esan ziotena.
«Subil» naiz «bazar-egur», naiz «enbor», bat dena
etxe bakoitzetara bina dakartena.

«Omentzaro» zer daiten ez dakit nik; baiña
—beste zenbait erritan Zanpantzar zikiña,
Kokoetan «Osaba» sabelzai lizuna—
gaur «onen aro» dala, edonork dakina.

Kristauak egiten du egun artan baru,
nonbait jaingo txiki ark bete dezan larru.
Tximinitik begira —sinets nai badugu—
baru naiz ez dun aurra itaiez keiña du.

Gaugero mutikoak eiten diote irri,
erabilliz errian txori-mozorro orri.
Gauerdia baiño leen du sorgin-afari;
mozkor au bizkarrean, diote kantari:

*«Omentzaro begi-gorri;
non atzia duk arrai ori?
—Bart arratseko amaiketean
Anbulute'ko arkaitzetan.*

*Omentzaro jaun ordia,
buruz ederki jantzia:
edan batean ustu diguk
sei arroako zagia.*

*Omentzaro pipa-artzaille:
pipa au nork bete lezake?
—Lizar aundi baten ostoz
nonbait-or bete liteke.*

*Ire mozkorrak irannen
illabetean gutxién;
buru goibela argitzeke
pipa maiz aal-duk erretzen».*

Ego-aizeak zerbait urtu digu elur;
menditik ekarriko gaur bi baztar-egur,
aiekin urteari egiteko agur:
Urte Berri artio bai baitute mutur.

Au Jainkoari eta au Andre Maria'ri;
erdikoa atariko eskale otzari.
Irurak sukalde digute onetsi,
Omentzaro'k ez dezan laratzik ebatsi.

Erdi-erdian dugu euskal-sukalde
ke-bide txaranbilla iduriz dorrea;
bi baztar-egur, eta erdiin egur txee...
gure aitonengandik degun aldarea.

Sukalde jantzirik jakiz ta egurrez,
illuntze ederra bekar Jaungoikoak onez.
Mutillek etxez-etxe kantan asi bitez,
zuurrei birau, zabalei eskerrak egiñez.

Ele-eder, bertsoetan errian nagusi:
aurten aukera dute denen buruzagi.
Kanta zaarren artean naasiz zenbait berri,
bera asmatzen dio etxe bakoitzari.

Aurren-aurrena doaz «Zimur»en etxera,
deus ez emanik ere loak astintzera.
Amandreak atea ez idikitzera,
botako dute igazko biraua ber-bera:

EGUBERRI

*«Oles! ta (i) Oles! etxekotxoak!
nik jotzen ditut ateak;
nik jotzen ditut ateak eta
ongi erantzun jendeak.*



*Errekaldan izotza,
goiko ganbaran agotza...
bion artean kanta dezagun
Jesukristo'ren Jaiotza.*

*Zorioneko Eguberria,
argi baiño leen asia;
argi baiño leen asia eta
dirdai obegoz jantzia.*

*Zeruetan gu sartzeagatik
gizon egin da Jainkoa:
esna zaitzete lo zaudetenook,
au da gauza arritzekoa.*

*Etxe ondoan eder duzute
intxaurra lerden-lerdena...
Nagusi Jauna kopla dezagun
etxeko denen aurrena.*

*An goien-goien izarra,
errekondoan lizarra...
etxe ontako Nagusi Jaunak
urre-gorritzko bizarra.*

*Urre-gorritzko bizarra eta
zillar zuritzko bizkarra...
erreal txiki z egiña dauka
Elizarako galtzara.*

*Naparroan da Bardena
Kaparroso'ren urrena...
etxeko Andrea kopla dezagun
Nagusiaren urrena.*

*Etxeko Andre zabal,
toki oneko alaba:
bidean nator ondo jakiñik
eskuzabala zerala.*

*An goien-goien elorri,
ondoan jota erori...
etxe ontako Etxeko Andreak
Ama Birjiña dirudi.*

*Gaiñean gona sedazkoa ta
azpian gona Olanda;
egun ta eguzki ez dira zaartzzen
limosna on bat eman-da.*

*Sentitzen zaitut sentitzen
ari zarala jekitzen;
zure gerriko giltza-soiñua
emendixe dut aditzen.*

*Ora-maiean sagna,
aren begira katua...
etxe ontako okelarekin
ez da beteko zakua.*

*Atso zaar oni zitzi dario
okotz eta mokorretik;
odol-ustu bat komeni zai
gibel-aldeko zaiñetik.*

*An goien-goien lainoa,
aren azpian otsoa...
arkakusoak itoko aal-dik
etxe ontako atsoa.*

Noizbait agertu dira Garazi'rengana;
jaun-andreak koplatzen egin dute lana.
Gero jo dute neska zaarrenarengana
zeiñek uste lezake gau ontan etzana?

*«Atea jotzen ez dugu lanik;
dena-den dago zabal.
Etxe ontako jende noblea,
Jaunak bedeinka dezala.*



*Askan eder da garia,
—aren gainean txoria—...
eraztun batek bildu lezake,
neskatxa, zure gerria.*

*Usoak egal gorrizu,
moko-aldea lumazu...
orren aingeru txukun polita
nondik agertu zara zu?»*

Orduko jetsia zan ziztor-uztaiekin;
kantaria apaintzen da lepoan batekin.
Arraultz-amabikoa urdai-puskarekin;
guziak ekar ditu par goxoarekin.

*«Etxeko alaba Andretakoa:
norbaitek bazaitu maite,
datorren urtez garai ontako
etxeko-Andretu zaitte.*

*Kakotik ziztor, askatik urdai,
kabitikan arroltzea...
bizi-bizirik zeruan zegok
etxe ontako jendea».*

Eguberri-egunez, atsaldeko gizen
erri-etxean dute dutenagaz biltzen.
Jan eta dantza, alkarren lagun dira agertzen;
eske-biltzea dute Inauteriz aurten.

Baru baita, afarixka egin dute etxean;
gero kontu-kontari edo-ta musean
nor bere etxean edo adiskidenean.
Meza alaiara doaz gauerdi danean.

Soin berria jazteko aurrak dute eguna,
inpernuko beltzari kenduz begi bana;
Meza Nausira doa gauez jun ez dana,
berdin kentzen baitio —ala da esana—.

Sorgin-afaria da Mezaren ondotik,
—gau aretan sorgiñak ez dute batzarririk—.
Bakoitzak apaltzen du aal dezaketetik:
ez da palta aulenean saiets ta azpizunik.

Arek esteki-zopak, besteak odolki;
edari goxoena eman deituari;
baiñan agotza aurrena ta alea beiari;
lasto orde belar biguin asto gaisoari.

Aundia! noizean bein —ala bei-umatzez—
nagusia ikullura jetsi oi da gauez;
bei oro, buru-aundi, etzan-eta arnasez;
eztituzu jekiko ostiko jo bagez.

Gaur orde, erne ta zuti, Gau aundia usmatuz,
janaren eske daude elkar milikatuz.
Etorri da Jainkoa, pakea zabalduz,
eguzki itzal-bageko, zizkuak billatuz.

Eguberri, bai berri!... Elurra gogotik;
aingeruk maluta-antza dirade zerutik.
Jaun Jabea daukate aragiz jantzirik;
makurtuz muintzen dute arri-lur egiñik.

Elur ori, ordea, batzuntzat deabru,
—etziko apustua galaziko ote-du?—
Onentzaroz, zer gerta, ditute erriratu
enborrak: legorteak ez detzan gogortu.

Biamonean dute ezkon-otordua,
eztaia gogora dun egun ezititsua;
bi gazteek ar dute maaiaren burua;
ez da au neskametzeko neskaren ordua.

Mutillak ekar ditu ardoz amar gurbil.
Ikulluko zekorrik ez da zergatik il;
zerri il berria neskak; labean atzo opil:
onenbestez ba dute gosea nola isil.



Jan-edanik, Ele-eder bertsoetan da asi;
ba du gaurkoan ere etorri ezerki.
Aurrena agurtzen digu alboko Garazi;
gero guraso ta abar; ta aurrera darraiki:

«Senar-emazte-gaiook bear tugu uztarri;
neurria artuz buruan gaur digute jarri...
Ederki datorkigu maaieko bazkari;
asierako lan au ez da nekagarri.

»Egiaz uztartuko geran egunean,
zama aundi jarriko omen-digute lorrean.
Errez deramakegu lepoen gainean
elkar artu ezkeru maitez ta pakean.

»Gurasoen etxea bizkor eramaten
ez gera bildur, Jaunak badigu laguntzen.
Eriotzak ez badu uztarri au austen,
saiako gera, are ta geiago jasotzen.

»Ondorenik balitza binaka ergirik,
eziko genituzke gerook agindurik.
Geroon semeen semeak altzoan azirik
eun urte jo detzagun elkar maitaturik.

»Topa zuri, Garazi, ta bion aiteri;
topa maaiean dauden deitu guziera.
Nai dudan zorion au zintzo gerta bedi;
gaurko umore onek iraun beza beti».

Gauero (orain arte ezin) emendik aurrera
mutilla sar diteke neskaren etxera;
sutondoan jardukiz etxeko batera
neskari sogiteko izanen du era.

AIZKORA-JOKUA

Aizkora-joku-egun. Jendea zai dago:
Leitza'k eta Uitz'i'k elkar billatuko.
Ari-talka etzaie beelaxen aaztuko.
Batak auntzak nai; besteek artzeko geiago.

Iztar erdiraiño da elurra gainean;
anka jaso dukenik ez dagoke Leitza'n;
zurian beltzik datoz —euliak esnean;
obeki itsas-antzarak elkarren atzean—.

«Leitza Aundi»k «Larraun»ekin auzi zaarra dizu:
aalegin, eta ezin era bat garbitu.
Amar urtez aizkoran Larraun zaio buru;
baiña oraingoz, austeko itxaropena du.

«Larraun guzian gizon bizardunik balitz...»
oiua bota dute oi duten arrandiz.
Orren begira zegon Uitziarra, aldiz,
bera autsi dezakenik ez dagola iduriz.

Leitza'n ba dute seme aundi «burubeltza»
—gizon-orde euskaldunek zarabilten itza—;
bi aldiz gizon dala berari deritza,
etsaiari begira, onela da mintza:

—«Mutil gorrixka, ez aiz nere leporaiño;
aizkorarik ezin duk jaso zeruraiño.
Noizko sartuko ote-duk enbor-erdiraiño?
Damutzen bazaik, esak; beta duk oraiño».

—«Leitze-landan jan dukan baba-lasto tantai,
egiñen duk ortz-lana, jartzen badite maai.
Asi baiño leen ez dit jokurik galdu nai.
Erau bildur aizela garbi diok orai».



Erritarra ñoago; baiña ba du kozkor;
besaburu, ukalondo, belaunburu bizkor;
besoak luze ditu, lepoa gizenkor:
indarrez leitzarrari betere ez dio zor.

Asteko esku eman oi diote elkarri,
—leitzarrak ontan ere ba dizu arrandi—;
indarrez eltzen dio ta aal bezain biurri...
—«Gorde-zak, besteek dio, geroko indar ori».

Igorik mozkorrera, biook ziña dira;
eskuetan aizkorak, «Ots» entzun-begira...
Ostartean eguzkik egin du dirdira;
bandera antzo leitzarrak aizkora du bira.

Artean gaiñekoe ba zuten mar-mari,
—alaxe erle-mulkoak, umatzen dala ari—;
baiña orain isil dire, lasaiena larri;
—izutu-usoak ala pagoetan jarri—.

«Ots» entzun da, ta biak bat-batean jeki;
asi dira gaiñetik oiu ta karrasi;
batean aizkora sar, berriz berdin zuti:
ala dira ardatz batek dabiltzin kako bi.

Leitzarrak asi dira: «Gurea gorago;
ortaz, sartu bear dik aizkora barnago.
Bazkaria leenera; guk baietz lehenago».
Apusturako, oraindi berorik ez dago.

Amabi kanerdiko lan polita dute.
Zenbat biotz koloka azkena bota arte!
Ezpal txikia asi du Leitzak, usu kolpe.
Leen itzuliko ote-dan oro begi daude.

Ontan itzuli zaigu; a zer istilua!
«Eu, motell, gu gaituk, gu! Ik duk apustua!».
Karrasi au mendira-orduko or oiua!
Uitzi itzuliko zaio; ba da arnas-estua!

Lasa ari dira biak —estutzeko ba asti—;
Leitzarrak aio daude noiz baiño noiz autsi.
Aiek sinets-eziñik Uitzik dizu zati,
erdia eta geigo jan alderdi bateti.

Karrasi berria da. Andik sei kolpera
bota du Leitza'k ere. Oiuak ostera.
Moteltxego ote-diran —ez doaz Leitza'ra—;
ondoza jausi dira urren-egurrera.

Or, an, zantzulariek Leitza'ra bidean
eskua sarri dute belarri-ertzean.
Leenak urrengoi ez dio deus esan:
soillik entzuten dute taupa biotzean.

Ukaldi sarrigoa Leitzarrak ari du,
leenengoaren koska berdintzen aal balu.
Berriz egur-gaiñean leen zaigu biurtu;
baiñan itzal antzera besteak atzitu.

Aundia da leitzarra, baiña bizkar-uzkur
aaztu zaio jekitzen, etsaiaren bildur;
ukondo zabaltzen da kidarra bete, ur;
ezin aizkora jaso uste bezin gaillur.

Uitziarra, berriz, dena den luzatuz,
oin-muturrean dabil, dun indarra bilduz;
ukondo elkar jotzer aizkora barnatuz,
gerriz dardara, eta belaunak jokatuz.



Orain ere sartu du, erdiz barrenago;
berriz uitziarrak botako leenago.
Erritarrak oiuk ditute gorago;
leitzarrak ez ditugu berriketa-gogo.

Argigunea ba da ezpal-gurutzean;
dar-dar egurrak ein du; joan da kolpean.
«Ez duk i aiñakorik mundu zabalean».
Amar kolpe, ditio ken bigarreanean.

«Jozak motell», leitzarrak diote erdi-damuz.
«Oraindik ba duk lana; jeki adi buruz;
arnasa lasai artzak bularrak anpatuz,
emak kolpe, ta atera ezak belaunburuz».

Irugarren enborrak soiñu bana dute;
batarenak igarra, besterenak eze.
Apustua norena nork esan dezake?
Itzuli da leitzarra; besteak du neke.

Ogei kolpez gerogo itzuli da Uitz;
estutzeke diardu, zer lan dun baitaki:
bi illabete egur arrek, zutela ekarri;
beste arek lau egun: alde au izaki.

Bukatu du leitzarrak; entzun du deadar;
aurrerapen onekin berriz artu du indar.
Jauzi egin bestera, ta asten da su-ta-gar.
Besteak galdu ditu kolpez ogeitamar.

Leitzar zantzulariek adirazi dute.
—Leitza'rako bidea ez leen ainbat luze—.
Erritar txeeak, larri: galdua dakuste;
adituak, ordea, ez estu batere.

Egur ua, amargarren egokitzen zaio
leitzarrari; orduan elkar ikusiko.
(Egur banak epai bi dituan ezker,
bana dute zotzean aldiz epaitzeko).

Laugarrenean dute leengo koska bera:
kolpe bat edo beste txikiak atera.
Urrengoetan ere ala alde-aldera.
Urbildu gabe doa amargarrenera.

An ari zenun Tantai, eskuk bete lanez;
Txikiak ikusi du zerbaít atsedenez,
ankazabalik eta betetxo arnasez,
besoak ez bildugo, gorputz dena nekez.

Eskuin-anka jasoaz, bailitz zorrotzaille,
aizkora ateratzen du. —Motxa laguntzalle—.
«Orain galdu aiz» dio berrituz jogale,
asieran ari zan bezain txukun-zale.

Bere koskaz ta geigoz leen bota du Txiki'k;
orain zeruetara oiua Uitz'i'k.
Alde gutxi da, alare; baiña leer egiñik.
Aundiak onezkero ez digu gauz onik.

«Ontzako urre bat» oiua Uitz-i'k.
Erantzuten diote guziek isillik.
Elurra bera bezain leitzarrak zurbillik,
ankaz dardara, bildur-listua iretsirik.

Azken-aurren erdian oraindi leitzarra
aurpegiz itzuli da; beela uitziarra.
Atsedenez ari zan, baiña enbor osoa
sei kolpez bota dio, ta bestera doa.



Leitza azken-egurrera igotzen da nekez;
 besteak zuritu du zura leen-etzpalez;
 erdia billatu du; itzuli da parrez...
 leitzarrak galdua du egur-erdi batez.

Buka baiño lenago, leitzarrak etxera
 ekaitzean dabilzan biliak bezala.
 Birarik eman gabe, «Aundi» malkoka da...
 Uitzu-aurrak irriz ondora bil zaizka.

Oraindik Leitza'n ez da olakoren berri:
 «Ogeitamar kolpetan Leitzakoa aurret»...
 Ariak galdu, baiña «auntzak» irabazi.
 Samigel-pesta ordeztu aurtentzen Eguberri.

VI. IÑAUTERI

Olentzaroz Jainko Aundi,
 Iñauteriz jainko txiki:
 euskal-sabelak beti billa du
 napar-ardo eta zitzi.
 Aietaz ase bat egin, eta
 dantzan asten da bizi.

Iñauteri-aurrean,
 irutan ostegunean,
 gizon, emazte, gazte ta zaarren
 jaiak elkarren ostean;
 iñauteriak iru egun, eta
 barau Austerre-egunean.

Erri osoan gaugerero
 ez da txerririk iltzeko;
 azpi, saieski, ziztor naiz urdai,
 oraindi ba da biltzeko.
 Anton Koko'k mandoka dakar
beltza, barna berotzeko.

Larru-zail zan atsoa
 orain ipurdiz artoa.
 Aitonak ere, jai sumatuz,
 zuzenago du lepoa.
 Non ote-da gaur erri guzian
 naigabez dagon zokoa?

«GIZAKUNDE»

«Gizakunde» leen-eguna
 jainko txikiak diguna.



Mutil gazte ta gizon elduak
zaiñetan alaitasuna.
An jauzi eta emen irrintzi,
biguintzen dute belauna.

Ale naikoa jan ta lo
ganbelan zegon zikiro,
illean aiztoa legunduz
nagusiik egin du lepo.
Oillo gizen alperrik bada,
on dator atsalderako.

Nexkak ikusiz mutiko,
lepotik elduko dio:
—«Zer agintzen duk? —Or ditun bi sos
jostorrazak erosteko».
Eskaiñi duna luzatu arte
ez du paketan utziko.

Atsaldean jai-erdi;
norbait illuntzerako ordi.
Iru gurbil ditun zagiak
egiñen mokoz-ipurdi.
Oiñez ezin doanarentzat
or Zanpantzar'en gurdi.

Ikazkiña goitik beera
ardo-dantzen emaitera;
ortzuri zorrotz okelanai ark
listua du sabelera.
Bababeltz-orde zikirokia
oso bakan deza aukera.

Zizili gatzemaillea,
neketan aizatuz kea,
asi da aroan, odol ta gurin,
egiñaz barrunbetea:
oi bezain ongi jarri nai ditu
egosia ta errea.

Iñazio Danbolin,
txirula garbitu ezin;
aiza ta ziztu, noizbait uxa du
tarteaz zedukan zikin.
Mortxil ordeaz arratzean du
urre gorriko txin-txin.

Obeki zegola, agian,
andrearen belarrian,
Jospe Xipo'k esaten dio
ikusten duan guzian.
—«Nik ez nian ijitorik artu
ezkondu nintzan goizean».

Olakoxe bat ba zen
aren kutxa-baztarreen.
Eskupeko-orde jasoak zitun
estutasunak lasatzen:
eriogiñak Prantzi-mugara
ibiltzen baitzan pasatzen.

Mari Antoni Oiartzungo,
ez egun artan paltako.
Ark ere bazun mugaren berri;
ta an izua artu zulako,
beti usmoka gain-ezpain arroz
sudur-zuloak gordeko.

Gogorki artu zutela
gau-lanean zebillela,
larru guzia sedaz bilduta
atorrape zekarrela,
atzi dute, ta larru-gorri,
eman ere eultzi epela.



Amaren semez, aukera
atsaldean larratzera.
Bazkal-arintxo geldirik balitz,
bete dezake sabela.
Baten batek beti nai luke
egun artako ganbela.

Zenbait trinkin balira,
daudela gero begira.
Diran geienak sabelez baiño
zangoz ariñago dira;
oin-muturrez, lege danera,
egiñen jauzi ta bira.

Lau-mordoskan eseririk,
zangoak antxumaturik,
gibel-errai ta erre-egosiak,
—zurruta atzendu bagerik—,
usu ta arin garbi dituzte
larratza koipatuxerik.

Andik urren-egunera,
ezurrak milikatzera
zakur goseen bat; koipe-kutsuaz
astorik ez an jatera.
Intz euriak garbi dezate
andikan «Emakunde»ra.

Alkien dantza aurrena,
iñauteriz ager dena.
Beste urtaroz etxe-barnean
dantza guzien azkena:
eztaiez edo artazuritez,
bizkor danean barrena.

Iru alki, lerro-lerro,
utzirik tarte zenbaitxo,
bizkarrez belaun elkar daudela
ta aietan iru morrosko,
beste iru zutik aien parean
aztalai eragiteko.

Larratza dute garbitzen
irixtik balitz arkitzen:
agiñ aketsak estekiren bat
damurik baitu baztartzten...
An erori dan mutikoak
denen ardoa pagatzen.

Oin-muturra lurrean,
orpoa, berriz, airean,
orpo-azpian arrautza jarriz
lotsa luteke leertzean.
Legeren batek alaxe dio
zaar guzien mingaiñean.

*«Bein batean tabernan
lan lagun bildu giñan:
xan eta edan, edan eta xan
iruren artean gurbilla edan
dirutan, pagutan,
iruren artean gurbilla edan». (biz)*

*«Bat ori zan Alkate Jauna,
bestea Errejidorea zan;
irugarrena, ez erran, bai erran,
erriko Erretor Jauna zan.
Ua zan, bera zan, ala zan,
erriko Erretor Jauna zan». (biz)*



«Seiko-oro, lasterrago
danboliñak oi du jo.
As-berri dira; burugoienak
par egite du gogo.
Urlik dio: "Ez duk izanen
oraingo konturik gero"».

«Kartak iru, kartak lau,
jokuak ontara ekarri nau...
Amairu diru izan eta
ezin galdu amalan:
polsan dutan diruarekin
ez diat apalduko gaur».

«Kartak ditu lau egi,
seiko urreak sei begi...
Gizon galdnaren aurra
maiz gose eta egarri;
atarira atera eta
eguzkia gosari».

«Gure etxean laur ardi;
lauak zortzi belarri...
Sekularean ez nai izandu
oraintxen bezain egarri,
urra labiru-labiru-lena,
oraintxen bezain egarri».

«Gure etxean ardoa salgai,
ez baitakit zenbana.
Zenbana dagon jakiteko
edan dezagun pinta bana...
Urra, labiru-labiru-lena...
edan dezagun pinta bana».

Laisterragoz elkar uki;
ertzetan ere, bai, alki.
Oiña luzatuz, atzeraldia
berdin dezakete sarri.
Ezpain-estutzen asia dugu
leen egiten baitzun irri.

*Binbili-bonbolo, jan ta lo...
Errege Prantzian balego!
Akerrak kanta,
idiak dantza,
astoak danboliña jo.*

*Danbolin ori berria,
Donosti'tik ekarria:
baztar guziak perlaz beteak,
erdian urre gorria».*

Alkiak utsik baleude,
arin lurrera lirake.
Batek iztarra igurtzia du
—ezpaina ala diote—;
alarik ere, ardo-ordaintzen
min geiago ar lezake.

«Zikiro beltza ona da, bain
obea buztan-zuria...
Dantzan ikasi nai duzun orrek
nere zangora begia.

Zertan ari aiz bakar dantzatzen
agertzen gorputz-erdia?
Su illun orrek argitzen badik,
ageriko aiz guzia».



Estu da gure Xurio,
gerrikoa baitario;
an ostopatuz erori, eta
pagatzea dagokio.
Denen aurrean lotsa-bearrak
min aundigo eman dio.

Ez da moskor arraillik
naiz aldarotxo egiñik;
illunabarrez etxera dira
geldi diranak zintzorik.
Ardandegian eskainka daude
Peru ta Matxin berorik.

EMAKUNDE

Urren «emakunde-eguna»,
jainko txikiak diguna.
Argi orduko mutikoari
oska asi zaio amuna.
Ez du nagirik; argiago du
atzoko bekoki illuna.

Bezperatik burrunzia
txanbil-ertzean jarria,
—urte osoan erdoi ta kedar
ba du garbitzen premia—
koipez legun, zatarrez igurtzi,
utzi du garbi-garbia.

Odolki-egunez baiño
batere ez asarrego.
Bera baiño leen asiko-bildur,
mutillak amari dio:
«Sar zazu leenengo puska,
atera nadien uso».

Leenengo puska etxean,
ala zan oitura zaarrean,
ziria bete, laisterkan utzi,
berriro bete naiean.
Amak, amañik sartu-okela
an geldi zan ondarrean.

«Ziztor miztor, "Emakunde",
urdaï edo arraultze;
Andre zabala, eman eiguzu
bat ez balin bada bertze».
Au da mutil guzien kanta
iñor ate-ondora arte.

Aur bat etxean negarti,
ez dula burni-burruntzi;
aitak ein dio lizar zuzenez,
aiztoz koska, burni gori...
Erdi-lotsaz ba doa auzora;
negarra doi-doi du geldi.

Leenen-atean asi da
bildurrez «ziztor-miztor»ka.
Andre xaloak ekarri dio
jan-aldi on bat lukainka.
Goxoagorik izketan dio:
«Ori burrunzti apaiña!».

Beste atetan berori.
Poztu diote belarri.
Etixeratzean, barna zabalduz,
adierazi aitari.
Ark: «Tutulu, ez nin esaten?
Urrena siñesta neri».



Neska lepotik artzea
 gaur mutikoen xedea...
 —Zer agintzen dun? —orratza ziztaz.
 —Nik? sukaldeko kea.
 Ezak, begien igurtziketan,
 eure biziko nekea.

Zenbait esku-ikusi
 bakoitzak senargaiari.
 Mikel, datorren astelen-iautez
 antzaretan buruzagi;
 Gerrieder'ek erosi dio
 sedazko gerriko gorri.

Marimil Danbolin'ena,
 zaldabai-jotzen onena.
 Amalau txintxil,
 txirrikaz jantzi du dena.
 Igandero joz, larruak ez du
 lizun-usai apurrena.

Gerritik bekokiraiño
 zaldabea eltzen zaio.
 Erdi-erdian, bekoki-antzo
 aurpegi atera dio;
 atsaldean zulatu arte
 autsak arro dezazkio.

Senar-emazteen tankera
 bertsotan itzetik ortzera.
 Nik esanik sinisten ez bada,
 egin Uitzin galdera:
 maiz atxoak tantaren etorriz
 utzi du senarra atzera.

Neska banak oillo bana,
 oroon atsaldeko jana.
 Mutillek berek ekartzen dute
 kantzari denen edana.
 Sortu dutena jaten, edaten,
 ba da aldi bateko lana.

Jan-ondoan, Bizkai-dantza:
 bestek ez andretan dantza,
 gizonik bada; ba dabillake
 ur biurtu arte gantza.
 Marimil da, bere bertsoekin,
 orepil aren arraultza.

Kaskazuri'ren Otxanda,
 ark egiñen dio txanda;
 eskuak bezain zangoak arin
 ditula ager-naiean da.
 Emakunde, ta, dantzatu bage
 ua bein ere egon aal-da?

Besteek dantzan leer egin,
 ark berri-berritik ekin.
 Plaza agirian, itsusi ez balitz,
 dantza lezake «txakolin».
 Sasoi artan sukal-zokoan
 ez egoteak dio min.

Sukalde edo trabena,
 esanen dizut urrena.
 Oraingo ere zintzo ta pakez
 sartu dirade barrena.
 Laratz-ondoan zer gerta dedin,
 zeuk asma zenezakena.



ORAKUNDE

Azken «Orakunde»-eguna
jainko txikiak diguna.
Neska ta mutil, atso ta agure,
dantzan ikusten tuguna.
Oroen dela itzak berak du
adirazpen ezaguna.

Illa dute zekorra,
—ikullun ba zan, bizkorra—.
Ari barnera eragiteko
ba da arraultze ta ziztorra.
Dantzatzet'ez danak, bearko dizu
ixiritzeko dijiritzeko(mozkorra.

Janaldia bukatzean,
ezin-egona lurrean.
Aniz'ko Ganix dantzan asten da
oin batekin erpiñean.
Berak dantza, berak kanta,
almute baten gainean.

*«Sagarraren adarraren
igarraren puntaren puntan
txoriñoa zegoianen kantari:
bai, txiruliru-li; ez, txiruliru-li...
Nork dantzatuko din soiñu ori?»*

Lau ezkurak ikazkin,
—lauek bina makillekin—
basoko babaz oroitu bage,
zorroa dutela berdín,
makil-dantza bat ematen dute
soiñu ezagun onekin:

*«Iru txito izan, eta ama, lau;
oiek oillo egiteak pozten nau.
Gure txito oien ama, gaixoa,
axariak dantzara daroa.*

*Iru txito izan, eta lau galdu;
gure txito orien ama zerik jan du?
Gure txito orien ama, oilloa;
axariak moztu dio lepoa».*

«Eskalapoin» eta abar,
—saldoko dantza ta bakar—
ardo-dantzetan ariak dira
gizaki gazte eta zaar.
Gero andreekin Bizkai-dantzan
asten dirade su-ta-gar.

Dantzaldi-oro zatoa,
gizonezkoen arloa.
Andrekoeri begirapenez
betetzen dite basoa.
Ezpain-ukituz (lotsa-agerian)
azkeneraiño oso doa.

Baten batek etxean
bildur-bage lezake edan;
gorria baiño xuria naigo
osasanaren kaltean.
Senarrak dantza deza makilla
andreamen bizkarrean.

Egun ontan ez errenik
dantzarako gai ez denik.
Baiña bi anak sendo dituna
limur da belaunetatik.
Buruz arro, mingaiñez bizkor
ez da azpira dezakenik.



Gure Peru eta Matxin
mingaiña gelditu ezin.
Ardandegitik atera dira
nor geldi txapelarekin.
Burrukan eldu baiño leenago
itzez luzaro dute ekin.

Odeiak legortean
keiñuka buru-gainean:
gaur erasoko, biar leertuko,
ostotsa alako batean.
Euririk ez, nekazaria
itxaropen alperrean.

—«Asi adi— dio Peru'k.
Matxin'ek: —Jo zak, nai baduk.
—Akit ondora. —Ator nigana.
—Ire bildur, beintzat, ez nauk.
—Eure denboran, esaidak, zenbat
giza-larru bilu dituk?».

—«Oraintxe bat geiago
isil-isil ez ba ago.
—Gizalarruak? ego-aize eran,
joanago bizkorrago:
oiu mintzo orrek barnean baiño
agoan dik indarrago».

—«Zerbait edan orduko
berriketak au mendeko.
I aiñako bat lurreratzea
ez diat, naski, luzeko.
Erdi-zaragi dagon batekin
burrukan ez nauk asiko».

—«Mozkor esan bear nerri!
I baietz leenik erori?
—Mozkor gaixo bat lurreratzea
ez ike beti gauza aundi.
—Ik ez uke oinbeste kemen,
ala banengo ere ni».

—«Aul, ezer-ez, berrizul!
—Ume zirtzil mukizul!
Bego mingaiña, besoz mintza adi»—
sartu zaio ondora Peru.
Barnez otzak ez egon arren,
ez dira beela berotu.

Iñarrausi du lepoan,
koloka zegolakoan.
Oraindik ere tinkatzen ditu
zango-belaunak lerroan;
berak ere lotu du Peru
besape ta gerrondoan.

Erro bateen, tantai bi
gerriz gorago bereizi;
adaburuan antzumatu ta
naiz bat ondolik ebaki,
kuku egin ta zail da botatzen
bestea motz ez baledi.

Peru'k ar nai luke gaiña,
nekatuz ari izta-zaiña;
eskuz, ordea ezker izan ta
oker dabil eragiña.
Ezker-zangoz tinkatzen baita,
gero bestera du keiña.



Eskuiñetik ezkerrera,
ez baitu bere joera,
ezin okertuz lanak ba ditu;
asi da berriz bestera.
Barnean damu-liper bat aal-du
aterarik larratzera.

Gezurrian eskuz jo,
iztazaiñera nai orpo.
Ez du asmatzen;
ari da ta ari
bestea noiz lurrerako.
Nozpait bear ta, ustekabeen
biek dute erori gaizto.

Larratza aldapa-antzean
saieska dira lurrean;
iraultze bi iru egin ondoan
Peru geldi da gaiñean .
Buruz gora aldapa artzen du
berriz iraul ez daitean.

Belarra dago gaindua,
asto-germuz urdindua.
Usaiez edo... morroztu bage;
au da Matxinen patua!
Peru ezkerak pozik antxe du
gogortzen ezker-eskua.

Beste eskuan, belar motza,
—ibilli da agin zorrotza—.
Nolaz ez ote-zan ara jausi
beste artako gorotza?
Matxin an dago zabal-zabalik
erakutsiaz okotza.

Eskuz nai luke tinkatu;
Peru'k goitik debekatu.
Bizkarrez gora jarri ezker
ote-lezaken urratu.
Esku batez itsatsi dala
Matxin'ek Peru sumatu.

Andik egiñez indarra,
urra nai dio belarra.
Alako batez, entzuten dizu
belar-muturren zarrata.
Peru'k osterera, non eldu ba du;
ez, balitz itsas-ondarra.

Berriz indar eta oldar,
etsi beltzik ez du nai ar.
Agotik antzarka naiko,
ezpaiñetatikan apar;
ia gainduz ta azpira sartuz,
bildu du soiñean belar.

Oraindikan ez etsitzen;
zirauna antzo biurritzen.
Oiñez ta gerriz jare da, baiña
besotaz ez da jabetzen.
Gaiñekoek txil egin dezan
bein eta berriz otoizten.

Oztopoz dala jauzia
ateratzen aitzakia.
Atzera asteko itza nai luke,
zuti, burruka-berria.
Peru'k ez du nai; Matxin gaisoak
eskatu bear pakea.



Jeki ta ardandegira
etsai biak sartu dira.
An daudenetan batek galde du
nork nor bota dun sasira.
Orok begiak zorrotz dituzte
gure Matxin'i begira.

—Ez duk galdegin bearrik—
dio Xipo'k baztarretik.
Ez aal-duk inoiz errekondoan
burrukan ikusi beirik?
Adar-puntara begira, nork dun
besteren ille-mototsik.

Belar ortatik ikusi:
Matxin diagu nagusi.
Ageri danez, ara nolako
eultzia dion erauntsi.
Peru'k berriz, adar zantzua
or zedukak atzimurtzi.

—Edan ezak —esan diote—
joan dakikan asarre;
beltzaren bidez asarre zana
aren bidez adiskide.
Egun artan etzun odolak
egin erre kara bide.

Usu zetorren Inãute,
beste nonbait «Aratuzte».
Iru egun on; laugarrena, aldiz,
erio oroi dan Austerre;
katuek eta txakurrek ere
barau egin oi baitute.

Artean jan, edan, dantza,
—piztiak ere bat antza—;
poz onen berri ez dunik ez da
ez arrosa ez arantza.
Damutan, alde, ez da jekitzen
Ostiral Sainduz orantza.

AZARI-DANTZA

Oillakunde, geienez,
Astelen-iaute-egunez.
Izenak berak dion bezala,
oillo-eguna da biltzez.
«Azari-dantza» esan zioten
giputzek beren izenez.

Jai onen etorburua
labur esatera noa:
pizti oiek maiz galdu baitute
axuri eta oilloa,
eizatzean eske dabizte
irauliz erri osoa.

Bizia bada, bizitan;
illa bada, larrutan:
agotzez bete, estekiz josi
mutillek alde banatan,
erdian batek daramalarik
makillaren muturrean.

Arraultzak bil oi leenago;
gaur oillo eta oillasko.
Axuri, oillo, galdu digunik
ba da tegietan asko.
Etxanderak eiztariari
besteren bat eskainiko.



Ettxerik etxe kantatzen,
soiñua bera dantzatzzen,
ate danetan ari dituzu
aal ditutenak asmatzen.
Egun ontan deus eman bage
etxe bat ez da gelditzen.

«Azariak sei axuri
galdu ditu bart bordan;
sei gizenenak eraman ditu,
artzaia dagola lotan».

«Azari deabru orrek
non ote-du zuloa?
Axuri-jaten arki baneza,
moztu nezaio lepoa».

«Sei oillo palta zaizkigu
etxeko oillategian.
Azariak, arranoek,
zer afari duten jan!».

«Pizti guziak iltzeko
banintz eiztari trebe,
inguruan bat bizirik
damurik utziko nuke».

«Andre zabal, zure etxean
oillorik ez dute ito.
Ortaz eman dezazuke
oillo, oillar, naiz oillasko».

«Egazti onik ez balitz,
zerriaren azpizuna,
urdai, arraultz edo ziztor,
zuk gogara duzuna».

«Neguan eizatu genitun
azkonarra ta arranoa.
Emen dakargu bizi-bizirik,
azari buztan-arroa».

«Sator-buxtanak pinta bat ardo,
sapelatsak arraultz pare.
Oillo ta axuri galtzalle onek
zerbait geiago nai luke».

«Oilloaz eskerrikasko,
ba dugu zerekin dantza.
Etxe ontako Andre eskuzabal,
Jainkoak bedeika zaitza».

Mutil batek oilloa...
makilla-puntan daroa.
Beste mutillek makilla banaz
darabillate auzoa.
Denek bana bil dutenean
jasoko dute zangoa.

Ostatu eta plazara,
oiu-irrintziz dantzara.
Azaritxoa erdian utzi
ta, oillodunen bi illara,
inguruan ari erakutsiz,
dantza dirade ontara.

«Axarko, lapur, zorrizu,
zenbat ardikume galdu?
Bana-banaka oillo oetara
begiak ortzak zorroztu.
Guk jaten ditugun artean,
ik egin ezak baru».



«To oillo bat eta to oillo bi;
or, muturrera ekarri,
oillategian baiño lotugo
gaisoak egonagati,
ez diek eltzen. Aseta agola
nai aal-diguk erakutsi?»

Oillo gaiso oek egalka
egiñez bildur-karaka,
azaria loturik arren
soilduko dira lumaka.
Axarko ori asarretu da
ortzez egiñez karraska.

Dantza danean bukatu,
ostatura dira sartu.
Ardo-dantzak an berri ditute;
gero gogo onez afaldu.
Afal-ondoan berriz dantzara;
eguna dute luzatu.

ANTZARA-JOKUA

Ogeita lau ordu bage,
eldu da Astearte-iaute.
Batzun batzuek egun orrena
berorik irrika dute:
zaldun eder nor ageriko
andregaiian aurkez-aurke.

Beor bareak etxean,
beor izuak larrean...
Eultzilari bat bizkar ezia
Gerrieder'ek etxean.
Mikel Eleder gaur buruzagi
jekiko da aren gainean.

Ba dira zenbait antzu,
neguuk ez baititu galdu.
Ote ta aiñarra ta amua janez,
gosea dute garaitu.
Etxekoetan otz gogorren ook
lur otzean dute etzangu.

Etxeko irastor bigun
oetarako dute igun.
Ez orrazerik bizkarretan,
ez nai mataillean legun;
basoetako esku-gabea
ezagutu dute zaldun.

Apaindu nai tutelarik;
iñon ere ez dute egonik;
buru ta buztan, lepo ta anketan
ez dite etsitzen girgillik.
Gorputz osoa kilika dute;
aientzat non da zaldunik?

Mariene'ko Illargi
baten gainean da jarri.
Ezle ona arren, zilipurdika
larratza-barna du jaurti.
Besteen batek —azkena dedi!—
joko du lurrez ipurdi.

Aizarrene'ko Muxu
an dago, begiak itsu.
Beorra apaintzen ari dalarik,
isatsez du milikatu;
ez, aurrena besteek bezala
isatsa tontortu balu.



Igaz, Domitxi Irurte'ko,
arturik beor-ostiko,
ez zan agertu plaza agerira;
aurten or da bigarrenko...
Urkabe aldera doazi
egiñik aal duten lerro.

An dago erri alaia
isten duela zelaia.
«Etxeaundi»ren bi aldeetan
dago esi orren taia,
zaldun beorren birundarako.
Ba dago begira-naia.

Ele-eder aurrean doa
geldiaraziz pausoa.
Bizkarrez gerri erakusten du
Maitederren gerrikoa.
Zugatzeen bezain trebe zaldian,
ebasten dio gogoa.

Danboliñak artean,
zelaiaren ertzean,
buruzagiaan soñua asi du
asti geldi ederrean.
Beorak ezi aal balitezke,
ark luzke bere mendean.

*«Antzar zango-gorri orri,
zaldun-buruzagi,
lepoa eranzu. (biz)
Orrek duen gibel aundi
zure maiteari
biotzez eskaini.
Urrena agertzen diren mutillentzat
besteak utzi».*

Antzarrik ederrena
zintzilik daukatena.
Bi zutabe ta goi-abeagaz
egiña duzu tresena.
Leenen-kolpean erauzi dio
lepo luze ta lerdena.

Denek jo diote txalo,
—nik dakidan bat ez da lo—.
Urren zaldunak, zaldia sartzen,
berekin du lana naiko.
Eskuz keiña, gutxiz utsegin;
an dago besterendako.

Goi-abearen gaiñetik
txirrikan kiribildurik,
eskutik soka, gora ta beera,
mutil bat ari da azpitik;
mutil lerdena sartzean, gora;
beera, txikia dalarik.

Beste keiñu bat ere egin;
oraingoz ere utsegin.
Zortzi antzara iltzen diraiño
poz du jendeak aiekin.
Antzar gaisoa, kara ta kara,
zangorik askatu ezin.

Mikel'ek, andik aurrera,
sartu arren urkabera,
eskuz bekoki, agur eiten du
gudu-zaldunen antzera,
bere mutillak lerro darraizkon
begiratuaz atzera.



Bat orain, bestea gero,
 egiñik antzarak lepo,
 beren tegira doaz beorrak
 etorri baiño pozago.
 Urka-ondoko soiñua
 danboliñak dite jo.

*«Astearte-iaute
 edertu duzute,
 buruzagiak taldearekin
 Mutillik mazalik,
 gudari bizkorrik,
 Napar-Erregeak ba du Uitzin».*

ASARREA TA PAKEA

Ikullura doazela
 biik sortu dute takela:
 Jaunak ez bestek jantzi arronta
 agertzea lege dela.
 Sedazko zapi gorri lepoan
 Goikotxeko'k dakarrela.

Joanekoak itza artu,
 itzez samíñez mintzatu:
 —Noren aginduz jantzi duk ori?
 —Iri zer? Ez diat ostu.
 —Iñor ez bezain ire burua
 plazan nai aal-duk agertu?

...Nolabait duk ez-izenez
 «Labea bai, ogirik ez».
 Jateko doi ta jateko jori,
 auzoan zorra adi danez.
 Neskatx-aizea buruan sar zaik
 pinpirin agertu naiez».

—Burutxuri'ren semea,
 txoribururen umea,
 bizkarrez lurra jo nai ez baduk
 isil ezak aakaldea.
 Zuen laratzak bestek ba zekin
 darabiltzuten naastea.

—Leen il dudan lepa-zuti
 ikusi duk girgil-gorri.
 Erosi dunak lepoan lotuz,
 jarri zioak apaingarri:
 ari bezala biurrituko
 lepame gangaildun ori.

Agotik ukabillera
 bereela dute sarrera.
 Ukaldia aal bait zuzentzen dute
 begira ta sudurrera.
 Mutil lagunak bereizi tute
 biak igorritz etxera.

Goikotxeko seme ori
 zan igaz mutil-nagusi.
 Naaspilla zenbait sor zitula-ta
 mutil soil zuten eraitsi.
 Arrezkero billatzen zizun
 asarre-bidea beti.

Odei ori ixildua,
 ez da lurra mordindua;
 baiña bakoitzak bere etxepean
 piztu du bigarren sua;
 bi tximist oiek ekarko dute
 erauntsi amorratua.



Auzoen asarrea,
inpernuetako kea.
Elkarrengandik ezin alde ta
alde egin nai izatea.
Begiak gau, bekaiñen pean,
biotza atsegin bagea.

Etxean izketa gaiñez;
atetik ara tutik ez.
Egun geiena an igaro bear
lanak eskatzen dionez.
Otorduetan jaki guzia
samintzen dute mingaiñez.

Lanean ere, auzoa,
mugabitarte arloa.
Mugarri-zurrun dirade berak;
idekitzen ez agoa;
ardietan, saldo bakoitzak
ba du bere gizotsoa.

Bide bat onek arako,
beste bat ark bertarako;
tabernan ere sartzen ez dira
elkar ez an billatzeko.
Damurik, orde, baita bearrik
ate bat Elizarako.

Garizumaren adarra,
luzea, baiña bearra.
Azkenerako garbi dezate
beren pekatu zakarra.
Ezin dirudin ortako ba du
goiko laguntzak indarra.

Jainkoaren itza, sarkor,
oiek, ordea, entzungor.
Buru-belarri, gaur eta biar,
biotzez gaur ta biar sor.
Euri-jasa arek aitz aietatik
iges eiten du jauzikor.

Iduriz goizean intza,
koka da Jaunaren itza;
ark ezarian busti lezake
aen gogoaren mintza.
Apez Jaunak ez luke damu
muineraño sar baleza.

Gorrotoaren azala
lurrik elkorrena dala,
otoitz eta arren, Jaunari dago
luza bage entzun dezala.
Garizuma artan damu bagerik
errian ez diteala.

Urriskidez urteoro
barka oi dute maitaro;
barka bagerik bat ez daitela
ba du orduko itxaro.
Urruskidek zer adi duen
esanen dizut motxaro.

Erruskide, Urruskide,
balinba, leen *Orriskide*,
Orrits, *otordu* ona genuen.
Itxuraz ortik datorke,
gaur egunean galduxea dan
maite-bazkari *agape*.



Ez dakit nondik izena,
 baiñan ola du izana:
 urte-gorroto guziak barkaz,
 ospatuz Pazkoa-jana,
 etsai zanaakin biltzen da, Apaizak
 Elizan aipa duana.

Sermoi edo Mezakoan
 naiz Apaizaren altzoan
 arri gogorrek bigundu dira,
 —inoiz baita sutondoan—:
 Pazkoaz nork norekin bazkal
 irakur ditu lerroan.

Joane ta Goikotxeko
 entzun dira aien tarteko.
 Goiz-axuri bat ba dute etxean
 Urriskidez bazkaltzeko.
 Egun artan biotz gogorrik
 errian ez da agertuko.

Bekain aundiak erori,
 begi berriak ageri;
 Pazko-eguzki ederrarekin
 auzo leio denak argi;
 gorroto-ondoan maitea zer dan
 etsai izanak soil daki.

Ote-da besotakorik
 aiek bezin poz dagonik?
 Amabitxien emaiarekin
 asi dira goiz-goizetik,
 opil adardun arrauztatuaz
 larde daritela agotik.

Lapur-mezan jaunartzea,
 Meza Nagusiz pakea:
 asarre bage pasa nai lute
 danak datorren urtea.
 Asmo guziak sendotzeko
 kristau-bazkari maitea.

Atsalde-dantza leenena
 ordezkia anai-arrebena:
 zortzikoetan aurre ta atzeko
 bikorik asarreena...
 Mutil-arteko asarre arek
 emen izan zun azkena.



VII. DENOK BAT

Negu luzean bost ipui eder
egun ta gaualdietan
ikasi nitun, artazuritze,
garbari ta ardazleetan.
Gaualdi bat dut ezin-utzia
istori labur onetan,
ua baitago ezarrienik
euskaldunen biotzetan.

Ortakoz, aipa-bearra dizut
azi ninduten sukalde:
ain zuzen, etxe aren izena
leen dakizun «Errekalde».
Nere leenengo euskal-eskola,
nere sortetxeko alde.
Euskalerriko biotza dut nik,
artaz nai baduzu galde.

«Elbarren» zaion auzoan dago
errian dan audiena;
goiko auzoan balego, buruz
ager liteke gaillena.
Errekatxo bat ondoan: ikus,
egoki dun ez, izena;
larraiña goien, iru sukalde,
berria irugarrena.

Aur nintzalarik, bi ama-alaba
banetan ziraden bizi.
Txikienean alaba unideek
arretaz ninduan azi.
«Beste sukalde» zitzaionera
zenbat aldiz nun igesi,
amonordeak —zeruan bedi—,
aal du gaurgeroz ikasi.

Artzai bazera, ba dakizu zer
dan «arkume gaitzetsia»;
—praile bizardun batek jarrita
ori nun izengoitia—.
Ainak, ama bat, bi ere ez aski,
gose-erasana guzia;
beti erkitu geldi-bearra,
ama geigoren isia.

Ama gaisoak, aurraldi batez,
titi baiñon aur geiago:
ez nindun gaiztoz goseak utzi.
Gaurgero zeruan dago.
Azken jaioa nintzalako, ni
besteak baiñon aulago:
bi iñude ta ama baiño amona
ez nuan gorrotoago.

Basagizonak ara ziraden
igande gauetz ta neguz:
bizi giñanen belarri, biotz,
pozten ipuiez ta kantuz.
Jai egin eta, goiko ostatuan
oi baiño obeki afalduz,
basora baiño leen, an genitun
adiskidengana agertuz.

Bezperondoan, neska ta mutil,
—artzai gaisoak mendira—
larraiñetara, txelaietara
mordoskan banatzen dira.
«Ingurutxo» bi molda ditute,
ba da jendea begira.
Pelotan eta palankan ere
nekez palta da partida.



Bitarte artan isil basoa,
ez aste-eguneko oiurik:
aizkorak, zerrak, otsik ez eta
gurdiak ere ez negarrik.
Ango musika errian, dena,
aire berri biurturik.
Gaur Plazaola'k isillarazi,
trena arren ere, damurik.

Laguntasuna zer dan ba dakit
ikazkiñari ikasita:
baso-zugatzak alaxe dira
elkarren lagun azita.
Nekez jaiotzen dira bi ondo
elkar biurri itsatsita:
nekezagorik arki diteke
aien artean errita.

Atsaldea alai eman, afaldu,
basorakoan gurera,
bata besteren urrena sartuz
osatzen dute billera.
Berri ta kontu, ipui ta kanta,
kolkoa dute betea:
bakarrago da txondarrak zaitzen
basoan talogillea.

Guzien buru Iriondo da,
Ataun'go seme prestua;
oiu batekin eman oi zizun
goizean jeki-ordua.
«Ots, mutikoak» esan ordez, du
«Angelus» otoitza artua;
arekin —etzun berandutarrik—
argitzen zien burua.

Basorako gai ez zan arteo,
lan egin zun nekazari;
iñork bada, arek irabazi zun
izardi-bidez janari.
Naiz eta, noiz-bein, mutilzai zutik
arnasez ziteken ari,
erakutsia emanez zuten
bizkorrenen aitzindari.

Urrena Beltxa, Euskalerriko
jakingai danen gordairu;
buruan ipui ainbat ez, baiña
sakelan ere bai diru.
«Ikazkin beltzak sakela zuri»
esana betetzen digu:
aren andreak azi detzake
izan dituen amairu.

Urrena Irube, Donamarti'ko,
Amerikati itzulia;
ezkon-urtean il andrea an ta
senti zun ezin-etsia.
Geldi zitzaion diruaz, doi-doi
pagatu zuan ontzia.
Zeribait eldu bear, ta artu zun
basagizonen bizia.

Urrena Koxko, leen esandako
epotx, arbiazi-joa.
Esaten baita ziza larrean
bein nork ikusitakoa
ez dala azitzen? norbaitek begiz
geldirazi zun borroa.
Lepoa lodi, burua txiki,
ziza are eguterakoa.



Aren urrena Zarauz'ko Lete,
gain-zerran naiko egiña;
beti agotan erabiltzen zun
bere erriko txakoliña.
—Bakio'koak zer balio-omen?
Ixo Getari'ko miña—...
Alaare, napar-ardoagana
zun ezin-gordezko griña.

Gero Bustintza Mañari'koa,
itz laburreko gizona,
bere bizian baso-nagusi
baten mendean egona.
Mii-motelari bezala, kantan
mingaiña aska zitzaiona.
Saillean denak maiteena zuten,
ain baitzizun oial ona.

Gero, Oiartzun'go Mitxelena, leen
burni-olan ari izana,
deabru gorri, gizabeltz, lana
azala aiña alda zuana.
Kontrabandoan erori ta, asto
beltzarenak eramana;
muga-lagunen isilla, apezak
bezain gorde zedukana.

Eleder an zan, belarri-erne,
ipui ta bertsu jakin nai;
sukalde artan laratzak aiña
zekienik etzan nor-nai.
Ango kontu ta kanta alaietan
bat zan guzietan alai:
Euskalerrria guzien Ama,
elkar ezagutuz anai.

Alako lagun, alako ola-jaun,
nagusiren gertaera,
arako aren zoritxar edo on,
beste aren biziera
esan ondoren, asten dituzu
bertso oberik nork aukera.
Zarauz'ko Lete'k onako onekin
eman zion asiera.

«Zazpi aizparen gai dan oiala
ebakirikan erditik,
alde batera iru soiñeko,
utzirikan lau bestetik.
Guraiziakin bereizi arren,
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oial batekin.

»Oialtzat artu zagus Euskera,
guraizitzat Bidasoa,
—ibai koxkor bat besterik ez da;
utsa... balitz itsasoa—.
Elkarren urbil daude zazpiak;
muga deitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez bear degu
famili bakar osoa?

»Arbola baten zaiñatitikan
sortzen diran landareak
bezela gera, Bidasoa'ren
bi aldetako jendeak.
Berdiñak dira gure jatorri,
oitura eta legeak.
Ama Euskerak magal berean
azitako senideak».



«Oialarena ongi iduri zait,
—dio Beltza'k saietsetik—;
baiña sei zati diran tokian
zazpiren kontua nondi?
Bizkaia, Araba, Gipuzkoa ta
Zuberoa ta Lapurdi,
Naparroa bat ezagutzen dut
gezur-mugaz an-emendi.

»*Zazpi* baiño leen, esana aldatuz,
esagun, ba dirala *aski*:
Naparroa bat —eize gaisoa
bi zakur goseran jaki—.
Oso ta bakar Euskalerrria
dela edozeinek daki;
mugaz angoa Espaini ez da,
emengo au ere ez Prantzi.

»Lepoan zapi muga duela,
doi uki dio axala;
gorputza leengo ber-bera dula
zuur denak esan dezala.
Aizpa banaren mugarik ere ez,
izkuntza batago dala:
izketa-muga ezin ebaki
guraizeekin bezala.

»"Siñor" ta "Muxu" beste gauzarik
ez dut ikasi erderaz.
Prantzi aretan, Espaini ontan
beti mintzo naiz euskeraz.
Noranai noan, atek zabal,
sartzen naiz arnasa lasaz.
Erdalerrian susmo gaiztoa
aiek nitaz, nik aietaz.

»Sei aizpa dira, kantak diona,
oial batetik jantziak.
Oial ortatik gorputz banari
neurri banan ebakiak.
Bat ez gerala liokenari
eskatu berri garbiak:
jantzi utsetik inork ez ditu
bakoizatzen familiaik».

Beti bezala, Beltx orrek jaso
ditu txaloak ugari;
aren urrena kantan asteko
gogoz jarri da Mañari.
Ikasiren bat botako dio
Gernika'ko Aritzari.
Atzetik an du Irube Manex,
«Ohore Eskual-herriari».

ARBOLA BAT

*«Arbola bat zan Paradisuan
Jaunak apropos jarria;
mundu guztiak artu egion
lotsa ta itzal andia.
Bere azpian bizitea zan
Aita Adan'en gloria:
andik kanpora zer topau eban
ezpada negargarria?»*

*Arbola dontsu aren azpian
bizji zan zeruan legez;
Eukoizalako atsegin danak
eta nekerik baperez;
Ai, begiratu balentse beti
lotsa on eta itzalez!
Munduan etzan gaur arkituko
onenbeste atsekabez».*



*Arbola bat zan Bizkaia'n bere,
neure anaie lastanak,
zeinuen azpian, pozez beterik,
egoten ziren asabak;
kerizpe zabal artan jarririk
eginaz euren Batzarrek,
buztari barik libre ta ederto
bizi ziran bizkaitarrak.*

*Bere azpian umildu ziran
Errege Gaztela'kuak,
eta lekurik ez eben izan
egundo, barritz, moruak.
Barrero gura ba-dogu izan
libre leen gñan lakuak,
itxi daiguzan erdaldunentzat
erdaldun diran kontuak.*

*Aiztu daiguzan geure artean
izan diran asarriak;
izan gaituzan anaiak eta
euskaldun zintzo garbiak.
Betor guraso zarren fedia,
betoz asaben legiak,
bere negarrak legortu daizkan
ni jaio nintzan erriak.*

*O, neure Erri maite-maitea!
Zakustaz triste, negarrez;
zeure alabak euren buruak
baltzez estaldu dituez;
trentza-mordoak tiraka atara
ta sutara bota dabez;
gaur euskaldunak dirala orreik
ezin ezagutu leikez.*

*Isildu ziren neskatzen kantak,
mututu artzain-txistuak;
zelai zabal ta jolas-lekuak
gaur dira basamortuak;
arroak beera itxasoruntza
doazan errekatxuak
gau eta egun txilioz dagoz;
Ai! gara Gaztelakuak!*

*Bakarrik dakust pozkarritsu bat:
euskaldun ameen fedia...
Benturaz onek bigundu leike
Jaungoikozko asarria,
eta zerutik jatsi barrero
galdu zan libertadia,
mundua mundu bizi dakigun
Gernika'ko Arbolia».*

Ba daki Irube'k —Beltza'k esan-da—
sei eskualde dirala;
baiña, bertsotan ez da ain trebe, ta
jarraitzen du leen bezala.
«Gauden Eskualdun» mingaiñera du
gai berari dagokala:
fedez, euskaraz, zuzenez, orain
baiñon aundiago giñala.

AGUR EUSKAL-ERRIA'RI

*«Zazpi Eskual-berriek
bat egin dezagun,
guziak bethi-bethi
ganden gu Eskualdun.*



Agur eta obore
Eskual-berriari:
Lapurdi, Baxenabar,
Zibero gainari;
Bizkai, Najar, Gipuzko
eta Arabari.
Zazpiak bat besarku
lot beitez elgarri.

Haritz eder bat ba da
gure mendietan,
zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan,
Frantzia'n Espainia'n,
bi alderdietan:
hemen hiru, ta ban lau,
bat da zazpiretan.

Ekehalde-Iberian
noiz othe-sortua?
Lau mila urthe huntan
hunat aldatua.
Hain handi eta azkar
leben izatua...
Orai gure haritza
zion den murritzua!

Gure haritz hau azken
mende hautaraino
zabarturik ere, zen
eder bezain sano.
Bere lur boin garbian
oso zagoeno,
gainetik zoakona
behar zen arrano.

Hi haiz, Eskual-berria,
haritz hori bera,
arrotza nausiturik
moztua sobera.
Oi, gure arbasoak,
ez, otboi, ez beira
zein goratik garen gu
jantsiak behera!

Gureak ziren lehen
bazter hark guziak;
arbaasok utziak,
bek irabaziak.
Guri esker Frantzia'k
eta Espainia'k
daduzkate dituzten
eremu handiak.

Mairu beltza zelarik
Espainia'n nausi,
Navas'en eskualdunak
egin zion jauzi.
Hark ekharri gatheak
ban gintuen hautsi,
eta hilez bertzeak
igorri ihesi.

Orduan gure alde
oibuz zauden oro:
"Bere lurretan nausi
Eskualduna bego;
Frantzia'k, Espainia'k,
bai orai, bai gero,
deus kbendu gabe dute
gerizatu gogo".



*Gureez gure lehen
hain libro ginenak,
ezin ahantziz gaude
lehengo zuzenak.
Zee ametsak ditugun,
zer orboitzapenak!
Jaungoikoan bakarrik
ba dakiñka denak.*

*Ez bahaiñ, eskualduna,
leben bezain handi
aphaldu gabe, xutik
bederen egoadi,
odolez eta fedez
bethi berdin garbi,
bethi tink, atxikia
hire Euskarari.*

*Zuri gaude otboitzez,
Jaungoiko maitea,
lagun zazu zerutik
eskualdun jñendea.
Begira dezan bethi
lehengo fedea,
zor zaiñkon zuzenekin
ardiets bakea».*

Besteen kantik entzun osteak,
Oiartzun'go Mitxelena,
Euskalerrian ez baitzan ua
bertsolaririk aulena,
itsas-gizon ez izandu arren
aien berri zekiena,
buru ta mingain asi zitzaigun
itsasoetan barrena:

ITSAS-GIZONA

*«Ikusia naiñ zer bizimodu
zaila dan nedazalga.
Ez da atsegiña, lagunak, orain
arlotzat dugun basoa.
Zenbati bertsutan ageri bezain
alper ez da artzai gaisoa...
Ez da, geiagor, atsegiñago
mariñelen itsasoa.*

*Arkaitz ta sasi besterik ez zan
itsas-egi murrizera
etorri ziran gure aitonak
bizitetsua autatzera.
Lur murriz onek bialdu zitun
itsasoan sabelera
neke gogorrez jateko billa...
maiñ, eriotza arkaitzera.*

*Leengo mendeetan gizon aundirik
itsasoak eman digu:
Mundu Berria sortu zalarik
euskaldunak an giñan gu.
Españi'rekin, Portugal'ekin,
gure gizonak bulartsu...
Lurrak Elkano jaunari dio:
"Zuk leenik iranli nazu".*

*Fede-zur ez-ta diru-zur joan
giñala balitz eleta,
gogora bedi Urrestildarren
seme genun Antxieta,
—ark Gramatikaz erakus zigun
Guananitarren izketa—;
inguru artan aipa dezagun
Jerolimo Ezpeleta.*



Xabier aundik Malabaria'n
jarraituz esku-bidea,
aien izkuntzan ipini zuen
kristauen ikasbidea.
Izketa-doaiz beterik, Jaunak
ematen zion bidea.
Oraino orduan erderaz gendun
euskaldun gaiso ook gurea.

Basati aiek jendatu naiez
Legazpi ta Urdaneta,
nagusi orde z guraso ziran
goituz juntxoan apeta.
Lope Agirre'k bere jabe egin
nai zuen Ameriketa.
Gure egun ootan iritxia du
Bolibar'ek aren seta.

Gudarietan ezin-utziak
Okendo eta Txurruka.
—Europa zuarrak iretsi nai zun
Itsaso bera marruka—
aundiagoa gure euskaldunak
aspaldi zuten burruka.
Testigu bege aien izena
ondatu zan punpuluka.

Bearrak eta ekaitzak bultzaz
galdua dute Iparra:
Inork orduko ezagun zuten
Amerikan lur-batzarra.
Terranova'n ta Neu-Eskozi'a'n
zuten artu-eman zuarra.
Lur enparanuk billatzen ere
izan zan aien bearra.

Neke gogorre z ezetsirikan
bakalloa ta balea,
bizibidea ateratzeko
debeku zuten pakea.
Euskalerrian pakeago zan
geldi zitzaien etxea:
an ere noiz-bein bere aurrekin
kezka zegoen andrea.

Euskalerritik urruntzekoan
itsas-egira begia;
laphurtar giputz lagun ditugu,
Urtubi, Ondarrabia.
Begoña, Arantzazu, Giadalupe'n
itsasoko Izar Maria;
"Itziar" "Antigoa" ta abar
biotzarentzat argia.

Jonas iretsi zun arraiari
arpoia zorrotz sartzean,
ama ura bera zuten agotan
ta batipat biotzean.
Miñaren miñez aldegin naiez
arek isatsa arrotzean,
ontzi ta gizon galdu zetzaken
zurrunbillozko leizean.

Besoak ez du zeri eldu, ta
itsasoan tinka ezin;
ugin zutian tinka nai badu,
arek darama berekin.
Ontziak ez du besorik, baiña
ekaitzen indarrarekin
sabel zabala urez bete, ta
itsasoaren ondakin.



*Naiko etsai zan itsasoa, ta,
beren artean senide,
eusko anaiak uretan ziran
mendiko artzaien kide.
Alkartasuna egiña zuten
beti zitezzen aiskide,
besterantzeko itsas-lapurrei
utzirik beren bide.*

*Amairugarren mendetik asiz
emezortzigarrenera
ez zan mugarik gure itsasoan:
oro zebiltzan batera.
Saiets-errien mende ez izanik,
biurtzen ziran etxera,
beren arteko autsi-osoak
itzemanez konpontzera.*

*Bizkaitar, giputz eta laphurtar,
bizigai-billa, pakean,
leengo gorroto beltzak utzita
zebiltzan itsas-barnean.
Etsaigo aiek —ez da arrigarri—
berritu litezkenean,
elkar-maitea sendotzen omen
zuten "Faisan" ugartean.*

*Ugarte onek jabe ezaguna
fraide-etxe bat zun Laphurdi'n,
Zubero'koa deritzaiona,
bere mendeko lurrekin.
Fraide artean anaitasuna
Kristo'ren pakearekin;
arrantzaleek aien biotza
sumatu zuten berekin.*

*Lur-billatzaile, gudari, lapur,
amaika gizon bulartsu,
aien nekeen berririk bage
itsasoak onda ditu.
Eguneroko arrentzalea
ain gogoangarri duzu:
neke ta atseden, ekaitz ta pake
itsaso, legor... kezkaitsu.*

*"Etxe-egunetan" gorputza pake,
baiña biotza du larri.
Emazte ta aurren jaki ta jantzi
nola ditzaiken ekarri.
Mundu onetan gizonik bada
gizartean errukarri,
arrantzalea diteke, naski,
denen antzatako jarri.*

*Itsas-gizonak emaztea du
goizean goizik senardun,
eguerdian etxe-andere,
arratserako alargun.
Galerna eta zurrunbilloa
ditu ez-usteko lagun;
goizean urak bare dira, ta
arratsaldean tontordun.*

*Aizte biguñak oiala aizatuz
doala, astren da kantari;
aizetzarraren erronkarekin
ototz ona du marmari.
Batzutan isil bestetan alai,
arrantza-naiez ugari,
itsasoaren mugimentua
eragiñez biotzari.*



*Geroenean arrantza aaztu ta
bizia du gal-ordean;
berea soil ez, an utzi ditu
andrea ta aurrak etxean.
Burruka latza besoa eta
latzagoa biotzean,
bukatuko da nozibait... itsaso
ankerrak gogo dunean.*

*On ez bukatu bada, aaztu zai;
ez daki zenbakarrena.
Arrisku bera gorderik dauka
uste baiño leen, urrena.
Gaiztok dalarik —ain aundi baita
itsasoaren barrena—
non ondatu dan berririk ez da:
galdu zan oin arena.*

*Itsas-gizonak merezi badu
neer kantean tokia,
arrantzalea, gizagajoa,
ez daukat aaztu utzia.
Gizon artean nekatzen danak
izena nekazaria;
arrantzaleak "erio-lagun"
ez luke gaizki jarria.*

Mikel Eleder erne zegoen
kantetan asi naiean;
ez zun burua irauli bear
istori eder zurrean:
istori aunitz, ipui ere bai,
da Naparroa zaarrea.
Iru Bigaen Zerga artu zuen
atsegin litekenean.

IRU BIGAEN ZERGA

«Kristo munduan agertu baiño
serogeti urtez leendanik
Kimbri zeritzen gizon batzuek
sartu ziran Iparretik.
Prantzi-mugako Baretonsdarrek
aiekin elkar arturik,
ondatu zuten gure Erronkari
etxe oro kiskalirik.

Ordainak eman gureek, eta,
betiko gerra-saria;
bi zaldi gazte, lau anak zuri,
izar zuri bekokia,
—denok dakigu alaxe zala
Berdabio'ren zaldia—;
urtero aiek billatzen, neke,
irauli arren mendia.

Argatik edo, iru bei gero,
ortz, adar, kolore, bardin;
aietan ere autu detzaten,
amar dakazte berekin.
Amairu ehun irurogeita
irugarren urterekin
Baretonsdarrek betiko zerga
pagatzen zuten utsegin.

Nola berritu zuten, ta nola
oraindi duten ordaintzen,
erne bazaute, lagun maiteak,
saiatuko naiz garbitzen
Orain arte esan dudan orrentzat
ez da paperik agertzen;
aurrerakoan garbitasunak
Erronkari'n dira arkitzen.



Bi artzai ziran, Pierres Sansoler,
eta Petiri Karrika:
beren ardiak nork leen eradan
maiz ari ziran auzika.
Alako batez Petiri'k Pierres
asarrez il du kalika:
Erronkari ta Biarno, ontatik
asi ziran elkar-ilka.

Biarnotarrek atzeman zuten
Karrika'ren emaztea;
sabela urratuz kendu zioten
barnean zeukan semea.
Au itotzeko arildu zuten
ama gaisooren estea.
Odol geigoren billa, suten da
Erronkari'ko jendea.

Pierresenean, ain zuzen ere,
bataio-ondoko oturuntza,
maaitiarrak baertan il zituten;
ez amarekin umezurtza.
Beste gizon bat bizirik utzi;
zedin ama-aurren laguntza.
Kalesak, ustez isillik, asi
ziran Areta'n onuntza.

Leiotik jauzi neskamea, ta,
eman baitzien goraintzi,
baretonsdarrek jende-biltzeko
inguruetan irrintzi.
Irrintziaren oiartzunari
laisterkan egiñik aintzi,
arroil batean atzeman, eta
kalesak il-gogor utzi.

Urtzainki, Isaba, Garde, Ustarrotz,
Erronkari-ibar osoa
gizonez ustu. Beste ainbeste
Baretons Biarnokoa.
Onek eta arek laguntzat deitzen
du okola, Erioa;
esaten errez da non asten dan
bi erreren gorrotoa.

Naparroa'ko Erregeak nai
luke egin bien pakea.
Alperrik. Urren Apezpikuak
egin nai du bitartea.
Ez da pakerik. Aundiagoa
errien gerra-gosea.
Ez-ustekoan, noizbait... ba dute
artzai-mendiek pakea.

Mugan daukate Aragoa'ko
Anso deritzan arana:
arek auzia ebaki die,
entzuna da aren esana:
"Baretonsgoek paga bezate
aurrera, leen oitzen zana".
Urterik ez du zergak utsegin
ordudanik guregana.

Ernaz-mendi'ra joan nai duna
Uztaren amalaucan:
an biltzen ñdira San Martin-arri
dalakoaren oiñean.
Amar beatatik iru bereizi
meurri berdin-berdiñean;
gero, gaebitu, auzirik sortu
balitz arte-barrean.



Ango-emengo Alkate Jaunak
urbildurik biz batean,
aiek azpitik, oiek gaiñetik,
eskuak arri-gaiñean,
sendoagorik zin-egiteko
jartzen tute gurutzean,
Isabakoak denen gaiñetik
daduzkalarik mendean.

Ola daukela, prantses-izkuntzan
esan oi dute iru aldiz:
"Pax avant", au da, "Pakea aurrera",
gorroto-naiak itzaliz.
Artzai-artean gaur ere ba da
erra-bidea alde-z-aldez;
baiña naiago "pakea aurrera"
itz au gogora ekarriz.

Ahetze'k eta Saraitzu'koek
Baxenabarrekoekin
artzai-arteko autsi-mautsiak
urtero ditute berdin.
Udan onera, neguan ara
dabiltz beren ardiekin;
ez litzake eder asarretzea
odol-anaia anaiekin.

Egiazko dan istori zaarrez
Naparroa'k ba du ugari;
au bezain zaarrik eta berririk
Europa'n ez da nabari.
Lekuko dago Ernaz-mendia,
lekuko San Martin-arri,
Erronkaldarrak, Baretonsdarrak
lekuko ditezke ekarri».

Txokoan ixil bazan beste bat
ere, kanta-zai zegona:
goierritarra, buru-zuria,
azkeneko Ola-gizona;
aitona, baiñan oraindik leeden;
bera, Matxin Lekuona.
Kantuz asteko zorutzen zegon;
entzungo dezu ziona:

AZKENEKO OLA-GIZONA

«Tiriki-tauki-tauki,
mailluaren otsa...
Gaur gora nai nukela
nik Gabi-arotza,
bai burni-arotza,
mailluaren otsa.

Tiriki-tauki-tauki...
Olaren durunda
gure ibar-zelaietan
noiztandik entzun da?
Noiztandik entzun da
Olaren durunda?

* * *

Leenen maillukaria,
omen Tubalkain;
leenengo Ola-gizona,
antziñako Matxin.

Orduan mundikan-nai
mendiak meatza;
mendiak meatza, ta
basoak ikatza.



*Basoak ikatzza, ta
beso-zaiñak gatzza,
kintaleko maillua
"matxin" batek dantzza.*

*Beti —tiriki-tauki—
ezfarrian kanta,
ardoꝥ ondo bustita,
etzedin narranta.*

*Dantzza-sokarik bazan,
an Gabi-arotzga;
tobera-jotzen, berriꝥ,
ez bait-zan arrotzga...*

*...gaberdiak gabardi,
ezfairikan bazan,
gure Ola-gizona
antxen izango zan.*

*Erriko pesta-zurri
zezenikan aal-zan?
eskuan kapa gorri,
buruz beera plazan.*

*Onean jostailu, ta
leertzean eztanda...
obeto adituko
bi bertsoꝥ esanda.*

*"Esku" itzetikan bezain
zuzen eskukada,
"Matxin" itzetik datoar
zuzen "matxinada".*

*"Matxinoak" Azpeitin
Jesus-zigortzaile,
aurpegia beltz-gorri
beti ikus bat-zai.*

*Azpeiti dala Azpeiti,
Riojan San Millan...
an bai, euskal-amaren,
burni-barrak pillan!*

*Baiñan, besterik beste,
Matxinoen poꝥa
beti, tiriki-tauki,
mailluaren otsa.*

* * *

*Mendian Zear-ola
errekan Gabia...
Gabi-olaetako
taukaren aundia.*

*Tiriki-daunga-gaunga
onen oiartzuna
Euskalerra guzian
nork ez dun entzuna!*

*Ots onixi eskerrak
"Bizkaitik, burnia";
an labratuz mundua
txoil bai-dago ornia.*

*Ez Bizkaia bakarrik;
Euskalerra dana:
dan guztia Ola-zar
leen bait-degu izana.*



*"Izana" diot, eta
ala da izan ere...
antziñako "Ola-zarrak"
gaur "orma-zar" daude.*

*Urrestilla'n amairu
ziran, bai galantik!
Banan-banan geldi, ta
jun bear guk andik.*

*Ni Legazpira nintzan
gazte ta lerdena
—Bengoleako Olean
neu nintzan gaztena—.*

*An ere gelditu zan...
an zan gure pena!...
Gipuzkoan Bengola
geldi zan azkena.
An zan gure pena!
Oletan azkena...*

* * *

*Ez da geroztik inon
tiriki-tau otsik;
ez du inork ezagutzen
gaur Gabi-arotzik...
...tiriki-tau otsik
ez Gabi-arotzik.*

*Baiñan, mundua mundu,
nik Matxin izena...
Leenena Matxin bazan,
Matxin baita azkena.*

Ez dira aspertu jardenez, baiña
basora joan-beharra:
bidean diran arte, ba dute
illargiaren adarra.
Aiek nai baiño leen asiko du
zabaltzen egunabarra;
ozenagoa jo bearko du
Iriondo'k deadarra.

Aien etzauntza, zarba ta garo:
ezurrendako gogorra;
ekaitz-burrunba datorrenean
gaitz-erdi, balitz legorra.
Erantzi-bage lo egiñean,
ez gozaten soin-enborra;
gaur, biar, etzi, ezin pagatu
gorputzari zaion zorra.

Udan Egoak legortzen dula
zokoenik dan baztarra,
txabol batean ainbat lagunek
sumatzen dute su-garra!
Itzul-iraulka lorik egin ez,
egunez arlo zakarra;
alaare, Iriondo'k naiago omen-du
etzauntza artako aiñarra.

Bein edo beste, basoz kanpora
gauean bada gelditzen,
oge zurian ezin asmatu
omen-du lorik egiten.
Berriz basoko kdamaiña txarra
duelarik atzematen,
«emen nauk, lagun, zer lo ederra!»
agotik zaio jalkitzen.



Etxe sendoan bizi giñanook
 oraindi kontu-kontari,
 neguko gauak izan genitun
 belarrien asegarri.
 Gauak laburtzen asiak ziran,
 ekin bearko lanari;
 aegun luzeko nekeaz ezin
 gau motxean ipuika ari.

VIII. AXURTARO

Zozo-mikote bero da asia;
 eldu da «Apiril biribib».
 Martxo gogorak aurrera ardirik
 artaldeetan ezin il.
 Eska ditio, beti bezala,
 arten ere beste egun bi;
 esker gaiztoaz bialdu dizu:
 «Ez nauk iretzat opari-il».

«Nere ardirik txarrenak zekik
 egiten zazpi oin-salto.
 Bizirik utzi ditidakenak
 ba dituk urren-urteko.
 Otsa-il baiño ankerrago aiz,
 katamotz-il odolgiro.
 Aurten il adi goseak, eta
 neguak berriz biztuko».

Laister arditan Jorra-illa da;
 elurra aldegiña dugu,
 ustez era-bat.
 Kukuak ere
 kantu motela jo baitu.
 Ardi zaar eta aitona zaarrak
 dutenean aren zantzu,
 urren urteko bizia dute
 zain-ezurretan sumatu.

Elurte luzez orein amabost
 zapal-zapal zan belarra,
 zuti-zuti da margoa argituz
 arturik eguzki-garra.
 Tartean dabil Egoa legun
 arrotuz aren kalparra.
 Sagu-kabi da ta arkume-oge
 alorreko sapelarra.



Larre-zerriak ezkurretatik
azkazal-gorri zetozen;
oreindik elur-bildu bat beste
ageri da Basakaitz'en.
Aurtengo neguz, Lekunberri'ko
«zakurrek» lana ba zuten;
urde-zantzu ta basurderena
ez baitzituen bereizten.

Baraibar'kotik Balerdi'raiño
nibirri-nabar mailloa;
zimur-gunetan elurra ba da,
ez beela alde-egitekoa.
Aren bizkarra iduri oi zait
«zebra» deritzon astoa.
Aurki da larruz alda-bearra
ausartzen balitz Egoa.

Zugatz-niniak leertzeaz daude,
—ara bi pagondo ostotu—;
ziza-larreak ostilika antza
euntzetan dira gailendu.
Biar, erriko Santa Garazi;
artziren batek aal balu,
ermitarako puska legorra
ziza-arraultz-talo goxo du.

Ernal-ardiak ba deramaztea
bizkortzen alorrez-alor;
erdi-bearrak argaltzen ditu,
naiz eman negua bizkor.
Sapelar biguin, karda beratza,
belarrrik balitz susperkor,
ta arbi-ostoa... beren ondoan
ez badute nabari iñor.

Artzaiak aurrez artaldea du,
ardi bakarra atzetikan...
doi-doi bizi da Martxo'k utzita;
bizkor daiteke soroan;
belarri biak lurrera ditu
muturrarekin jokoan;
begiak ere zulo berera
zuzentzen oraiño koan.

Lau egun bage jasoko ditu
buru, belarri ta bagi;
artziak ziztu dagionean
ez geigo belarri-nagi;
baten urrena beela bestea
buruarekin itzuli:
bost egun bage artaldean da,
ez duke jun nai atzeti.

Zintzarriaren miia, aurrenetik
ez darabil aldenbeste;
sudur-estua, ez tul-karkara:
Erio du adiskide.
Usu, urrats-oro zintzarri-miia
giltz osoan jo dezake:
Apirila'ren esana ala dan
ager da luzaro bage.

Amobost egun alorrez alor,
biamonean larrera,
umerik ezin artu baiazezan,
—naikoa zun bizitzea—;
artantxu eta sasi-arditan
ilhez gaitza ta gosea,
aiek bezala zilipurdika
bizkor emango du urtea.



Errekalde'ko saldoarekin
Mikel artzai berria da;
neska-mutillak atzeti doaz
bidenabar arbitara.
Alorren mugak aldatzen dira
ardi-milixken gogara;
zotzik arririk an baldin bada,
izu ditute barnera.

Arbia atera ta arbia garbi,
gurdi bat egitekoa;
biamoneko bazka nai dute
gordetzeko jai osoa.
Dantzatzen dute elkarren leian
ik itaia, nik aiztoa,
arlo ondorean eseri eta
zaitzeko pakez saldoa.

Pillo bat, bi, iru, naikoa dute;
muga banetan jar dira
geldi, ardiak idukitzeko:
biltzak, orde, pilpira.
Mugarria ainbat gotor ez daude,
ba datoz biak erdira;
mintza nai, eta mintzoa asirik,
eten, arat-onat bira.

Ondoko zitzak, arriak, buka;
ezin aurkitu zer-jaurti;
ardien mutur lotsa-bageak
errez urra du barruti
ase beterik —ez nai orduko—,
baiñan, etzaten dira asi;
oraintxe gure bi oon mintzoa
eten bage daite jalki.

Etzan diranak auznarka daude,
buru-belarriak zutik;
batño, marrakaz artegin daukan
axuriaz oroiturik.
Ari bidea mozten errez da
etxera-muga gorderik;
an jarri dira dama-galaiak,
biotza apur bat lasarik.

En etzan da bat ume-miñetan
buruz lurrari josia;
ara da artzaia, ardia berez
ezin baledi balia.
Oartu bage an du kume bat
jaio ta beela zutia;
amak limika dezan orduko
elurra bezain zuria.

Mutilla atzera neskarengana,
gogo duna jalki naiez;
iñolaz ere mintzoa dute
biarko Garazi-jaiez.
Biak dirade joatekoaK,
ez iñor ikus-bearrez:
«nik nor ikusi , ni nork ikusi»
aztu zaie zorionez.

Mutil mazalak isil-gorde bat
ezin koka biotzean:
lau ziza-larre aratu ditu
argi-urratzez batean...
kolkoa betez etxeratu da,
gorde ditu baztarrean...
gosari eder egiñen dute
biar Meza-ondorean.



Ele-ederrek gogora dio
 gaztaiñaroko kementa,
 —axurtaroko egun lasaiaz
 bat beste jo ditekena—
 lanaren aundiz arritu-ta aitak
 bici aitortu ziena;
 gaztain-gaiñeti kantatu zion
 biotzaren asperena;

muxar-eizea... Baiña: «Ara!» —dio
 Gerrieder'ek bet-betan—.
 «Beste bat duzu, lepoa luze,
 etzanik ume-miñetan».
 Ordu artantxe, esana danez,
 biak ziran eztaietan;
 mutillak andik urra-bearra,
 min du begi-biotzetan.

Ardi gaisoa, neke ta neke
 alperretan indar-aldi.
 Argira-naiak ez du zorrotik
 besoa baizik agiri.
 Burua oker ote-daukanen,
 ote-dan gorputzez aundi,
 ba du kezkarik;
 baiña aundiena
 mugan utzi dun Garazi.

Bien tartean an beste batek
 neke-bage egin du umea:
 udazkenean ala jalki oi
 da sagar umo-alea.
 Artzai berriek nola dakite
 umagintzako legea?
 Bein edo bitan ikusi arren,
 ari izanak du antzea.

Beatzak aalbatei legun sartuaz
 ukitu dio burua;
 ez dakar oker —besoengandik
 apur bat atzeratua—;
 besoetatik barnera bultzaz
 bereela du zuzendua;
 alaz guziaz, erdigite au
 ba liteke luzatua.

Artaldean dan ardi ñoena
 dalarik, axuria aundi;
 lanak ba ditu! laguntzen dio
 daginean indarraldi.
 Oinbesterekin, ordua aurrera,
 urbildu da bazkal-aldi;
 burua nozbait atera du, ta
 an da guzia atzeti.

Bat eta beste, ba da alorretik
 aldegitoko garaia;
 gure Mikel'i erdi-bagerik
 geldi zaio mintza-naia.
 Axuri bana esku banetan,
 entzunez marraka-alaia;
 amen atzetik erdi-negarrez,
 arturik aien usaia;

zelai-langara diran ezkerro,
 beren artaldea aurretik,
 bi maitaleak alkartu dira,
 itza bestera aldaturik.
 Ardi-arkumeen larrialdia,
 ezin asmatu besterik;
 edo onezkero etxeen daudela
 ogi-maaiak atondurik.



Etxe-ondora diradenean
ardien zintzarri-otsak
esnatzen ditu barnean dauden
ezuri ezin-egonak.
Aiek barrendik, amek atetan,
bikatzen ttute marrakak;
atea zabal zaien ezkerok,
astén dittute ezagutzak.

Itsas-ugina arri-tartera
sartzen diran bezain itsu,
josten zaizkie errapetara;
begiz ez baitute zantzu.
Ardiak usna isats-ondoan
ta, besterena sumatu?
ostikoz edo buru-ukaldika
beregandik iraitzen du.

An da marrakal artatik agiz
elkar ezagutzen dute,
—ardiak berak, ezagutzeko
ez dizu begia ain erne—;
bainá artan ere utsegin oi du;
ta auzia ez daiten luze,
begi, belarri, zentzu orotan
sudurra du jaun ta jabe.

Anka-tartera sartu zaiona
naiz ezagutu marrakan,
sudur-mizpiren baimena bage
ez da geldi oi paketan.
Ordun umeak, maitetasunez
ipur-gaiña kiliketán,
belaunikatuz edoskitzen du,
isatsa dardaraketan.

Bazkaltzekoan, agotan dute
il bear duten aaria:
—aspaldietan ganbelan arren,
ez du geitu aragia.
Gaitzen bat ote? arratsaldean
ikasi daiteke egia;
gibela aratza ote-dadukan,
errurik bage biria—.

Urratzen dute. Barrunbe, bikain:
birika, arrosa-kolore;
ubel gibela, garbi ta legun,
uruk eta arririk bage...
esteak, esan, agitz ziriak,
oilloarenak bezain mee;
ori du nonbait gaitz izkutua.
Gilborrez, osterá, ainbeste.

Larrutu dute, lepoa moztu,
adarrak nekez erauzi.
Kasakezurrean —ezustekoa!—
ar nabar aundi bat bizi...
Talkan zauritu ta andikan sortu-
-zauria, ustelean itxi...
muniñetan barna sar balitzaio,
ark, oi danez, zorarazi.

Okel ederra, gizenki naiko,
zenbait otorduko jana;
arratasaldean Garazi'k ba du
esteak betetzen lana.
Ari orrenak gutxi izan arren,
lodienak bana bana,
il zuten leengo ardiarenak
gaiñez ditute sei kana.



GARAZI DOATSUA

Biamonean inõr ez nagi:
denak Aspelats-aldera,
Andre Garazi ongilleari
eskerren eman, eskera.
Euria bear, ateri bear,
ara du Uitzik joera;
izurritean eriotzetik
ark ere ditu atera.

Aitona xalkor, zelaia-barna,
gertaera zaarra agoan;
Etxebearri'ko artzainarena
berri daduka gogoan:
lauso gorri bat ikusi zula
Musulun'go pagondoan;
«Ux, txerri gorri» — esan ziola,
alako bat zalakoan.

Andre Santa arek erentzun dio:
—«Ez nauzu txerri gorria.
Zerutik nator; neri deritzat
"Garazi urre-gorria",
Daziano'ren agindupean
Erio gorri ikusia...
Ermitatxo bat nai dut, artatik
zaitzeko zuen erria».

Musulun-gaiña deritzanera
erria asi da arriketan;
beirik, idirik, gurdirik duna
ba dabil elkarren leian.
Baiña, arrigarri! aiek gaiñera
egunez igo aiñean,
zeruko Santu nekazariak
bestera ditu gauean.

Etxeberrri'ko Martin artzaia
gauez zelatan da jarri;
San Isidor'ek sumatu eta
onela dio: «Aida, idi!
Zelatan dagon orri atera
iok ezkerreko begi».
Andik aurrera, ikus-nai ua
begi batekin da geldi.

Aldapa-goran aguretsoak
arnasa aski du, ez itzik;
asperen batez adirazten du
bere denbora joanik.
Atxo-baldarka, gaiña atzeman du
ta, an apur bat eseririk,
ezkilla miña entzun duneko,
jeki duzu susperturik.

Eliza aurrena nai zuten artan
arri zulatu bat duzu:
erui-ondar bat geldi baledi,
iduri du ur bedeikatu.
San Isidor'ek zertako utzi zun
jende arek asmatu du:
aurrera bage, belaunikatuz,
an gogoz oi da ziñatu.

Andik bereela, begiz-begi da
Santa Garazi alai:
gaztaiñadi bat aldapa beera,
andik urrena zelaia;
zelai-buruan muiño-soil-gune
ez leena bezin garaia,
aren gaiñean Elizatxo,
burua erakus-naia.



Andik mordoska, emendik sailla,
itzez alaituz bidea,
Leitza, Beruta, Larraun-aldetik
inguratu da jendea.
«Zer-diozu»-ka, erriko ta arrotz
denek dute zer galdea,
igaz nola zan, aurtan oraingoz
nola datorren urtea.

Meza-denbora urbildua da;
jende barnera da asi;
aldare-erdian, argiz betea,
an dago Santa Garazi.
Aldarearen goiko zizkuan,
San Isidor Nekazari,
—eskua zabal lurrerako, ta
zerura begira aurpegi—.

Otoitz ta kanta, gogoz diraute.
Mezak dirauen guzian;
ango bakoitzen eskariari
Andre Santak du zer-eman.
Gerrieder'ek ez du ain errez
otoitz-egin leen urtetan;
Ele-eder'en eskariari
ukabiderik nork eman?

Sagarakoan isilgunea...
atarin beor-irrintzi,
ardi-joale, beor-kalaska
ta beien kaskoin-zintzarri...
aien gaiñetik ezkillarena,
biotzen eregingarri,
ta begientzat, lurrin-tartean,
Opari-Ogia zuri.

Ezpain-muña, ta dirua, gero:
biotzean bero-ziña;
amandre xaarrak, agopekoa,
andik aldegin-eziña.
Gazte jendeak elkar arki du;
ba du bere biozmiña,
puska legorra jan bitartean,
aurre-egunetik egiña.

Gure Mikel'ek saldo-artean
topatu du lagun zaarra,
Erasote'ko Urriztimiltxo,
bere kideko leitzarra.
Lantegietan txiki oi zuten
enbor larria ta adarra;
lagun-artean agertu ere
besoan zuten indarra.

Eguterako pago-ondoak
deitzen ditu esertzera;
gosalarartean itz-aspertu bat
egiteko ba dute era.
—«Neskatx eder au, andregai duzu?
—dio— barkatu galdera».
—«Aspaldi ontan, —erantzun dio—
elkarri etzemanak gera».

...«Ain zuzen ere, gaur du eguna:
izena Garazi baitu;
bear dan legez jai egiteko
puska bikaiña jarri du.
Irurontzako ba da naikoa,
zuk aintzat artzen baduzu.
—«Aintzat artzen dut; eskerrik asko».
—«Ots bada; lagun iguzu».



«Nik ziza-sail bat atzeman nizun,
atzo ook il zuten aaria;
bart arratsean gure Garazi'k
irauli du zartaria.
Ortaz pozago ar dezakezu
gure bioon oparia;
eguneroko nai nikezu nik
onelako gosaria».

Eseri dira, zabali dute,
alboan barra da usaia,
guzien gaiñez ziza-lurriña:
ba da agoan listu-naia.
Oinbesterekin ez da bukatzen
bein beingo jarri dan maaia:
aari-giltzurin, muin eta xerrak,
au dute gosari-gaia.

LAISTERKA-APUSTUA

—Esazu —dio Urrutimiltxo'k—
apustuan an aal ziñan?
—Bai —dio— nik ez dut alakorik
ikusi nere egunetan.
—Zakur-erría zapal duzute
laisterka-apustu onetan.
—Ez zan samurra; amaan semeak
jaiotzen dira besteetan.

—Aspaldi ontan arrandi zuten.
—Izateko bide ere da:
Larraun guzian ezin urratu
baitzun iñork aren marka.
Aiek etzuten; guk, bai, ordea,
bi mutillen ezagutza;
jakiñaz gaindi jokatu ginun,
ta atzeman diru-mordoska.

—Diru asko? —ta—: Naiko guzia
aren alde: bost iruri.
Gu aien markan genbiltzalako,
—apustuko markan naski—
aiek azpitik sar baitzitezken,
zortzi ta amar arnasaldi.
Alarik ere jakin dizugu
aien saiotako berri.

Gureak iñoiz jokatu ez, ta
aiek ortan lasapide:
gerta oi danez, azal gutxi, ta
zerbait ikaratuko ote.
Gurea, berriz, apusturako
bear bezin lotsagabe;
beste ez-bearrik ez izanekin,
ez giñan bildur bat ere.

—Nola jabetu ziñeten markaz?
—Ezagutzen duzu Koxko;
ark ikasi du, saio laburrak
egitean egun oro.
Antone-bordan aldatzen dala,
ta gau batean ara jo.
Izkuta zaizu belar-tartean,
ta aien batek ola dio:

«Ogeita bat laurdena gutxitan
or nonbait egin lezake;
leengo marka ara iñork ez urra;
bildur bage ba goazke».
Gureak, orde, ogeiterdiren
azpitik egiñen, uste.
Azken-aldean estutu balu,
an zan oker aundi bage.



Egun artantxe Lekunberri'n zan
anka jaso zezakena;
denen aurretik erri ontako
umeteri nabarmena.
Goizetik Koxko ingu-minguru
zer atera zebillena:
dirua nola, mutilla zertan,
emanez guri kemena.

Artean, oiu besteen aldetik,
ikaratzen ote-giñan;
aienak baietz leengoa ondu,
ez ipork ogeiterditan;
beti kezka-antza —ba dakizu— ta
ark arnabide eman zidan.
Berekin zuten Larraun geiena,
batek galdu bearretan.

Nondik begira ez nun asmatzen;
zuiñean plazan gelditu nai ez;
bidea gora, lizar batera
igo naiz obe-bearrez.
Luza ta luza, ez dira ageri;
ta an lasa ezin egonez,
bide-burura etorri nazu
bi zangoa eragiñez.

Beste lizarra gindu baiño leen,
oiuak ditut sumatzen:
lizarrez-lizar, gerta dan oro
mutil koxkorak zabaltzen.
Aiena aurretik, beela gurea,
ez diote alkarri kentzen.
Pagailleta'ko gaiña artu arte
nor asiko da kezkatzen?

Ikusten ditut elkar austear,
alde dutela bi kana;
gurea sartu, besteak eutsi,
ez da luzaroko lana.
Urbiltzen zaizkit;
jetsi naiz beera;
jarraitu nai, aal dudana...
gure mutillak zintzo artzen du
erakustunak esana.

Bi gurdi belar alkar lotuta
tarte berdiña baitute,
magalgunetan sartzen baitzaio
atzena muturrez aurre...
alaze doaz, «bai aiz ta ba nauk»,
batak bestea autsi arte;
alako baten, saietsez saiets,
urrats bat alde eskas dute.

Gogoan daukat Tomax Aldaro,
itaurreko zebillena,
eror-zorian nola zetorren
bein Astakor'en barrena.
Beien atzean babestu nai ta,
besape, aurrez eztena,
albora aldira beiek zizta artuz
atzean uzten zutena.

Ola, aldi batez, esan diteke
gure mutillen joera.
Erakustunak etzion uzten:
«Jo ortan; ez adila aurrera».
Besteren barneen bildurra sar nai:
begira du ezkertera,
bestea zurbil, estu bide-da,
agintzen dio sarrera.



Eultzian ala, lau beor, lerro;
laurak ozta doaz berdin;
bi laisterkari, bi erakustun,
bein ezker, bestre bein eskuin.
Biurgunea ezkerretara
dunak, aurrera berekin:
esku-beorra Lekunberri da,
birunda guk bear egin.

Aurreraxego, ukondoza dira.
Zuzengunean sarturik,
azken-beorra oldartzen baita,
zartaillua sumaturik,
lepa-soka autsi ta zuzen-zuzen
iges baitoa bakarrik;
ala aurrera da gure mutilla...
Ez da gaurgero bildurrik.

Geldi naiz. Berriz bide-burura
itzuli naiz ta an tinkatu.
Onontzakoan ikus dezaket
norena daiten apustu.
Nere esanakin gure erritarrek
ez dute ezpaina zimurtu;
begi-biotzak biurgunera
noiz baiño leen ager buru.

Egon laburra, ta «Ara» diote
aizearen egaletan.
Ez; bakarra da. Zer ote dakar?
Batzun batzu dardaretan.
Ara danean, galde diogu
zer gerta dan Pagailleta'n.
—«Erori dala Lekunberri»... Ots!
ez giñan il-ezkilletan.

Andik bereela, burea an duzu;
atzetik mutil-taldea.
Autsik etzuten arrotzen; lokatz-
-zirta bat bestez bernea.
Etsaia non du? aztaletan bai
ark utzitako loi txeea.
«Ez esan geigo —dio Trinkin'ek—
Uitziarra barea».

Ondora dala, «Eu, mutil, i aiz;
i bezelakorik ez duk!»
Geldi zoan ta jarrai genion,
giltza bete arteiño, guk.
Lekunberri'ra giñadenean,
etziran an leengo kontuuk:
bazkariñoa an egin ginun
ez, alegia, musutruk.

Belar-tarteko bare argatik
egin giñun diru naiko;
galdu-ta ere, jakiña ginun
pin zirala jokatuko.
Bearrik, erri-tarteko leia,
ez geunden naasketarako!
Zeinbaitez baiño txoro-txoroan
nornaik ez gaitu naasiko.

Itsusigorik! Bai bide-duzu
errikoaren buruzki
diru-egiña. Orrelakoak
ez du besterik merezi.
Egun artantxe atz, egin zion
bein ta berriz kazkarrari!
Or dabil orain asteleeneko
buru-begiak ernari».



Ele-ederrek berri ook eman
eta beste biak entzun,
bitarte ortan ez nuke esanen
zeiñek astirogo jan zun.
Ondarrak, baiño, guriak ziran,
oraindik ere jandizun.
Nola jan eta bil egin zuten
isillik utzi dezagun.

Urriztimiltxo'k etxera nai du;
deitzen dute berengana;
esan diote izbeste gabe
ba dala eguerdi-jana.
Aintzat artuaz, lan asko dula,
jo du Elutsetan barna.
Ez du aaztuko lagunarekin
jai-erdi eder emana.

Bazkari-ontzen maratz ari da
Garazi'ren amandrea.
Pestetan ere doi azaltzen du
gaur baiño jaki ohea.
Lurrin ederrez, usai zabalez
leertua du sukaldea.
Etxe-barnean idukitzeko
gai ez da atari-atea.

Amonak jakin nai du zearo,
—bera joan eza damu—
zer jende-aldi bildu ote-dan
Andre Santaren inguru.
Argi ta diru, soizean zintzo
illobarekin bialdu.
Aren mesede aundiak jalkiz
ez asmatzen noiz bukatu.

Al duten leiaz ospatu dute
Gerrieder'en eguna;
etxeko denek opa diote
ehun urteko osasuna.
Geurtz garai ontan Eleder duke
bizi deiñoko laguna.
Gaur ere ez dio uka aspaldiko
begi-ukaldi leguna.

ANTON KOKO

Atsalde-erdian etorri zaie
axurketari kokoa;
etzalekua Errekalde'n du
amaika jendeen zokoa.
Bi mandorekin —baten gaiñean—
zorroan dula zaatoa,
zuri ta neri, gogoz eskaintzen
bidean etor daroa.

«Orizu, kartzu, gariak eder»
euskera lardaskatzen du;
sudurra luze, okotza zorrotz,
odolik ezin uka du.
Koko geienak diran bezala,
ez da betazal gorrizu;
besoa bai beltz, kaizua labur,
esku eta lepo zaintsu.

Erri artako axur gizenak
bil ditu zortzi-aldian;
urtearoko maats-aldiz poza
barra du auzo guzian.
Bere kideko agure zaarrik
topa baleza atarian,
zaarrak berrituz ez du bukatzen
bakoitzez ordu erdian.



Errekalde'ko beste sutean,
Zimurrio duzu bizi;
afal-ondoan urbilduko da
leengoak esanaz beti.
Zaato-zurrean —ua bage ere
egos lezake afari—
Gerrieder'en amonak dio
luza aariaren esteki.

Anton Koko'ri berritzen dio
aien erriko araua:
gari-igitean Olite errian
jan oi zun aari-burua,
saieski, xerra, ta, aien atzetik
dakigun salda goxoa.
Artantxe Koko'k eskaiñi dio
zimurtzen ez dan zaatoa.

Sudurra igurtzi, begiak ertsi,
goibeldu bekoki latza;
aren bekaiñak iduri dute
eultzi biltzaileen erratza.
Ardo eraiaz gorritzen dizu
bakar-bakar daukan ortza;
oskarbitzen da, begiak izar,
aitu dularik arnasa.

Gogora dio Koko-jendeen
esku ta biotz zabala;
eultzi-denboran agotz-gaiñean
eiten zuten lo axala.
Maastia aitzurtzen kirten motzekin
ari duten egiñala;
aien ondoan lotsatu bage
bera jartzeko etzala.

An ikasi zun Zimurrio onek
igel-iztarrak xurgatzen;
zelaiez zela, istiliez istil,
denek zuten ezagutzen;
Barneko atakan, batipat, etzun
eguntto bat utsegiten;
eztul legorra ari entzun-da
ur-azpira ziran sartzen.

Irri naikorik eragin zien
bere ateraldiekin;
«belarrak zertan, zekorrak nola»,
Koko'k daki zer galdegin.
Beiak bazkatzen, belar-gordetzen
joka deza nornairekin;
edonork alez baiño leenago
ark gizentzen zaiarekin.

Anton Koko'ri aipa diote
etxalabaren eguna;
ark bere buruz ateman dizu
sukaldean dun laguna.
Urteak opa ta aurrera galde,
zuzen-zuzen erantzuna:
«Bost illabete baiño leenago
jantziko dite eraztuna».

«Orduen, dio, karko, dut andik
ardo zaar ogei urteko;
erle-mahatsa bi saski bete,
eztai aundi egiteko».
Ele-ederrek esker emanez,
aldiz, omen-du gordeko
eltze bat bete gazta beratza,
Koko'k ain baitu gogoko.



Zaarren solasa eten bagerik,
gazteek dute erabaki,
urren txangoa dagokiola
Samiel Aralarkori.
Pazkoa Maiatz igande-aurrez
dute larunbat-letari;
Larraun guziak ara jotzen du
eskatuz esker ugari.

Anton Kokoak aztatu ditu
axuriak tegietan,
errian sartu denetik ez du
erabat jardun izketan.
Ardi beienak etxe-aldetik
jaten dutela alorretan,
artzaiek zintzil ekar ditute
kumerik bada bordetan.

Lo egin eta mugi nai luke
argia baiño leenago;
etxean oillo, basoan pizti,
ez da jekitzen goizago.
Mandoak bazka, zorroak gertu,
axuri begira dago;
erri artako jende lotiaz
marmaritzen du birago,
madarikazio.

Argiz batean, egoa pil pil,
satorrak ari du lana;
ardi antzua jekia duzu
egiñik naiko etzana;
nagiik atera, gorputza dardar,
belarriak alde bana,
joaleari eragin dio:
au da leen argi kanpana.

Beor etzanik oraiño ba da,
arkitu baitu oi, goxo
—etxeke ogean beor etzanik
ez dut ikusi eguno—.
Nonbait mendian otza jaurti du
datorren Lastailleraiño;
kukuak ere pago-gaiñetan
asi du betiko lelo.

Arbi-tartean erbia lo da,
sagua sapelarrean;
eiztarra, alper izan-da ere,
bakar jeki da goizean.
Noizbait errian jeki dirala
ezagun da asta-arrantzean;
Anton'ek ere arnasa artu du
axurien marrakean.

Aurrak oraiño lo daukelarik
sortu da naiko karrasi,
—kume gaisoak ardiengandik
isillik ezin bereizi—.
Itz laburretan artziek dute
Koko'arekin iritzi.
Diru zuria jasorik, alai
urrena arte elkar iraitzi.

Bidea-beera ezin isilduz
axuriak zuti buru;
noizbait marrakaz aspertu eta
lepoz dira zilintzatu.
Larre-ardien joale otsak
berriro esnatzen ditu;
egiñaz beste marraka-aldi bat
bearrez dute etsia artu.



Eguzki eder, epel eguna:
 artaldeak alorrera,
 kume berriak sortu ta kendu
 laburragorik aurrera.
 Kenduen amai egozten dizte
 leen baiño leen gizontzera;
 bi iru errape ustu ezkeru
 Koko betor eroatera.

Ardiak jetzi, esneak, mami,
 gazure edan aparretan;
 gaztanbera jan, gaztak legortu,
 leertzen ez badira artean.
 Artzai gaizoak istillu gorri
 ikusten du neguetan...
 Ziztu ta danta, mendia alai du
 leenbiziko belarretan.

IX. LETARI

LEGORTEA

Bi illabete-legorteeek aurreratu du Uda:
 oraintxe ziñez artzai gaisoa galdu da.
 Nekazaria aspaldi begira zerura:
 belar, landare, zugatz... noiz datorren ura;
 gezurretan ari da odeien itxura.

Samarko'k, esana da, kazkabarra agoan;
 orduun belar aundirik ez da madioan.
 Urlik lasto-zatuka an gorde omen zuan;
 koka-aala belar, berriz, joale-zuloan,
 el biribillak zerbait balekar ondoan.

Lurrak gorri zituten Maiatz-leeneraiño;
 bei antzuak, lan bage, ustez larrerako;
 munats-belar garbia, esne-beiendako;
 txekorrendako ere sortzen aal-da naiko,
 egualdien tankera balitza gisako.

Berrota zortzi orduz egoak indarra;
 oraingoan luza du bi aldiz adarra;
 Muturra agertu naiez asi zan belarra:
 —«intz ugari duela, obe litz iparra»—
 nekazari ta artzaiek as dute negarra.

Sasitik arantzera: ots, okerragora;
 aize gorria albotik mutiri sortu da;
 egoak utzi ditun izpien gose da;
 indar aulago arren, luzeago okotza;
 izotz gogorrek bezain gogor du biotza.



Zintzarriko belar ta zatukako lasto;
milla alako ganbaran ez litza deus asko.
Larre piskak mozteko, geiegi lau asto.
Ardi aulakm mingaiñez moztean larrosto,
illeak an naasita, an Erio gaizto.

Azari-larrukera artu du larratzak:
alorrrak igar daude, ez mardul baratzak;
artoak ori-gorri, txuloz bababeltzak;
erdi-zemelik, berriz, orritan zugatzak;
kolore biziena adarretan untzak.

Axuri borrotua nonai marrakari,
illea bezin ez du betondoa garbi;
muturrean zolda, ta koloka belarrai;
anka baldatxak, eta mingaiña egarri,
ez dauka andik artzaiak aterarik ardi.

Ama gaisoak, aldiz, azal errapea,
arkaiñez eta artapoz josia andartea;
iztar-barrena gorri, illun betartea;
azkazala beratxa, lepoa luzea,
belarraz eiten dio lurrari galdea.

Itzalean larratza, ezeago bailitz,
ara doakabea buruz ta belarriz.
An usai, emen susmo, janik ezin arkiz,
marrakikarik ezin ta dabilla marmariz;
ontzak ala du urubi negargarria aldiz.

Ardi-jendea, alaare, ez daite kexatu,
garadi zabalean billa baitu gorku
Aurten mullo-belarra zearo du moztu,
bai garo-orria ere naiz erdi-gorritu:
goseak iltze orrek alderdi txarra du.

Sasi-bei eta beor, artu ditu agaitzak,
beren ille zutian zorroturik ortzak;
lararupuan ditute zurdel adakaitzak;
ille tartean, berriz, zorri eta pdrtzak.
Aurki mendera ditu Erio garratzak.

Aritz eta pago-ostoa, etxe-beien jana;
aizeak, eze danik, legortu du dana:
Esne billa alperrik da joan aiengana:
adarra bezain legor errapeko zaiña;
berak edan lezake luzatuz mingaiña.

OTOITZA

Andre Garaziz geroz egin da Letaai
Iribas'en dagoen San Permin beltzarai.
Urrena, Ama Birjiña Lezeta'koari
egin arren Larraun'ek gogotik eskari,
zerua tenkor dago biurturik arri.

Aralar'a asteartez egin zan erregu;
ez da ere kupitzen Mikel Goiaingeru.
Zerua noiz-arteana ote-da asarretu?
Eliz-egutegiak beste egun bat ba du:
oraindi itxaropena ez da guziz galdu.

Azken-letarirako ez dute umerririk
leengoan jan zituten erdi-giarrerik.
Gogoz edo bearrez ez dute pestaraik:
otoitz obe egiten da zerura baraurik,
sabela astun danean, ez aaita damurik.

Leengo oiturak okertuz, jan-edan-zurrean,
aldapa goitzen zuten aspaldi luzean.
Aien aiten aitonek, agiz, oiñutsean,
emazteek otoitza jalkiz ezpaiñean,
Jainkoa lagun zuten estutasunean.



Errikal lau arkume, Lekunberri'tik sei,
 eramaten ditute amar ta irurogei.
 Urrena Aralar'eko egiña dute dei
 zerua beartzeko ein bear dala mei,
 euritan leertu dedin begietako odei.

Galtzarbean arturik beren ertekoa,
 —egun artan lotsa da zintzilik zatoa—,
 erriak asi dira igaroz mailloa.
 Gure biko gazteak bat baitzun asmoa,
 sailllean naasi bage jardukiz dijoa.

Elederrek bizi du amona elizkoi,
 eskuetan lana, ta ezpaitan otoi.
 Itzak beti baitzitun legun eta sarkoi,
 umetan izan arren esaguera doi,
 aren aholku zuurrak ditu bidez oroi.

Lekunberri'ko mukan leenengo oroipena
 goiko bidexkan dagon Gurutzearena,
 Ata'ko Gurutzera beiratu zuzena
 egiñez, berri dute amandreen arrena,
 goizetik otoitz onez berotuz barrena.

Bederatzi «Gloria» aingeru-taldeekin;
 «Nor Jainkoa bezala?» ondolik eraskin,
 («Mikel» izenak au du barnean berekin);
 dei eder au entzunik mutillak atsegin,
 Bataioan igurtzi baitzuten arekin.

Lekunberri'tik gora Iribas-aldera,
 aundia da an-emen-ka jendeen joera:
 Madotz, Oderitz, Astitz, utzi ezkerrera;
 zortzi erritakoak andi igotzen gera;
 Baraibar'kotik beste seiek igoera.

Arruitz, Aldatz, Etxarri, Alli, Lekunberri
 Iribas ta Mugiro, oiekin Uitz.
 Azpiroz ta Lezeta, Albisu, Gorriti,
 Errazkin ta Baraibar: or dira amazazpi;
 maillo-aldeetik, berriz, Araiz'ko sei erri.

Gora-aala, noizean-bein itzuliz begia,
 mutillak jalkitzen du dakien guzia:
 «Arako an dagona, Beltxeran-erria;
 barrenagoko arek Galtza du gorria...
 —oroi du bakoitzaren ezizen bitxia—.

»An Elostia, an Gorriti kiputzek errea,
 an Azpiroz-malkorra zugatzik bagea;
 Uitz'ko bi borda, baso-txondar-kea...
 txokoanago dugu gure erri maitea:
 orra Larraun guzia, erriz, bordaz, txeca.

»An Beruete'ko Orin; gero Basaburu;
 aren eskuin Ultzama; laister Eltzaburu,
 Orokieta ta Arraitz ikusko ditugu.
 Aralar'a bidea dugunean buru,
 Naparro guziaren erdia inguru.

»An da, mugalderago, Lantz'en aldamera,
 —ba dakizu lau anai lapurren azkena
 Barbara-Done-egunez urka zitutena—.
 Dioten Prantzi-muga, zitala, alaena!
 Amaika gaiztagiñek babes ar dutena...

»Burni-Gurutze-gora, Ata'ko zelaia:
 —baso artan ba dago egur ta zurgai—.
 Sasibeien atzetik dabilla beizaia;
 txabolan gaztagiten bestorduz artzaia:
 aurten esnerik ez, ta aaztua du usaia.



»Basoan argigune aurkez Aundimendi;
bekokia ageri du Uitz-i-menditi.
San Mikel'en Eliza ez dugu urruti:
arako bizkar artan orain dut ikusi...».
—leenik ikustean ez da asarre Garazi—.

Ezker, etxe txiki bat. «Trintate-elizatxo»;
amonak au Mikel'i maiz aipatzen dio:
aingeru danak baiño Jainkoa aundiago
(San Migelek esparik ontaz ez izango).
Naparren eraspina ori zan leenago.

Eliz onen sorreraz en da zer garbirik.
Aundigoko ori baiño ez ote-da leenik?
Ega'ko Trintatea ageri da artatik.
Ara begiratu bat bialdu bagerik,
ez du Mikel'ek uzten, amonak esanik.

Mendian dabillan, naiz Irurtzun'a doan,
Irutasun Aundia beti du gogoan.
Aurrek ori maitatzen amaren altzoan
ikasten zuten, ori murtxatzen agoan
amaika «Aitaren» eder artuaz kolkoan.

Agertu bat aurrena Irutasunari;
urrena, Gudari dun Goi-aingeruari;
Meza-aurreti, inguruan ba dute ekuskari;
Aralar'ez arontza Sakana da ageri,
Ziordi'ti Iruña'ra makiñabat erri.

Mutillak burura du Lakuntza'ko pertza,
—an gutxi gora-beera nun dagon arkaitza—.
«Pertzak pertz egin beza, emen da tripotza»
esatean bota du eskuetako otza:
poztu zun ordun ere Lakuntza'rrak ortza.

Noranai begira ta mendi ikaragarri:
itzul eta inguru, ba da zertaz arri;
Amonak Entzelai'ra baitzuen ekarri?
Mutillak sumatzen du orduko dardari:
gerta bezala dio jalkitzen neskari:

—«Leengoz atera nun kabitik mokoia,
(artean sok nekian erriko zokoa):
larranbillutan giñan: "Zenbat da mundua?"
esan nion; eta arek: "Aundi... Jaungoikoa..."
bein ere etzait aaztuko ango zirrakoa.

»Onera neizenero, berdin zait berritzen:
nern burua txiki beti dut sumatzen...».
Ingurura begira dazkagu zoratzen.
Mutillak ez du beste esanik asmatzen;
neskak ere zerbati du barnean sentitzen.

Jendeak eldu dira oiñuts eta baru;
iñoiz izatekoz, gaur samurtuko zero.
Larre ezea, legorak dularik zozortu,
artxintzar eta arkaitzak muturra zorroztu,
larrurik lodienak dira azal-urratu.

Legor-apurra jan ta ur-ase bat egin;
—otzegia edanez, norbaitek sabel-min—.
Elizan sar-atera Letarien aitzin;
aldare eskueñatara sugearen osin:
an Kredo'ka ari dira dutenak buru-min.

Oin odolez busti du nodrbaitek zelaia:
ontan igar ezazu aien euri-naia.
Ola aurrera diteke Jaunaren garaif:
ain zuzen nabari da Urbasa'n odaia;
bezten asi danetik, ba du leertu-naia.



«Begi zorrotzik biotz-berorik,
egun bat uts egin bage,
otoi ta asperen, ertsa baititut
San Mikel eta Trintate,
nere bertsu-lan au egitean,
arren, datozkidala alde!
Zillegi bekit gure Erriari
egi latz biren esate.

»Aurtzaroz geroz, ez izan arren,
agurtuz Irutasuna,
Eliztto aren arrian dantzut
otoitz aien oiartzuna:
*Sancta Trinitas... Sancte Michael,
Agnus Dei... "Barka, Jauna"...*
Ordutik zerbait ez ote-da alda
Euskalerrri fededuna?

»Tximist-ostotzez, erakus Jauna,
gure Sina-mendi ontan
bakar zerala Jainko; sar zazu
zure Legea guregan.
Jabetasuna galdu dulako
dago erri au damutan.
Lurra galdurik, erritasuna
egizu galdu ez dezan.

»Aker bat dakust Zugarramurdi'n,
noranai du lizun-atsa;
ezin-egonez lepoa biur,
ikara du beti isatsa.
Ba derabiltzi leize, zubipe,
sorgin ta lamien baltsa:
Aralar onen Gurutz-oiñean
garbi Jaunaren Bildotsa.

»Sorgiñak, diot. Ogenik, ez da
siñestuz oiek dirana;
erriak dio, izena dunak
ba dula, nai t'ez, izana.
Etzuten, naski, eskubiderik
odei ta tcimistengana.
Erri xumeak siñesten zizun
ikaraz, aien esana.

»Atso lizunok pekatu aundi,
—ez baitut nik aipatuko—:
aur gaizta-ezak, eiten zituten
aldare beltz artan lepo.
Jainko-Bildotsak esana baitu
aurrak beretzat uzteko,
Aker-kiratsa Jainko egiñez,
an zizkioten mendeko.

»Akelarre beltz, damurik au i
Europa guzik ezagun!
Akerren larre, sorgiñen bilgu,
deabrua dukala jaun...
Aur garbi oiek aingeru bana
dute zaindari ta lagun;
zeruan daude guzion Aita
ikusten gau eta egun.

»Jainko-Bildotsak suntsitu digu
akerren jaurerri ori;
olako jaunik iñoiz ez bedi
Euskalerrira etorri.
Lizunkeriak sasi ta larraz
bete ez beza gure mendi.
Aralar ontan Jainko'Bildotsa
gaurgeroz Errege bedi.



»Ots, baiña! Or dator! Buruz aker ta
egoz, puztanez ersuge:
lizunkeria, mendia-gora,
gure egun oetan ere.
Erdera agoan, euskera... noizbait;
soiñean, isil naiteke:
neskaso gurbil, orde, ergel aunitz
ez bait-nituke nai andre.

»Mikel'ek baiño gorago nai du
aldare bat Artxueta'n;
andik odei-ats bat edatzen du
aizearen lau aldetan.
Erri au ere ikusi nai du
ats lizun orren mendetan.
Ez aal naiz ni illen gure zeru au
goi-argi ikusi bagetan!

»Ots, orde! Beste sugetzar ori
ez da batere ederrago:
katamotz-buru ta atzapar, dator
limikatuz sudur-zulo.
Prantzi-muga du egoitza gorri,
eriotz oroen zoko.
Zenbat il-ezur liteke
il zituena apentzeko!

»Eren-suge au Mikel'ek il zun
Teodosi'ren urtetan;
Jainko-bildots il Aren ginduz
illa betiko geneukan.
Pizberritu da Lanz'ko lapur ta
Goñi anaïen mendetan.
Jainko-bildurra muga altxatuaz
il bedi erabatetan.

»Lauek etzuten, egin-kalterik
beren buruaz ordaindu;
irurook, orde, gizon bat il-ta
artu zuten naiko pagu.
Ortzak ortza, ta begiak begi,
aintziña zuten eskatu;
lege zaar aren gogortasuna
euskaldunekin da gaindu.

»Iruña'k ez nai; ez Naparroa'k
negar-egunik igaro,
zedilla aientzat, eskatu zuten,
zigor ua biguiñago..
Barkapen-ustez, ai ai egonik
urka-bear-orduraino,
"Il bitez" dio azken-erregeek.
Ari ere ez barkatuko.

»Erna adi, napar, euskaldun, ern
gaurko lozorro orretati.
Ezak siñismen; esku oriek
ez biaz, aurrera gorri..
Artxueta'tik ikusten ditut
Gorriti ta Lekunberri:
giputzek eman bezate ango
il ta kiskalien berri.

»Bizkai-aldean oroi detzadan
iraiezez Oiñaz-Ganboa;
bertagokorik Euskalerrian
aipatzera gaur ez noa.
Sugetzar orri Mikel'ek kendu
zion ezpataz lepoa, egiñik,
morroi zintzo bezala,
Bildots illaren gogoa.



»Ots, arren! Orain datorren au da
sugerik lazkarriena:
koko-erritik birauz beterik
besteen aldean gaillena;
siña, Aundi-mendi; odeiak, ego;
zazpi burutan eztena...
Egun-argia itzali du, ta
lurra mendean du dena.

»Zuk, Jainko-Bildots, lurraren jabe
bialdu Mikel morroia,
zu-il gurutzea buruan dula
aiza dezan suge loa;
su-leize ortan gori dezala
mingaiñean dun erdoia;
beti oiñazez, il bage, beza
soil zeruaren oroia.

»Gure aitonen Jaungoiko audi,
irutan santu zerana,
zure semeek lizundu dute
ez diteken izena.
Euskalerrian ez bedi zabal
koko-erriko legena.
Leendanik ba du gaitzik aski, ta
oildu betza aiek aurrena.

»Ez ote-ziñan bearrekoa,
gure aiten Euskalerrri,
erri-lurretik alde egin bage
biur zindezen mende-erri?
Fedarekin erritasuna
gorde beintzat. Jabe berri
Jainko Aundiak egiñen zaitu
Siñismenaren geigarri.

»Bebil inguru, lur biribilla
gaiztoz ta gaitzez naasirik
Gurutz-oiñeko Bildots-alboan
zora bege egon nai dut nik,
eguna sortzen dan alderdira
begiaz beti zorrotzik.
Gurutzepean dabillen lurra
oiñez ukitu bagerik.

»Eren-sugeai laket emanez,
Bildotsak gudu deritza:
lurra azkazalez urrezkoz jota
sortu du txingi tximista.
Mikel bialduz, sunsituko du
esaien saldo bortitza.
Artean emen etenik bage
egiñen diot otoitza.

»Pake-zantzuan Bildotsak berriz
besoz lurra jo dezaño,
lur eta biotz baretu arte
otoi ta arren emen nago.
Ez bedi biztu sorgin-aker, naiz
katamotz Prantzi mugako;
beti-betiko leizera bedi
sugetzar Koko-erriko.

»Birau bezain oben gaitzorik
eguzkepean ez baita,
ain eder, ortaz, Jaungoikoaren
izena goi-aipatzea.
Or dituzu bi Santu euskaldun
Xabier eta Loiola...
mundu osoan zabali dute
zure izen orren ederra.



»Gure erri dena barka-gai aal da
bi Santu oriengatik.
Izkuntza au birauz loi bear balu,
ez nuke nai Euskerarik.
Ala balitza, ez dut bizitzan
jetsi nai mendi ontatik;
ez, beintzat, gure mintzo ontan Jauna
betiko jaso bagerik.

»Jaunak arnasa dit oraindio
nere lan au jarraitzeko;
biotzak diraust bein ere ez dala
Erri maite au galduko.
Erritasuna gorde badeza,
Erri-lurraz jabetuko.
Beza Siñismen; ta ain gogo dunik
Jaunak ez dio ukatuko».

Eliz-barnean dago jendea,
belauna josiz lurrian.
Apaizak asi-du Letaria
zeru ta lurren aurrean.
Odeirik bada sabel gorriarik,
samurtuko ditu, urrian,
ainbat laguneren otoitz beroaz
zulaturik saietsean.

«Jeki, Jauna, ta lagun gaitzazu!
zure izenarren gorde gu!
gure belarriaz aiteri egin
zeniena aditu dugu.
Kyrie eleison, erruki, Jauna!
besterik merezi dugu.
Gurasoetaz oroi zerala
ordean, entzun iguzu».

«Erruki», «entzun», «barka», diote:
irutara dute eskari;
azkenik berriz, irutan *Agnus*
oiu Jainko-Bildotsari.
Begira, beintzat, fede bizizko
aurreko Naparroari.
Ez uka, damuz fedea biztu
nai duan oraingoari.

Irutasuna zuten agotan
Xabier'ko zupizguan:
Madalen eta Prantzes anaia
orrek sugartzen zituan.
Indi-aldean aren ezpaiñak
beste lelorik etzuan:
alboko batek Loiolaz ere
berori aitortzen zuan.

Irutan santu dan Jainkoari
naparrak dio jaiera;
ez liburutik, ameen altzoan
gerez ikasiak gera.
Leen Naparroa genuen Zubero'n
bidez iristen bazera,
ango dorreak iruna tontor,
nere esanaren aldera.

Irukoitzaren Elizattora
jende-saillaren lerroa,
begiak apal, biotza goian,
kanta-durundaz dioa.
Eliza aundiak ez du erantzun
gaur bezain mardul orroa;
baiña zelaia beela jaten du
gora bialduz mintzoa.



Elizattoan bakoitzak dantzu
leengo otoitzen oiartzuna,
ainbat naparrek berrero piztuz
bezala sendotzen duna.
Zeru-gaiñetik dakustelarik
gizonen umiltasuna,
euri ta beste mesede aundi
bege, ez dator gaur illuna.

Maite ditunak zigortzen ditu
Jainkoak. Berak esana.
Damu diranik kupitzen dute
indartsu ta aaltsu dan Jauna.
Gizonak, bera txiki sumatuz,
dakus Jainkoa aundi dana;
izen aundi au aitortu-ta, aldiz,
oso daukagu gugana.

Sugetzarraren morroiak, Bildots
onagana jeiki dira;
morroi indartsu Mikel or dauka
Aren esanai begira.
Bildots otzanak autsiko ditu
eun milla alako balira;
ezpata aurrean, sartuko ditu
betiko illundegira.

«Nor Jainkoa aiña?» izena baitu
gure gogoen Mikel'ek,
izen au baiño ederragorik
Aingerurik ez du bestek.
Sugetzarrari moztu ditio
ezpat-ukaldiz egoek;
leen sabelka, ta orain iraulka
artu du jeki-eziñek.

Larraun'go otoitzak lurrin-ontzian
bialduz lau aizetara,
gaur arte legor ziran odeiak
ernaltzen ditu gogara.
Ara, aurkez-aurke jarri bi odei
Berin'dik Artxueta'ra!
Burruka naiez ikusita, aiek
bizigo zeruetara.

Ek bezain gizon argal zalarik,
Elias'ek arren aundiz,
goitik euria debeka zuen
iru urte ta sei illabetez.
Urrena, berriz, euria nai ta
biotz berez, mingain berez,
jasa gozoak eratsi zitun
lurra beterik emaitzez.

Ainbat ezpaiñek, ainbat biotzek
gaur dagiten eskaria,
alper ez dala sumarazteko,
emanen Jaunak euria.
Etxe-zokoan ezin oiña-altxaz
aitona damuz geldia...
Biotza altxatuz odeia zula,
ain baitu fede bizia.

Letari oien urrena, aldare
banari belauna bigun;
bereela Meza, ta aren ondoan
Aingeru Aundiari mun.
Ez dira aspertzen naparrak ontan
naiz ari gau eta egun.
Gipuzko, Bizkai, Euskalerritik
gero ta geiago lagun.



Zenbat gizaldik kokatu dute
 Irudi ontan ezpaïnal!
 Zaar ta aurrek oro, naiz ez ikusi
 begiz Aralar'ko gaiña,
 Bera jeisten da erririk erri
 urbilduz bakoitzagana,
 Aralar-mendi, zerua bera
 eramanaz aiengana.

AINGERUA ERRIZ-ERRI

Gogoan bizi dut nola giñan
 Lekunberri'ko mugara,
 Erri Gurutza, mutil mordoska,
 gizon larrien illara...
 Muga itxaron; luzaro bage
 malkorrak kanta-dundara.
 Ara Aingerual lerdan nabari!
 Gure biotzen dardara!

Erri-Gurutzeak elkarri mun, ta
 oro belaunez lurrera...
Veni creator esan ondoren,
 guziook jekitzen gera.
 Aingerudunak ugal-potoak
 bere gerritik atera;
 urren erriko aingerudunak
 aurrekoaren jazkera.

Oian, bei, ardi bedeikatuaz
 doa mugatik errira.
 Ezkil-dorrean bi mutil daude
 noiz agertuko begira.
 Txanpurion'go biur-gunean
 egin duteneko bira,
 dandaraz dute usuagotzen
 biotz guzien pilpira.

Ez dut bein ere ain alai egin
 erri maitean sarrera.
 Amonak oro aurrak besoan,
 leiora dute joera.
 Ikulluan bei eririk bada,
 ager dute larrañera.
 Goi-aingeruak, igarotzean,
 dezan leengo osasunera.

Elizarako garai danean,
 soiñeko onenak jantzirik,
 jende larriak, iñoiz bezala,
 ez dira zango-nagirik.
 Bular-umeak artu-ta andreak
 asma dutenaz apaiñik,
 Aingeruari mun dagiote,
 beren aurrak eskañirik.

Izurritean ukullukoak
 ager ditute plazara;
 bedeikapena barratzekoan
 eldu dedin aietara.
 Etxe ta landa, larre ta baso,
 gurutzaz lau aietara,
 osasun eta poztasun sartu
 da zoko guzietara.

Aldapa-gora goazelarik
 Oillarradar zelaietan
 Santa Kurutz'en Elizattoa
 dago Gorriti-bidean.
 Mikel'ek ere Gurutzea du
 buru ta beso-gaiñean:
 onela garbi irakasten digu
 nora bildu gaitezkean.



Kanta-mintxoak pago-tartean
egiten digu durundi;
mendiak ere erantzuten du
luzaro gure ondoti;
mugar geran baiño leenago
begira an dago Gorriti...
Mikel'ek azken-bedeikapenez
bedeikatzen digu Uitz.

Orrela dabil erririk-erri,
Naparro'ko Aingerua:
aldi bateko, denetan utziz
berak dakarren zerua.
Itzul gaitezen Aralar'era
an baitaika jar-lekua,
an mun emanez, arkitzen dugun
lurrean paradisia.

EKAITZA

Mun eta musu, beratu dute
Aingeruaren biotza:
odeiek gaur ez dute gezurrik;
jo dute gudaroko otsa;
ostots legorak igaro oi dira
billatuz erri arrotza;
baiña aurpegian zirrara sartuz
eldu da egurats otza.

Elizaldia bukatu-aala
mordoka doaz zelaira;
itxaro-bidez gora ditute
begiak odeietara:
«Oraingoan, bai, atzoko ontzaran
oiua gezura ez bada,
—esan du batek— euri gozoa
jetsiko da lurretara».

Egunez ontza suma ezkeru,
esana da laister curi;
besteek: «Oillo bat oillar egiñik
atzo kukurrukuka ari:
orrek ekaitza berekin oi du
utsik egin bage ekarri».
Etxanderaren ezpain-otoitzak
ez ote-zion igarri?

Katua goizik musu-garbitzen
besteak ikus omen-du:
ark ere, erriak asmatu dunez,
ekaitz laisterraren zantzu.
Azkenik, batek igarpen oiek
onako ontaz garai ditu:
lurra, artaraiño legor zalarik,
satorrak gorri du urratu.

Gaur ez da arkume-janik; an daude
gelan burrunziak baztar;
ez da su-garrik; ez, oi bezala,
tantaz jausten koipe-negar.
Erteko legor usai bagea
zintzurra-barna nola sar?
Ua aiek listuz busti bezala,
goiak ugalde balekar!

Ipar-aizeak leenengo odeiei
bultz egin die urrutira;
aien atzetik beste ta beste
burruka-bage jun dira.
Araba-alde tik, Gipuzkoa'tik,
jar dituzu bi, begira;
aizea arrotuz, erronka aurrena,
urrena tximis-dirdira.



Ipar-odeia geldi dagola
urbiltzen da Arabakoa;
ostots-burrunda bizigo dator
maiztuz, luzatuz orroa.
Bien arnasak billa dute elkar,
bi sabelek gorrotoa:
oien burruka beeti ikusteko
jendeak ba du gogoa.

Ata-gaiñean elkartu dira
atzetik utziz ostarte.
Eguzkitatik begiratuta
margo beltzagoa dute.
Tximistak argi duan aldiro
ageri dira auts-kolore:
auts ori, iralkiz, Jainkoak euri
berez biurtu dezake.

Gaez, ogera dioanean,
burtziña arturik eskuan,
txinarrak barna sartuz, amonak
autsa biltzen dun moduan,
biamonean autsa zirrikaz
sua arki baitu barnean...
ala Jainkoak odei beltzetik
oiñaztura pizten zuan.

An dago Jauna. Utsetik oro
egin dunak ezin aal-du
odeiaren beltz eta bustitik
su kiskalgarria sortu?
Su orrek, berriz, odeia leertuz,
euria digu barratu.
Asi du noizbait;
berreun mingaiñek
Mikel'en izena aipatu.

Belarrietan egetotsa-antza;
ez da jenderik ikara;
zugatz-orria, legorte luzez,
ain baitzegoen igarra:
euria mardul, orria gogor,
ots ori berezkoa da:
alor egarrrik txir egiten du
kare bizien erara.

Elkarren gainka datoz odeiak
urrun zebiltzan taldean:
bekaitzez ezin gelditu dira
leena aurretik ikustean.
Ala artaldeko ardi sarkoia
dakustelarik barnean,
besteak, soinka esi-zulotik
sartzen dira belazean.

Esker eta arren, Eliz-barnetik
odeiaren burrunbotsa
entzuten dute, ta leioetan
tanta larrien as-otsa.
Ordu luzean atertu bage
lasatzen zaie biotza;
etxeraldian atergunerik
izan ez ta lute poza.

Etxera-bear, ta asmatzen ere ez
belauneri kentzen lurra:
egun luzea biur zitzaien
eek nai aldean laburra.
Noizbait eldu zan, ezpaignez gogoz
egin-otoitzean apurra.
Mun-bitartean, kanta au Mikel'i
oles eta azken-agurra:



«Jaunaren morroi leiala,
gure erriaren itzala:
dakigun arren aingeruetan
indarrez aundi zerala,
"Mikel" izenak esaten digu
"Nor Jaungoikoa bezala?"

Bein, bita, irutan Santu,
ezilkor eta indartsu;
guzien gaindi, Beraren itzez
eramankor, errukitsu...
Izen au gure biotz-agotan
beti dezagun edertu.

Luziper izarretako
beste Jainko omen-zalako,
Jaun aundiaren aurka jeki zan
ez izan nairik mendeko.
Morroi zintzo orrek sartu zinuen
inpernua sekulako.

Jainkoaren Gurutzari,
Satan'en ikaragarri,
eraman zuzen zeruetara
egiten dugun eskari:
Euskalerrriak eutsi bezaio
aitonen siñismenari».

Atergune da, ez luzaroko;
artu dute etxera bide.
Urak eskainka —orain egitan
lurreko gezurren orde—.
Ata-zelaia jo duteneko
Larraundar guzieren talde
orduko pago aipatu artan,
—galdu baita— dira gorde.

Bost gizon biran, beatzik beatz,
ezin gerririk atzeman;
ario artan beste sei adar
zeduzkan adaburuan.
—Leengo ondo arek berreun bat ardi,
ekaitza gogor zanean,
ille-izpirik busti bagerik
omen-zeduzkan azpian—.

Tximist-bildurrez elorri-xuxta
ezkerrean du Garazi'k,
bedeinkatua dala, jendeen
oker-ustez aitzinatik.
Dir-dir-aldiri «Aitaren»-entzat
eskuiña nai du jaberik...
siñiskeriak Siñismenari
ez aal dio ontan kalterik.

Bere burua motx ez egin nai,
Eleder eskutsik doa;
ontatik ikas siñiskeri au
indarrez noraiñoa.
Atertu-aala, bana-banaka
berritzen dute txangoa:
odeien antzo bereizten dira...
bai ere gure bikoa.

Ata'ko Burnigurutz-alboan
geldixeago dirala,
leenik beratzi *Gloria*, gero
«Nor Jaungoikoa bezala?»
Lekunberri'ko mugako artan
esanik dago, beraala;
amona xintxook etxe-zokotik
agindu baitzien ala.

X. ARTAJORRA



Andik etxera, goiak ateri;
 etxera sartuz ostotsa.
 Berrero odeia berdin naastu da,
 berdin lasa du mototsa.
 Zeruak entzun duala, dio,
 goizeko otoitzaren otsa...
 Txangora bage diranai ere
 zabaldu zaie biotza.

Amona xintxook Mikeli dio
 ontaz eta artaz galdea;
 argitasun on emanik ere,
 ez ark nai bezain luzea.
 Otoitz au, ori, egin aal-ditun
 ez du bildur galdetzea;
 mutillak isil jasan, amatxik
 ematen dion nekea.

Aitonik ba da, ogerakoan
 izar dagoen begira;
 bakarren batzuk ostarte-erditik
 bizia dute dirdira.
 Bekokietan suma dularik
 Araba-aizeren pilpira,
 aldi bateko jasak igarriz,
 sartu da bere tegira.

Azaren orria asi baratzan leguntzen,
 arrak zain eta zulo ziriztu baitzuten.
 Ardi-baresarea ark jator iduritzen,
 —amonak baitarabil odolkia biltzen.

Ertzeko orriak oro erori, naiz kendu,
 ondoaren erditu ninikoa agertu.
 Nork uste egun laburrez zedin burubildu?
 Galdu-ustean erauzi zitunak, damu du.

Artoak zuri-gorri egonik luzaro,
 beltz-urdin biurtzeko oraindik urtaro.
 Donianek emanez doaiak oparo,
 bere goizean ditu pizberrituko oro.

Izpi-muturra gorri dadukan garia
 goiz artan izanen da erdoiz erantzia.
 Gizonak gorputzean duken ezkabia,
 intzetan iraul-aala, gelditzen garbia.

Belar orok usai du Doniane-goizez;
 artoa azi daroa begien oarrez.
 Zugatz-ostoa ari da zeruei eskerrez;
 ardi, bei eta beor, bizkor dira larrez.

Doniane-bezperan errian etxerik
 ez zan, leenengo jorra bukatzen eztzunik.
 Lan geiegiz bat beste bazegon esturik,
 arengana jo oi zuten orok bat egiñik.

Ez zan, orain adinbat gorroto ta marmar:
 gazte, naiz ezkonduak artzen zuten elkar.
 Aitzurra dantza-artean, ipui lelo ta par;
 aiek bukatzeneko, dator illunabar.



Gerrick pakerik ez, mingaiña lanetan,
alorra aiñako sailla deramate betan;
zertan neke geiago? jorrazten? izketan?...
Nekerik suma bage, an dira zakenetan.

Saillean jartzen dira kidea kideekin;
Mikel Eleder bere Gerriederrekin.
Noizik-bein begiratu, noizik-bein itzegin,
aien koska, ala ere, iñork ezin berdín.

Atsaldean itzala, mendien erraiñu;
galdorrik garaienak urratsa aurrera du.
Ala gure gazteook beren lana azaldu,
aldiz-aldi eman ez eskuari listu.

Koska aren babesean alditxo bat zutik,
iñork ez die esaten *esan ua* atzetik.
Atzena doanari auxe diote: —«Ez dik
bear tenk egoteko zeruak aberik».

Ekiñaren ekiñez aitzurren elkar jo,
saria galtzen dala esan zaarrak balio.
Gaur egun-saririk ez, laguntzak balio.
Doniani denentzat sari on dario.

Orok egiten dute lan egiñaalean:
iñork ez nai gelditu bi kosken artean.
Koskak, elkar billatuz, ertsi diranean,
atzenari diote: «auntza baratzean».

Saillean ari zaie Katalin Sutegi:
sorgin biru ote-dan norbait bildurregi.
Agopetik esana gerta balaite egi,
Doniane-goizean galduko du begi.

«Ote-dan, omen-dala», gauza jakiñik ez;
Elizari iru bira zitiola gauez.
Azkeneko birundan, sorgiñek dutenez,
Ekelarre-mendira eramán, esanez:

«*Eguna argizkoentzat, gaua gautarrentzat;*
Sutegi'ko Katalin gaurgero guretzat».
Odeietan ikusi ote-zuten noizbait...
Biaramon goizean agertuko zerbait.

Aren aurtzai izanak dio maiz auzoan
neskak orein bat dula besape-txokoan...
Ortaz ez daitekela trebe sorgingoan.
Alaare, naiko bildur neskaren alboan.

Arako larunbatez sortu-ekaitzean,
iñork ikus ez omen ostiral-gauean.
Gau artan Akelarren bildu zitekean
Mari Muirkorekin sorgin-batzarrean.

Orraztokiren bat du saklean gordetzen;
arek edozein andre omen-du sorgintzen.
An iduki ezkerro, —ipuñak esaten—
leen izan-tokitara bet-betan aldatzen.

Kezkarik aski dire Katalin'ek eman;
burua jaso bage ari da, lan ta lan,
besteen erdi-kide solas eta kantán;
nork igarri lioke sorgin beltz ote-dan?

Aren aurrean, ezin aipa zenbait kontu;
beldur dira, sorgiñei detzala salatu.
Gauaz sutean ezin mintza txutxu-mutxu;
laratzaren kedarra irakurtzen baitu.

Bestela, neska arrunta: jan, lan eta mintzo,
errikoen aurrean agertzen da zintzo.
Elizan makurtzen da aingeruak antzo;
Apaizak, alaare, eztu siñestatzen oso.

Batek asi du kanta, lanak arintzeko,
naiz Katalin Sutegi begiz aztartzeko,
naiz, sorgiña aipatuaz, lotsak emateko...
Aundigorik bear da ua gorritzeko.



«San Joan! San Joan!
ez dut besterik gogoan,
arraultze bi kolkoan,
beste bi altzoan...
Lapurrak erre! Sorginak erre!
arto ta gariak gorde!».

«San Joan, Soan Joan eldu da;
sorgin-begia galdu da.
Galdua ba-da, gal bedi,
Sekulan agertu ez baledi!»

Aurpegia alda bage, entzun du leloa;
berak, latsa bagerik, asi du urrengoa:
zenbat neke-kezkaren seme dan taloa;
beste gauz oetatik alduz gogoa.

ARTOAREN NEKEA

«Arto-lanaren nekea
entzuten asi zaitea:
babeekin baten ori izan oi-da
gure bazkari-legea.
Orrek iltzen du Euskalerriko
nekezarien gosea.

Taloe talo-burnira,
babak eltzeru noiz dira?
Jaten asi-ta... egosi bage.
Urte guziko balira!...
Ukullukoak egon bearko
maiz aski pentsu-erdira.

Erositako aletik
bein ere ez irabazirik
bei-aratxeek egin-dirua
zatitu bear erditik,

erostetxean, alare, ez balu
gelditu bear osorik.

Laiez iraultzen da lurra;
ereiten artoa purra;
bele, zozo ta iskiñasok
an dute moko lapurra.
Ezagu dute muga dagoen
mozorroaren gezurra.

An-emenka soik da arloa,
jaio bagerik artoa.
Babarrun gorriak utsak ornitzen
amonak ba du gogoa.
Lupekoentzat, aletan, beintzat,
ez da janari goxoa.

Ostotan ba du eskea,
nair izuin duten alea;
beste belarki denak utzita
ontara dator barea.
Gizonarentzat eltzaritako
ba dizu nunbait atsea.

Artook ba dakar indarra,
alboan bizkor belarra.
Muri ta lapaitz-orde balekar
axaleko sapelarra,
zurtena mardul, erroa barne,
edatu leza aztaparra.

Eskua artorik ur-urra;
araxegotik aitzurra:
gerria zenbat makurrago dan,
emankorrigo da lurra.
Langilleari eskatzen dio
lurra otoi eta agurra.



Jorra bat eta jorra bi,
 lurra garbitu baledi;
 artoak lurra estal dumeke,
 belarrak bil dio gerri;
 artan ogea egingo dute
 moxorro, satagin, erbi.

Bere garaiz ba dakarra
 buruz batean bizarra.
 Ale bakoitzak izpi bat gora,
 denen artean kalparra;
 urre gorriko motots eztea,
 landaren goizeko parra.

Gau artan ego-aiztea,
 baztarrean jaun ta jabea,
 aiton zaarraren txima biurtuz
 atzoko bizar gaztea;
 burua esne daiten baño leen,
 zimurtzen dio alea.

Amona babarrunetan
 zokoka asi da goizetan;
 zoko guztiak ezagun ditu
 erabilliz lau aldetan.
 Eltze beteren itzaropenik
 ez du biltzen artartetan.

Aizteak barka duana,
 izotzak duke erasana.
 Ale ta lasto, onduak ditu
 denbora bailitz igana:
 ainbeste etsairen mendean dago
 nekazariaren jana.

Urte on dalarik ere,
 aurrera dira ainbat jale;
 etxe-ondoan oilloa mokoaz,
 etxetik urruti bele;

ezkur-aurretik ezkur gorria
 jaten asi da basurde.

Azturik inork ez dauka...
 errotariaren laka.
 Urde gizenak arka azi ditu
 urte guziz oartzaka;
 kurruska andigoz ei-baztarrean,
 gureak meeago kaka.

Aitonak amets guzti,
 gertu leen-eiotaldia.
 Labean igar, sutean jalki,
 —itzarpean su-burnia—...
 Ainbat arretaz eiarra-arriak
 emanen talo gurria.

Etxean balitz ezirik
 edota sardiña zaaraik,
 aundienetik txikienera
 listua dario ortzitik.
 Taloa lagun, mork egin, aiek
 bezain otordu goxorik?

Txigortzen danean zitziz,
 zartai-barrenak igurtziz;
 koipe nai ezti, beatza atzetik
 xurgatu gabe ezin utzi.
 Nekazariak beste langillek
 aamen au ez du merezi.

Ale zalarik, xulora,
 talo eginik, agora;
 bitarte ontan zenbat alditan
 biotza jaso du gora...
 Istori dena jalkia dizut
 aurrenez azkenekora».



Urrena, agotan dute nekazariena,
—ezin obeki ipini «nekazari» izena,
au baita neke geien egiten duena;
alaare esker-gaizto ta guzieren azkena—.

LABORARI GAIXUA

*Oi laborari gaxua!
Ihauk jaten dük arthua:
ogi eta ardu eraikitzen, auherren asetzekua:
halere hañ haie, nula artzainak otsua.*

*Artzainak bada beztitzen,
josler deie gomendatzen
zaragollen gibel-aldia oihal hobez egin dezen.
Halere bigatuaren, dila aitzinia beno lehen.*

*Dendarik berant agertzen,
arratsen goiztik ütziiltzen;
eta mündiaren jorratzen arte hartan abiätsatzen.
Ezpeitie jaten diena hüllantzeko irabazten.*

*Egün ürüliak oro
idorrian nabiago.
Hanitx lan agertü beharrez, hari oro txori lepho;
hallikatzen balinbadüzü, zehian lau oropilo.*

*Ehülia hari galtho,
ukbenik ere han franko;
undar harien ebatsi nabiz, oibal ützen zerratzeko,
hariak gaxto zütiala fornizaliri erraiteko.*

*Harri'giliren adreta,
harek ba daki zer phentsa:
gaxki egin eta erdiruak lobiz thapa!
Etxia lurtatü denian, barrien gaxtuak falta.*

*Benüser-maiastüriak
oi! lan güti egiliak!
Dena gaxki egin eta zurak dü estaküria!
Phasta zela adarrondotsü edo beta-bühürria!*

*Eskalanpu egiliak
ebasten tü materiak.
Zazpia sos balio dina saltzen beiti hamabia:
ostatin edan saria eta etxen gosez familia.*

*Biñer batek bestiari
estaküri eman nabi.
Zuñi bere kopadiina hobe betzäio üdiuri:
aiben gabe nabi datinak hura bezä üsü berri.*

*Ohi tabarnari fidela!
jüje ezpalitz igela!
Arrainak jakile har eta bek hintzakie kundena,
haien etxe lejitimua guri saltzen deikiala.*

*Errijent bat bada hiltzen,
hark eztü prozesik ützen;
buntazünak baitütü harek heñ bun batetan ezarten:
züntzürrein kuntrola eta phantxollin ipotekatzen.*

*Jaun aphezek edsortatzen
karitate egin dezen.
Berek, aldiz, phakatü gabe hitz bat ezte erraiten;
berriko praubik gosez eta haien ürbik erdollatzen.*

*Ilhaginak aberasten:
arimak hañ untsa galtzen.
Phezian eta khuntietan zer ezte hek ebasten?
Haiekila behar düke jinkuak aizina astia ükben.*

*Kinkillari suñ hütsak
borthaz bortha dabiltza.
Haien prenda ordinaria ixkilin'era ligeta!
Astin emazter ebatsiak igantian gero jokha.*



*Oiban-zañak eta guardak
kintzentziazko gizonak!
Xakolak bazaitze fartzitzen, ibesiren tie postak:
lagüner har-eraziren bardin gaižo sinbeskorrak!*

*Sarjanten golde-nabarrak
dirade gizon okherrak.
Haien egitekuetarik egiten dira «Amerikak»;
aisa pergüt izanen dira haier behatzen direnak.*

*Sarjant eta notariak
oi! arnes nesariak!
Hain elbe ülbiün gezürrek nabasten gaiža txipiak:
ezta lagün segürragorik bertan hüsteko etxiak!*

Sail bat eraman beera;urrena bestea;
gorritzen dute, musker zegoen larrea.
Eguzkiak, ergainduz lana du betea;
artoek, indartzeko ba dute bidea.

BOSTETAKO ASKARIA

Bostak: atsal-askari egiteko oitura
Gurutz Maiatzekotik Gurutz Urrikora.
Aitzurrak zutik utzi, buru begi gora,
eseritzera doaz azpiko muñora.

Landan, an-emen, ba da mordoka jorrari,
atorra garbi eta buru-zapi zuri.
Eguzki bero ondoan gozo jaus dan euri
zizetan biurtua, dezaket iduri.

Urdai gazia ba da oraindik etxean,
amonak artarako ondua kutxean.
Ogi zuria ba zan, okiñarenean,
diru-truk ekarria; ez bakan, taiean.

Ango gari-ondarrak, apezarenean
Igande ta Astelenez, animen onean.
Txaal gizena aterako duten egunean,
koska berdin daiteke; baita ardan-etxean.

Gogora dakarte ere nagusi arena,
ta morroi burudunak erantzun ziona.
Aro ontan ipui au da Ederko'k diona;
ark esanera jakin nai baduzu, onaa:

«Zelaieko jendeak ordua zanean,
atsaldeko-gitera eseriak ziran.
Nagusi-morroi batzuk oraindik lanean,
zerbait ematen zuten, ta jakirik ez an.

Nagusi arek lotsaz dio morroiari:
«Gu biook ere deiñuz gaitezen eseri;
uste beze gu ere jaten garala ari»...
Orduan bai zirala listutan ugari!

Eskuak agora ta ukoandoa jaso,
okotzai-eragin ta pitxarra eraso,
(iturri gorri orde, ua zan itsaso!):
morroiak etzedukan begia argi oso.

Bi bekaiñen artean, zerbait ba zebillan:
asmatzen aal du nola nagusia atzeman.
Jorran aiña keiñuka asperttutakoan,
jeki ta asi dituzu, ez bero, arloan.

Pello'k aitzurra dabil begirapen bage,
epurditik erauziz an diran landare
Nagusiak, oartzuz, dio: «Zer arranel»
Pello'k: «Jorra dugula uste dezakete».

Olakorik bein ere ez dakion gerta,
nagusi txirtkillenak ba du zeri ozka.
Zaatoko beltz artatik noizean bein kurka,
iturriko zuritik naiz izan lau xorta.



Indarrak berrituta itzala baiño leen
arto-ondarra leenengoz jorratua zuten.
Afarri-aurretik, nor bere etxera zuzen:
istillua ba dute San Joan sua gaitzen.

Etxera doazela, laguna lagunaz,
itza berritzen dute artaz eta ontaz.
Mikel eta Garazik sorgin ote-danaz.
Jakitez urbil dago: egun biamonaz.

Mikel'ek: —«Mingarri da, Sutegi-Katalin,
ain neska polit ori, gerta dedin sorgin,
—ark Garazi maiz baitu deitzen itz orrekin—
ta zaartzen asterako biur debru zikin».

—«Ikus bide-diote sorgin-orraztoki:
ala mintza da, beintzat, auzoko Mañazi,
—dio neskak—; ez ote-zan sorgin-buxtarri?»
Mutillak: —«Auzo orrek zer dion eztaki».

«Bein batean neronek artu nizun estu,
olakorik bazanik zezakala aitortu.
Dirdai egin ziola ta artaz lilluratu.
Ote-zan... berekiko zuela pentsatu».

«Betiko "omen", "ote"ak... Ez dut ukatzen nik
izena duen oro zerbait ere ez danik.
Baiña, mundu onetan balitza sorgiñik,
sorgin zoragarria zu zaitut iñondik».

- G. «—Bataioan "Credo" a oker esan eta,
besotako gaisoa sorgintzen omen-da.
M. —Aren amabitxia dan mingain-zorrotza,
nabartxo, garbituko zun iñolaz itza».
- G. «—Jendeak dionean, ez ote-da zerbait?
Burutapen au neri ezin itzali zait.
M. —Oil itzazu burutik bildur oiek, aalbait:
ez aal-zan sorginduko Katalin, baldinbait».

«Kontu ook utzi eta dezagun lasai lo;
ez naiz ni gauerdian jekiko geiago.
Bein meki nintzan, ustez zerbait ikusteko;
gogoia galdu nizun berriz jekitzeko».

—«Zer bada?» —«Zuri-zuri, etorri ta joan,
atorrutsik zebillan Ilargun'go landan.
Beste munduko bailitz, arrituko ziñan.
Gero... larru gorririk irauliz intzetan.

»Egoten naiz atakan, egun-txintaren zai,
sarnadun ua nor zan ezagun egin nai.
Nor, ta Matxin Erreka, landaren irurai.
Oraindik or du sarna aurpegian etsai.

»Gaurko su-garra aski dut erditikan jauzi,
gorputz ta anima nazan Donianek garbi.
Intz otzez ase bitez belar, arto, gari;
sorgiñik balin bada, galdu beza begi».

DONIANE GAUA

Mutillak eman dute mendian atsalde,
arba, añar, arantz, ote, sugaiaren eske.
Aien poza nork esan, eskolarik bage?
Urtean geixaagotan balitz Doniane!

Atari bakoitzean, gora da txondarra;
mutillak an daude, noiz agertuko garra.
Amonak ekarri du sutetik txinarra;
beela, su ta gar dago erregai igarra.

Galda jeki da bizi, atalburuaz gain;
ez dago oraindik iñork igarotzeko lain.
Indarrak aundiena ematuxe bezain
usu, mutil larriak jaso du aztal-zain.



Mutil ezin-egonek, urreneko jauzi;
ez dute nekatzeko aski bat eta bi.
Galda apaltzen danean, damu-damuz utzi
baztarrean begira dagon amonari.

Eskuz gona jaso du suaren ertzetik,
erdi-isilleko otoitza jalkiz ezpainenetik,
denen alaigarri, ta ez bera goibelik,
bildu ditun txingarrak ezin itzalirik.

Mutil-sail batek, ba du arazo larria:
arazen du, jarioa zedukan zagia;
ardorik ezin eden, pikez itsatsia,
sorgin igartuaren iduri bizia.

Sabel zimur artatik, sarturik makilla,
—ez diote zulatu, nai orduko, zilla—
mutur banetatikan dabilte zintzilla:
sorgiñik bizi balitz, usu daïten illa.

Donianeren txondar batean izeki;
sorgin beltzak, alaare, ez egin nai argi.
Erre-aala pusketan naigo du erori;
pike-tanta pizua an-emendik dari.

Sorgiñaren odolez jarioko pertza,
biamonez bideetan nonai tanta beltza.
«Sorgiñak erre» esanez, aurrak ez dire ertsa;
gaur bide-dugu sorgin denen eriotza.

Zagia puska-puskaz, eldu da azkenera;
suak jota makilla erditik eten da.
Oraïndik dan larrua jausi da lurrera.
Bizi diran sorgiñek deia Akelarrera.

San Joanen bildotsak demaien bildurrez,
lagun beltzen illetan diote negarrez,
—negar-marraska-antzean, ez ote-gezurrez?—
Itzak naaspillatuaz griego ta latiñez:

*«Agnón psychas nepiôn tragô ethysamen.
Abrenuntiamus birco, Agnum jassae infantem.
Parce peccatis nostris propter tuum sanguinem.
Per saeculorum saecula, tuae sumus. Amen».*

Bertso biz besteek, ikus zer esan nai duten:
«Akerra ukatzen dugu, Bildots Aurra aitortzen;
barkatu gure zorrak zure odolarren.
Mende guzien mendez ire gaituk. Amen».

Artean Sutegi'ko Katalin'ek jauzi:
ez du bere burua su-mendean utzi.
Ez da galduko ontatik sorgin beltzen azi.
Aralar'en aurka da Akelarre naasi.

Afariz bildu dira Garazirenera,
berant-axuriaren exur-bereiztera.
Txilindroi egiteko neskak du tankera;
denek aipatzen dute daukan agoera.

Afal-artean dute ori ta au agotan,
bat edo bat gau-erdiz landarako ote-dan.
Izar dago zerua lau aizi-egietan;
belar gariak asi dira ausarki intzeta.

Afal-ondoan, berriz, artajorra-dantza...
jorraren bukaera ospatzeko, antza.
Sabelean eioko da txaro buzkantza,
bertan asten es bada burruketan saltsa.

Mutillek eske txekal, makilla luzeekin:
ez dute eskatzez aski Olentzaro'rekin.
Zerri il-berririk ez, ta lukainkarik ezin;
arraultzak bilduz geroz, pozik dira aiekin.

Eleder neskarekin egon nai bakarrik,
baiña bereizi bear, bientzat damurik.
Mutil-nagusi zala leen gaude jakiñik,
eta leen-kopla atera jun bear zintzorik.



Leenen-belarra sarri ebakitzeko gai:
orduun mintza diteke euntzetan zenbat-nai.
Elkarri begiratu, bi begiek dir-dai,
Urrena arte diote asti geigoren zai.

Doniane-goizean erne daude begiz
Katalin'ek berea galdurek ote egiz.
Uste zuten jun zala Akelar'a mendiz;
lapur-Mezan zioten biek eiten diz-diz.

Ateen bi aldetan jartzen dute elorri,
—bedeikatua dala digute erakutsi—
oiñazturik ez daiten udaran erori.
«Elorri bedeikatu»-k muga du Gorriti.

Bedeikatu ditute gurutzak Mezetan,
ostots-aruka jartzeko alorren mugetan.
Aitonak asi dira dirunda landetan,
uzta alaiak ikusiz begi-ninietan.

Beela bigarren jorra; urrena belarra;
euriz, intzaz, eguzkiz, ba dakar indarra.
Neguuk, legortek, ez baleza luza adarra,
ganbaran gainez daite leen-urteko zaarra.

XI. BELARREKOAN

Araba-aizeak ostotsa maiz, ta
eguzkiak bero garra,
arto ta gari, mardulik daude,
usu ta luze belarra;
kozkortzen asi diran artoek
agertzen dute bizarra;
ontati igarri zer urtaro dan:
Uzta illaren ondarra.

Lur gizenetan, alorrondotan,
leenik eldua ebakiz,
lur meagotan asi-garai da
legorte berria balitz.
Izpia mami belarrak duño,
gorritu baiño leen alpitz,
ebaki nai du: ez dedin
bota-aala segal ipurdiz.

Lurraren azal muskerra arrotzen
ari dira azpiti gora;
ba dute neke larrutzerako
euntze geienen galdorra.
Berein izardi, berein arnaska
altzoan ditun aroa!
Neke-erdi, orde, zeru goibelak
zabal baleuka leioa.

Urtaldiz, giro berdotza dala,
lan onek zenbat amorrui!
«Gaur eguzkia zabal ager da;
sail bat dezagun larrutu».
Eguerdirako Andre Eguzkia
odei beltzek dute esitu;
goizez zabali duten belarra,
zerbel dala mailleratu.



Biamonean, zalantza-giro:
 belarra zabalduko-ote?
 Ostartetikan begia kliska
 dabil Eguzki Amandre.
 Zabaltzailleak asmatzen aal-du
 danzatzuz beso ta sarde?
 Berriz belarra metara bear
 nai ainbat igartu gabe.

Biamonago, zabal ez badu,
 eguerdirako eguzki.
 Goizetik odei samurrek, euriz
 jario zuten tanta bi.
 Beiak uztartuz, egurretara,
 naiz beste lanez urruti,
 zimel ziteken belarra, leengo
 besoen bagez da geldi.

Urren egunez zabaldu eta
 langarra amaikak aldean.
 Eriosuar biltzen ai lute
 metan ez bada, maillean.
 Zabalduz, bilduz, euri ta ateri,
 lazkartzen da bitartean;
 usai, kolore jatorrak galduz
 ez du gozorik ortzean.

Arontz-onontza, zelai ta aldapa
 zenbat ibilli alperrik!
 Beingo nekea etsi-etsian
 joaten oar-kaberik,
 etxe-ganbara betae-aalean
 arnas izerdiz aazturik;
 neguko ornia egin ezker
 neguan ba da tsedenik.

Gerrieder'en etxean, asi
 dute Goiko barrutia,
 —Larraun osoan barrutirik ez
 ia dan bezain aundia—.
 Eguzkitara dago, ta begiz-
 -begi Aralar mendia.
 Maillo zutian asixea da
 Araiztar ezin-zutia.

Bazkalarteko deitu ditute
 artara zazpi segari;
 Mikel Eleder aietan danik
 asmatzen ez da mirari.
 Gerrieder'ek belar-barratzen
 ba duke lanik ugari;
 baiña ango lanen aringarri du
 biotza maitez igari.

Laiño legorrez deus ez da ageri,
 goian zerua garbi da;
 lauterdik alde, zazpi segari
 bil dira Errekaldera.
 Ttotaz barrengo arrak erre-ta
 ba doaz Goiko euntzera;
 arnas estuxez igo dituzu
 Amazkar'en goienara.

Laiño da Guratz eskuin, laiño da
 Arruzgain ezker-aldean,
 laiño Oillarradar, laiño Mustulur,
 aien begien aurrean.
 Ez da mendirik agerai; Iguzki,
 oraiño mendi-atzean.
 Bidez da; laister asiko zaigu
 begiik igurtzi naican.



Segari oiek asi zaizkigu
 aroan bostetarako;
 batzuek, sega zorrotzik, beela,
 besteak inguratzeko.
 Zirrin eta koxk, zarrazta, kantu,
 pixtiak egon arren lo,
 esna ditute; batek miztoa
 atsaldean zorrotzuko.

Txixare-lurra segak jo orduko
 berriro zorrotz-bearra;
 arraitza artuta sega gaisoori
 maiz daragio negarra.
 Satagin-lur ta satorrarenak
 neguan naiz zintzo barra,
 atzera sortu, nai baiño usugo
 makestuz agobizarra.

Intza aundi dala, belarra pisu;
 atzera-kolpe egitean,
 arendu-naiez, tanta-pitxiak
 ereiten ditu lurrean;
 potoan urik ez dunak, ez du
 lan aundirik ur-eskean:
 gerria makur, arraitza igurtzi
 belarrak daukan intzean.

Amandre Eguzki'k arrotua du
 leenbiziko maindirea;
 asti-astiro asi da agertzen
 inguruun mendi-katea.
 Guratz, Arrite, Mustulur, barneen
 Maillo eguzkiz betea;
 beko zokoan argitzerako
 loz ase daite jendea.

Iru bat ordu lanean ari,
 izerdiz joan da paitarra;
 barrenak kur-kur eskatzen die
 gosariaren indarra.
 Gaurgero utzi du Gerrieder'ek
 etxean suaren garra.
 Lepo, zango ta beso nekatuz
 igo du bizkor maldarra.

Buruan saski, eskuan pitxar,
 segarien gosaria;
 bat edo batek maiz zorrotzen du
 laiño tartera begia.
 Atzera neskak begiratuta
 laiñotan dakus erria.
 Orduko zazpi segari aiek
 ikusten dute eguzkia.

Atzemantxe du Gerrieder'ek
 gandu zuriaren muga;
 euntzera begi, dir-dir ikusten
 segeen eguzki-erraiña;
 —odei-artetik ez du tximistak
 alaitzen oola barrua—;
 gosariduna ikusteneke,
 ugari zaie listua.

Langara Mikel etorri zaio
 dakarren karga arintzeko;
 barrutiaren aldapa aski da
 uts-utsik ateratzeko.
 Bildur baitira, maiz gerta danez
 zolean irrixt eiteko,
 berak oiñutsik ari dirade
 lurrean arrimatzeko.



Gosalartean ba dakuskete,
gure Eguzki Amandreak
esku legunez kentzen ditula
azkeneko maindireak.
Laiño-sarean mendi dirudi
leen-etxe *Goikoetxeak*:
musua garbi duten baiño leen
betaundi dira jendeak.

Etxeak oro esnatu dira,
itzalia dugu laiño;
Lekunberriko zokoan daude
loa betean oraiño.
Gure etxeetako kei urdiña, aldiz,
zuzen doaie goraiño.
Etxeen bizi-arnasa laiñoz
itotzen ez egundaiño.

Egoa-legez, garbi suma da
ezkilla Iribas-aldeetik;
aizeak indar gutxi du, baiña
gauzak utziko gardenik;
etxe ta zugatz, arkaitz ta mendi,
beñere ez gardenagorik;
so dagonari ere kenduko
gandu guziak begitik.

Ikazkiñaren jaupai luzea
leen-otordurako deitzen
Ezkkurrerena deritzanetik
ondora bezala aditzen.
Segari oek gosari ta abar
beratzirara luzatzen;
amaikak arte intzak balirau,
bost ordu ditute ematen.

Gosaltzekoan ageri ditu
Txepel'ek oin garbituak,
iru, lau azal beatz banetan
elkarren gain arrotuak;
kolko-bizarra gora, an doakoz
noizik beinka moxorroak;
lepotik gora dituanean,
azkurera bi eskuak.

Mikel'ek ere, ezker erian
ba du ebaki-ondoa,
Mendi-urkilo'n egur-txikitzen
beñola ari zanekoa.
Ikus-orduko Garazi'k ba du
barnean zirrarakoa;
atsalde artan sortuko zaio
milla aldiz aundigokoa.

Eguteran artan, eguzki bero;
belarra zabal-ordu da.
Garazi'k aita borda-aldean du
ardi-jeztera joana.
Lanean lagun «Kaskazuri» du,
larogeitsuko aitona.
Utzi sega, ta, belar-barratzen
aiekin Mikel otxana.

Bere pausoan aitona ari da
arturik zelaigunea;
aldapaeneen elkarren leian
ari da biko gaztea.
Ezker-eskuira maillak urratuz
dantzatzen dute sardea;
batera doaz utzi nai ezik
batak besteren aldea.



Mikel'ek suma du satagina,
ta, arturik sarde-girtaina,
kali du; labur erakustera
doa Garazi'rengana.
Gero, beste bat; gero, jaso du
sarde-adaxkan zzirauna.
Neskak pixtirik ez du billatzen
naiz ez begitik joana.

Sei segarien muga jo arte
barratu ditute maillak;
leengo puntatik irauli bear
zabaldutako belarrak.
Goiz igartu nai, bial baletza
laiño bustiak iparrak.
Eguerdiz beela igar lezake
eguzki aundiren garrak.

Zabal-ondoan atsedegune:
atsegin dan itzalera,
—intza jun da, ta— sardeekin doaz
urbillengo lizarpera.
Zaarrekin dauden orduun, jakiña
gazte guztien joera;
ziri ta koipe, beartzen dute
ipuiren bat jalkitzera.

Eseri dira; Buruzuriak,
eskuz txukatuz izerdi,
begiak leenik zeru-mugako
Maillo mendi-kateari.
Belardi heetan galdetzen die,
ote-dakusten segari;
gazteek garbi aitor diote
deus etzaiela nabari.

Aiton argiak ikusten omen
euntzerik aundien artan,
—txartaka batzuk baitaude?— aien
ezker eta azpi-aldean.
Begiak bezain burua argi du,
pilpirik ez belaunean,
burrukan bizkor izana da, ta
ez mihi-motel eletan.

Arren, diote, jalki dezala
Manex'en sega-apustua;
berak ikusi zuen ezker
ez du nolanai aaztua.
Beti itz batzugin, erauntsi bage
kontatzen du gertatua;
ontati igarri, gertatu ori
ez dala gezur naastua.

—«Leen ere ba duk orren berri, ta
alper diagu berritu».
—Batzuk, ordean, alde batera,
bestek bestera kontatu...—
Aitonak bezain mutillak daki
apustuan zer gertatu;
baiña, zirika, noiz-bein nai luke,
naasten ez balu, berotu.

SEGA-APUSTUA

Asi da: «Ni itzai nembillelarik
ikazketan Belkiun'en,
maiz oi-bezala, erriko ta arrotz
asiak itun izkatzen.
Batite Heleta'k sei lanbideetan
Larraun guzia markatzen:
pilotan, segan, burrukan, aizkan,
aizkoran, karga-jasotzen.



»Seitatik lautan nai dik Irurte'k,
leenengo biak utzirik.
Ezetz Manex'ek: aietan baitu,
baitipat, ustebiderik.
Besteetan... ortsu. Leitza'ko Barun
sartu zaiote tartetik,
ez bat et'ez bi, bitan aukera,
zaitela bidezkoenik.

»Biitan Irurte'k sega aukera du,
—pilotan ez baita trebe—
beste lauretan, iru bereak
ez dituenik ez uste.
Sega-apustua galduta ere,
bi ta iru geldi litezke.
Burrukan ta aizkan segur da Manex;
bostetan iru uste bere.

»Lau jokatu ta, bi ta bi geldi,
auntzena bosgarrenean;
burrukan ta aizkan Manex nagusi,
Irurte beste bietan.
Errian buru au dala erae,
Uitziarrak kezketan,
Manex oriek maisu baitziran
belar-epaiaie-lanetan.

»Autatu ziten apusturako
Doneztebe-biamona,
—Azpiroztarrek dioten eran,
baztarrak bero oi dituna—.
Oiu ta pote aundirik bage
etorri zaiek eguna:
ez dituk, naski, galtzetan lasai
galdun naiz irabaztuna.

»Beeko Ostabe'ko labaki ori,
(eskuz ara keiñaturik)
bina zatitan laukitzen dite
gurutzeran zotz-egiñik;
alde askera lana berdinduz
okerka goien barrenik,
belar aundia ta belar zailla
erdi ta saiets arturik.

»Lau bat orduko lana dutela,
ezetz ixpixo; ta baietz
Geratxo zanak ebaki omen
egun bat osoan errez.
Amazkar gora ziak jendea
ordua baiño leen gaiñez.
Gora deraman itz-marmaria,
beera doanean, nekez.

»Manex ta Larraun erlama-antzera,
bereiz dutela mulkoa,
esan-bearrik ez erritarrak
deramala aundiagoa.
Aldapa-nekez baiño, bildurrez
bostek ikara zangoa!
Bildurra aizatu naiez, bapatek
ozenago dik mintzoa.

»Gogoan diat, artzai bildurtri
gau illun zitzaidanean,
biotz-pilpira suma nai ez ta
kanta nula mingaiñean.
Ala barneko bildurra askori
aldatzen ezpain-ertzean.
Itzen bildurrak ez dik bildurra
gezur biurtzen barnean.



»Euntzean dituk. Manex ta Larraun
juezarikin barnera.
Erdi ta baztar, leenik neur dite
begiz goitik beenera.
Biek erdira juezarekin
irutan zotz egitera.
Ingure, maillu, sega ta arloa
bakarka, nork dun aukera.

»Mikel'ek dio: "Bat ez zan aski?
zertako oinbeste zotzaldi?"
—Bai, dio zaarrak, apustueta
zikin zebiltzak aspaldi.
Aurreko batez ein dan tongoa
urruti zegoan andi,
belar geiago ebaki zunak
zorren ondoan lotsaldi.

»Bizkarra bete segaz bakoitza,
saltzaille diruditela;
besteek zorroztu, besteek aldatu,
besteek eskura diela;
langille baldar, zorrozle makal
indarretan dagoela...
Langille baiño zein astoago
zirudik dema dutela.

»Batari, izardi patsetan dala,
bizkarra busti nai urez;
ura maillera jaurti ziotek
bestera keiñu egiñez.
Gero belarra metatzekoan,
burnizko gorotz-aitzurrez,
arrobak errez egin dizkitek
urez, zotale ta lurrez.

»Denbora aietrn ez olakorik;
antzea uan nagusi;
zein langillego, zein txukunago,
jendeek nai ziten ikusi;
diruaz bezain beren buruaz
zieten eder-itsusi;
oraingoetan diru-nai orrek
lege oro ditik autsi.

»Jueza bera bien tresnekin
belardira sar oi uan,
apustulari biak besterik
jasan bagerik ondoan.
Marruskaz, ago-bizarra kendu
zorrotz balin bazegoan.
Zotzak egiñik, talo-entzun-zai
bereela asteko arloan.

»Irutatik bi aukeran ditik,
sega ta arloa, Larraun'ek.
—Segak aurretik ontzat emanak
zieten segari biek—.
Maillu ta ingure-aukeran, ez dik
astirik galdu Manex'ek.
Jendeen itzak isildu dituk,
ernatu dituk begiek.

»Erditsu batez euntzeak orma,
beste erditsu batez esi:
sekulan ez duk orduan bezain
estu labakirik itxi.
Berandutarrek, zuti daudenen
andartetik nai ikusi.
Onara ere tokiren billa
batzuk ein zuten igesi.



»Euntze goiendik eskuinetara
 urruzti itsu baita babes?
 Eguzki beroz, naiz sabel larriz
 ara zezaketen iges.
 Egun aretan eguzkitatik
 iges egiterik an ez;
 bestela ere, ara bidea
 orduun urratzea, nekez.

»Talo entzunik, eseri ta asi
 nor bere sega pikatzen.
 Belaun-ikaraz naiko lan dite
 sega ingurean kokatzen.
 Koxk usuago Manexa'k, baina
 ez dik nai-eran esertzen...
 Erdi-lan edo egin duneko,
 ara non zaigun jekitzen.

»Zenbait gaiñekook "ai" egin ziten
 buka zulakoan; baiña
 kirtena sartzen ez baitzan asi,
 lasa zitzaien barrena.
 Laisterka Manex, ezker eskuaz
 estutzen zula sabela,
 zuzen-zuzenik urrirtirantza,
 naski galtzak lasatzera.

»Leengo *ai ene!* orain irrintzi
"ia-mutil"-ka Larrauni.
 "Orrek errun dik" eta... ala ari duk
 Uitziar maxilari.
 "Lur eze arek jar ote-dion
 barbe-estea kurrukari...
 Oilla-saldatzat lokaren salda
 eman ziotek gosari".

»Mutil batzuek ikasi ziten,
 oillo ostua jan-gaean,
 salda au aiñako samurgarririk
 etzegoala lurrean.
 Batitek ez dik, naski, jakiñen
 gaitz ori zerk dakarkean;
 ustez ez dik ark sartu olako
 burruka-gairik barnean.

»—"Oraingo legez esan duzuna,
 orretaz ere esan ledi,
 —dio Mikel'ek—, ori ere ez da,
 (tongo baituzu) zillegi—".
 —"Ori libre duk —dio aitonak
 pizturik esku ta begi—;
 jan arrotz ortaz fida? Nor bera
 ein ortan antola bedi".

»Nai baiño geigo luzatu, eta
 gure Batite, lanera;
 orduko, Larraun ari duk ari
 sega-pikatzen aurrera.
 Bukatu, jeki, kirtena sartu,
 bizkor asi dik sarrera.
 Araek mailla bat buka baiño leen
 Manex zioak astera.

»"Emak, Batite", lau ikazkiñek
 oiuziotek albotik.
 Debru guzien ziztua dula
 jarraitzen zioz atzetik.
 Bigarren mailla bukatzerako
 laurdentsu bat berdindu dik.
 Berriro, ordea, otsegin zioz
 ekaitz-aizeak barrendik.



»Leenengo ostotsak bigarrena dik;
asi dik berriro dantza.
Utzi dik sega. Larraundar oiek:
"Ba dik bigarren arraultza".
Irurte, berriz, aurrera ziak:
Batite'k komeri latza.
Urren urtean sortu litekek
urrizpe artan larratza.

»Erabat ustu nai dik zorora,
luzatzen dik urrengoan;
oraindik ez dik biotza galdu,
jarriko zaiok ondoan.
Mail t'erdiz ara ziak Irurte
geio aldegitekaon,
pakerik ez baitzezakek eman
loka-salda arek barruan2.

»Uste baiño leen samurtzen zaiok
irugarrenez zorroa;
baiña... asmatu dik —bestela bortxaz
dema galtzera baitoa—
galtzetan egin; "bide, eldu dena;
zertako dugu zilhoa?".
Orduz geroztik esana digu:
"Eldu den eran bioa".

»Ari duk Manex usu ta txukun;
ugarigoa dik lana;
ukaldi oroz jeki ta arnas ar;
Irurte zerbait etzana.
Alde polita ziaen ta alaare
bildur dite elkarrengana.
Aldian Manex zurtu baledi
apustua beregana.

»Leenen-lauitik bigarreneza
aurretik oraindi Irurte;
sega loditu zaiok; berriro
pikatzea dik mesede.
Eseria duk. Luzaro bage
eseriko duk Batite:
maillerdi baten aldea izanik
ba dik naiko lasaipide.

»Leen Manex, orain Uitziazarrak
ez dituk galtzetan lasai;
Manex'en lagun ikazkin oiek
bizkor egin dite jaupai.
Aldea labur, ordua luze:
lana noiz bukatuko zai.
Ontan... berdindu. Manex aurrera,
aisa atera azkenik gara».

* * *

Kaskazuri'k au jalki artean
belarrari in zaiio gaiña;
itzal goxotik atera eta
neka bear anka-zaiña.
Jeki danean, aitonak ba du
ezur-karraskaren miña:
bere aldian ainbat lan, eta
badu otx eiteko diña.

Gure gazte ook, nagirik bage,
naiz izan bero zapala,
elkarren leian egarri dute
berriro oroitz itzala.
Onen goxo orde saldu diteke
tarterako egin-aala.
Arian ere atsegin zai
noizbingo izketa leiala.



Nexkak, gizonen erdian, auzi
 nolabaitekoa dakar:
 Kaskazuri'ri lagun egin nai,
 Mikel'i egon nai oar.
 Bidexka garbi daramataela,
 itzulka billa dute elkar.
 Baztarrak sartzen, erdiak sartzen
 mutilla ari da su ta gar.

Sardeek elkar maiz jotzen dute,
 biotzek elkar maiz dar-dar;
 itzalgaiizka antza begiratuta
 bien ezpainen irripar.
 Bekain sudurrei darien tanta
 inñolaz ere ez da negar.
 Eskuz txukatuz, iguzten dute
 biko sardearen kidar.

Iraul ondoan, lizar-azpira;
 leenik iltzen dute egarri.
 Neskak arrosa zabal dirudi,
 ez bezain begiragarai.
 Itzez aitona bereiz bitarteen,
 begira diote elkarri.
 Ua naasteko, Mikel'ek daki
 zer mataza bear jarri.

Eguzkia ari da gaiña jotzen;
 bazkaria ekar ordu;
 gizonen belar-iraulketara,
 nexkak txera bide du.
 Errira begi; ez da lainorik,
 ez ke urdin ta ez gandu.
 Atsal-iparra nai lu, baiñan, ez
 beza lainorik zabaldu.

Oinbeste belar erabiltzeko
 beso geigoren bearra;
 segak utzita segariekin
 biago ondoan indarra.
 Belarra egun artan berean
 sartzeko bezain igarra...
 Lan aiek oro buka baiño leen,
 bai etorri illunabarra.

Eleder eta Kaskazuri, biik
 eguerdia sumatzean,
 dan ez ote-dan, garbitzen dute
 ondoko lizar gaztean.
 Ezagun dala, dio aitonak,
 ara alako adaxkean,
 lizar-gerrian bizkarrez jarri
 ta an eguzkia danean.

BAZKARIA MENDIAN

Eliz-dorreko ezkil-ertzera
 eldu dalarik itzala,
 begi ta sabel jabetzen dira
 maaierako ordua dala.
 Listu ugarigo, zorrotzago ortza
 miari eragin-aala.
 Etxetik kanpo bazkaldu dunak
 nolabait suma dezala.

Saskietako bazkarien ta
 lur beroaren lurruna...
 elkarri naasiz sudurra barna
 deramaten osasuna!
 Nekazariak irabazten du
 ondasunen ondasuna;
 inñori bezain oni zor zaio
 dakarren alaitasuna.



Andik emendik bide ta baztar
 bazkari-eramailleak,
 zeruetatik berri on duten
 inguma zuri maiteak.
 Itzalpeetan kokatzen dira
 ara deituz langilleak;
 ba datoz, segak bizkarrean, ta
 eskuan makil-sardeak.

Goiko euntzean ba da lizar bat,
 ba ditu ustez berreun urte:
 adar aietan berreunka txorik
 goizetan lekua dute.
 Aren azpian, amabi lagun
 lasai eseri ditezke,
 eguerdi-ostez alde batera
 itzala irauli ta are.

Urtume zaar ta urtume berri,
 esitua du gerria;
 sega-muturrak ezin eldu ta
 belar aundi du erdia.
 Zaato-ardoa ez berotzeko
 xoko biguin egokia;
 noiz-bein iturri gorde orretan
 ezatu dute egarría.

Adaburutik segak dilindan,
 burrusak ipurdipean,
 beren bazkari-legea artzeko
 eseri dira lurrean.
 Aitona zaarra, ezur karraska
 aundi bage belaunean;
 eseria da, gerria zuti,
 zangoak luze betean.

Txingurri-lurra bertan ba da ta,
 Garazi'k erne du begi;
 txingurriik ere sumatu dizu
 usai oneko bazkari;
 larratz naasia dan arren, ark du
 bidea zuzen bereizi;
 zpur legun bat ostua berriz
 leengo bidetik igesi.

Lotsa bageko dan nimiño bat
 aitonaren kutxarera.
 Nexkak ikusiz, «Or txingurria
 kider azpitik aurrera».
 Izketan ari dan bitartean
 atera zaio gaiñera,
 «Koipe gehiago», esanez, sar du
 lasai babakin barnera.

Bazkaltzekoan aipa ditute
 au, ori, ta abar gogara;
 eguraldiak lagun baleza
 ordurarteko gizara,
 belarrak sar ta ba dozkela
 Ezkurra'ra aurten pestara.
 Bitzuek isil ezpaiñak, baiña
 begiz maiz elkarri ikara.

Ez da aize fitsik; lizar-gaiñean
 orririk ez kulunkatzen;
 beroaz oro zapalik datza
 eguerdi-loa jasaiten.
 Bele bat isil ipar-aldera,
 egalak nagi inarrausten.
 Zerbait neke egin dutenak ere
 oarkabe loak artzen.



Nexka bakarrik, esna, Aingeru
 Begiraria bezala,
 belaun-aurretik esku beatzak
 antxumaturik dauzkala;
 ez-bear orde z amets gozoa
 irudietan duala,
 maitea an dauka, lizarrondora
 ezker-eskua zabala.

SUGEAREN ZIZTA

Suge gorriak artean loti
 zulootan dirubildurik.
 Ontan, odeiak burua agertu
 maillo-mendien atzetik.
 Aize pirrintak biguin jo dio
 bekokia Araba-aldeetik;
 ez, orde, esnatzen esnai egon-da
 ain gogo dun ametsetik.

Ostots-giroa suma du, orde,
 suge gorriak zaiñetan;
 korapillotik askatu-aala
 asia da luzaketan;
 belar-artetik irten nai du ta
 gizon-esia alboetan;
 belar-ertzean geldirik dago
 noizbait miztoa agertzen.

Neke ta bero, ezin-egonez
 mugimendu bat ez da aundi;
 gure mutillak eskuarentzat
 ezin du tokirik arki.
 Geroenean ukituren bat
 eman dio sugeari;
 etsai argana biurritzeko
 ez dauka lepoa nagi.

«Otx!» egiten du. Bertan jeki da;
 inarrausten du eskua.
 Nagi guziak atera ziran
 entzunez aren oiua.
 Eskura aurrena, lurrera gero,
 egin du begiratua.
 Orduko, billa zuan sugeak
 leeneko kabi izkutua.

Eriosuar, etxera nexka,
 Mikel'i «Zatoz» esanez;
 nagi guziak atera ziran
 aren oiua entzunez.
 Belar onduan erori bage
 langa bereela atzemanaz,
 jauzi batean gaineti igaro
 atzera begi emanaz.

Langatik berriz otsegin dio:
 «Zatoz gurera leenbaileen».
 Andik aurrera begiz utzi du,
 ez io ondoan jarraitzen.
 Burua atzera itzul-betarik
 ez du geroz atzematen:
 maldar aietan bere burua
 naiko lana du gelditzen.

Mutillak ere, naiz astirogo...
 usu jaten du bidea;
 Amazkar goitik Irurte-ondo'n
 doala dakus maitea.
 Arek erria jo dun orduko
 jo du Garazi'k etxea.
 Etortzerako gertu nai dio
 Larraun'go sendabidea.



Amak nexkari: —«Zer dun?» —Mikel'ek
«beatzean suge-zizta».

Non eta nola, luze esateko
kenka artan betarik ez da.
Alea arturik, zarea dar-dar,
pipi ta *purra* esan-da,
andik emendik biltzen zaizkio
oillo, oillasko ta oillanda.

Bien artean lau bost oillasko
atzi ditute; mutilla
ate betean agertu zaie
itzala bezain isilla.
Egualdi bero dalarik, dator
aurpegi dena zurbilla.
Alkia bertan luza diote,
arren, eseri dedilla.

Beatxingarra du ziztatua
ermamiaren ondotik;
aundituxea dun arren, aisa
sartu diteke zulotik.
Txuringak ez du, leenen-arraultza
egitean dun esturik;
beatz ark ez du ateratzean
ekarriko odol-zantzurik.

Oillo nagi bat aizeak joa,
erdi-bizi zegoana,
saiagarritzat aurrena ar dute
xurga dezaion edena.
Karaka aurretik, xurrua atzetik,
edoski nai dio dena...
Pozoiak berak galduaz,
ez balio eragin azkena.

Oso gorri ez bazeukan ere
zurbildu zaio galdorra;
ubeldu gero; azkenik beztu
geldi dalarik min-sorra.
Zabal-estutzez atertu zaio
ipurteste xurgakorra;
leen ibiltzeko gogor zegona,
oso geldu da il-gogorra.

Berantu bage jarri diote
oillasko galdor gorria;
xurga ta xurga, nekezagorik
biurtu zaio zuria;
ubeldu gero; azkenik beztu;
isildu da karraisia;
txuringa aspertu zaion bezala,
egin emengo aldía.

Xurga egaztia berri-berrero.
Ipur-gosego dirudi;
oni luzego besteai baiño
irauten galdorrek gorri.
Nonbait aituz ari zitzaion
eden zitala Mikel'i.
Il bear eta ezin il, noizbait
ordua zaio etorri.

Xurga ta xurga, suge-pozoirik
ez du urrengoak arkitzen;
galdorra berdín, karaka bizkor
egak bizi dardaratzen.
Aldi batean, alaare, egonik
pitsik ere gorde ez ditén,
bere esku utzita, moxorro-billa
atarira da ateratzen.



BELAR-BILTZEA

Neska mutillei biurtu zaie
larru-azala berera;
beaz-muturra zatarrez lotu,
ta ain sarri doaz euntzera.
Goien, orduko, loak utzita
atera ziran lanera.
Odei-mordoak ostots-eskainka
datoz zeru zabalera.

Ipar-pirrinta dator Guraz'tik
Araba-aizearen aurka;
gauza aundirik ez sumatzen, baiña
ba dute beren burruka.
Iparrak indar artu baleza,
Araba'k egiñen uka...
Euntzean belar-iraultzailleak
zalantza pranko ba dauka.

Gazteak Goiko euntzera doaz
etxera baiño lasago,
zer gerta zaien agertuz, nornai
dutenean agoz-ago.
Estuasunak ezin iraun du
edenak baiño luzago.
Azken-oilloak ez du bildurrik;
beatz gaisoak ezago.

Izardi berri. Odolak lengo
kolore ederra aurpegian;
bazkalondoko laino-gandurik
ez dute biek begian.
Itzal goxo bat, itxedoteko,
ez baitago bide erdian,
geldigune bat, eseri bage,
dute Amazkar-egian.

Lanak aiñako estuasunez
ostots-giroak otsegin:
itxoin-aldirik, iñoiz bezala,
maiteki mintzatuz, ezin.
Oinbeste belar-biltzeak berak
berekin naiko zeregin.
Goien eskainka dagon odeiak
jartzen ditu gaiñera armin.

Euntzera eldu, eskuareka
bultz-egin belar-maillari;
orduun ba zuten beste langillek
goiko odeia bezain lodi;
sei pilla aundika bildu-asmoa,
gurdia zama aal baledi;
bestela jasak ez beza, beintzat,
zabalik dagola busti.

Belar-illarak bukatzen doaz
larratza dala bitarte;
garai artantxe zeruan ez da
euntzean ainbat ostarte;
bizkortxegorik iparrak jo du
maizago egiñaz tarte;
lasapide da; uste on dute
laister dutela txolarte.

Belar-mordoak iraulkatzean
azpitik gora dirdira.
Neskak ikus du; bat-bateen zaio
jeki gorria aurpegira.
Ziraun illaren larruak dio
larritu biotz-pilpira,
goizean biook sarde-adaskan
begira ari izan baitira.



Emendik ara oro du pixti
 begien idurietan;
 belar ezetan gorde zeudenak
 agertzen dira arroetan;
 ziraun luzerik, satagin motxik
 sumatzen badu tartetan,
 oro suge du; buka nai luke
 lan nekagarria bertan.

Gogoan dauka, gari lotzen
 Arripiltar'en beñala,
 esku biekin eldu baiño leen
 oiñez arrotuz ezpala,
 suge-miztoa —zanpatu nonbait—
 zangoan suma zuala;
 aiztoaz usu nolatan zuan
 ebaki zango-azala.

Ozkaz gorago zatarrez estu,
 iturrira azkar dioa;
 ur joanean idukitzen du
 aal dan luzeenik zangoa.
 Gora-biderik zillegi ez ta
 edena beera daroa.
 Oraindik an du oroigarritzat
 ango ebaki-ondo.

Ez dute joko, ark nai orduko,
 errian illun-ezkilli,
 ez ta gurdian zamatu ere
 azkeneko belar-pilla.
 Tximistei ere, sortu balitez,
 ba die bildur ixilla.
 Lan aiek buka ditezenean,
 Jauna bedeika dedilla!

Ezer ez bailu, mutilla ari da:
 apustu du odeiekin;
 ez du sumatzen min, dardarizko;
 bai-ote, ez-ote erresumin.
 Ez du gaurgero eden-izpirik
 eskua gaiztatzeko din;
 balu, ermamiz at lioake
 izardi jorairekin.

Ostots-bildurrak ater ditu:
 nagusi dabil iparra;
 odeiek, garbi zerua utzirik,
 billa nai dute baztarra.
 Oraindik gogo lukete, egunak
 luzego lezan adarra,
 ijito-euzkirik ez bada ere,
 sortuko dirdir izarra.

Euliak, bazkal-ondoan ixil,
 orain oster, furrundaz,
 gurdia zama dan bitartean
 beiak miztatzera doaz.
 Aurrean neska zai jarri dute
 euli-aizatzen ostoaz.
 Artean beintzat, nexka lasai da,
 ez bildur suge-miztoaz.

Euli beltz aundi belar-kolore,
 mendeuli mutur-zorrotza...
 Beien odola txasta aal dutela
 ez dute maite gorotza.
 Sudur-mizpira, errape-erroa,
 isastxoko naiz okotza,
 jun-etorrian billatzen dute
 beiai agerraziz ortza.



Ostots-giroak berotu ditu
 beiek geldirazten lana;
 mugi ezkerero iraul ditezke,
 —bein edo bein gerta dana—.
 Atsalde artan aietara da
 euli guzien andana.
 Belar-lan onek ara beste zer
 nekagarririk duana.

Illunabarra. Furrundarik ez;
 sar dira zokoetara
 amezketarrak; intza asi du ta
 aldegin dute lotara.
 Alboko lizar-osto-tartean
 gaua naiz dedin ozkara,
 millaka arraultzak berotu eta
 biamonez argitara.

Ardi makala beroak jota
 egun-erdian abaro,
 matail-ezurrai soil eragiñez
 egona da aski luzaro.
 Zintzarriaren giltzaldi oro
 tintin bakar bat emaro,
 mutur apala gorde naiean
 ez arkitzen naiko garo.

Orain, aldiz, ez dute pakerik
 lepo, matail, ta zintzarri;
 jetzi bear, ta, ezin inola
 eskortetara ekarri.
 Larretik bereiz nai, ta ez aski
 bidean diran zotz, arri;
 jetzi ondoan berriz larrera
 gau beltzaren alaiagarri.

Egunez kuku zeuden bareak
 intzetara dira gauez,
 (belar ebaki-berri-tartean
 txigortu diran aiek ez),
 maldetan gora balitz azarik
 ostoia zula-bearrez.
 Niniko-barneen txikirik bada,
 an aziko da, baldinbez.

Lanak egin-da, etxera doaz.
 Izar, zeru zabalean.
 Aien buruzki, argi egiten
 ipurtargiek lurtean.
 Oiek bidea bai baitakite,
 ez oztoporik bidean,
 goizutarren bat ez bada atera
 egurastera gauean.

Esi-ondoan astoak erne,
 zintzilik belar igarra,
 —gurdiarekin andi igaro da
 Txonko gaztea, baldarra—.
 Belarrekoan asarre ez dute
 sudur ondoko bizarra;
 gosexegorik negu gorrian
 jan izan dute malkarra.

Oillo beroak oillategian
 lagunez arinduago;
 laugarren ua berekin dute
 buruz, begiz apaltxago;
 batere ez dakit, baiña osasunez
 ongi zala aurrera nago.
 Mikel'ek, aldiz, atsaldez baiño
 gauez begia argiago.



Lan, bero, pizti... nexka armin; baiña
 sartu da noizbait onetan;
 zaiñetan gorde zeukan ikara
 zienatuz ari izketan.
 Maitea sendo dakusalarik,
 biotza dauka esnetan.
 Oraindi poz au naasi leikio
 sugeeekin ametsetan.

XII. EULTZIA

Gari ontzeaz ari dalarik,
Kandelerá mandelera
 (itzik-itx dio esan zaar batek)
bost illaute larrainera,
sei Larraungoa, zazpi ere bai
Uitzikoa. Tankera
 ar diokezu zer illabete; ez
 Abuztuaren sarrera.

Belar-sartzea mendera zuten,
 ostotsa sarri naiz izan.
 Andre Mari'tan pesta artu zuten
 Ezkurra'n eta Lezeta'n.
 Artoak mardul, babak lekazu,
 gariak legor txotxetan:
 egunik-egun bakantzen ziran
 eultzituaz larrainetan.

Eultzi bat baizik erri osoan
 ez zan eiten egunero;
 ostots-bildurrez auzoa zai zan
 ua altxatzen laguntzeko.
 Eultzia zabal, ez zabal, noizpein
 egon arren keko meko,
 urte aretan lasai zabaltzen
 eguzkia agertzeneko.

Belar igartzen lana gainez ta
 eultzia azken Errekalde'n.
 Amandre Eguzkik indar zuaño
 garia jalki nai zuten.
 Lastoa txigor, alea ageri,
 neke gutxi iduki arren,
 bildur, eguerdiz laister Arabak
 odeia balu bialtzen.



Gauez aizeak geld; zerua
aldenbeste zegon izar;
Mikel Eleder deitua zuten:
«Eultzia diagu bihar».
Guratz-aldetik zardaia, alaare
atzetik an du sarri ipar.
Biaramonez egueldi dala
aitonak leiotik igar.

Leenengo los egin ondoren
ogean iraulka dabil;
aspertu, jeki, leiora atzera;
iparraizea da pil pil.
Odei-bizar bat ez da ager iñon;
kanpoan, etzean isil.
Belar, gari ta babekin ba du
buruan naiko maratil.

Eultzi-beorra —lanaren pagu,
gauez larrea zaldale—,
biamonean, zer gerta, an doa
urrutia arrapagale.
Lizar gaztean lepoa azkatuz
galdu baleza joale,
biamonean pagadietan
lasago lebilke jale.

Aurre-egunetik Amazkar-gora
jar zituten illuntzean
belarrak zion esana adituz
ez ziran geldi bidean:
«Aurreraxeago dago goxo»
zeuden sinis-bearrean;
«Bertan goxo» esanen zuten
Erasote'ko ospeletan.

BEOR BILLA

Argi-zirrinta suma dutela,
lau mutil doaz beor-zun:
Mikel Eleder, Patxiku Ubilots,
Buztin, laisterkari Irurtzun.
Lau beor izu bizkor biltzeko
ba dirade naiko lagun.
Barren-arrak il, biotzak argi,
lauek gozo dute belaun.

Goiko euntzea inguratuaz,
erne begi ta belarri,
aldapa janez atzeman dute
Trintin'go gain zoragarri;
inguru denak begiratuta,
ez an beorrik ageri...
Garrazta'n-barna, malkorrez-malkor
perra-zantzuak igarri.

Mikel Eleder, Patxiku Ubilots
ospelez doaz aurrera;
Buztin, gaiñez gain; Irurtzun, berriz,
artuz bestalde egutera.
Zantzu dutela elkarri die
oiu, batetik bestera.
Beor-sailla arki dezatenean,
bilduko dira batera.

Urruti bage, bikoak an du
beor bat beokarekin;
eultzia beela porrokatzeko
ez da protxurik aeiekin;
ama gaxoori ille zaar dario
negu legorteen adin.
Naiko lan ba du, belarrik belar
umea azitzearekin.



Otadiaren garai-aldean
 Irurtzun'ek egoarari;
 eskuiñez luza bekokia ta
 ezkerrez luza belarri;
 soiñu urruna da, naasian dator,
 zer dan ezin garbi igarri;
 goiz-gurdiaren negarra, ardi, bei,
 naiz beorraren zintzarri?

Oizo'n asi ta Elutseta'ko
 zelai-zokoen artean,
 abere beltzik, zuririk naiko,
 ez du sumatzen arean;
 arago, Oinbegi'n, pago-tarteko
 garo-soilgune batean,
 beor ezur-uts, zaar urdindua,
 anka jasoz doi-doiean.

Otadiaren mugaratzean
 igo zaigu malkorrera;
 Buztin'ek eta biek diote
 elkarri zenbait galdera.
 Eultzirako gai dan beorrik, ez
 bata ez besteek aukera.
 Bideberrita geroko utzita
 biak doaz ospelera.

Iturri bat da ozkar ta goxo,
 «Gibeleko» deritzona;
 Larraun guzian ur onik bada
 ua diteke esan ona.
 Loi arten utzi dute beorrek
 oiñaren atz zagunaF,
 luzaro bage aiengana da
 atzeko biko laguna.

Beren esku utzi zituteneko,
 mendia bear atzeman;
 Iturriaundi'n ez Aldakio'n
 etzuten tantarik edan.
 Beruta-muga pasako zuten,
 jan-aala, joan ta joan.
 Lau beortzaleek aurrera doaz,
 urrun ez diralakoan.

Mugatik apur onontzaxego
 mardul zegon irastortza.
 Buru-beorra alboan zutela
 an alaitzen zuten ortza.
 Garo-tartean motel gelditzen
 zintzarri kalaxken otsa.
 Birunda arturik, esku-zartaka
 arrotzen die mototsa.

Buru-beorrek kopetan izar,
 bi begiek ingurura;
 sudur-zuloak zorrozten ditu
 utsarte dagon lekura.
 Beruta-aldeko, gurdi-bidea
 utzi Buztin'en kontura;
 azpi-aldera Mikel ta Patxi;
 Irurtzun, berriz, burura.

Buru-beorrek irrintzi die
 ta ari diote jarraitzen;
 azpi ta gaiñak artuak ditu;
 Beruta-aldea uts arkitzen.
 Ara laugainka. An, atzeragoan,
 Buztin pagoan gordetzen.
 Denak bidera diradeneko,
 eskuan makil, da agertzen.



Lepoa biur, gero gorutza,
irrintzi dagi berriro.
Isats-atzetik, bidea beera,
lagun-mordoska dario.
Zalaparta bat aurrera dagi,
ataka arkitu baliro.
Mutil-taldeak begiz galtzeke,
atze ta saiets, darraio.

Bi aldetara zabaldu nai lu
ardi-bidexkeen tartetik;
bidexkak oro buruz dakizte;
buziak artzen aurretiK.
Nai eta nai ez Garrazta'raiño
ez egon alde-egiteraik;
Zalapart ua geldia dute,
Entzelai-bidea ertsiz;

Garrazta-atakan artzai bat dute
zer-egin gogora-nairik;
ataka-aldera jo luteneko,
borda-gaiña artuko berriz.
Buru-beorra, lurrean musu,
kizkurtzen zaie belarriz;
burua jasoz laugainka asten da
oiana astinduz irrintziz.

Buztin ta artzaia naiko dirala,
irurak atakaz aruntz,
aurrea artuta jarri dituzu
eskumakillak arrotuz,
Oiantzarre'tik Elutseta'ra
jun ez ditezen zabalduz:
iñoiz igesi, neketan arren,
ein dutela andik, oroituz.

Ber-bertan dute Txokone-borda;
Trintin-malkorra gaiñean;
aruntza-aldeetik orma-barrena,
labakia azpi-aldean,
estarte medar zaindu-erreza
egiñez bien artean.
Buru-beorrek ara artzen badu,
laister ditute mendean.

Zabaldu-nairik gogor asi da
ataka, an emen, non urra;
burrunda ar dezan baiño leen dute
bipil jasotzen egurra.
Oiuz, eskañiz, axakatuaz
artzai Petri'ren txakurra,
zalantzan zerbait ibil ondoren,
itzul diote muturra.

Etsi-etsian bordara jo du;
estartean da Petiri;
besteak lerro lerro doakoz
umilduz buru ta begi.
Bost beor dira eultzilariak,
umedun dira beste bi;
indarrrik naiko, eguraldia
itxuraz joka baledi.

Ankak ematen dakitela ta
kontuz dabilla an jendea,
ganbelaan gaindi pistu ta ttattar,
artzeko mutur aurrea.
Nabarmenena muturrez lotu,
aren lepotik bestea,
lotu bageai mututu die
irastorrez joalea.



Zintzo doazi azken-eultzira,
ez jakin azkena dela;
azken-aldikoz erri-ikulluan
uts arkituko ganbela.
Negu-elurtez ez da alaiago
malkarrez bete diela;
negura artean larrean, labur,
betelpe dite sabeña.

Eguraldiak alda-aldi ote?
Satorrak ari du lurra,
goizean listuz ikusi omen
katua garbiz muturra.
Egun-aurretik ibillia zan
txorroskin anka-makurra;
oiek aztuta, sines dukete
sorgin beltzaren-gezurra.

Erri begian an dakusate
Mezara doan Katalin,
artajorretan esan baikenun
ote-zan ez ote sorgi .
Iruia'ko errekan, ausaz,
orduko lana du egin:
elkar orraztu, mintza ta asmatu
sorgin zaarrago batekin.

Eultzi-beorrek ikullura, ta
umedun biak larrera,
ate ertsiaren barne ta kanpo
bil nai luteke batera.
Irrintziketan biak sartu nai
ta beste bostak atera.
Etsitakoan isillik doaz
berteneko larratzera.

Aien moxalek ez dute edanen
esne, lanez beroturik,
amen arkitu dezaketela
itzalik eta larrerik.
Uda artan bein-bein izan zituten
gatzagiak utsagorik:
edan-ondoan, barrenarentzat
ez deusen ezetasunik.

Gari-karraio gurdika dabil
Garazi'ren aita Petri;
neskak zamatzen laguntzen dio
balak emanaz aitari.
Gurdi-zolean jartzen izara
ara jalki daiten gari.
Bideko oillo ta txorik, aleere,
izanen dute janari.

Artzai zaar onek, jetzi bage, egun
artan utzia artaldea:
Samartolome-biaramuna,
urteoroko legea.
Egunetara bete zaiela
leer-zorian errapea,
jetziko ditu; ur bage garzagi
nekez artzen dun esnea.

Besteek beorrek atzi artean,
gariz bete du larraiña;
—gurdikaren bat gelditua du
lasta luzetako aiña—.
Eultzi-zabaltzen asi dira aiek
irauliz azpikoz gaiña,
leenen illara buruz barnera,
jarriz inguru apaiña.



Urren-illarak buruz kanpora,
—ez daiteke barra alea—;
buruak, aalbait, gora erdian,
zoztor ta burun naastea.
Eguzkik gaiña dagion arte
ez da on eultzia astea;
ark igar-aala, porrokatuko
beorrak, apar ta kea.

SORGINKERIA

Apaiza jaunak lasai ari du
Meza Santua Elizan;
gure Katalin zokoan dago
aingeru garbi bailitzan.
Erriagana itzuliz, ua
begiz topa duan bezain
usu, burura etorri zaio
nola sorgin arki lezan.

Egun aretan sekulan baiño
Memento luzeagoa;
ari danetik sorgiñagana
maiz alde zaio gogoa.
Andik kanpora zer aize ete-dan
ez daki, ipar ez egoa;
arek nai baiño azkarrago da
buruan dun aize-joa.

Otoitz eta arren, asmo ta damu
noizbait Mezaren ondarra.
Ikus-zai dago egi ote-dan
amonaren ipui zaarra:
azken-otoitzak egindakoa,
irauliz irri ta parra,
zabalik utzi du Liburua
sorgiña sala-bearra.

esana baita, Liburu ori
zabalik utzi baledi,
sorgin biurtu dagon andreak
ez dula aldegiten andi.
Erantzi eta ikus-bearrez
sorgiñagana du begi.
Otoitz zabarrak: ez iritxiko
grazirik Jainkoagandi.

Mutikoari, zabal uzteko
agindu dio, gaurkoan.
Argiak itzal-keiñuak egin,
josta nai, kanpora zoan.
Artan sorgiñak dei egin dio
aren ondora dioan.
Mutillak ez du ipui arenik
entzun neguz sutondoan.

«Apez Jaunari, ez dala sori
zabal uztea Liburu;
letra gorriek dioten eran,
auz barne, kanpora buru
itxi dezala». Goiz guzi artan
egonik aren aiduru,
berri beltz ua entzun duneko,
sorgin dala da seguru.

Ixten du. Gero agur egin ta
ateratzen Elizatik;
atxo berriak, berantu bage,
jarraitzen dio atzetik.
«Apeza Jauna, ez aal ikusten
zeru urdin artan odeirik?
orratz-burua bezain txikirik,
ostots-azi dirudinik?».



—«Ez andrea». —«Gaur etorko dira
zaldizkoak eultzitar».
Apaiz jaunari barnera zaio,
itz ook entzunez, ikara.
Etxean sartu, neskari esan,
ordubitako koskara
zur egoteko bera lo deño,
baldin balitz ostoskara.

Katalin onek, etxera eta,
garbitzen du zartagia,
deabruuk ere ez luke jakiñen
zertaz egin dun basia.
Gatz, piper, ozpin, ar dangazi ta
tipula-buruz josia;
soillik palta da —ark baititu
sorgiñak— baratzuria.

Jan-ondorean igurtziko du
aurreguneko taloaz,
ikatz eta kez, kedar eta autsez,
biziro mindutakoaz.
Aizean barna jun bear baitu,
axolik ez du txerloaz:
goizeko orraztu-legea aski du.
Bost zarpillago ba doaz.

Orraztokia berekin baitu,
pentsa-orduko, Txindoki'n.
Sorgin guzien amari aitor
zerk biotzean dion min:
Apeza jaunak agertu dula
Meza-Liburuarekin,
ortaz errian jakiñen dela
zer oillanda dan Katalin.

Arri-jasa bat eskatzen dio
ordubiak alderako,
esku-aal ori duena baita
Mari Aunei Txindoki'ko.
«Ba dun, alaba; baiña Apez jaunak
ez din itzik aterako.
Jendeen aurrean leen bezala adi;
ez au iñork usmatuko».

Sorgiñen ama au, eder; buruan
urre gorrizko orraza;
ikatz baiño beltzago illea,
zuri-gorri larrupea.
Begiak lauso detzakena da
aren lepoko katea.
Gorputza lerdan, eskuak legun,
ez Basa-jauneeen andrea.

Seda-mataza ariltzen ari da
aari baten adarretan;
urre-adarrak zitun, azkazal
urre-gorriak anketan.
Bein edo beste naasi-bereizten
arkitzen bazan neketan,
berak, adarrak onera ta ara,
laguntzen zion benetan.

Ola zeudela, Donamarti'ko
atsoa arri-jasa-billa:
Eiheramendi'n Etxegarai'ek
bai omen andre abilla.
Aren mendeko sorgintto bati
autsi baitio orkatrilla,
ostu naican joan zaiola
seaskan zeukan mutilla.



Emezortzika seme-alaba
emazte kaskoin aundia;
izketa adituz nor-naik usteko
euskaldun dala garbia.
Ark omen-zeukan ate-ondoan
gorderik baratzuria;
andik anka autsi sorgiñak, eta
bial zezola azurria.

Mari Aundiri oiñetan musu
emanez, gure Katalin,
orraztokia sakelan dula
esan baiño leen Uitzin.
Eultzi-lekura joan ta asi da
mintza batekin, bestekin;
nork sumatuko goiz artan beran
izana dala Txindokin?

LARRAIÑEAN

Azken-izpiak orduun zabaltzen
eultzikoez larraiñean;
eguzkia an zan, zearka, baiña
oi ez duan indarrean.
Apur bat egon, eultzi-azala,
igartuz, samur daitean;
sasi-beorak ukullutikan
irrintziz dira bidean.

Larren urbil diranetatik
eman dute erantzuera;
beor bat, bere moxala atzetik,
arin doa larraiñera.
Bat beste-bage ezin etsi ta
bildu nai lute saillera...
Lotuta barneen dabiltzan aiek
pozik lirake larrera.

Pake eman dezan, eragin eta
Mikelek sar du ukuillura;
kanpoan argi, barnean illun,
begiak zaizko lillura.
Ganbelak utsik arkitzen ditu
datorrenean kontura;
egun artako janaria du...
askan edan duan ura.

Eultzira sartu ta aurrena astiro:
garia lodi baitago;
ertz eta erdi zanpatu arte
laister-giterik ez dago.
Saillean duten beor zaarrenak,
(bearrik ikasiago)
noiz-bein muturra lurrera sartuz
gariz betetzen du ago.

Mikel Eleder, eragilleak,
pausoa balute lasa,
zartailluz, oiuz, aizea jo ta
estutzen die arnasa.
Geroxe batek, bizkarra makur,
arrotu zerbait isatsa,
este-muturra puzten zaiola
birbil bota du satsa.

Ua biltzeko keiñu egin du;
Buztin sartzen da eultzira.
Esku-beorra Mikel'ek estuz
motzago du urrengo bira.
Bost sei purruxka bildu arteo
dabiltz beorak erdira,
leengo bidetik ibilli eta
sar ez dezaten azpirra.



Bal aundi zenbait urratu eta
zatuka txiki egiten
eultzi-gizonak ari dirade,
errez jo ta jalki daiten.
Lasto artatik lizar-ostoen
zatukak ditute lotzen,
negu luzea datorrenean
beien janari ditezen.

Zear-zutika losak jarriaz
eultziaren inguruan,
garia jotzen asten dirade,
mozorroki bat buruan.
Zanpa ta dardar, bereizten dira
auke ta alea lekuan.
Alde banatan lau-bosna kolpe,
urrena igurtziz eskuan.

Mutil gazte bat leenengo aldiz,
lepoan babeskirik ez,
utzi zatuka ta beazka asi
bizkarrean dun azkurez.
Zatuka gora jaso dunero
ongi dardaratu bagez,
gari-aleak lepoa beera
sartzen zaizkio oarkabez.

Amona an dator luzaro bage
gari alea aztertzeraz;
eskuan artu, irraran utzi,
argitzen zaio bekera.
«Gari ederra; gixen, betea;
zalkerik ez du; urrekera:
ogi zuria jateko aurten
ba dugu beintzat aukera».

Eultzia apur bat zanpa deneko,
mutil bat beor atzetik;
bi iru birunda eman orduko,
ateratzen da eultzitik.
Aren urrena beste bat doa;
bestea aren ondoretik,
beorlariak zartagailuaz
aizatu ez baletza andik.

Zuri-arre zan garia ari da
oritzen eultzitu-aala;
eguzki-indarrez, beorren lanez
dirdaitu zaio azala.
irauli eta geldituko da
arro ta arre, leen bezala.
Iru-laugarren iraultzaldian
ori txiki ta zapala.

Iru, lau, bost aur, koka-aala baiño
jende geiago gainean;
mutil koskor bat, pertz bat eskuan,
aien guzien aurrean.
Beiak, berotuz, asi balitez
nai ez luken bearrean,
Petirik zorrotz agindu dio
egon dedilla erne an.

Leenengo «aida»-n aur geldi-gaitzek
atzera din dute dardar;
bein sartu ez zan txikitxo batek
ikaraz dagi deadar.
—Narra-ertzean taketarik ez,
gerrietan bear indar—;
sartu bagerik gelditu danak,
ez dalako, ba du negar.



Artasiaren aurre-etzpañean
multzokatzen da lastoa;
sardea azpitik sartuz, berdintzen,
narra geldituz arroa.
Aldapa-gora-beera, ontzia
uretari bezala doa;
sabel-gaiñean ematen dula
utsaren zirrarakoa.

Txandaren eske kanpotik aurrak;
barrengok ez utzi nai;
erruki dugu aietaz ere
biotz oneko Petri itzai.
Beietako bart, orduko dabil
geldigunetxo aren zai;
pertz-mutilla aaztu bere lanaz, ta,
aurrengana dabil ernai.

Beiak bizkarra zalkor orduko,
oska asi zaio Petiri:
«Or dik Gorria». Oartzeko
garira egin du usuri.
Arek egiña bukatzerako
pixa-naika asi da zuri.
Bildur da, pertzak gaiñez egin-da
ote-dakion usuri.

«Toz» eta «Gorri» giltz eta bira,
txikitzen ari da agotza;
eun lagun boti, agertu bage:
artasipearen ortza.
Gaiñean ba da eragiteko
kaskaluz, kaskamotza;
aurretik aita, hetara begi,
ibilliz ezten zorrotza.

Gero ta aisego eultzia bira;
urbil daukate eguerdia;
zerua garbi, baiña beroa,
ostots-bero lazkarria.
Bat edo bati gogora zaio
sortu lezaken euria;
ateri onak ematen badu,
goiz bil dezakete eultzia.

ODEI BELTZA

Katalin sorgin, saski bat zatar
garbiketaz iturrira;
arek buruan zer darabilen
eultzikoak jabe ez dira.
Amabietan bazkaritara;
jan eta laister eultzira;
bero zakarrak maiz eraginda
Araba-aldera begira.

Beor-usai ta lizar-itzalak
euliari dio griña;
itxedon orde nekego dute,
sumaturik ozka miña.
Sudur-furrundaz, buruz, ostikoz,
autsi nai dute larraina.
Euliengandik alde egiteko
on zaie lasterka ariña.

Ara, kiketari Gorritikotik
odei gorriren adarra;
leenik illargi, gero ateraz
artzakur buru-zakarra ;
luza ta luza, berreun urteko
iñausitako lizarra...
Euri on orde, ba du barnean
arri edo kazkabarra.



Andik datorren odeia jo oi da
denetan lazkarriena;
arto ta gari, zoztorrik utzi
zituen orain urrena.
Eultziak ere eraman ditu
iñoiz errekan barrena...
Beztu baledi, nekazarien
bildur-ikara ta arrena!

Aizerik bat ez; eultzilariek
nai dute bizkor iparra;
odei borobil tinko bildua
apur-apur lezan barra.
Gero sendogo agertzen ditu
barru, sabel ta bullarra;
arri-zantzurik garbiena da
euzkiak kiskal bearra.

Ordubata da; ez euli-soiñu,
irrintzi, marru, karaka;
lizar-osto bat ez da mugitzen,
ez belar-izpi geraka.
Mingaiña doi-doi Jainkoagana
ustarik ez dezan maka;
odeia geldi, ez-bai onontza,
agertuz beste besaka.

Sabela bezten asi zaio ta,
biotzerago bildurra;
auzotarrerri dei egiteko
asmotan da Petiri zuurra;
ainbeste jendek eultzi jasotzen
izan arren lan laburra,
geroko lana nekegarri da,
odeia baledi urra.

Ara aize-xinta: sartu dakie
ezurretan otzikara;
Petri Jaunari biurtu zaio
izardia zaiñetara;
zurrunbilloa ez dator urrun,
aren atzetik dundara;
oraiño, odeia geldi baledi,
eliz-ezkillen dandara.

Auzoa an dute larrain betean,
eskuare ta maindire;
etorri dira Loitete etxea,
Baztarrrika ta Txurdane.
Agotza ta auka (larri ta txeca)
erabat jasotzen dute.
Jesus amenez larraiña garbi;
odeiari beha daude.

Ordu bat lan, doi, eultzi txikitzen
egualdiak lagun balu;
beste egun batez naiko naaspilla
jaso ondorean zabaldu;
arri-ondoko egunek, oiez,
ba dakarte euri naiz gandu;
larre-beorrak berriz, neke eman,
mendira bear bialdu.

Sorgiñen amak, ala agindu ta,
ezkilla jotzen Katalin,
neska gaztea sorgindu dala
jenderik oar ez dedin.
Otsa aditzean, aaztua baitzan,
apaiz-neskak usu ta arin
ontzi-garbitze-lanak utzita
nagusiarri otsegin.



Loa astuna du; bitan, irutan
otsegin; azkenik: «Zer dun?».
Dandara aditu, leioa zabal,
erri-inguru denak illun.
Eskalapoin bat zeukan oipean,
eskumakilla ainbat lagun;
arri-odeia zetorrelarik,
eskuñean jantzi oi-zun.

Estu ta larri Elizara da
non dun arao-liburu.
Uda guzian toki jakiña;
alaare ezin du gaur buru.
Kopeta jo ta gogora zaio
gauzak irauliz inguru,
zer gerta ere, lotarakoan
utzi zula oaburu.

Ostotsa ari du, naikoa luze,
—zaldien ezpain-dardara—.
Mari Txindokik edeatatik
naiz utzi beren gogara,
zerbaitek aurrez gelditzen ditu,
—otoitza zeruetara—;
aiton-amonen biotza bero
ta argizagiaren garra.

Aste Santuko aizaroetan
geldi dan kandela gorri,
Apeza Jaunak mutikoeekin
larunbat goizez igorri.
Etxekal ua piztu oi dute
odei dalarik etorri;
belauniko otoitz egin-da, arekin
uzten ikara lauorri.

Nexka Garazi, pirra ta purra,
etxe-egazti billa doa;
gogoan baitu gal zitzaie
leengoz txitaldi osoa;
bi belarrien tartean jo ta,
baita Kokoren mandoa:
arraultza bezain ale aundia
iñoiz jautsi baitaroa.

Apeza ari da zuriz jantzi-ta
eliz-otoitzak iretsiz;
Exurge Christe nonbait-or, baiña
Pater Noster ziztu biziz;
ostotsa berri duan aldiro
begien zuria ageriz,
Katalin sorgin ote-dabilen
Sorgin-Amarekin zaldiz.

Zenbaitek ikus omen-zutela
aitortuko zuten laister
ezkilla-jotzen ari ezpalitz
arnas, izardi ta leher.
Mari ama, leen goizean zuri,
odeiean gorri eder;
orain arekin itsusitu da;
urre dirdairik ez ager.

Ante, post, supra, dextra, sinistra,
zebiltzaten odeierei
«Aldegizute —apaizak die—
utzirik deabrukeri.
Mari Txindoki ta aren neskame
zaraten sorgin beltzeri,
sasi-azpira bil zaitezuela,
diazute guzieri».



Odeiak luza, jendeak itxoin,
 etzaio leertzen sabela;
 ateratzeko gertua apaizak
 eskuin-oiñean txinela.
 Otoi guziak bukatu eta
 berrizten ditu bereela.
 Aren otoitzez iduri zaio
 zaldiak geldid daudela.

MariTxindoki'k ezin geiago
 bere zaldirik aurrera:
 aiton-amonon ezpainenetik
 alako otoitzak atera...
 aien arnasak bultzaten die
 ezkillen uinez batera.
 Etsi du joan bearko dula
 Txindokin daukan lezera.

Odeiak dio: —«Non sartuko naiz?»
 Apezak: —«Sar adi emen»;
 txinela aitrean botatzen du, ta
 odeia sartzen da barneen.
 Erdi-odeia suntsitu eta
 garbi eguzkia agertzen.
 Baztar-odeiak xirpil ta xarpil
 iparrak ditu garbitzen.

Itzalia da sorgiñen ama,
 jo du Txindoki baztarra;
 aaria an dabil leize-alboan
 illun, ozkatuz belarra.
 Katalin sorgin, ezkildorretik,
 apezari joz adarra;
 sorgiña dala jende-tartean
 ezin baitezake barra.

Eultzi-jendea txunditua da
 bat bat argitu duala;
 itsumenetik ateratzeko
 igurtzi du betazala.
 Guziek ago batez: «Berriro
 eultzia bedi zabal»...
 Bil bezain usu zabali dute,
 sartuz beorren aztala.

Gertatu zaien arrigarriaz
 luza dute berriketa:
 ez bide-dala gezur, neguan
 esaten dan ipuiketa.
 Txinelarena gogora dute
 ta arekin Apaiz Lezeta;
 aizean gora botata nola
 isildu zuen egeta.

* * *

Illunarekin, lizar-ostora
 lekuratu zan eulia;
 ekaitz-ondoan ez du leen aiña
 ozkaz samintzen zaldia.
 Larre-moxalak sabalez gora
 artuko oraindik euzkia.
 Ordu bik dira: bi itzul-aldi ta
 jaso dezaketae eultzia.

Jaso-orduraino, auzoek alde;
 orduan berriz bertara;
 azken-eultzia baitute errian,
 gazteak larrain-dantzara.
 Lanik zailenak igor ditute
 onekin urren udara.
 Belar ta gari ta arto, neguko
 beteko zaie ganbara.



Eultzia mee da. Belaun kozkoa
gutxigo jasoz, beorra
geldixe dabil: ez onezkero
suma atzetikan zigorra.
Atzelaria, bide luzego
egin ta, dabil zalkorra;
ezker-joeraz, saiets-aldea
birutu zaio gogorra.

Eultzi-ertzetik dioanean,
noizpeit irrist egiten du;
ark barraa ditun agotz gariak
Garazik isatsez bildu.
Eultze-erdiko maiteak, ua
beorra bezain du lotu:
begi ta biotz, ugalik bage
Mikelek bereganatu.

Amabost egun: andik erabat
bata dira besterena;
geroxagoko dantza dukete
ezkongai dirala azkena.
Urtaro-lanak ari arian
laburtu du luzapena...
Zaar biur bage pozik galduko
gazte ezkongaien izena.

Agotza biltzen asiak dira.
Leenbizi, oi dan izara
apezarentzat, ark oi baititu
arri-odeiak ikara.
Urrena, aroan eguntar duten
berrarentzat obara.
Gaiñerakoa nonai sartzeko,
zabal etxeko ganbara.

Gari-alea ondarrera, ta
agotza geldi gaiñean;
axal-axalik leenen illara
kendu diote denean.
Berriz beorrak sartzen ditute
auke arrotu ditean.
Bigarren txanda eman ezker,
asi ditezke txean.

Orduun beorrak eguzkitara,
ezardia agoar dakien.
Artan, euliren miñik doi dute,
moteldua baitute ezten.
Epur ta bizkar zuritu arte,
eguzki-begi atsedan.
Ura auts biurtu bezaletako
gatza doan bezelaxen.

Eskuare, erratz, isats, peaki,
garbitu dute larraiña.
Iparrak bal-bal indarra artu du
garia aizatzeko diña.
Sardea gora, begiak apal,
estu ezpain ta bekaiña,
—garia bera, mintz autsak urrun—
jaso ta tinka aztal-gaiña.

Gari-pilleko txoria baiño
ba da pozago dagonik:
Petiri jaun ta amatxi Matiste
garia garbi ikusirik.
Taiuz ta begiz asmatu baiño
zaku geigo da betेरik...
Aiek guziak aiza zetzaken
odei-jasak larraiñetik.



Larraiña zuri, dantzarako gai;
oiñarriz ez baitu lurra;
Errotatzarko arbel leguna,
joskura soillik zimurra;
lur-larraiñetan, urari naasiz
bekorotz apur apurra,
eguzkitara gogor oi dute,
gai dedin isats-muturra.

Gizon arrotz bat dator, beorrak
orrazten ari direla.
Nongoak diran galde duncan,
erantzun beti bezala:
osaba Tomas Etxarrikoak
gogoz eman dizkiela:
Uitzikoan jaten dutenez,
larre-sari dezatela.

Errikoak bi zituten, eta,
jabe-etxera zaldalea,
ez beorrentzat: baitzuten aiek
mendian maiko larrea.
Erabat ara daramatzite;
urtebeteko pakea.
Osasunekin ikus bezate
beor ta jendek bestea.

Ogi, gazta, ardo, jan-eta, dantza
larraiñaren baranoan.
—Giza-dantza andik, ala bestera,
bizi danak ez gogoan—.
Sagarraren ta Tipularen ta
lan-dantza denen pausoan,
danbolin-andreek, zaldabaia artuz,
zion betiko leloan:

LARRAIÑ-DANTZA

«Erdian gari-meta
labean opilla:
ez dira asarre dantzan
neska ta mutilla.
*Lararai lararai lai,
lararai lararai lai,*
ez dira asarre dantzan
neska ta mutilla.

»Apezak mun eskeiñi,
atxoak olata:
erriko beartsuak
ez du deusik palta.
Lararai lararai lai...

»Apezak otaamena
mezerdian zuri;
arek txaro garbitzen
pekatuak gu'ri.
Lararai lararai lai...

»Eskaleak jo beza
atea gurean;
zakua beteko du
daukagun artean.
Lararai lararai lai...

»Eperrek landan dute
jalki dan alea;
txingurriak egin du
bazkaren bidea.
Lararai lararai lai...



»Beorrak, negurako,
agotz ta malkarra;
ta beiak, ezin janik,
utzi dun belarra.
Lararai lararai lai...

»Eskaleak etzauntza
ganbaran agotza;
izaraz ta burusiz
debekatuko otza.
Lararai lararai lai...

Leenen-cultzia jasotzekoan
ezkil-dorrean Katalin.
Bigarrenean lagundu die,
naiz artu biotzean min:
aundiagoa baitzun bildurra
ezagun zezaten sorgin.
Dantzan ere egin du, lagun dula
Etxeberriko Mil Martin.

XIII. EZTAIETAN

Gaua luzatzen ari, nabarmentzen otza,
goizean ote, ez ote, zokoan izotza.
Orman ipurdiz gora euli lepa-motza:
negua urbil dalazko siñale zorrotza.

—Arriturik ikusi dut uda-betea
eulia buruz bera beti sukaldean.
Ez zan gari aundirik bildu larraiñean,
erdoiak jan baitzitun denak alorrean—.

Gau-loan ordurarte, astun maindirea;
urratzen da ametsetan, naiz esna, ogea.
Gaurgero otzikarak du gorputza gordea;
negua ainbat nai litza maindire luzea.

Eun kana ta geigoren jabe da Garazi,
zortzialdia baitu azal eta larri.
Bosna kana bakoitza, luzetan bi t'erdi;
erdian josi eta zabalez metro bi.

Burko, oazal, atorra, okozpeko, zamau
egiteko, bearrak ainbat negu ta gau.
Amaren eunak ere etxean ba dirau:
otzari iges egiten ez da sorgin-arau.

Nexkak urtez amaika zituen ezkeru,
aitak eman-baxtarra lantzen zun urtero.
Negu-uda ba zekien, tartea zunero,
beatz, ortzak dantzatzen ezkontzeko bero.

Urte artan izan zun argi-iten laguna,
bekaiñetik uxatuz loaren astuna.
Biotzak etzun senti gauaren illuna;
illunagorik da maiz Abendu-eguna.



Irun, garbi ta josi, azpildu barrena;
—atsegiñenik zaio lanetan azkena—:
ari gorritz bordatu bi maiteen izena,
fedea bezin nekez urra ditekena.

Milla ta milla zizta ainbeste kanetan,
maite ez-ezagunari opak ametsetan.
Azken urteko aiek, baten ederretan,
ez ziran loz, alperrez, naasten arratsetan.

Lastailla'ren leenetik, pestaburuz beela,
irun-lan asi zuten leendanez bestela.
Artean ez zan nexka langille motela;
maitetasunak dio, orde, ziztu ez epela.

Naiko zurtasuna berak orni baitu,
Azpiroz'ko Mattoloz ezin iñola aaztu.
Eskale gaixo onek bost illaun iretsi du
lio-jotzen! Garazi'k oge bat agindu.

Aren ezkon-ornian zenbat da arek joa!
Erruki-okelaz bat lan-galdezka doa.
Etxekal ibil, ez du galdu lan-gogoa;
gai da aal duna atxitzeko Matoolo zintzoa.

Etxe oneko seme, oge-zuriduna,
suak kixkali zion, gau batean, zuna;
ikulluko bizidun, ogeko laguna
galdu zituaneke gauaren illuna.

Irurtzun'a zan bera; Latasa'n gau egin,
zekorra bidez anbat lermatu ez dedin.
Biamonez zekorrek anketan naiko min.
Artean Azpiroz'ko negarrrik ez zekin.

Ez zan neurri-bearra beste eskaleen neurri
merezi zun oge bat langillez ta garbiz.
Garazi'k berak dio, irunez ta josiz,
oge zuria gaitu leengo aren aldiz.

ARREOA ERAKUSTEA

Etorri zan eguna. Irri ta ateraldi,
Sutegi'ko Josepe, Martin Burruntzali,
arreo zabaltzen biak ziran beti.
Ola mintzatzen ziran asiz aurreneti:

«Aurren-aurren oazala,
ederra eta zabala,
ba dakizue zer amoreri
egiñen dion itzala.

Garazi'k irun egiña,
Mikel'ek argi egiña,
bien biotzak negu miñean
luze-zabal eragiña.

Elur biurtuz kabitzen dizu
amar ardiren illea;
Garazi'k ongi kendu ditio
altxirri eta koipea.

Burko motzez zortzikoa,
lumatu bearko oilloa;
burko luzeetan, lumazkoetan,
lugun dagoke lepoa.

Zortzialdia larria,
lio beti-iraungarria,
neguan bero, udan atsegin,
naiz izan gerri lodia.

Zortzialdi izara axala,
Erregen diñako oiala;
aren tartean leagun dagoke
neka dan ezur-azala.



Azpirako lastaidea,
artazuritzen betea,
kozkor ta bizar garbitua da
zearo txurikin mea.

Zortzi zapi, illa jazteko;
aurpegia estaltzeko;
Jauna azken-aldiz artzerakoan
oitura dan okozpeko.

Oazal ainbat atorra
neskak mutillari zorra;
senar-emazte berri oentzat
or zuritasun jatorra».

Sukal ta maai-orriak jantzien urrena:
pertz ori, tupiki, suik, danbolin, gerrena,
eltze, gopor, katillu eta abar tresena
zabal ditute zintzo aurrenik azkena.

Burruntzalieta eldu diralarik.
Sutegi'k lagunari diotsa beraizik:
—«Burruntzaliz, or zortzi, zillarrez landurik
ai beratzigarrena, eltzean sarturik»—.

Neskatxa bere etxera ezkontzen zanean,
oge bat ekartzen zun mutillak dotean;
ergia, artaz gainera, ume-bearrean,
beor ernaria ta zillarra aal aiñean.

Mikel'ek azi zuen guri bere ergia,
illea gorrikara, betondo zuria.
Ordurarte etzekien zer zan uztarria.
Etzion ere moztu adarren gia.

Bi adarren artean orraztuz kalpatsa,
ergiak, esker-onez, luza mingain latza.
Eskuz bizkarra legun —ua zun txarrantxa—
bei eder, oarkabe egin zan bigantxa.

Beor gazte beltzurdin, kopetan izarra,
ez zun oraiño suma mindua bizkarra.
Orraztu gabe dirdai zedukan kalparra,
eskuz eman baitzion noizbein garagarra.

Berreun ezkutu berak egiñak basoan,
aitak utzi zition beretzat osoan.
Aiekin etzedukan lotsarik auzoan:
bere burua ere naiko dote zuan.

Gazte-jendea asi zan atsegin-pozetan,
—euskeraz esateko, «eztai-eztaietan»—
jan, edanean, dantzan, maite-leloetan.
Andik egun bitara loa begietan.

EZTAI AURRE-EGUNA

Bezperatik mutillek artu senargaia,
gau-erdian zioten oilloen eztaia.
Jan, edan, eta kanta, biltzerako maaia,
mutillaren begira zegon andregai.

Neskatx aialdekoak —ez iñor ergela—
senargaiaren billa egun-xintaz beela.
Mutillarengandik bereiz erdian dutela,
andregaiarengana; ark ustua du gela.

Neska batek karrasi; gonetan du larra;
ikustean besteek egin dute parra;
ark ere, goiz berandu, izanen senarra;
baiñan, ipuiak dio, alargun ta zaarra.

Besteek ere ba dute barrenean kezka;
egun artan, ordea, poza da gainezka.
Laister, dakusanean Gerrieder neska,
batek ezin izkuta malkoa saieska.



Senargaiak ez ditu betondoak illun,
oillo-eztaiak ez du utzi buru-astun.
Oiñez dioa, baiña ba laiteke zaldun.
Beela agertuko zaio merezi dun lagun.

Basakaitz'en gaiñean artizarraa dago;
Andere Eguzki ere ez izkuta luzaro.
Garbi dago zerua, egurats otzaro,
lats-ondoan izotza, belar dena garo.

Garazi'ren atetan geldirik multzoa,
neskak oro dute emen leenengo leloa.
Danboliñen alabak du bakarrekoa
aitonari bezperan ikasitakoa.

«Andre nobia, ille-oria,
zabal zazu ataria;
emen eldu da senargai jauna
dirudila eguzkia.

»Kantak "illea oria", baiña
Andre-bearrak "gaztaiña",
elur-arteko pagoa baiño
beltzagoa du bekaiña.

»Gizongaiari "eguzki" esan...
ez aal-du naiko "izarra"?
Etxe ontatik atera-zai da
Andre Eguzkiaren garra.

»Gizongai jaunak ontzat artzen
atera zaite, Eguzkia;
erakutsozu Eleder oni
aurpegi zuri-gorria.

»Zeru goien garbi dago, ta
errekondoan izotza;
antzigar ori urtzeko gai da
ezkon-bearren biotza.

»Oin-otsa dugu, andre-gaia da;
irauli du maratilla;
txangak negarra, ezpaiñak parra,
biotzak usu pil-pilla.

»Aurpegiaren zoragarria,
soin beltzean nabarmena!
Zerua bera lilluratzeko
malko bat luke ederrena.

»Belarritako zuri dirdaitsu;
lauso lezake begia;
izotz-tanta bat eguzkik jo-ta
ez ua bezin argia.

»Apeza jauna begira dago;
ezkillak jo du Mezara;
beñere baiño legunago da
Elizarako galtzara.

»Poztu zaitezte, esku emanez
aldarearen aurrean;
bizi zaitezte pake-pakean
mende guzien mendean».

EZKONTZA

Jainkoaren bidea gora —ala deritza—,
kolkooan deramate ongi gordez itza.
Ezpaiñetara zuzen jalkiko balitza...
Gaur bildurrik ez, baiña beti dardariza.



Muno'k egin-berri zun ardi bat apustu
apezaren aurrean baietz neska ukatu.
Bein ta berriz apezak: —«Neska maite duzu?».
Bein ta berriz: —«Ez, jauna»—. Guziak larritu.

Irugarrenez: —«Maite aal duzu Maria?»—
—«Bai ta nai ta maita, ta... neretzat ardia».
Orduz geroz baitipar, nexka bildurtia
azkenak entzun arte ez dago geldia.

Ezkon-itza baiño leen apezak agertzen
ezkontzak ezkondua zertara beartzen.
Adan'en saietsetik Eba sort omen-zen,
emaztea lagun, ez mendeko izan diten.

Aundiagoa, Kristo'k Eliza bezala
batak bestea maite lurean zezala
Erio jasan arte, ez neurri makala!
—Lurra zeru litzake bizi bagiña ala—.

Mikel'engana dala, dio galdegiten
emaztetzat Garazi ezagutzen duen.
—«Bai, Jauna». Galde bera berriz irugarren.
«Bai»— dio, dandararen otsa bezain ozen.

Garazi'gana leenik galdera berean;
«baietz» bipil, ez orde mintzo ber-berean...
Neguan ezkillala ala elurra denean,
edo-ta ardi-txintxina irastor-tartean.

Aialdekoren batek ez begiak legor;
izanen aal-da noizpait arentzat beste nor.
Au ikusiz, beste bat ez da biotz-gogor...
zorion-egun ua lenbaileen baletor.

Apezak eraztuna senar berriari;
senarrak orobat sar Andre gazteari.
Eskuak elkar lotuz, elduz aienari,
barnera sartzen dira, Apeza aurrelari.

Meza, bedeikua, ta aholku zuzena;
gaurgoiti ditezela bata besterena.
Andre-eskua Mikeli emanaz azkena,
andik aldegin dute, ez asarre barrena.

Etxera diraneko, palanka atalean
Sukuntza'k landatu du aurrena goizean;
kantan ua aiñakorik ez baita saillean;
Danbolin garaitu zun leengo eztaietan.

Lau ordu t'erdiz gora eman zuten bertsoz,
roduan agertu zan gaztea aurrenekoz.
Arritzen ziran oro ark asmatutakoz.
Danbolin asia zan maskaltzen ordukoz.

Guizia-bearreko ziteken Sukuntza;
deituetan an baitu Salditse'ko Beltxa.
Alakorik oraiño nekez garai leza.
Aiekin ez dute gaur afaria geza.

Sataia landatu du toberak jo naiez
ta afal-bertsolaria Sukuntza da legez.
Nor geigo dan saillean, takela aundirik ez:
Onek garaitzen ditu beste denak errez.

Ezkonberriek pozik diote baimena;
afarian aientzat izanen da aamena.
Salda gorria ba da Anton Koko'rena
berotzeko bere ta lagunen barrena.

Gendulain'dik ekarri sei zagi (bi mando)
igazkotik; ua da ardorik bada, ardo.
Artatik edan eta, edozein bixardo
bertsotan asi eta usaez Beñat Mardo.

Usaiera bildu da Xastian Lesaka;
ez gizon, iduri du agotzezko saka.
Afal ta ken leikio sabeletik laka,
eztarrarian sar bage beatz ez zuztaka.



An bear, nai ta nai ez, Mikela Antoneko,
maai'tar ez baa, bederen sukalde-atzeko.
An dago ondar guziak txaro garbitzeko;
zakua beteko du bi iru eguneko.

Beleak sarraskira aurrena baitoaz,
ijito azal-beltzak an dira denboraz.
Eskaleak urrena umil ate-joaz.
Zakur eta katua poz dira gaurkoaz.

Aialdeko ta lagun, gegi-uts dabilta
ospatzen ezin asmaz gazteen bizitza:
—«Au esku-lan ederra! au oial portitzal!»—
Beti bat biurtzen da ezpainenetan itza.

Ezkon-gurdia apaintzen ez da bear asi;
etxean geldu baita ezkontzaz Garazi.
Itzai-morroia nola, beiak nola jantzi,
itz bitan esanen dut nai baduzu ikasi.

Andregaiak emanak abarka ta bartan,
goraitiz biltzen ditu txukun gurutzetan.
Beiek, zintzilikari berriak kopetan,
Koka-aala zintzarri ustai bakoitzean.

Gurdi-erdian kutxa, aurrean ardatza,
ta liñai-muturrean amuko-mataza.
Gurdi-atzean suilla ta tupiki-pertza;
ogekoz edertzen da gurdiaren ertza.

Gurdiari koketan emanez olio,
negar alaigarria eragiten dio.
«Aida», alper ugari, inork entzunen balio;
gurtardatza ainbat legun lepoa dario.

Aialdeko ta lagun, urbillen aideak,
egin ttute gosari-bazkari-legeak.
Elkarrekin labur du adarra atsaldeak;
an dira illuntzerako afaldar jendeak.

Ezkonberri ta deitu maaiean daudela
tobera jotzaleak an dira bereela.
Koplak eman ondoren, sartu ditezela.
Tarteen palanka joaz zioten onela:

TOBERAK

«Oles, ezkonberriak;
Jaungoikoak gabon!
Toberaketan gatoz
bost edo sei lagun;
zuen baimenarekin
kantatu dezagun.

Kopla dezagun leenik
emazte berria;
etxeak dion eran
"eder" du "gerria";
artazuriketean du
izena jarria.

Lelo, eztaiak, lelo
Birjin Amarekin,
toberak jo dezagun
ordu onarekin;
ordu onarekin ta
Birjiña Amarekin.

Lore-baratzan eder
arrosa gorria;
gari-meta-gaiñean
eder da txoria;
bil dezake eraztaunak
gaur zure gerria.

Lelo...



Lerden atal-ondoan
erastor-zugatza;
gaztain lardenak goien
gaztaiña-morkotsa...
ez du normaik arkitzen
olako bikotza.

Lelo...

Etxe onek goien du
goien sapailloa;
aren alde banetan
gorago leioa;
bekokia, begia,
zuk orrelakoa.

Lelo...

Sei gazta berri dande
erdiko leioan
zuriz eta berdiñaz
ederki lerroan;
zurigo, berdiñago
zuk ortzak agoan.

Lelo...

Beste leio batean
tomate gorria,
Gendulain'go Kokoak
atzko ekarria;
oi-espain-kolorea
zuk ainbat gorria.

Lelo...

Bee-sarreran bi atal,
arri-jatai mako:
bat ardi sarrera ta
beste beiendako;
egoki iduri zute
bi bekaiñendako.

Lelo...

Etxe onek ba digu
Andreak bezala
aurpegi zuri eta
bekoki zabalak;
elkarrentzat egiñak
dirudi dirala.

Lelo...

Oiturak ala baitu
ematen kártena,
Gizona koplak zagan
Andreaan urrena:
egun aitortu dira
bata besterena.

Lelo...

Aurten pagoak ba du
ausarki ezkurra;
Nagusi berri onek
baitu buru zurra,
etxe ontan ba daite
neguan egurra.

Lelo...

Olako etxe onak
onelako Jauna;
olako Emaztaak
olako Gizona:
ba dirudi zeruak
eman-ondasuna.

Lelo...

Onela ari zirala, biek atalera,
afaritara sartu ditezen barnera.
Sukuntza'k ontan eman zion bukaera;
lagunek ondoretik azken-kopla bera.



EZKON-APARIA

Aiek sartu-begira afaltzen asteko;
Xastian ogi-jaten ari zan orduko,
atera begiraka jana noiz elduko;
etortzerako ba du baso bat ustuko.

Ba dator eztaiz-zopa begi-lausogarri;
biak zorrotz ditio Xastian'ek ari;
katurik aragira ez da ain iratzarri;
eske bizian ditu lixtu ta eztarri.

Bein bete ta bein ustu, bigarren aldian
nork nai dun galdeari luza Xabastian;
irugarrenez ere ondarren tirrian;
gerta litiokenik orduun ez zekian.

Urrenik, eltzaria guriñaz ondurik,
—etxean egunero ez da olakorik—;
artatik ere jñan du bitan mukururik;
ezpainak garbiketetan ba du naiko lanik.

Ogia galdu bage ezker-eskutikan,
puska puskaren urren jaten ditu ozkan,
sandanigurtzikan, naiz legor-legorrean;
tarterik ez, urrena etorri artean.

Aragi egosia; usaia ere berri;
—orain urrena noz jan zun ezin igarri—;
artatik sartu ditu lau libra giberri;
galtzak estutu, eta lasa bear gerri.

Urrena zekorkia, egoski, erreki;
Xastian'ek zer jan dun sukal-pertzak leki.
Edan erruz egin du bultzatzeko obeki;
nai baiño leen ez balu andik bear jeiki...

Urrenik egaztia; Xastian'ek arnas;
izardia arentzeko jarri da buru-has.
Jarraitzeko, barnean tokia du eskas;
zer asperen egin zun ez dakinak ikas:

«Gurdi-sesto nai nuke tripa, sasoi ontan.
Mami, gozoki ta abar, onenik, ezin jan»...
Negar egiten zizun itzook esatean;
baiñan jarri zioten egaztia aurrean...

Usaiak gaitz egiten; barrena bigurri;
gora-naiak eman ta gaindu zaio neurri.
Maaietik altxa eta ikullura korri;
bota artean izan du leertu-bear gorri.

Itzuli da maaiera, aurpegia zurbil;
berriz ere nai luke afarian murgil.
Labur arnasa artu-ta ezkerrean opil,
berriz asi da bero ondarrak ezin bil.

Mikela borda an dago sukaldean alai;
ongi bete danetik ez du geigo jan nai.
Maizago bear luke aste-egunean jai;
Igandean ere ez du gaiñez betea maai.

Bertso bat ikasi du; bota naiez dago,
oilloaren arrautza baiño bearrago;
kopla bat —ez baitaki andik aurrerago—;
tabernan asmatzen da bat-bat okerrago.

«Artoa eskas, ta kalabaza jaki,
gu nola bizi geran Jaungoikoak daki.
Urtean bein or ortxe ziztor ta tripaki;
ezur bearko dugu berriz lepatzak».

Urduri zan orduko, Sukuntza, maaiean,
bertsotan etorria erakus-naiean;
itzal aundiko Beltxa zeukan saietsean,
ta leengoan autsi zun Danbolin, bestean.



Ez du gaiñez egin nai leen autsiarekin;
nai arren, ez da ausartzen, orde, Beltxarekin.
Itz onak jalki ditu ondoko biekin:
eder ez da burruka kide ez diranakin.

Gogoan zun, norbaitek erantzun ziona:
«Idi ta ari antzeko ez uste gizona;
aul duk ukatuari keiñatzen diona.
Etorriko zaik, guri etorri zaiguna».

Bere leengo kontuak alaitzen du zaarra,
artatik artu nai du Sukuntzak adarra:
«Irri-bertso asmatzen zu ziñan bakarra.
Esazu Petiri'ren bizitza bearra».

Aurrenik ez-keiñu —kantari danena—;
ustu-naiean zeukan, bestetik, barrena.
Ain zuzen kantatzeko eska ziotena,
zan, bein ere egin zuen bertsu ederrena.

*«Ni nai Petiri Danbolin.
Gosea dakart nerekin.
Nik jotzen diet goserik ere
Denari soiñua berdin.*

*Nik ba dut estamu-miña,
ez jan-edanak egiña;
ala dirudi nere gorputzak
gazitutako sardiña.*

*Nik ez dut ortzean miñik,
ez dut ere eskas agiñik;
oraindik urrak austeko dauzkat
osorik eta zorrotzirik.*

*Ikusi nere sudurra,
larrua doi dun ezurra;
bean okotza okozpe-bage
iduriz golde-muturra.*

*Ikusi neren esku-gaiña
pagopearen lur-gaiña;
azal-tartean kabitzzen ez-ta
gaiñera atera da zaiña.*

*Izkutu daukat sabela
gorputza bezain zimela;
il naizelarik arrek kabirik
ez didate egiñen beela.*

*Ez dut atzean ipurdi
eseritzeko bururdi,
okela-apur bat bearrenean,
larru guzia zimurdi.*

*Koskarik gabe gerria
galtzarik ezin geldia;
jantzita ere gerrikatzeke
bi esku ezin balia.*

*Ortakoz iztarrak estu,
bat beste gurutzerratu;
alare larri, galtzirik ez diton
ipurdiraino beratu.*

*Gosari, bazkari, aula,
baratzuri ta tipula;
oriek janez kutsu-gaitzirik ez,
Jainkoak indar digula.*

*Ni nai Petiri Santz Arin
eztai orotan danbolin;
eztaietako bete-aldiak
ez dit onik beiniere egin».*



Bat edo bat ari zan, oi danez, azpitik
ark kanta-aala aurea artuz leen buruz jakiñik.
Bukatzean, «Ori duk!» guztien aotik.
Gazte-egunak tiete berritzen oraindik.

Ezin-egonez zeuden Beltxa'ren begira,
eder mintzatzen baitzan gaiaren arira.
Zer kirten artu, labur ixillik geldi da;
eztai-kanta au eman zun burutik mihira.

«Goizeon ikusi dut dantza bat portitza;
soka-dantza antolatzen ari izan da Apaiza.
Berak, danbolin alai, ezpaitan itza...
Olako biko aunitz betiko balitza!...

»Bein batez joan zaio Eleder men-mena
Meza nausi ondoan eskatuz baimena,
atera bear dula dantzik ederrena;
par-irriz eman dio, ezin uka dena.

»Adierazi dio zer ordu, zer egun...
berak ba dakiela zein dun dantza-lagun.
Aurretik opa dio grazi ta osasun
lokarri berri ori ez dakien astun.

»Etorri zaie eguna. Apezak neskari
diotsa: "Nai aal duzu andere Garazi,
Mikel Igarabide lagun izan beti?".
"Bai jauna" biz, irutan bipil du jardetsi.

»Urrena mutillari: "Orobat, il arte,
emazte nai aal duzu Garazi Iriarte?".
"Bai jauna" biz, irutan. "Eliza bitarte,
on artzen dut; esku ook elkar etzazute".

»Aldarera deramaz, esku-dardar pozik;
dantza santu orretan ez da zapikorik,
eraztun bana dute lokarrikoberik,
bietan bat il arte ezin utz eritik.

»Neska ta mutil lagun, biko onen atzeko,
ezin asmatu dute dantza au jarraitzeko.
Olastem aro arrem dagokienero,
ordurarte ez ikasten; ez baita besteko.

»Ai, ori da dantza, garu ikusi duguna:
bien eskuei elduz buru Apez Jauna;
urren, bata besteran betiko laguna;
ondarrean, mordoan, gazteri ikastuana.

»Eraztun ori-gorritz ein dute katea;
ezin daite gaugerero erditik austea.
Gerta baledi ere eskutik galtzea,
biotzen lokarria estugo daukea.

»Luza bedi kate au maitez eta maitez,
elkar erauntsitako alabaz ta semez.
Iñoiz Euskalerrian ikusi dugunez,
antola bedi dantza etxekoz bakarrez».

«Ori duk», ago batez diote Beltxari.
Xastian'ek isollik eldu maats-morkari.
Dantza aipatu du Beltxa'k; an ba da dantzari.
Maaietik altxa dira bukatuz afari.

Sukuntzak, deneri par arazten diela,
dantza-lagun billa du Borda'ko Mikela;
ezetz aurrena; baiña etsi du bereela;
oinbestetzat etzuten artu, gazte zela.

Ur bedeikatu-arri dirudin ezpaita
aurrenik ezatu du ibilliz mingaita: ;
beatzak an bustita jasoz anka-zaita,
agerian jarri du gorputz ez liraita.

Ez ain koloka aateak ibiltzen ipurdi,
ba dirudi iraultzera doan belar-gurdi;
zintzo dagoan arren, iduri du ordi,
ark bakarrik betetzen du mandio-erdi.



Lurra dardar darabil, airean besoak,
adar bi bekokian bailitu jaiok;
luze, zurrun, aurrera elkarri lotuak;
belarri-begi-sudur an izkutatuak.

Beatzekin kriskitin, noiz-bein ezpainaera;
artan, ukondoaz norbait jo ta luza aurrera.
Mokorrez berez ba du naiko zabalera;
ez diteke geiegi lasa aldamenara.

Oiñak beti batean, ziztu gogorrean,
puntu askoz darama danboliña atzean;
ala ardiak sasia duela ankarrean,
zizta sumatzen baitu errape miñean.

Parrez leertu-zorian daduzka begira;
ezpainaak ezin bilduz Danbolin ari da;
oraíndi ez dirade dantzaren erdira,
baiña an bukatu bear parraren neurrira.

Eztai-eguna baita jarik alaiena,
anka jaso bage ez da gelditzen gai dena.
An da Buztin, dantzari zenik ederrena;
kakotzen asia arren, dantzan bai lerdena!

Danboliña atertu da, zaldabaiak ekin;
Teresa Kaskazuri'k jotzen ongi zekin.
*«Amalau kaskabillo lau bara zintekin;
ederki dantzatzzen da gustokoarekin».*

Bikoak aukeratzen ez neke aundirik;
Mikela'rentzat ere ez inork muziñik.
Elkar billatzen zuten Peru'k eta Mari'k,
Urrena aien eztaiak zirala jakiñik.

XIV. EZTAIONDO

Anton Kokoak berekin artu
nai ditu koko-errira,
goiz-maatsak eslu zaizkiola ta
dizela janez maastira.
Aiek ebaki zuten leendanik
txangoa itsas-egira,
Donosti'n, beela, urteoroko
arraun-burrukak baitira.

Maatsa Kokoak aipa orduko,
albotik da Zimurrio:
udazken eder Beterrri artan
igaroa dala dio.
Goizenekotik asi ta azkenen
txiadillak bildu artio,
ez omen gose, zizta ta zizta,
idurituz erlabio.

Gogoan dauka osto-tartean
atemán zun azaria...
Egoa pal pal, ostoak bar bar,
sor zedukan belarria;
araxegoan iduri zaio
lurrera gurtzen orria;
biltzailerik ez, isil ta bakar
urbildu da gel-geldia.

Eizeak ua suma orduko,
izkutatu zun isatsa.
Ainbeste kale berdin! Noark ikus
arek zeraman urratsa?
Uste baiño leen lasa zitzaion
barnean zeukan arnasa...
Eizea baiño eskuanago
zeukan Zimurrio'k maatsa.



«Gogoratzen dut; bein Maiatzean
Basakaitz ostoz zegoen;
koko-errian anduak, igar,
bizi-zantzurik ez zuen.
Orain, ordea, orria malo,
piztiak daki izkututzen.
Orain bezala liztorrik orduun
ardantzean ez zebillen».

Uzta bikaiñak poz daragio
koko begi-gorriari;
goizean ez du andreak lanik
ontzen eltze ta zartari;
baraurik doa maastira; an ba
bazkal-arteko gosari;
bazkaria, aldiz, otordu bakar;
etxera doala, afari.

Ezin isildu, koko bati zer
gerta zitzaion beñola:
Eliz Amaren barau-legeaz
ez omen a'ri axola;
«San Matio'ren barau-eguna,
ardantzeraiño» ziola,
ale bat maxiz sartu-orduko
bertan koka zitzaiola.

Eriotz arek dardara zitun
koko ta malkor-erriko.
Andik aurrera baraurik iñork
ez zun nola nai utziko.
Sori-egunez aere maastian
oroitzen ziran aldiko,
leenen-alea «Aitaren»ekin
Zimurrio'k zun asiko.

Sasoia nai lu, berriro ere
ara txango bat eiteko;
damurik dago belaun-ikara:
artatik ez sendatuko;
leengo denborak oroi ta aipatu
aski balitz, gaztetzeko,
ua litzake, bere kideko
zaar orotan aurreneko.

Ez dauka aazturik oin-beso-gorri
sartu zala dolarean,
saskika maatsak ara jaurtiaz
tinkatzen zitutenean;
entzun-uste du mustioaren
irakiña kupelean:
alako xalda berorik ez da
eiten iñongo eltzean.

Anton Kokoak eskaintzen dio
bein, biz, azkenez, zaatoa,
mando gorrian igoz; urrena
elduko da axurtaroa...
Arteen, ez daki artzaiak bestek
neguaren arazoa.
Alare, bazkaz, iñoiz ez ainbat
betea du mandioa.

Bibelarrera sartuak ditu
ardizaarra ta bildotsa.
«Anton, pestara etorri zaite;
—gure Zimur'ek diotsa—;
laister baitugu». Agindu die
ekarriko duala maatsa.
Pesta-bezperan atzetik dizu
erri-aur denen isatsa.



Eztulaunditu da Zimurrio,
—extula ba zun artean—;
aren usiña sumatzen zuten
leguerdi bat bidean...
Leenen-izotzak eragin dio
gaztaiñari zugatzean;
igaz aiñako janik ez dute
atzemanen afaltzean.

Artoa, aurrera etorri eta
zorro-barrean gorri;
lastoa mardul... biamonean
ebaki baiño leen, zuri...
apal-ondoan ezin emanen
zatuka bana beieri,
belarrez ase ta aiekin gero
ortzaldea zaten garbi.

EBROTIK ITSAS-EGIRA

«Lur ontan ere, jendeak bizi»
dio Koko'k beretako.
Zer-esan ba du besteak ere
koko-erriarendako:
«Lau maats-adar soil negu gorrian
egurrik ez sutarako»...
Eder naiz kaxkar, sartua dauka
joa nork bere errirako...

Ebrotik itsas-egira ba du
Euskalerrriak baztarraik!
An zabaldua, emen mendia,
ur andiak iparretik.
Zimurrio'k ez dezaieke eman
gazteai ango berririk;
itsas-laiñoa sortu-lekua
ez ezagutzen, damurik!

Zubietatik Baztan'en barna
izandua zen Baigorri'n;
baita Akelarre ta Arpeak ere
ikusi Zugarramurdi'n;
ontzian sartuz Amerika'ra
joaten zala ba zekin;
baoám Donosti ta Baiona zer,
iduriz asmatu ezin.

Esan zaar batek euskeraz dio:
«Balio luke Baiona».
Donosti'rentzat oker ez lego
Baionarentzat diona.
Onetaz ere aitonak ba du
bost ipui eder entzuna;
baiñan maiz naasten, jardukitzean,
Donosti'rekin Iruña...

EZKONBERRIAK DONOSTIA'N

Ezkonberriak joanak dira
lur berriak ikus-aala.
Aurregunetik iritxi dira;
agertu zaie zabala.
Amaika arrai ta giza-bizitza
gordetzen ditun magala!
Barerik dago, belar-euntzea,
gari-alorra bezala.

Lurrak bi adar: Uguill, Igeldo,
ugartea aien erdian.
Zuzen begira, erabat ura,
zeru-lurren muga, aurrean.
Lurrik ikusten ez dan tokitik
biribil omen barnean...
Sabel da beti; ontzia, berriz,
beti zilbor, doanean.



Lurraren mugan esirik ez du;
zelai eta apur, ondarra;
ark ezitzen du, Jaunak aginduz,
ur aundi aren bularra;
artalde xeea bezala, aurrera,
milla kosketan aparra;
irakin-otsa isiltzen zaio
iragazirik indarra.

Ekaitz gogorrek aize-burrinbaz
ughiak lertzen baditu,
an dago geldi, denak ezitzen,
gora jaso bage buru...
Ale bakoitza berez aul dala,
—edozein aizen jostaillu—,
elkar artuan, indarririk ez da
deragionik zotuku...

Aldiz aldian orro barne bat,
—ughiña leer-aldi-oro—
itsas-barrenak bialtzen die;
zer nai dun ez da nabaro.
Illuntzen ez du, alaitzen ez du,
sor edukitzen luzaro.
Bein burutatzen asitakoan,
orduak doaz emaro.

Gogora zaie baso-zugatzen
erabateko surmurra;
axalagoa dala, alaitzen du
gorputz, odok, zain, ezurra.
Bein, pagopean artzaia zegola,
Elederri lo lapurra
etor zitzaion; arbi-garai zan,
ta ardiek esiak urra.

Ego-aizeaz, Guraz-gaiñetik
ikusi zun itsasoa,
urdin beltz; orain baegi-aurrean
zeukan, aren antzekoa.
Urren Guratza'z igo daitenez
ezagu garbiagaoa,
besteek berari bezala, berak
besteeri agertzekoa.

Ontziska bi-iru, bakan, ez urrun,
txori-mozorro antzera,
aizerik ezta oiala zimur,
arraunez doaz barnera;
ezin igarri azkeneen ua
datorren, ez, legorrera;
itsasotarrak igar lezaio
leenengo begi-kolpera.

ESTROPADAK

Illunabarrak aizea dakar;
indartuz doa gauean;
arraunlariek arenik ez nai
biamon-bazkal-aurrean.
Ogeiez beetik irabaztunak,
erronka ari zan kaican:
aize-ziztuak ixildu ditu
arrandiak ezpainean.

Ezkonberriek etzalekuan
entzunik milla takela,
jabetzen dira, Euskalerria
an-emen ber-bera dela...
Egun aietan jendeak bero
barrena bezain sakela;
biamonago, burua kuzkur,
jan-ariñago sabela.



Donostiarrek etzuten, ustez,
etsairik Getariarekin;
Zumai ta Zarautz janik zeuzkaten
barran agertzearekin.
Albotik batek esaten die:
—«Begira aztien itzekin!
Joku-aurreko igertze orrek
ez dik gauz onik berekin».

Oraingoan ez da Bizkaia'tik
bildur daragin Ondarru,
—Donosti'rekin aurren-urteko
zorrak ordaintzen lana du—.
Aren itzala sumatu bage
lasai Donostia'k oiui.
Getari isillik ari da aspaldi,
Elkano'ren jaio-leku.

Gizon umo bat, Debarra, ari da
zein eder dan estropada;
biotzarentzat beste kirolek
ez omen ainbat dardara.
Urterik utsik ez omen, ogei
urte zitunetik ara:
jun-etorriak azal detzake
gazte aien nahitara.

Ontziak ola, arraunak ala,
mutillak ez aundiegi,
zama aundiz alana bota ez dien
gaiñez beren burueri.
Lerden, indartsu, besoak zaiñar,
gorputza, berriz, giarri;
sabela serail, lepoa legun
batez ere biguin gerri.

Ontza gutxiren aldea dute
ontziak ontziarekin;
gizakiena berdindu dute
indarren aldearekin,
Patrioak ez du gutxien eiten
neurritz keiñatzearekin,
eta, batipat, biatz-emanetz
noiz-beingo oiui beroekin.

Irten-sartuak ikusi omen
zuin ondoko ontzi batetik;
aruzko mugan, zuztaka-atzean
bai giltz-egiten, bestetik.
Urguill-mendia, ugarte ta abar,
Donosti'k ez du zokorik
ark estropada nondik obeki
ikus, saiatu ez denik.

Gazte arrotzai adieraziz
bein ikusteko non obe,
biamoneko deituak ditu,
aintzat artuko balute.
Zer egokigo? esker emanetz
pozik erantzun diote:
ezagun bage bein begiratzuz
baeta galtzea litzake.

Biamon goizez ontzi-antola
ez omen-diteke galdu;
ikuskarririk ederretatik
itsas-kirolak au aal du.
Ezin egonez oiean omen,
eguna noizko zabaldu:
—ala pasatzen omen du gaua
geitxo dularik afaldu—.



Lagun berriari agindu die,
lotan baleude goizean,
erantzun arte, bein ta berriz «kosk»
egiñen diela atean...
Ez zen goizegi jeki bearrik
oiturik zeuden aldean;
egunero ordu ona lukete
lanera diradenean.

Esnezaleak atez ate ta
eek, kalez tsas-egira.
Uri aundian amaika loti
maindire-tartean dira.
Ez dira esnatzen eguzki-izpia
etorri arte begira.
—Egun aretan eguzki ere
makar-gabeko jeki da—.

Mendiak gorri, zokoak itzal,
legor-egaztiak esnai;
odei-laiñoren liparrik ez da;
lepo-ondotik egoa nai;
goiz-usoren bat igaro dedin
mendian eiztaria zai;
itsas-gizonak, arraunketako,
egualdi isillaren erpai.

Itsas-kaietik bana-banaka
ontziek joku-lekura.
Artzai-kaikuan esnea bezain
lasa, zabalean, ura...
Marka añndiren bat egiñen dute
mentzen ez bada gazura.
Bat edo bati asia zaio
diru-poltsaren azkura.

Ikus-nai batzuk, kai-baztarrera,
ontziak dauden tokira;
igurtziketan nor-beareari
ekarri-aala ari dira;
agoz-beera ta bizkarrez-gora,
saieska, noranai bira;
oiu bat noizbein erakustunak;
zintzo, aren itz-erdira.

Negu gorrian lastargiekin
ala zimeltzen txerria,
bizarra soilduz, larrua zuriz,
urdaia agertuz guria:
agoz-gora artzen duten aldiroa,
barna dirudi idekia;
auspez jartzean, «lamera-bale»
deritzan arrai aundia.

Leenik, tipulaz igurtzi; gero
pizar-autsez utzi dirdai;
uretan errez irrista dedinñ
ere guziak eman nai.
Ontzi bat alde, ontzi-erdi bat,
mutur bat beintzat, kendu-nai;
ainbat indarrak berdinduz, iñoiz
sartzen dira «ni bai, i bai».

Aurrerapena, ontzi ariñak,
itsasoa bare dela:
legun ta legun, ez legunago
aingirearen sabela.
Arontzakoan lagun, ez aundi,
gibel-egoaize epela;
onontzakoan ez etsai ere
uiñak ekartzen dutela.



«Ogeiez beetik»: au, entzuten dan
aize-burrumba aundiena...
Zortziak dira; nekez datorke
ipar-aize nabarmena...
Geroenean etor leikio
erronka a'ri jardespena;
biur liteke pirrinta xorrotx
odol-zirrara duena.

Eguzki'k jo dun bisuts iduri
pizar-atsaren dirdaia;
aizean gora ta beera dabil
aizea baezain ez-baia.
Eguzki bera dirude, ua
ala xeetzen duan baia;
uda-neguen edertasunak
betan edertzen du kaia.

Batzuk urrundik etorri dira,
zaato ta puska zorroan;
beste batzuek erronka ausarki
ardandegiko zokoan.
Mutillen berri dakien batek
aznaia dauka kolkoan;
ustez ark ainbat dakin besteak
itzak ere baia agoan.

Donosti baietz, Getari baietz,
baietz ogeiez azpitik.
Alako bian donostiaraek
eskaintzen dirua goitik.
«Diruak diru balio dik, i»
diotsa batek albotik;
«erdi-dirua bi alakotan
biru duk uste bagerik».

Fola arei dira bi ordu artan.
Bertan, barraendik iparra;
minututarra arnasa kenduz
artzen du ta artzen indarra.
Aietan batak, txapela arrotuz,
beazkatzen du kazkarra.
Minutueri pakean utziz,
aldatzen du deadarra.

Aizeak biztu, urak zimurtu,
erronka aundiena, aizeak.
Amaikak. An-or, ugin-tartean
agertzen dira arkumeak.
Ekaitzen baten bildur, dirurik
egin ez duten jendeak.
Aize-burrumbak izutu orde, z,
odol berogo besteak.

Estropadarik ez ote-egingo?
Iraungo ote eguarterean?
Itsasoaren asarregiaz
utziko ote urren artean?
Ola daudela, gorputzak gorri,
arraun egiñaz batean,
donostiarrak agertu dira...
joka diteke, arean.

Asarregorik urak ez baitu,
ubel urrena Getari:
urre-kolore Zumai urrena;
Zarautz azkenean, zuri.
Saio egiñez urrundu dira;
orduarekin etorri.
Zotzak egiñik, egoki dira
ubel, ori, zuri, gorri.



Gure gazte ook, Santa Klara'ra
ditu Debarrak eramán;
bide dena ta arozko balizak
ez ala ageri inondikan.
Ark adiraziz konpreni zuten
nonbait-or, joku au zer zan.
Amaikak ez du ainbat ikasten
bakarrik, iru lauetan!

Tokirik ezin artuz, jendea,
leen zeukanetik bestera:
zein arkaitzetik, zein gaingunetik,
obeki ikusten ote-da?
Ontziak lerro dauden ezkerro,
erabat bear aukera...
Arraun-jokuak, ikuskarririk
ikuskarren, irtera.

Urguill'pe jendez bete baiño leen,
ala arantzan tximilloa,
gero, beteaz, arkaitz-inguru
dabillen erle-mulkoa;
mando-zurrira eulia ala da
ongi zorrotuz miztoa...
arri koloka mugi delarik,
sendogo batera doa.

Guziak geldi; arraunlariek,
adoia artuz kibortari,
ezin geldirik; sumatzen dute
eskuan biotz-izerdi:
lepoa luza, biran eragin,
eskua luza, biran eragin,
bartzarrera so, xortu naiean,
begiak maiz itxi-ideki.

Arraun-endaia saieska jartzen,
—ala dagola leendanik—,
ezin asmatu, kiborta beti
beatzetan aztaturik.
«Erne zaudete» maaiak esan du,
—etzuten leen ere lorik—;
leentxeagoko turuta jo du;
patroiarengana begiik.

Aren txapelan dagon euliak
lasago dauka barrena.
Ontzietara zuzenik dago
begi guzien eztena.
—Eztena argi-izpi biur baledi,
sorgin-orraze ederrena.
Ontziek argi egingo lute
balira ispillu gardena—.

Patroiak atzez estatxa atxi-ta,
—txakur-isats iges-naia—,
mingainka ari da, sar-ateraka,
mutillen arraun-endaia,
ontzia dar dar baitabil eta
iduki naiez arraia...
Biotza gaiñez estu ez dedin,
ezin luza asi-garaia.

Astiro «bat, bi iru, lau» entzun ta
keiñu ber-berak artuaz,
bat baterago ezin atera
beurri berean sartuaz.
Leenengo txanpan alde egin nai, ta
iru, moko mokoz, doaz.
Donostiarrak atzera dira
zalapartaka naastuaz.



«Irtera txarra»; baiña Getarik
kaletan ango baztarra;
ugarte-alde dagon izpurak
kenduko dio indarra;
Donostik, leku ohea dula,
zuzen zake irtera txarra;
txanpa-lekuan utzia digu
aldi bateko aparra.

Orain oiua, orain dirua,
begi erne, biotz itsu;
oker ikusten dutena bera
barnean biur zaie su.
Poltsa-dirua, ezpainen itza
bertan nai lukete ustu.
Gero kontuak;
oraingo, beintzat,
egin dezaten apustu.

Txanpa buka ta joa bakandu
patroi-besoaren neurritz;
arean oiua «ots, nere seme
ederrak» bein eta berriz.
Zumai ta Zarautz leentxago doaz,
batera, besteak utziz;
ontzi-erdi bat Getari baiño,
Donosti baiño bi ontziz.

Zumaiar mutil batek, onetan
arrauna jaso zerura;
autsi zaio ta ordezkua du
autsi dun aren lekura.
Zarautzek alde nai lioke egin
ikusiz aren estura;
uste baiño leen, eupada berriz,
sartu da bere jokura.

Getarik ba du ur lasterraakin
egundaiño berruka,
Donostigandik atzeratzeko
bildur bizia daduka;
beste berrogei ukaldietan
ez badu egiten uka,
andik aurrera, lasai arnasa,
kezkarik deus ez leduka.

Donostiarrek ezin berdindu
txanpan ein duten galera;
patroi berriak biotza galdu,
mutillek ezin aurrera;
arra bete ezin urbildu dira
Zumai-Zarautzen aldera;
Getari, berriz, aurrean dute
goituxerik ur-joera.

Bide erdirako urbildu zaie
ontzi betean Getari;
indarraldia larritxo ta,
etsiz doa neurriari.
Bira artzekoan berdin lezake
orain duten alde ori;
ta andik zuiñera neke gutxigoz
guzien aurrean jarri.

Zumai-Zarautzek ba dirudite
bata besteren itzalak;
bi gurdi-zaldi, esku bakarrak
daduzkanean egalak;
noizbein putreak ala darabiltz
jaso ta makur egalak;
uin batek berak jasotzen ditu,
batean gorde magalak.



Itsasoak doi-isil lezake
 legorrekoen takela;
 batzuek leenik Donosti eta
 besteak Getari dela.
 Urrun baitira, begi-aurrekoz,
 —ezin bereizi bestela—
 saiatzen dira; gauza garbirik
 ozta atera ditekela.

Atzeka ageri diran arteo
 neke da nor leen igartzen;
 baztar baitoaz, otezko gauza
 uin berak ditun jasotzen.
 Denok nai ainbat lutzatzen dute
 arozko muga bigurtzen.
 Ordua da ta zerbait berantuz
 ikusten dituzu urbiltzen.

Zumaia asi da ontzi-saieska
 zuztakaren ondo-ondotik.
 Zarautzek bira zabaltxago du
 gelditu bage zizturik.
 Arek il baitu geitxo burrunda,
 naiz bira laburragorik,
 ipurdiz moko diradenean,
 batere Zarautz aurretik.

Bi ook zuzendu diradeneko,
 Getarik oker mokorra;
 beela Donosti'k dirudiela
 bigarren eultzi-beorra.
 Donosti leentxo zuzen dalarik
 Uргуill'dik oiу bizkorra.
 Andik mugara leenen sartzeko
 ba dute eskuan kozkorra.

Getarik gogor eraso dio
 uin-gaiñetik baliatuz;
 txanpa labur biik usu dakarte
 uinak adin bat korrituz.
 Berdindu ditu, igaro ditu
 ontzi baten aurrea artuz;
 bere batean dator, indarrak
 azken-unera bialduz.

Getarik denak ikusten ditu;
 Donostik deus ez ikusten;
 begiak itxi, arrauneri indar,
 etsaia noiz dan arkitzen;
 alako batez, «ondoan gaituk»
 patrioiak oiу egiten,
 «Donostiagarik, seme ederrak,
 gizon atera gaitezen».

Nai dunak aal du; Donosti orrek
 artu du berriz joera:
 arraunlariek sumatu dute
 Zarausko ontzian ubera.
 Bertan dirala gogo-arturik
 ein dute beste sarrera;
 ogei ukaldi eman orduko
 eldu zaizkie parera.

Erbi-atzetik zakurra alaxe
 zantzua berri ikusirik:
 ikus, atzeman, aurrera artzen du:
 eldu bear muturretik.
 Ala Donosti gaillendu zaigu
 Zumai-Zarautzen aurretik.
 Asi-lekura leenbizi sartzan
 lana bear du Getarik.



Zumardi-antza —erdian kale—
oial-ontzi, lurrin-ontzi,
aize-burrubak jo ditun gisan
batean dute ein irrintzi.
Turutak asi zalapartaka,
mutillak il edo bizi;
ez eun eiztarik, berreun zakurrek
basoan ainbat karraisi.

Elur aundi-iges zelaietara
etorri dan basurdea
inguruka ala ertsi oi dute
oiua sortuz ta kea.
Elkarren txandan, gizonen eran
urratu bage bidea,
atsedenik ez, belaun ta bular
biltzen baitute nekea.

Mutillen bati, leenik ez bazun
bear aiña zorabio,
marru mintxo ark belarrietan
furrunda gaizto dagio.
Ez da agertuko bukatu arte.
Patroiak gogor dakio
soiñu ua gortuz, oiua ta mintza,
erabat garai artio.

Itsaso aundiik itzaliz artu
oi du urubi aundiena;
ezin itzali bertan bertako
giza mintzorik aulena.
Lurrin-ontziak bakan baitzeuden,
itxasoaren barrena
ez dardaritzen legorra adin bat;
emen zuten larripena.

Begiak erne, nekatu ziran,
ez zuten zillegi ixtea;
aurrerakoan, belarriekin
erditzen dute nekea.
Mugara artean gero larrigo,
arnasa laguntzaillea;
nork beretarra orain baiño orain
ikusi nai jalkitzea.

Oiu-furrundaz laguntzen die,
lepoz ere egiten deiñu;
ez aurreratzen aiek nai ainbat;
sortu zaie bildur-listu.
Ara, Getari, elkarretara
zuten katea autsi bailu,
eriosuar aurrera zaie:
ark eramanen apustu.

Zumai ta Zarautz, au ikustean,
oldartu dira; Donosti,
aurpegiatan oiñaze dula
gelditu bear atzeti.
Andere batek Uguill-aldapan,
aurra zintzil bularreti,
eskuak jasoz esaten die,
belaunez cutsiz azpiti:

«Donostiarrak, non dugu gatza?
Gure aitona balego or!»
Ura sar zaie; leenez gaiñera
berekin dute naiko lor.
Zarautz aurrera, naiko alaare
Getariarra die zor.
Zumaia ere, aalegiñetan,
onen orpoz orpo dator.



Azken txanpa du Getarik.
 Ua itsasoa jan bearra!
 Zerura arraunak jaso ditute,
 erre dute leengo marra.
 Getari ixillak lau aldetara
 zabali du deadarra.
 Amabost arraun-ukaldiz gero
 sartu zaie zarauztarra.

Andik bitara Zumaia an dute;
 Donosti andik seitara;
 kukuak oker egun artan jo;
 ook bear zuten bandera.
 Ola diote, dirurik egin
 ez dutenek; buruz beera
 egin dutenak; sakel-agoak
 ustu zaizkie batera.

Zerura arraunak jaso bezala,
 erori buruz ertzera,
 —axuari jaio berriak ala
 lepoa zintzil lurrera—;
 gizagaiso bat buruz kanpora
 jan ez duna botatzera;
 beste bat, biguin burua artzeko,
 beso biak gurutzera.

Bekaiñak dardar, buruan ostots,
 begietan —naiz itxita—,
 eraztun ori-gorria dir dir,
 dirudiela tximista.
 Biotz-pilpirak belarrietan
 atera nai du gaindizka.
 Beso ta gorputz ikara daude.
 Gerogo... lotsaren zizta.

Getariarrak zuti... geienak;
 batek, illaren taiua.
 Aizka bat bide geigo balute,
 zut eramango burua;
 aizka bat leenik geldi balira,
 berdin eror aunatua:
 usteak eusten;
 naiak aal eman;
 irabazteak, gar-sua.

Mín zuria arek; denen ikara;
 bidean ez izana poz;
 —patroiak mutil bat bota zizun
 saioan izan zulako—;
 larrua zurbil, ezpafiñak ubel,
 zaiñetan ematen du otz...
 Arek lagunuen arreta bear
 ta an ditu guziak gogoz.

Urguill'dik eta kai-ingurutik
 etxera bar bar jendea;
 itsasotarrek, lurrera bage,
 dute bazkari-legea.
 Ura aparretan utzi bagerik
 atera da arraunzalea;
 lurrin-ontzien arnasa dago,
 gudu bizi aren kea.

Apustu egin, irabazi, ta,
 itza merke, erri-zokora:
 ardo, sagardo-edale bizkor
 ba doz Irutxulora.
 Galdunak, berriz, itz asko bage,
 ez begira nai iñora.
 Gora begira, itzul-inguru,
 antxitak zerua gora.



Ke artaz gaindi pakea dago;
ke-tarte artan, naaspilla;
antxitak ere zalapartatik
igo dira pake-billa.
Galdunak, argi burua; baiña
naasia biotz-pilpilla.
Urrengo batez isilduko du
diru-gose ezin-isilla...

DONOSTIA'REN EDERRA

Ezkonberriak atsalde-erdian
itsasaldera berriro.
Ainbat istillu goizean, eta
atsaldean pake-giro.
Iru, lau ontzi, geldi bezala;
itsas-zabala garbiro.
Burruka gogor aren aztarnik
iñork ezin arki liro.

Kerik, aparrik, oiurik ez da;
erabat urdin da latsa.
Lurmendu denez, alaxe galtzen
basurdearen urratsa.
Lurmen dagola, aizean naasten
orbel garoen kalpatsa.
Guda-lekuan luzaroago
il diran aien kiratsa.

Donosti-inguru guziak ikus;
zein ta diran zoragarri,
legorrez ainbat ez dira arritzen;
urera begi belarri;
baso ta mendi, belardi ta lur,
errian ikusten sarri,
ez orrelako zelai aundirik,
ez baita ageri mugarri.

Urguill-mendian eseri, egon
—leengo aldean, bakarra—;
ikusi, entzun, bakan itzegin,
erdi-lo dute oarra.
Ertzetan, leetuz, bestetan ez da
ageri uiñen aparra.
Ola daudela, oartu bage,
gaiñean illunabarra.

Eguzkia apal etziñaldera;
uretan urre-galtzara;
—bide artatik iñolaz ere
joaten Amerikara—.
Erraiñu arek jarraitzen die
eguzkitik oiñetara.
Alako batek lilluratzuz, bost
joan ziran uretara.

Kaiera doaz; baiña joanez
eten dakie bidea.
—Urrea janez, tarte jarri da
Santa Klarako ugartea—.
Araxeagoa, ta, berritzen dute,
—mingarri baita galtzea—;
luzaro bage ikusko dute
eguzkiaren sartzea.

Urre-bidea itzali zaie,
—eguzki zan iturria—.
Egizkoaren orde baizik ez
begien txoragarria.
Etxera biur diradeneko,
—urtea baita joria—
egiñen dute, gezurrik ez dun
artapil gorri gorria.



XV. AMONAREN ILLETAK

Ongi zekian Garazik leenik
 illeta-jantzia zer zan;
 jantzi orretan, pozenik zala,
 Elizara joan baitzan.
 Zerimoni au bearra zuten
 Naparroako oiturretan,
 il-obietan etxeandretzen
 baitzan egunean bertan.

Euskal-errian, urren igandez
 ziran, agiz, etxe-jabe:
 etxandretzerik ez baitzeukaten
 illenik eskaiñi bage.
 Oraño oiturak ala diraute,
 galduz ba dioaz ere.
 Iri nagusi galgarrietan
 jun dira zuzenez beste.

Emaztegaia an, usapal zuri,
 bildots erru bagekoa,
 birjin-koroia buruan eta
 atzetik isats arroa.
 Aberats dala, garbi du, nonbait,
 bataioko soiñekoa.
 Illen oroitzez nola illundu
 egun aretan gogoa?

Garazi, ezkon-meza ondoan,
 il-obietan eskaiñiz,
 goienik barren, denetan koka
 apaizarenetik asiz.
Pater bakoitzaz, zortzikoa du;
 etxeakoan, bein ta berriz.
 Ez bedi geldi etxekorik an
 lurreko otoitzaren premiz.

Etsairik ez zun; izanik ere,
 illen bitartez aiskide,
 biotz zabalez lurperaturik
 gorroto eta asper-bide.
 «Euskalerrian illek agintzen»
 egia ez balitz ere,
 egun ontako jardun-bideak
 goitik ematen du fede.

Obi bakoitzak gogora dio
 pamilien gora-beera:
 batzuek galdu, besteak etor,
 zulo berean billera.
 Etxeak bere baitu, naiz alda
 esku batetik bestera.
 Leengoek saldu nai ez dutela
 arriskua du galtzera.

Etxeak are iraun lezake
 sortu zutenez urrena;
 odol-aldatuz ala galtzen da
 leenengoan aztarrena.
 Etxeak ere, naiz alda dezan
 leenengo aren izena,
 obia an dauka barrenagorik,
 artan leku dutenena.

Izen bat oso itzali-ta ere,
 nork otoitz egiñik ba du.
 Obia galduz, illen oiua
 entzun lezakenik ez lu.
 Olakorik ez dedin, etxe ta
 obiak oi dira saldu.
 Anima aazturik Euskalerrian
 ez daiteke errez gertatu.



Ain zuzen ere, *Irurte* etxea,
aren maiztar *Errekalde*;
—pamilietan zer aldaketa
aldiak ekar lezake!—
Etxea saldu, il-obirik ez,
Munoa zitzaion jabe.
Ortaz elizan gelditua da
azken-biztegia bage.

Beste etxe baten obira doa,
eziñez maiztar egiña;
sua galdu ta eragin-berri
zuten il-ezki samiña.
An dago, ordea, galdu bagerik
illen etxe-txoko miña:
urren jabeak isil dezake
otoitzez ango intziriña.

Euskaldunari min dio, aiten
etxea galdu bearrak;
illak, ordea, etxe beretik
jarraitzen ditu negarrak.
Beiñere ez dizu etxerik galtzen
dirauten arte su-garrak.
Lur ontan, etxe ain iraunkorrik
ez dute nausi-maiztarrak.

Etxe batean, bi, iru sukalde,
izan ez ta odolokide,
illen animak, zenbanai gorputz,
oro dirade senide.
Ez etsaigorik, ez gorrotorik,
gauza bearean gogaide:
oben-ordaiñak atera eta
egin zeruraino bide.

Maite-egun artan beste eragiñik
ez balu ere Garazik,
biotza maitetz gaiñezka dio
egurats goxook obitik.
Etxeandre da, emazte da: au du
poza poz denen gaiñetik.
Geitua alaare, esan diteke,
zirura andi igoengandik.

Aialdekoek lagun zioten
erdi-illetaz Elizara,
soiñean mantoï nabar beltz banaz,
oroitz aurreko legera.
Elizkizuna buka ezkerro,
zerratela etxera,
kentzen zituten. Etxe berria,
illetaz andrea bera...

Gerriederren etxe aretan
Erio zebillen urbil;
aize zorrotza bial aurretik,
bera atzetik mozorroz bil.
Eztaiondotik itzultzerako,
amatxi ogean umil
anderrai-miñez, atzeman zuten,
burua zuur, ez il, bai il.

AMONAREN ERIOTZA

Matiste Elbarren, amandre zizun,
amaren ama, Garazik.
Sei urtez geroz ez zun ezagun
etxean beste amarik.
Ogean ez zun egun bat egin,
erditzekotan besterik.
Igarri zion ordukoan, ba
zoala mundu ontatik.



As-nekez, itzik ezin egin ta
indarka aziaz bularra,
atera nai du gazte aientzat
aholku denen ondarra:
«Zaitetze zintzo, gorde zazute
gurasoen fede zaarra;
pakean bizi, lanean jardun.
Au dut esan nai bakarra».

Il-ta bezala, burua makur,
egiñik indarraldia,
arnasik ote, urbil zaizkio, ote
biotz-pilpira geldia.
Gero, begi itxiz, esnai ta ametsen
tarteko dan marmaria.
Azkenik, «oiñik ez dut sumatzen»;
anima zun gora asia.

Apeza an zeukan ondoan, *Jesus*
esanez bein eta berriz.
Elizakoak emana zan ta
erne zegoan belarriz.
Alako batez, dardaraldi bat;
Jesus emanik azken-itx,
aurpegia alai geldi zitzaion,
bi ezpaitetan par-murriz.

Bi malko oikorik ez zun aurtiki;
bi, Garazik, aren ordez,
isil isillak, barnean zuen
biotz-min aundia gordez.
Amarik bage geldia baitzan,
aski ba zekian miñez.
Orduz geroztik, aren begiek
beñere ez zuten gaiñez.

Eleder, isil, atsekabean
Gerriederri laguntzen,
itsas-ertzean zegonen baiño
barrenagotik pentsatzen;
gaueko beilan zer bertsu egin
bere gogoan iraultzen...
Illaren egin aipagarriak
bertsuz baitziran ematen.

Aide ta aiskide, lagun, ezagun,
illari elkarren leian
gorputz-aurrean esan oi zion
bakoitzak aal zun neurrian
asma zuena; zitela, azkenik,
gertatu zero-erdian.
Ez da aunitz urte galdua dela
oitura au Euskalerrian.

Gaua zan, itsa; jende-mordoa
bildu zan aipuetara;
leenik, agopez, otoitz onen bat
ba dute zeruetara.
Etxekorik ez gauza beste inor
agertzeko bertszuz ara,
ta Mikel asi denen aurretik
mintzatzen arau ontara:

ILLETA-SOIÑU

«Ezkonduren pozaz batean
ildakoaren samiña
gaur agertzea neri dagokit,
ene emazteari aiña.
Siñes dezake nornaik, ba dala
zure iltzean bi oon miña,
bi ook elkarri bear diogun
maitasuna bezain ziña».



«Illoba onen aurreko ziñan
aurpegiaren eitean:
begiak legun, ezpaiñak biguin,
gorputza taiu berean;
biotza, berriz, gorderik arren,
berdiña, ager oi danean:
min izateko ba dut biderik
amandre onen iltzean».

«Elbarrendarren jatorrikoa,
mihiz labur, luze egitez;
besteen izenik ez zinun beztu,
zurerik ere besteek ez;
auzoko obenik ez zinun aipa,
artako bide eman, naiz ez;
biderik ere zuk ez besteeri,
kristau onari dagonez».

«Jeki, su egin, —besteak lotan—,
aitzurra artuz baratzera,
bide-nabarrez aamen goxorik
ote-liteken eltzeraz;
etxe-baztarrak zillar iduki
goiz goizetik arratsera;
gizonezkoak, lanak egin ta
lotara; zu, ardatzera».

«Lio-lan latza, lanik maiteena,
urte guziko arloa;
egunezko lan denen artean
artu-utziz jarraitzekoa;
negu-erdian berotzen zinun
artzaiz otzaren zangoa,
galtzerdi, bartan, bi aldagarritz;
bi soñez gorputz osoa».

«Ez zinun utsik bein ere bial
eskalea ate-ondotik;
sukal-barnera bai sartu, eta
eman ere maaiekotik;
etzauntza garbiz irastorra ta
bi maindira, zeuk egiñik;
bizi zaraño ez zaie aaztu
etxe ontara biderik».

«Esku-lanari bezain gogorik
ezpaiñei isil eragin,
egun guzian atertut bage
ari ziñan Jaunarekin,
etxe koentzat grazi ugari
erdotsiz otoitz arekin,
zeuretza, berriz, santutasuna
egungo zeruarekin».

«Maaia bedeika-ondoren, beti
ildakoentzat erregu;
Elizan ere ez zenien iñoiz
zor zitzaienik ukatu.
Oñazetatik zuk atereak,
ala, bidera zaizkitzu:
ez da arrigarri egun ontatik
zeruan arkitzea zu».

«Santa Garazik artu zaitzala
zenion jaiera beroz;
Aspelats'en dun Elizatxora
izan oi ziñan urteroz:
urterik utsik ez zinun egin
oiñak jaso aal ezkeroz;
"Aita Gure" bat esan zenion
Errosarioan gaueroz».



«Aingeru Aundi Aralarkoak
orobat artu zaitzala,
atsekabeen billa baitzinun
aren egarte zabala.
Ama Birjiñak edatzen dizu
bere errukizko magala;
denen artean zabaltzen dute
zuretzat zeru-atala».

«Zeruan goien Irutasuna,
Jaungoiko aundi ta maite,
besoak zabal, zuri begira
atsegin ederrez daite;
ori baitzinun mundu onetan
izan guzien izaite.
Beso aietan menderen mende
zorionez gerta zaitte».

Mikelek bertsu oek esanik,
aaideek aren urrena
asmatu zuten gorputz-aurrean
biotzak eman ziena.
Aipatu zuten odeiak gora
amandrearen izena;
otoitz egiñez gorago jaso
anima, berez zuzena.

ILKIZUNA

Ehortz-eguna, biamonean;
etziramon, ilkizuna,
aaide jendeai otsegin arte
iñoiz luza bear duna.
Pesta —ala da ta— naiz ekar beza
esanak itsustasuna:
zenbat sabelkoi egoten dira
noiz etor elizkizuna!

Ehortzikoan, eramailleek,
sililik dute gosaria;
ilkizunetan, gosaria ta
bai bazkari ta afaria.
Erri guziko nausi ta aaideek
egiten dute eguerdia;
maiztarrek, berriz, guziek, naski,
arratseko janaldia.

Eramaileak ezartzen dira
aaideak berak baiño leen;
il-ogea nork eramane, odrtaz,
ez da nekezko billatzen...
Ez aaide, ez nausi, ez maiztar-buru
izanik, zenbait da sartzen!
Otordukoan etxetik kanpo
lan da alakoak botatzen.

Illaren bizkar ase nai eta
Apezpikuak gaiztetsi;
eskomikuaz keñatuta are
sabelak ezin siñetsi.
Naiz Bataioan, naiz Eztaietan,
ez ainbat ardo ta zitzi...
Ezkurrarraren kontu bitxia
esanik nai dizut utzi:

Gizagaiso bat iltzear zegon.
Semeak koko-erritik
illetarako ardoa dakar,
—oiñak zaizkion artatik—.
—«Aita, diotsa, illetarako
ekar dut Peraltakotik».
—«Ikusi, seme, nolakoa dan»...
Txurrupe artzen du basotik...



—«Ai, seme, seme, ba lego ontatik,
are bizi nindekezu».

—«Ez, aita, biar, bizirik, illik,
Requiem entzun beazu»...

An egiten dan sabelkeririk
adirazten ez noazu.

Zenbait oitura gogoangarri
buruan zuur ar etzazu.

Illa lurpera duten egunez,
ardiaren bi bizkarrak,
ogiz lau libra, iru pinta ardo,
—bakaillo-azal bi, maiztarrak—.
Iru urtez jaunek, biz mendekoek
argi-olaren sugarrak;
ogi ta txanpon, nausiek beti;
bi urtez, jende bearrak.

Ilkizunetan aari bizkor bat
bizirik Eliz-barnean
Domine Iesu Christe entzun arte
daukate Eliz-atalean.
Orduan sartzen, *operarako*.
Eskainia dutenean,
bereela atera, aragi egin,
apaizentzat bazkaltzean.

Iñoiz gertatzen izu samarra;
argiek dute lausotzen;
apaiz kantari aien orroek
geiago oraindi ikaritzen...
Adar ta kalpar eldu ta artzaiak
ba du lan aurrera sartzen:
atzera tira egiten baitu,
ta arri-losan irrizatzen.

Ortakoz, aari otzan bat, agiz,
iduki oi dute errian,
zalapartarik egin ez dezan
orduan Eliz-erdian.
Meza denetan au erakutsi,
ta andikan sar artegian...
Aren ordea, zenbait izu dan,
baretzen dute maaiean.

Ba zun aari bat, eskurakoia,
Garaziren aite Petrik;
lau urte ditun aur bati ere
zintzo jarraitzen atzetik.
Mutiko bati egotzi dio
eraman dezan eskutik.
Uki bearrak etzun izandu
adar eta kalparretik.

Garai zalarik, atea zabal,
arin pasaz atal-arri,
andre-tartetik Apaizagana
sartzen dira mutil ta aari.
Mutillak, bildur, mun egin dio
Apaizaren estolari;
aariak usai, erdi-bildurrez,
aren soñeko ertzari.

Apaizak ala Bildots otzana,
eskuan artuz Ostia,
Mezerdikoan Kristo ber-bera
biur dalarik ogia.
Guziak isil, geroxe kanta,
Meza buka da guzia...
Itzaltzekoan, usaiez dago
erre dan argizagia.



Goiz bazkaldu ta, gizon, emazte,
Absolve-elizkizunera;
 moxkortu bage geldi diranak
 oro doaz Elizera.
 Larraun guziko amasei Apez,
 errikoa bat gainera,
 gero pilota dutela eta,
 ez dira arloan atzera.

Elizan sartu; illobietan
 usaika da argizagia.
 Obi-gain oro dan ool-itxeak
 iduri du erlauntzia.
 Aren barnean dan argi-oolak
 eztiaren orrazia;
 erlategi bat zin izateko,
 bakarrik palta an eztia.

Erleak asi dira, beltx beltxik,
 billatuz beren tegia.
 Apaizek, *Pater noster*-ka sortu
 erle-furrunda bizia.
 Goizean Mezan eskaiñi ziten
 oituraz zor dan ogia;
 orain zortziko txanpona bota,
Pater bakoitzen saria.

Artean, gizon-saillak bereela
 bukatu du legez dana:
 estolari mun, bikoia bota,
 erreza "Aitagure" bana,
 Eliz-atea billatu dute,
 —ez nekatu nai belauna—.
 Atsoek are, mun eta diru,
 luzeago dute lana.

Ateratzean Josepe Motz'ek,
 —sakristau izana baitzen—
 begi-zearka *Pater*-zaleai
 gaiztoz die begiratzen.
 «Or ari dituk, dio kanpoan,
Pater noster lardaskatzen.
 Olako otoitzik ez diat uste
 Jainkoak dunik onartzen».

«Testamenta nik garbi ipiñiko,
 aberasten naizenean;
 erresponentsurik ez dezatela
 bota nere eriotzean.
 Mezetarako bitez guziak.
 Mezerdi-itzak esatean,
 zintzoak dituk; gure Jauna an duk
 batean aña bestean».

Errekalde'ko illobia zan
 umez zegoen erlea:
 ara zan biltzen, ara zabaltzen
 andre ezpain-eragillea...
 Furrunda aundia moteldua da,
 isildua apaiz-jendea.
 Pilotarako presaka dabil,
 laburra baita atsaldea.

Apez gizaiso Iribaskoa
 geldi da erle bakarra.
 Aren otoitzaz batean il da
 argi-oolen azken-garra.
 Gizonek ere xurga nai dute
 ilkizunaren ondarra.
 Aiek plazatik irteterako,
 gainean illun-abarra.



APEZEN PILOTA JOKUA

Aldatz, Errazkin, Albisu, Uitz, Astitz, Arruitz, Madotz, Alli: leenengo lauen apezek, beste lautakoen apezeri. Iruk iruri joka diteke; baita bostek ere bosti. Ontan apezak adiñekorik Naparroan ez da, naski.

Non sortua dan esaten lan da Erromarrek zuten *pila*. Norbait gure au *paume royal* dik dala, zabaltzen dabilla. Itzak arrotzak ditugula, bai; baiña, ontaz zer-nai dedilla, guzien gaindik euskalduna da *pelote basque* en abilla.

Europar, Txinan, Ameriketan, munduaren zabalean, gure mutillak ezaunak dira gerri-biguintasunean. Eunka, berreunka, pilotarekin dabilta bizi-bidean. Joku eder au besteren bada, nausi gu besterenean.

Ilkizunetan, gazte giñala, egun guzian onen zai: ikuskarririk, gauza atsegiñik, jairik balin bada, au da jai. Beso biguinez, begi zorrotzez, apeza adin ez iñor gai. Gizonak plazan ertzetan daude noiz asiko diran erpai.

Astitz eta Alli, alde batetik sar dirade eskas tartean; Aldatz, Albisu beste sailletik; gaineraoak ertzean. Eskuan larru-zorroa sartu, lotu esku-muturrean itzul-iraulkan: andreek alaxe ari naasia biltzean.

Lau apez jarri dira gaineko, *on* ala *zul* esateko. Amabi gizon jantzi beltzekin ba dira aski itzal eiteko. Mutur batean botarria da sakean bote egiteko; bi saietsetan bi zizku ditu, pilotak an gordetzeko.

Aitorle Jaunek ez dute ziñik egin: aski da apez-itza. Elkar ederki artuko dute, besteek beste baderitza. Galtzadun utsek Gurutz aurrean eman oi zuten zin-itza. Nausi zedilla begi zorrotza, beso ta gerri zumitza.

Etxarri'k leenik bota du, goitik; erdikoek ezin eldu; Alli'k erantzun goitik aidean; botean Uitz'i'k galdu. Sei jokutara leenen-kintzea merke samar dute saldu. Erdin daudenak an on dabilta, pilota noiz arrapatu.



Ertzetakoen keiñu-aldiri,
lepo-begiak biurkoi;
zakurrak ala ogi-puskari
erne erne begiratu oi.
Onetan, Alli'k bee samarretik,
bote okerra arturik doi,
Aldatz'ek gutxiz ez du gelditu:
ez da leen bezain luzakoi.

Uste ez dun arren, —zaarren ustea—
kakotzen asi gorputza;
irurogeitik gora doa, ta
leen ainbat nai luke luza.
Inguruetan ordura arteo
ez zitzaion iñor gauza;
orain Astitz'en nagusia du:
gazteek aurrera bultza.

Buru-gaiñetik ez da luzaro
bi aldetara pilota;
laister Astitz'ek geldirazi du,
eskas-inguruan jo-ta.
Ba zirudien katagorri bat
intxaur-gaiñean igota,
beso batetik zintzilik, eta
oiñak ezin iñon bota.

Gogoan daukat, bi aizkolarik
zugatza lurrera nai ta,
goi-galdorrean ikus zutela
katagorri bat jarrita.
Jetsi nai ez ta, urren intxaurra
ezin iritxi jauzita:
balankaldi bat bide ba zegon
biak ondotik neurtu-ta.

Alderditu da zugatza eta
lurrera asi da geldiro;
intxaur-adarrrik urbillenera
salto egin du biziro...
Astitz onela pilotagana
bidera atera neurkiro.
Eskuetara derakarrela
norbaitek asmatu liro.

Artan, Albisu lurrean luza,
—igerilariak ala—
Ez du gelditu, bote biurriz.
Zutitu da bereala,
gaiñetik jausi-ta, katagorri
intxaur-zalea bezala.
Juez Jauneri eskua jaso,
eskasa erre duala.

Marmari gutxi, artean; baiña
orduana isil-aldia.
Dudako baitzen, ez jakin nora
eroriko dan auzia.
Eskas aretan dago begira
Errazkin begi-argia;
ark geienetan, bere aldera
iraultzen erabakia.

Gorputza luze, besoa zaintsu,
igar aurpegi, sudurra;
karta-jokuan etzun ikasi,
ez zekin zer zan gezurra;
makar aundirik etzun gizona,
jan-edanean txit xuurra...
grña bat zizun, alarik ere:
eskupeta ta zakurra.



Udazkenean, argia baiño
 ordu betez leen zun Meza,
 esku-ikusitzat basoillo, oillagor,
 usorik atxi baleza.
 Egunik utsik ez, eta alaare
 berak bazkaria geza...
 Artu liteke lurrean, ainbat
 aitzaki duen apezka.

Zer begi-zizta! Berreun oiñera
 poxpolo bat irazeki
 tiroz buruan jota; besteaz,
 berbertan joaz, itzali.
 Basurdeari begiak itsu
 bala alderenduz bateti:
 alako begik, botea non zun
 pilotak, bear ikusi.

Beste Jueza Mugiro dugu:
 garbi-garbi ikus ez omen,
 baiñan arraia pasa bezala
 iduri zaiola, aitortzen.
 Bote-lekura jun dira biak.
 Errazkiñ'ek adirazten,
 arraian dagon belar-izpia
 ikus dula dardaraten.

Ortaz pilota erori baita
 zut ez baiño oker-antzean,
 kintze Astitz'ek egiña dula
 diote bien artean.
 Sake erretoak lekuz aldatu,
 erdikoak barrenean.
 Alako pranko egin dezake
 Astitz'koak atsaldean.

Aurrera ari da, egan doala
 pilota, geldi ta geldi;
 zirauna bezain biguin besoa,
 sugea ainbat biguin gerri.
 Bost joku egin ark lagunekin;
 Aldatz'en aldekoek bi.
 Usu partida bukatua da;
 etxera aldegiñen andi.

Xaldi gaiñean Baraibar'koa,
 —aurrera baitzoan urtez—
 etxera asi da. Esku zabala,
 dirudik ark ezertan ez.
 Meza a'ri denek lagundu nai ta
 gelbiltzan ito-bearrez:
 amar sos eman zizkidan bein, ta,
 ez ni etxera negarrez.

Etxean, berriz, atsekabea,
 dirua ostu nuela.
 Orduan negar. Emanu nunik
 ez adirazi bereela.
 Luzaro bage siñetsi zuten
 ark emana zitekela.
 Oinbeste bage itzuliko zan
 Baraibarraa aren sakela.

Aren xaldiak topa baleza
 gizaki xarpil-jantzirik,
 eskale zala oartu eta,
 aren parean geldirik.
 Ala zedukan gizagaisoak
 aspaldi erakutsirik.
 Apezka, azkenik, itsutu zan. Bai
 aal du zeruan argirik!



Astitz'ek egin tu sei jokuak;
 besteak bitan gelditu.
 Illunabarra gaiñera zaic;
 egun on dute pasatu.
 Baita besteri atsegin eman,
 pilotan bizkor jokatu.
 Partida, guziz eder deitzeko,
 oiko gauza bat palta du.

Meza Nagusi ondoan asiz,
 etortzen zaie eguerdia;
 —ikuskarri au ongi ikusteko,
 geienezan eguzkia—.
 Geroenezan ezkillak jo du;
 jokua betan geldia:
 eskua jaso, txapela arrotu,
 denek lurrera begia.

Lasta-illaren azken-aldera
 pagadietan usoak
 ikaraturik, ezkur-jatetik
 arrotzen ditute egoak.
 Egaldi aundi bat egin eta
 billatzen berriro ostoak:
 era berean ikusi ditut
 nik begiraile zintzoak.

Jaunaren Itzak jauzi egin zun,
 aragia artuz, mundura;
 gure gizon ook otoitzarekin
 egaz ein dute zerura.
 Eztarri legun batek aurretik,
 —apeza an bada, ark oitura—
Angelus esan, besteek erantzun;
 mintzo ark aizeak urra.

Batak aldegin, besteek aldegin,
 ba dator illun-abarra.
 Gero ezkillak *Angelus*-ekin
 il gaisoen deadarra.
 Errekalde-etxeen, urte osoan,
 malko bageko negarra.
 Urren asteen Pestaburu da:
 moztu du urteak adarra...

AZKENA

Bertsolariak oitura baitu
 esaten urtegarrena,
 bertsu-lan onok jakin, zer urtez
 eman diodan azkena:
 Kristo jaiorik emeretzireun
 ogei ta amalaugarrena...
 Ederrik badu, Arena du, ta
 txarrik badu, neronena.

Doxa Theo